


Jose Maria Etxaburu

# Ondarroa'ko kontuak



9329  
GAS-128/84



# Ondarroa'ko kontuak

---

Auspoa Liburutegia  
226

---

**SENDOA ARGITALDARIA**

Ugaldetxo auzoa

Tels. (943) 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax (943) 49 35 48

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

**Jose Maria Etxaburu**

---

# Ondarroa'ko kontuak

---

Auspoa Liburutegia  
(1995)

© SENDOA ARGITALDARIA

Fotokonposaketa eta inprimaketa: ITXAROPENA, S.A., Zarautz

ISBN: 84-89080-17-8

Legezko Gordailu: S.S. 286/95

## Aurreko itza

**I**DATZI nai ta zer gairi ekin ez nekian baten, neure ume denporako eskolai buruz idaztea bururatu jatan. Eta iru-lau orri idatzita gaia agortu jatanean, neu tarteko izan nintzan eresi talde edo *musika banda*'ren balio gitxiko kontuak azalduaz jarraitu neban.

Baiña ori eginda be, orri areik, eurak bakarrik, baliorik ez ebela-ta, erriko barri geiago emonaz Ondarroa'ko kondaira itxurako zerbait egitea erabagi neban.

Ba-da Ondarroa'n, lan au ondo egiteko gauza dan gizona: Zubikarai'tar Augustin. Len be gure erriko albista zar jakingarri asko argitara emon ditu berak; ta Jaungoikoak urte batzutan bizia luzatzen ba'dautso, ondo idatzia izango da Ondarroa'ko kondairea. Berak, Zubikarai'k, orretarako daben gaitazunez gaiñera, zabal-en-zabal daukaz kondaira iturri dira tokietako atea.

Guk, ostera, gaitasun gitxi euki ta, orretxegaitik batez be, arpegirik ez kondaira iturrietan atea joteko; ta, iñoiz jo dogunean, atea apur bat iragi ta nor garan ikusi orduko, aguro itxi dauskue.

Olan, ba, nik egin dodan idazlan au ezin artu daiteke kondaira liburutzat. Ba-daukaz, bai, kondaira liburuetan sartu bear izango litzakezan naiko barri; baiña baita sartu bear ez litzakezan txikikeriak be. Batzutan, Ondarroa'ko

kontu liburua baiño, nire inguruko kontu liburua geiago dala esango neuke.

Dana dala, bestetarako ez bada be, nire beste idazlanakaz batera, euskereanganako izan dodan maitetasunaren agergarri izango da.

Ondarrabia, 1978'garren urtea.

*Etxaburu'tar Jose Mari*



---

## Nire ume denporako eskolak

**M**AIXU bi ta maistra bi ziran Erriko Eskolak deitzen geuntsanetan. Orrezaz gaiñera, mojak, lekaimeak egozan, Kurutzetako Alabak, edo erderaz esanda *Hijas de la Cruz*'ekoak. Oneik euren komentuko iru-lau aretotan irakasten eben. Ta komentutik kanpora be irakasten eben, Parbuluak deitzen geuntsan eskoletan. Komentuko eskoletan illean iru laurleko ordaintzen zan. Euretan dirudunen edo ondo egozanen mutil txikiak be ibiltzen ziran urte bi inguruan, ikastolan asten ziranean. Baiña geienez nesken ikastolea zan. Oneik umetan sartu ta ikastolea lagaten eben arte ibiltzen ziran bertan.

Besteok, ezer ordaindu barik ibilli nai genduanok, erriko geienok, Parbulutan asten giñan, lau urtegaz-edo, neska ta mutill. Parbuluak, orain *Bar Guria* dagoan tokian ziran.

Neu be antxe asi nintzan. Lenengo urtea Bentura *Neska Zarra* izenez ezagutzen zanagaz. Atze bako olezko aulki luzeak egozan, eta arratsaldetan lo egin bear izaten genduan nai ta nai ez. Lurrean jarri (jezarri) ta, besoak eta burua aulki gaiñean genduzala, an egoten giñan lo edo esna, beintzat begiak itxita. Egon bear! Iñor begi zabalik ikusten ba'eban, arek egiten zituan didarrakaz laster itxi bear izaten genduzan.

Kartillea zan ango ikastea; au da: a, e, i, o, u... Ta zerbait errezatzen be bai, kontixu.

An urtebete eginda, lekaimeakana igaroten giñan. Areto andia zan eta bertan bi ziran irakasleak, lekaime bi; ta urte bat edo bi egiten genduzan, geure urteak noiz egiten genduzan kontuan artuta-edo. Beintzat nik bi egin nituan, eta nik baiño illa batzuk zarrago ziran lagunak ni baiño urtebete aurrerago ibilli ziran. Lekaimeen parbuluak eskola aretan be neska ta mutil ibiltzen giñan, sailletan berezita.

Bigarren urtea asi zanean, zartxoago ziranak-edo, beste eskoletara aldatu ziran. Neskak, erriko eskolara, maistrakana; eta mutillak, bertan Parbuluetan egoan beste areto bate-ra, Sor Maxima'nera.

Uste dot, illabete zarragoa izan ba'nintz, neuk be aldatu bearra izango nebala. Ikastaroa, orduan be gure erriko jai ondoren asiko zan, Iraill erdi inguruan; eta nik ill onen 23'an urteak egiten ditut, ta beste ikastolara igarotzeko bear zan urterik ez ta an gelditu nintzan. Bertan gelditu ziranen artean zartxoenetakoa be ba-nintzan eta lenen ipiñi ninduen; lenengo bankuan, lenen.

Baiña an urrean ziran batzuk, aurreratu naiak eraginda, polita asmau eben; zera: aregaitik edo onegaitik eskola barik geratzen zana atzeratzea toki bat edo beste. Ta, alan, batzutan lenen eta urrengoan bigarren edo irugarren genbiltzala amaitu zan urtea.

Urrengo urtean, Sor Maxima'nekoa esaten jakonera aldatu giñan. Ta an be lenen ipiñi ninduan, lekaimeak alkarrei esanda ziur. Neu lenen, Zubikarai'tar Augustin bigarren eta Bastarretxea'tar Andoni —Don Andoni abadea orain— irugarren.

Sor Maxima Sor Amalia'nera aldatu eben eta gugana lekaime barria etorri zan: Sor Dolores. Emen ez zan izan alkarrei tokia kentzerik. Ementxe nenbillela egin neban lenengo jaunartzea. Baiña lenengo jaunartzeari edo, orduan esaten genduan lez, komuniño txikiari, ez jakon anditasunik emoten. Zelan autortu bear giñan eta Jauna artu zelan egin bear zan zerbait irakatsiko euskuen, eta betiko jantziakaz jantzirik joaten giñan. Eskola aretan, multiplikarra ikastera eldu giñan aurrerengoak.

Urrengo urtean, Parbuluetako ikastola nagusienera joan bear zan eta alan joan giñan, Sor Luzia'nera. Ni beti bildurtia izan naz, eta aurrerago an ibillitakoai entzundakoagaz bildurtuta nengoan bertara joateko. Ta amagaz joan nintzan lenengo egunean. Ta lekaimearen orduko erantzuna zelan izan zan, amari sarritan entzunda buruan geratu jatan. Zera:

— Umia ona, moja ona; umia gaiztoa, moja gaiztoa — esan ei eban.

An be, aurreko ikastolan lez ipiñi ginduzan: neu lenen, Zubikarai bigarren eta Andoni irugarren. Eskola aretan, iñoiz besteai dotriñea irakasten ipiñi ninduan Sor Luzia'k, jarrileku andi baten, goi-goian. Gitxi ekienai izango zan, kontixu.

Baiña urtea amaitu baiño len, tokiz aldatu ginduzan lenengo irurok. Zubikarai lenen, Andoni bigarren eta ni irugarren. Ez naz gomutaten orduko nire jokabidea gorabera onezaz. Ez nintzan pozik geratuko!

Ikastola aretan dibidirrera eldu giñan. Dezimaldunak eta danak errez egiten genduzan. Ta ia urtea amaitu zanean, Zubikarai aurrera igaro eban irakasleak; au da, bera bakarrik problemetan ipiñi eban. Danok dakigu lenengo problemak zelakoak izaten diran: "Osabak laurleko bat emon daust eta ixikok bi. Zenbat laurleko daukadaz?". Eta olakoak. Ta an egoten giñan aren problemak irakurten, begiak urten bearrean, batez be Andoni ta biok. Gu biok dibidirrak, danik andienak izanda be, Aitiaren Semiaren egin orduko ataraten genduzan, eta an ez geunkan geiago aurrera egiterik. Baiña mojiak ez eban nai, kontixu, lan barrian askogaz asterik.

Orduantxe egin genduan jaunartze nagusia, zortzi urte ingurugaz. Baiña onezaz ez noa emen ezer esatera, argitaratuta ikusi nai neuken *Neure idazlan bilduma* izeneko idaztian idatzita daukat eta.

Jaunartze nagusia egin genduan ikastaroa amaitu ta urrengoaren asieran, Parbuluak laga ta maixunera aldatu ginduezan. Uste dot orduantxe bederatzi urte egiteko egongo nintzala.

Orduan, zortzi-bederatzi urtetik gorako mutil guztientzat, ikastola bi egozan Ondarroa'n: bat, Leibar maixu zala; ta bestea, Don Bizente. A euskalduna ta au erdalduna; baiña ondarrutar bategaz, maistra bategaz, ezkonduta. Eskola biak Elixope gainean egozan; udaletxe zarraren beian bat, eta bestea gainean.

Ni Leibar'enean sartu ninduen. Leibar gizon ospetsua zan Ondarroa'n, erakunde bat. Maixutzako azken urteetan, naikoa urtetsua zala, diru etxe edo banku bat ipiñi eben Ondarroa'n, lenengo dirua etxea: *Banco de Vizcaya*. Eta bertako zuzendari ipiñi eben, orduan orretarako bear zan eskolarik ekian beste gizonik egon be ez egoan-da gure errian. Alan be, lenengoan ez dot uste ikastolea itxi ebanik.

Omen bi egin jakozan Leibar'eri. Bat, *Kofradia Barria* izena emon jakon arrantzaleen kofradiaren askunde egunean izan zala uste dot, 1922'garren urtean. Eta bestea geroago.

Ainbeste mutillei bakarrik ezin irakatsi, ta txikiago giñanok zarragoa zan mutilen bat eukiten genduan zaindari edo irakasle lez ikastolako ordu batzutan. Onetako bat, ez naz gomutaten beragaz, eskuan eukan zigor edo zerbaitegaz gu jo naian egoten zan, eta orretarako utsen bat egin bear zan, eta polito konpontzen zan gu joteko. Guretako bat barre eragille ona zan eta, guri barrea atarateko, tximiñokeriak egiten a ipinten eban; eta naikoa zan guk irri apur bat egitea, zartada bat emoteko maixu egiten eban arek.

Gu bere ikastolara joan eta laster, laga egin eban ikastolea Leibar'ek. Lotsa andiko gizona zan, naikoa gogorra batzutan, esaten dabenez. Gizon andi ederra zan, orduan bere bizar zuriagaz. Irurogetak urte izango zituan gu bere ikastolan sartu giñanean.

Egun baten, paper andi bana emon euskun ikastolako guztiai, berak esaten ebana ondo ta garbi idazteko aginduaz. An gengozan eskutan idazkortza genduala prest, zer entzungo. Ta asi zan:

*Soldado soy de España  
y estoy en el cuartel  
contento y orgulloso  
de haber entrado en él.*

Ta ainbat abesti idatzi genduzan: *Salve, bandera de mi patria* ta abar. *Fiesta del Arbol* izatekoa zan eta ordurako ikasi bear genduzan abestiak. Ez dakit arratsalde aretan amaitu genduan abestiak idazte lana ala urrengoan. Beintzat abesti asko ziran.

Ta asi giñan abestiak ikasten. Orretarako, *Cine Celaya*'ra eroaten ginduezan, musika bandako zuzendari zan Izeta'gana. Eta onek pianoa joaz ikasten genduan.

Izeta jenio bizikoa zan, arin asarratzen zana edo asarratu itxura arin egiten ebana, irakatsi bear eutsen umeen aurrean. Birau txiki bat edo beste be laster jaurtiten eban. Elgoibartarra zan jaiotzez, eta berak umeai gogor egitean geien erabilten eban berbea, "Piguria kenduko'izut!" izaten zan. Eta iru edo lau bidar joan zinera beragana ta ikasi genduzan abestiak.

Guri abestiak idatzi eragin da laster, laga egin eban ikastolea Leibar maixuak, eta orde z gazte bat etorri jakun, erdal-duna. Ogetabi urte ingurukoa zan. Zistriña ta makal antzekoa; baiña zigorra, erreglea-edo, ederto erabilten eban guri buruak berotzeko. Erregla antzeko aregaz ume askori buruan kozkor galantak atara eutsezan. Neuri be bai. Egun batzutan, barruan zorne edo pusa naikoa nebala, buruan kozkor andia euki neban. Orregaitik, *Kozkor* ezizena ipiñi geuntsan.

Zugaitz-jai eguna urreratzen etorren. Baten, maixuak Antzubija (*Torre Arancibia*) aldera eroan ginduzan ikastolako mutillak, ikurriñak egiteko makilla billa. Ta an ibilli giñan mendian, bide zabaletik urrean gora ta bera; ta pillo bat makilla ebagi ta eroan genduan ikastolara. Gero, beste egun baten, paper ori ta gorriak eta ingrudua emon euskuzan, eta ikastolan bertan ikurrin pilloa egin genduan.

Baiña eguna urreratzen joan eta kontuak ziran gurean! "Umearen zentzuna etxean entzuna" esaten dau esakera zar batek, eta gure ikurriña a ez zana ba-nekian. Ta ez neban nai joan zugaitz-jai aretara. Baiña ez zan erreza ori orduko politika giroan, orduantxe Primo de Rivera'ren agintea jarrita egoan da. Ni ez ninduan jarri iñok orretara, ez etxeakoak eta ez kalekoak. Neure burutik urtendakoa zan. Aitak bildur

apurra ba-eukan; ori egiñaz okerren bat etorri eikigun bildur zan. Amak, barriz, neuk nai nebana egiteko esan eustan. Ta asmau genduan ez joateko bidea. Egun batzuk lenago, ikastola a laga ta gure etxearen gaiñean egoan Doña Benina'ren ikastolan sartu nintzan. Ikastola a Ipar-kaleko 12'garren zenbakian egoan, bigarren bizitzan; gu lenengoan eta, len esan dodan lez, gure goian ikastolea. Udan geitxuago, baiña udatik kanpora, neska ta mutil, amar-amabi lagun ibiltan ziran bertan, illean iru laurleko ordainduaz.

Maistrea neskazarra zan, eta beragaz batera bizi zan aiztea be bai.

Udan, bakazio denporetan, urtero ikastola aretara bialtzen ninduan amak, kalean ibilteko andik urtendakoan be naikoa denpora ba-genduala ta. Guri ez euskun dirurik artzen; ordez, mandatuak egiten geuntsazan, nik eta an ondoan bizi giñanok.

Orduan, udaz kanpo bertara ikastolara joatea arritu egin zan, batez be laster Zugaitz-jaija zala jakiñik. Ea erriko ikastoletan izateko ziran jai ederrak lagata ara zelan niñoiari esan euskun. Ez dakit amak zer erantzun eutsan; egiarik ez beintzat. Ta asi nintzan.

Zugaitz-jaija ospatu zan egunean ez neban etxetik urten, jaira ez nintzala joan iñor konturatu ez eitean.

Ia urte bi egin nituan ikastola aretan. Ta ez neban ezer-ezer ikasi. Danak ziran nik baiño gitxiago ekienak, eta nigaz denporarik igaroteko ez egoan. Problematxu bat bizarran (pizarran) ipinten eustan, eta miñutu bat baiño len ataraten neban; ta geroago, astirik ba'eukan, besteren bat ipiñiko eustan.

Reglatxu bat be ez eustan irakatsi. Baiña lenengoan bazan beste mutil bat, Urkiza'tar Luis, neure adiñekoa; ta, ni an sartu nintzanerako, ba-ekian arek *regla de tres* egiten. Ta berari begira neuk be ikasi neban. Baiña beti *simple directa* izaten zala uste dot. Orixe izan zan nire ango ikaste guztia.

Ta baten asarre andia izan neban beragaz, maistriagaz; esaten dot *Neure idazlan bilduman* zegaitik izan zan. Ta barriro erriko eskolara joan nintzan ill batzutan. Gero, lanera.

Nik amar urte inguru neukazan arte, norbere libururik ez zan izaten. Bai mojetan eta bai erriko eskoletan, berta-koak izaten ziran liburuak, eta orregaitik ez ziran etxera ero-aten; ez eben lagaten ori egiten. Gureak, austen ziran biza-rrak izaten ziran; eta, areaz gain, puntero ta pluma; ta, oneik gorde ta geugaz erabilteko, lepotik albora dindilizka, sakotxua. Nik, amak egindako maunezkoa neukan. Baiña Dona Benina'nera aldatu baiño len, *Grado Medio* izena eben liburuak etorri ziran ikastolara, ta bakotxari bana emon euskun maixuak. Ordaintzen ebanak berea izango eban; eta ordaintzen ez ebanak, ikastolea lagaten ebanean, laga egin bearko eban. Gure amak ez eban nai izan liburu a ordain-tzerik, eta ez zan nirea. Baiña neurea bailitzan nerabillen, neure zorrotxuan sartuta, etxera ta danera.

Geroago, len esan dodan lez, ez neban laga nigaz nerabi-llen liburuia, Dona Benina'nera joan nintzanean. Ta alantxe urtebete inguruan. Baiña gero *Kozkor* joan eta aren orde z Basterra gasteiztarra etorri zan maixu —Ondarroa'n lenen-goia buru utsik; txapela besapean erabilten eban—; eta ikas-tolako arazoak garbitu naian-edo asiko zan nunbait, eta neurea ez zan liburuia neugaz eroan nebala esango eutsen kontixu mutillak, eta biurtzeko agindua artu neban. Eta alantxe, ikastolako mutillakaz bialdu neutsan neure izena ipiñita eukan liburuia, pena galantaz.

Geroago, Dona Benina'netik asarratuta urten nebanean, barriro lengo ikastolara, ta artu neban osteria be lengo liburuia.

Baiña denpora gitxi egin neban Basterra'gaz. Lanean asi nintzan amabi urtegaz Bartolomeo Scola italiarraren arrain lantegian, fabrikan. Jaun au nire amaren lengusiña Bitoria Basaguren Etxaburu'gaz ezkondata egoan. Bere lantegian lan egingo nebala anditzean beti esaten eustan; eta, amabi urtera eldu nintzanean, oraindik guk olako usterik ez geunkala, deitu egin eustan eta asi egin nintzan lanean. Orduan, gaztea nintzala-ta-edo, atzera egin ba'neu, gero itxasora joan bearko neban. Eta ori iñundik iñora ez eban nai gure amak.

Liburuagaz gelditu nintzan lanean asi nintzanean, eta betiko gaiñera, ez eusten eskatu ta. Ta, beti eskutan erabil-ten, an apurtu zan ordutik urte batzutara.

Lanean asi ta laster, Basterra maixuak neure amari deitu eutsan, eta a ostatur e egoan etxera joan zan, ain zuzen amaren lengusiña baten etxera, Garate serenuarenera, an egoan ostatur Basterra maixua ta. Ni eskola asko ikasteko gauza ei nintzan, ta tamala zala ain gazte ikastolea laga bearra. Ta bere aldetik, ni egunero ordubetean ikastolara joan al izateko baimena lantegi jaubeari eskatze-ko esan eutsan gure amari. Ta amak, nagusiari baimen ori eskatuta, lortu be egin eban. Baiña nik iñundik be ez neban nai lanetik ikastolara joan eta etorri ibilterik, eta ez nintzan joan.

Gero, neguko gabeko eskoletara joaten asi nintzan, baiña zaletasun andi barik. Batetik, umeak giñan; eta, bes-tetik, eskola geiago ikasteak balio gitxi eukan orduko Ondarroa'n. Jakiña, eskola geiago jakitea danoi atsegín jakuna da, eta zan orduan be. Baiña orregaz ogia errezagó irabaziko genduan ustean ez.

Amazortzi urte arte ibilli nintzan gabeko eskolan, lau maixukaz. Beragaz, Basterra'gaz be bai. Ez dakit nire jokabi-deak pozik eukan aña ez. Ezetza ziurrago. Baten, beste iñok ez eta problema bat atara neban eta eroan neutsan.

— *¡Ya era hora de que hicieras algo!* —esan eustan.

Zarrago-ta geitu egin jatan eskolea ikasteko zaletasuna. Baiña an ez egoan ezer ikasterik. Edozein umeri lez, bana-ka zerbait irakurri eragiten euskun, zortzi urte orduko eurak maixuak bestean irakurten ikasita gengozanoi. Gero, edonundik apur bat idatzi eragin; eta azkenean tableroan pillo bateri problemea ipiñi ta danon artean atara. Baten polita jazo jakun. Ezin izan genduan atara ipiñi euskun problemea. Orduan bera maixua asi zan atara naian. Baiña irakurri ta irakurri arren, berak be ez eban atara. Ta urrengo egunetan an ibilli zan, jazo jakonaren aitzakia ezin billatuta.

Esan dodan lez, nai neban, baiña ez neukan ezer ikaste-rik. Regla batik ez eusten irakatsi, ikastolan egin nituan urte guztietan, ez umea nintzanean eta ez mutil gaztea nintzane-an. Aritmetika ikasten etxean asi nintzan, eta alantxe ikasi nituan regla batzuk.



Azkenengo urte bietan polita jazo jatan. Don Maximiano Armendariz zan maixua, napar erdalduna. Gabeko ikastolako maixu bakotxarentzat berrogei mutil izan eitekezan. Andik gora ez. Ta, eskolak astean, ia berrogei mutil asten giñan. Baiña bereala egunetik egunera gitxiago etorten ziran. Ikastaroa irailletik epail erdi ingururaino izaten zan. Ta, ikastaroa amaitzeko oraindik illabete baiño geiago palta zala, neu bakarrik joaten nintzan ikastolara. Ta maixuak, ori ikusirik, tamala zala, baiña lagun bakar bategaitik ezin eitekeala eskolarik emon, eta amaitu egin zan eskolea. Urrengo urtean be bardin-bardin: neu bakarrik eskolara, ta amaiera emon bear.

Ori ikusirik, geiago eskolako asmorik ez artzea erabagi neban, eta alantxe amaitu ziran nire eskolak. Umetako dotriña azterketaz kanpora, beste azterketarik ez dot egin.

Gero, emen gudea zala ta Bidasoa andiko aldera joan nintzanean, an piñuetan egin neban urtea kenduta, beste urte bian edozetarako geunkan astia; ta, Itxaso'n egon giñanean, zerbait ikasten alegindu nintzan. *Etchedoya* gure abaro etxean eskola apur bat be emon zan, eta kontabilidade apur-apur bat ikasi neban, Irun'go Orbegozo'tar Benito'k emonda. Ta gero neuk, maixu barik, gramatika zer edo zer ikasi neban. Ordurarte artikulua zer zan ez nekian; au da, gramatkarik ez euskuen irakatsi, ezta aitatu be, ni ibilli nintzan eskoletan. Nik ez dakit zelan, baiña esaldi au buruz artu neban: "*Gramática es el arte de hablar correctamente la lengua*".

Eskola kontuak esateari laga baiño len, gure denporan ain asko egin eta entzuten zan eskolara ez joateaz zerbait esan bear dot. Egite oneri izen asko emoten jakoz: "piper egin" eta olakoak. Baiña ondarrutarrez "eskola kiesik egin" (eskola igesik egin) esaten genduan.

"Kiesik" berbea erdizka ulertuta, gero gazteak, edonora uts egiten ba'eben, olantxe esaten eben. Iñoiz, gure arrain lantegian, filete denporan, arratsaldean lanera barik geratu ta Mutriku'ra-edo oiñez joan eta etorriaz ibilten ziran neska gazteak be orixe esaten eben: "kiesik" egin ebela; fabrika "kiesik" egin ebela.

Len esan dodan lez, gure ume denporan eskola igesik asko egiten zan Ondarroa'n; eta orren aurka lanik ez zan egiten. Zortzi-bederatzi urtetik gorako erriko mutil guztientzat eskola bi ziran; maixu bi. Ta batzuk uts emon arren, ba-  
euken maixuak naikoa mutil eskoletan. Gurasoen goraberea zan zer ikusi geiago eukana kontu onetan: ardurea izan edo ez izan, euren semeak eskolara joaten ba'ziran edo ez ba'ziran joaten. Etxean ardura andirik ez ebenen semeak, edonoiz igesik egiten eben. Nire lagun batek be sarri. Burgoa'tar Esteban zan lagun ori.

Arratsalde baten, neuri be eragin eustan. Orain arrastero ta gaiñerako itxasontzi andiz beteten dan kaia, dikia, orduan, len belaz eta arraunez erabilten ziran txalopa andi ta treñeru zarrez beteta egoten zan. Antxe egoten ziran, makiñadunak asi ezkeru ezetarako ez zirala geratutako itxasontzi zarrak. Ta baita antxobatean bakarrik itxasorazten ziran zortzi zaldi inguruko gasoliñezko motorrak be. Txalopa andiak ez beste guztiak, an egozanak, kubierta bakoak izaten ziran; eta, euria egin ezkeru, ura artzen eben barruan.

Len esan dodan arratsaldean, eurena zan treñeru zar bat liortu edo sikatzera joan bear giñala bururatu jakon. Usteltzen egoan itxasontzi zar arek liortu bear andirik ez eban. Baiña atxakia bear ni beragaz eroateko. Ta joan giñan. Gogotsu ekin geuntsan ura atarateari. Ta, lana eginda geunkala, mojetako txiliñak joten asi ziran. Eskolarako deia izaten zan; ordubateterdiak. Beraz, joan geintekazan eskolara, ta alan esan neutsan lagunari. Baiña arek ez eukan eskolarako gogorik. Eskolarako ustea edo gogoa izan ba'leu, ez giñan ainbeste bidean joango ordu aretan. Eta ezetz erantzun eustan; ez giñala joan bear eskolara. Ta gogo barik, baiña amure emon neutsan.

Neure bizi guztian, edo neure eskola denporan, lenengo ta azkenengo eskola igesa izan zan. Neuk be ausarditsu itxurea egin nai neban, eta ezeren kezka barik lasai nengoa-la esan neutsan geroago. Ta irurak inguruan, an egoten aspertuta, errian sartu giñan.

Negua zan, baforak —lurrunontziak— besigutan ibilten ziran aldia, ta egun aretan be joan ziran; eta berdura plaza

edo azoka enparantzara joan giñan. Arrantzaleak, etxera eroaten eben arrain apurretik, zerbait saltzera eroaten eben: merlenka, kolajo edo besigu edo zana zala. Eta, erosle ta saltzaille, andraz beteta egoten zan. Ta, antxe sartu ta bere-ala, ia amagaz tope egin neban! Sagua katua atzetik dabenean ezkututzen dan lez ezkutau nintzan andra artean, ta iges aguro andik. Joan jatan beste bein eskola igesik egiteko gogoal

## Musika bandia

**M**USIKA taldekoa izandakoa naz ta beraz zerbait esango dot. Amar urte neukazanean, musikea ikasteko gogoa etorri jatan; edo, obeto esan, solfeoa ikasteko. Solfeoa birek irakasten eben orduan Ondarroa'n: elizako organistek bere koruko abeslari tipliai eta Jauregialzo'tar Damian txistulariak. Biak udalak ipiñitakoak ziran. Abots andirik be ez ta abeslari izaterik bein bere ez jatan bururatu. Olan ba txistulariagaz asi nintzan.

Eskolatik amaiketan urteten genduan, eta beriala zan solfeoa goiko eskolan. Ez naz ziur, baiña egunero izaten zala uste dot. Bear bada, larunbatean ez egotea izan eitekean. Damian bizar kentzaillea zan, da egun txarra berantzat. Gorra zan. Ezer jakin eragin nai ba'geuntsan, belarrira didarka berba egin bear jakon. Nik ez dakit gure solfeoa zenbat entzuten eban; gauza andirik ez.

Batzuk urten eta besteak sartu, illa asko baiño len lenen nengoan. Zaletasun andiagaz artu neban solfeo kontua; edozer be bai, ikaste kontua ba'zan. Nire solfeo zaletasunaren agergerri au esango dot, zera: udabarrian antxobeari burua kentzen nengoan lantegitik, fabrikatik urten egiten neban amaiketan solfeora joateko; ta an joaten nintzan, eskuak apur bat garbitu ta neure laneko jantzi zar eta zikiñakaz.

Aregaz, gure denporan beintzat, iñok ez eban solfeo bigarren libururik artu. Gabonak zirala edo udako oporrak zirala edo beste edonoizko egun galtzeak zirala, urrengo astean

atze-atzetik asi eragiten euskun, batez be uda ostean asten giñanean. Nai neban nik bigarren liburura eldu, baiña aregaz alperrik zan. Olan, liburu osoa buruz ikasi neban.

Baiña, len esan dodan lez, naikoa gorra zan eta dana ez eban ondo irakasten. Beintzat, ni Amute'n solfeoa irakasten asi nintzanean, len txarto ikasita neukazala leziño bat baiño geiago konturatu nintzan.

Gero, amalau urtegaz, musika taldean sartu nintzan.

Ondarroa'ko musika taldea noiztik dagoan edo bere asie-rea nola izan zan ez dakit, baiña amaierea noiz izan eban esan neike. 1974'garren urtean amaitu zan. Izeta zuzendaria il zanean, 1960'garren urtean, Ureña erdalduna etorri zan zuzendari; ta gazte barri batzuk sartu ta zerbait gorakada edo gorakada itxurea egin eban musika taldeak. Baiña laster zan beruntz. Azkenengo urteetan zortzi-amar laguneko taldetxoa zan. Len esan dodan urtean, Ureña beste erri batera aldatu zan, eta udalak amaierea emon eutsan, bizitza lotsagarria eroian erriko musika taldeari.

Nik musika taldeagaz daukadan antxiñengo barria, 1880'garren urte inguruan Kofradiako kontulari Iturriza'k bertako arrain eta diru sartu-urtena eta orduko erriko barri-rik garrantzitsuenak emoten idatzitako liburuan arkitzen da. Zera, musika taldeko idazkari —*secretario*-edo— izan bear eban Leibar eskola maixu ospetsuari emondako edo ordaindutako kontua dator, eskuz idatzitako liburu lodi aretan. *Kresala*'n be zerbait aitatzen da.

Musikea zala-ta, ezbear andia jazo zan Ondarroa'n aspaldi. Bearbada jaiota egongo nintzan orduko; baiña, edo-zelan be, nire gomutaz baiño lenagoko kontua da. Sarritan entzun izan neban, nire gazte denporan, zelan eta zegaitik izan zan; baiña orain aztuta daukadaz zertzeladak.

Udea igarotakoan musikea gitxitu egiten eben; edo, beintzat, arrantzaleak atunetea igaro ta erriratuta egozan baten, ez dakit Ama Birjiña Errosarioko egunean-edo, gaztedia asarratu egin zan, udan eurak kanpotik ebilzala geiago joten ebela-ta. Ta upel gaiñean zer edo zelan egindako olezko musika toki edo kioskoa ausi ta olak enparantzatik beko kamiñura jaurtiten asi ei ziran.

An jagi zan zaparradea baretu naian, karabiñeruak joan ei ziran —bat bai beintzat—, eta ari be aurrera egiten ei eutsoen gazteak, karabiñerua eskuetan fusilla eukala egon arren. Ta atzera ta atzera, bere burua inguratuta ikusi ebanean, tirua jaurti. Orduan jendea enparantzatik igesi joan zan; baiña danak ez. Bat antxe beian gaiñean egoala konturatu ziran. Joan ziran beragana ta ilda egoan.

Ori zala-ta, gazte batzuk espetxean egon ziran. Euren artean, gero ain ospetsua ta popularra izan zan Polka be bai. Asarre aretan geien nabarmendu ziranak, amalau-amabost urteko mutillak izan ei ziran.

Nik ezagutu neban musika taldeko lenengo zuzendaria, Ituarte'tar Periko zan, *Periko Melon* desizenez. Orduan Ipar Kale'n bizi giñan, enparantzatik urrean; eta musika joteko toki edo kioskoa etxetik ikusten genduan. Beraz, beti gengozan musika entzuten.

Urrengo zuzendaria Izeta izan zan. Au zuzendari-zuzendaria zan, ortarako ikasia. Au be, nik amar urte euki baiño len etorri zan Ondarroa'ra. Beintzat, Primo de Rivera'ren agintea, ditadurea, baiño len. Ta ditadurea 1923'garren urteko iraillean nagusitu zan. Izeta orduko etorrita egoala esateko errezoi bat aitatuko dot. Batzokian, abertzale Batzokian, sarri pianoa joten egoten zala entzunda nago; ta, Primo de Rivera nagusitu zanean, Ondarroa'ko Batzokia, Euskal Erriko beste Batzoki guztiak lez, itxia izan zan. Beraz, orduko etorrita egon bear Izeta.

1927'garren urtearen amaieran, musika bandia amaitu egin zan. Aloger geiago eskatu eben; baiña Don Zeledonio Arriola alkate zan udalak entzungor egin eutsan musikarien eskabideari, ta laga egin zituen musikak. Talde barria ipinteko asi ziran, eta ikasi nai ebanak izenak emotera joateko esaten pregoia jo eban udalak. 1928'garren urtearen asierea zan. Neuk be izena emon neban, udaletxera joanda. Izeta, musikaria izanaz gaiñera, udaletxeko kontularia zan, eta berak artu eustan izena.

Len musikariak izandakoak lau ziran talde barrirako; eta Izeta, jakiña. Izena emon eben beste barri guztiak gazteak ziran, amabost-amazazpi urtekoak. Nik amalau urte neukazan.

Danai instrumentua emon eutsen, nik baiño solfeo gei-  
go ez jakin arren. Niri ostera beste kartapazioa, bigarrena,  
ikasi bear nebala agindu eustan. Ta, illa bian beragana joan-  
da, 64'garren ikasgaira eldu nintzan. Gero klarinetea emon  
eustan. Baiña nire goiko ezpan txiki ta agin andiakaz boki-  
llea ondo estutzea kostau egiten jatan, eta ez nengoan pozik.  
Gero, a kendu ta saxofoi altua emon eustan.

Talde barria Pazkoetarako moldau nai zan. Udalak alan  
nai eban. Baiña ori ezin eitekean, eta udala lengo musikaria-  
kaz konpondu egin zan. Ta Pazko egunean, lengo ta barria-  
kaz osatutako taldeak urten eban. Barriak iru illabete eroie-  
zan instrumentua joten ikasten, eta nik illabete bakarrik.  
Alan be, Bariku Santu egunean, prozesiñora urteteko nengo-  
an, baiña eguraldi txarragaitik ez zan izan ibilkunderik.

Ostera, Pazko arratsaldean, ez nintzan joan musikea  
jotera, orduan jo bear ziran dantzakoak —baltseokoak—  
ikasi barik nengoan-da. Ta, enparantzan musikea joten ziar-  
duela, ni ondartzan nasai lagunakaz fubolean ibilli nintzan.  
Gero, gaztedi guztia an egoten zan-da, geu bere enparantza-  
ra, musikea entzun eta dantzan ziardunai begira. Ikusi nin-  
duan zuzendariak, baiña jaramonik ez eustan egin. Ez eus-  
tan esan zergaitik joan ez nintzan jotera. Ostera, zuzendari  
ordeko egiten eban Jauregialzo'tar Damian txistulariak,  
urrengo egunean, Pazko bigarreanean, joateko esan eustan;  
eta alantxe, biaramonean joan egin nintzan, eta jo edo jo  
itxurea egin neban. Orduan joan ez ba'nintz, bein be ez nin-  
tzala musikaria izango uste dot.

Beintzat, lengo ta barri, talde andia jarri zan: ogetabost  
lagun inguru. Ta lengoetako bi, istrumenturik ezagaz, jaube  
egin arte kanpoan geratu ziran. Beraz, ogetazazpi ziran.  
Geiagoren bearrik ez eukan Izeta'k, ta udalari be ez jakon  
atsegin izango ainbateri ordaindu bearra.

Nigaz batera, Antonio Perez asi zan. Klarinetea ta saxo-  
foia alkarri aldatu geuntsazan, eta zuzendariak a bein be ez  
eban eroan bandara.

Andik urte gitxira, oraindik ditadura egoala ta Don Zele-  
don Arriola alkate, Izeta'k beretzat diru geiago eskatzea  
asmoa artu eban, eta alan egin. Eta udalak ontzat emon ez

eta itxi egin eban bandea. Bere ordez, Txanbolintxeruak, Jauregialzo'k, bandia zuzendu eban.

Onek, klarinetea ikasi bear nebala esan eustan, eta asi nintzan apur bat ikasten. Baiña geroago ez zan bear. Nik saxofoiagaz jarraitzea premiñazkoago zan, eta lenean jarraitu neban.

Izeta taldea lagata egoala, Don Zeledon'ek alkatetzea laga egin eban, eta Martin Kanpos jarri zan alkate. Kanpos, Izeta'ren emaztearen osaba zan, eta bereala auzia konpondu eban. Entzun nebanez, eskatzen ebana baiño geiago emon eutsoen. Sei milla laurleko urteko. Len lau eukazala uste dot. Urte erdi inguruan egon zan bandia lagata.

Izeta barrurako egin zanean, laga egin eban musika taldea Jauregialzo'k. Zuzendari lez egin eban lana zenbategaz ordaindu bear eutsan udalak egindako itaunari, berak erantzun au emon eutsan:

— Aurrerantzean musika taldean klarinetea jo bearrik ez izatea ta irabazietan bardin jarraitzea.

Udalak ontzat emon eutsan bere eskabidea; ta andik aurrera, txistua jo utsagaz, len txistua ta klarinetea joaz aibat irabazten geratu zan. Orduan, zuzendari ordeko Arrizabalaga'tar Lesmes jarri zan. Jauregialzo'ren kontu au bere seme Jose neure lagunagandik jakin neban.

Guda denporan, bandia amaitu egin zan, musikariak batzuk ara ta besteak ona sakabanatu egin giñalako. Jakiña, danok errian geratu ba'giñan be, musika gitxi joko zan, España guztia alkar ilten ebillen denpora aretan. Gaiñera, Izeta udaleko enpleautzatik be kanpora jaurti egin eben, nai ta errian geratu. Entzutea daukadanez, frankotarren aldeko jazoeraren bat zanean, erri andiren bat artu ebela-edo, ola-koetan, errian geratu ziran iru edo lau musikari zarrak, danak Franco'ren aldekoak, kalera urteten ei eben, pasakallea-ta joten. Baiña Izeta ez zan izaten tarteko.

Gero, guda amaituta, barriro taldea ipintea erabagi eben. Ta musikari zarrak, taldeko zarrenak, len esan dodan legez Franco'ren aldekoak, au da, orduan errian eragipena ebena, Izeta zuzendari ipintearen alde agertu ziran, eta alan



egin eban udalak. Bai, taldeko zuzendari artu eben; baiña ez, len zan lez, udaleko kontulari.

Ni ez nengoan Ondarru'n orduan. Trabajadorietako bata-lloian egongo nintzan ziurren. Ta, erriratu nintzanean be, ez nintzan bereala musika taldeko egin. Ez egoan instrumentu-rik; ez egoan musikarik. Ta sei urtean musikea jo barik egonda, 1942'garren urtean barriro sartu nintzan. Orretara-ko, neuk erosi neban musikea. Seireun laurleko ordaindu neban soiñu edo saxofoi eskax bat.

Musikea jo barik egin nituan sei urteak, olan izan ziran: iru urte Frantzia'n; bat langille batalloian; beste bat Pasaia'n lanean; eta azkenengua Ondarroa'n, musikarik ez neukala.

Izeta'k, zartu ta erretiroa artu arte jarraitu eban taldeko zuzendari. Ez naz gogoratzen zein urtetan il zan.

Bere azkenengo egunean, erriak ba-ekian bandia laga egiten ebana ta jende asko batu zan musika enparantzara ta ingurura. Azkenean, ori zala-ta, jo-aldi bat, pieza bat geiago jo genduan, bera direttore zala, ta amaieran txalo asko jo eutsan erriak, eta geuk be bai. Kioskotik jatsi zanean, gizon birek lepoan —bizkarrean— artu eben; ta, jendea inguruan txaloka ebalá, bere etxeko atadiraiño eroan.

Andik illa batzuetara omena egin jakon. Ta urte gitxira il zan. Il zanean, berak ataratako illeta eresia edo martxa funebrea joaz izan zan obiratzea. Izeta'k, tarteka, musika doiñuak ataraten zituan, pasakalle ta abar; ta illeta eresia be ba-eukan. Aren musikak ez eben izenik eukiten. "Neria" esaten eban; eta, ori esaten ebanean, ba-genkian zein paper atara.

Izeta'k bandia laga ebanean, Biktór Ureña etorri zan zuzendari, ogetamar urte inguruko gizon ezkondua, erdaldu-na. Ez eukan zuzendari titulurik, baiña ereslari ona zan. Pianua, akordeoia ta kornetiña jotén zituana ba-dakit. Bear-bada beste geiago be jo eikezan. Ondarroa'ra etorri ta iru-lau urtera, musika zuzendaritzarako azterketak egon ziran Madrid'en, eta joan eta egin zan zuzendari. Zuzendari izana-gaz gaiñera, udaletxean lana egiten asi zan; eta gero, Kultu-ra Etxea ipiñi ebanean, ango idaztitegiko arduradun.

Ogei lagun inguruko taldea giñan, bera etorri zanean; eta amalau urte inguru eginda, 1974'garrenean erriz aldatu zanean, iru-lau lagunekoa zan. Musika taldeko egiten dana lotuta geratzen da jai arratsaldeetan; eta gaurko gazteak ez dagoz orretarako. Onegaitik, eta bera, zuzendaria be, geiegi alegindu ez zalako, porrot egin eban musika taldeak.

Nire ta nire adiñeko gazteen musika taldean sartzea, lengoen opor edo *huelga* bat zala-ta izan zan. Gero, gure denporan be, olako bi izan genduzan.

Bat, ni ezkondu ta lau-bost urtera izan zan, Jose "Burgo" alkate zala. Iru ume baiño geiago ez geunkazan arte, Gabonetan Ondarrabi'ra, andrearen etxera, etorten giñan, egun pare bat igarotera. Ta baten, errira biurtu giñanean, musika taldea amaitu egin zala jakin neban. Auzia olan izan zan: len ez zan aginaldo edo gabon-saririk emoten iñun. Baiña gero auxe oitura lez sartzen alegindu ziran España'n, eta Euskal Errian be bai; eta aurreko alkateak, urte bitan-edo, zerbait emon euskun musikuai be. Ta Agirre'tar Jose (Jose Burgo) alkate jarri zanean, ez euskun emon, eta orregaitik oporra egin ebela uste dot. Ni Ondarrabia'n nengoan, len esan dodan lez. Orduan, udalak instrumentuak lagatera beartu ginduzan. Baiña aste bat edo bi barru konpondu giñan.

Urrengo eztabaidea gogorragoa izan zan. Andra Mari jaietan, kanpoko bandia ekarri edo ez ekarri, guk beti jo egiten genduan musikea, azkenengo urte pillo luzean. Au da, gutzat ez egoan jairik. Egia, geure sari edo alogeretik gaiñera, emoten euskuen zerbait jaietako jote orregaitik. Baiña gazteak iñundik iñora jai egin nai eben erri jaietako gabetan. 1964'garren urtean, Andra Mari arratsaldean, emon euskuen jai, ta gabean jo bear genduan. Baiña guk, arratsaldetan joko genduala ta alan joan giñan. Bandia kioskuan batu zanean, jatsiteko agindua bialdu euskun alkateak; baiña guk, jaramonik egin barik, orduantxe jo genduan. Ni kioskura azken eldu nintzan, apurtxo bat berandu; ta lenengoan jakin be ez neban egin, artu zan gaztiguaren barririk.

Ori zala-ta, musikak lagatera beartu ginduzan Aranbarri'tar Jose alkateak. Ta, lenagokoan lez, banan-banan laga genduzan; izena artu ta instrumentuak laga. Baiña orduan ez giñan errez konpondu. Alkatea ez egoan bigun egiteko.

Batez be, zuzendariaren aurka egoan, eta beste ziñegotzi batzuk be ba-egozan, udalaren eta alkatearen aginduari jaramon egitera iñor baiño beartuago egon eta taldekoaren naiari jaramon egin eutsalako. Andrea ta umeak zitualako, ari bategaitik geratu zan idaztitegiko arduradun.

Bandia, erbesteko jaietan jotera askotan izaten zan. Markiña'ra sarri joaten giñan Karmenetan, egun bitan-edo. Karmen egunean egun guztirako, geienetan. Mutriku'ra be askotan joan giñan; baiña gabetan, dantzarako. Mutriku'n bi bidar izaten dira jaiak: Madalenak uztailean; eta Kristo Maijaku egunean, iraillean. Mutrikuarrak beti txaloka artzen ginduezan. Baita aurreko egunean Ondarroa'n ango musika taldeari errazoi barik eupadak eta txistua jo eutsenean be. Lekeitio'n eta Berriatu'n be askotan izan giñan. Ostera, ondorengo errietan bein bakarrik: Deba, Aulestia, Bolibar, Bermeo, Elgoibar ta Zumaia'n. Azkenengo iruretan egun guztirako joan giñan.

Gorago lagatako ariari barrero elduaz, azkenengo oporren ondorenagaz berba egin bear dot. Andra Marijetatik urtearen azkenera arte ez zan musika bandarik egon. Ordez, lau-bost laguneko taldetxo bat igandero etorten zan dantzarako musikea jotera. Baiña jenderik ez zan joaten, iñor be ez. Ez dakit gure alde egoala agertu naian edo zergatik zan.

Urte barrian asi giñala uste dot barrero musikea joten. Baiña ordurarte udalarena zan bandea, banda munizipala zana, ordutik aurrera ez zan. Aurrerantzean banda partikularra lez izango zan. Instrumentuak lengoak ziran, udalarenak; udalak egin euskun jantzia jazten genduan; jo bearrak be lengoak. Urtean onenbestekoa emoten euskun; ta, lagun geiago edo gitxiago egon, bardin jakon udalari.

Iru laguneko batzordea jarri giñan taldearen arduradun. Ni diruzain izentau ninduen taldekoak. Baiña lendakari aukeratua diru etxe bateko kontularia zanez, nire zeregiñerako a obe zala esan neban; eta, alantxe, zeregiñetan trukau egin giñan: a diruzain eta ni lendakari.

Nai izan neban makaltzen egoan taldea indartu; ta neure asmoa alkateari jakin eragin neutsan. Mutriku'n, zuzendaria kendu ta beste bat ipiñi ebelako, laga egin eben musikaririk

geienak. Ta andik batzuk ekartea zan nire asmoa. Baiña iñok ez eban ontzat artu. Bandako geienari, gure musika taldea ona edo erdipurdizkoa izan ez eutsan ardurarik. Gaiñera, lagun geiagogaz diru gitxiago artuko genduan. Ta ezer ez genduan egin. Mutriku'tik musikari batzuk ekarri ba-genduzan, gure udalak diru geiago atarako ebalataldearentzat uste dot.

Erbesteko musikariak ekartea, lenengo, oraindik musika taldea udalarena zala, aurreragoko alkate Agirre'tar Juan'eri aitatu neutsan. Baiña alkateak, itxuraz musika zalea izan arren, ez eustan jaramonik egin.

Ureña'k pieza batzuk atara zituan, batez be pasodoble edo martxak; euren artean, Ondarroa'ko eta Bermeo'ko ereserkiak edo himnuak. Ondarroa'koa izango zala ziñoena, olako asmo barik lendik eginda eukan kalejirea zan. Bermeo'koa, ara ango jaietan musikea jotera joateko giñan baten, egitea bururatu jaken. Biori, Zubikarai'tar Agustin'ek berbea edo itza ipiñi eutsen, baiña erriak ez zituan artu. Bermeo'koa oraindik gitxiago zabaldu zala uste dot. Beintzat, bein bakarrik jo genduan an, eta geiago iñok jo dabenik ez dot entzun. Ondarros'koa, aurretik bein baiño geiagotan jota geunkan dantzarako.

Ondarroa'n, len, igande ta jaietan bakarrik jotzen zan musikea. Gero, nire denporan, oraindik musika taldean sartu barik nengoala, eguneneko geitu eben.

Igandeetatik kanpora, musikea jotzen zan jaiak oneik ziran: Urte Barri, Errege, Aratuzte martizena, Asentziñoi, Gorputz, San Juan, San Pedro, Santixa, San Iñazio, Natibitate, San Estebantxe. Dagonill edo agoztuko eta irailleko Andra Mari jaietan, baktxean iru egunean jotzen zan; au da: jai egun aurretik, egun bertan eta biaramonean. Pazko astelenean be bein baiño sarriagotan jo izan dogu, lengo denpo-retan. Ostera, Kontzeziñoi ta Kandelario egunetan ez zan jotzen, jai egunak izan arren, arratsaldeko elizkizunakaitik.

Baten —au arrebai entzunda nago—, Aita Laskibar josulagunak emon eutsezan gogo-jardunak neskai, onein ustez gogorregi, txarto asko esanaz. Gogo-jardun areik on gitxi egin eben neskengan. Musikea jo ei zan Kandelario egunean; eta, elizkizuna amaitu ta bereala, neskak enparantzara joan

eta baltseoan asi ei ziran, mutillakaz asko, elizatik berunzkoan andik igaro bear zan Aita josulagunari musturretan emon naian lez.

Baiña zelan izaten diran gauzak! Aita aretxek ipiñi ei eban elizara bidean nire arreba zarrena, Anjela; ta moja sartu zan eta oraintxe il da, Aragoi'ko Baguena erritxuko komentuan, berrogeta sei urte klaratar lekaiame eginda.

Iru alditan banatzen zan urtea musikarako. Lauterdietatik seiterdiak arte joten zan ilbeltzean, otsaillean, epaillan eta jorraillean. Seiretatik zortzirak arte maiatzean eta urrian, tartean afalduaz. Ta zortziretatik amarrak arte bagillan, garagarrillean, dagonillean eta iraillean. Ordu oneik gudate arte iraun eben. Arrezkero beranduagotzen asi giñan; eta, urte asko baiño len, len amaitzen zan orduetan asten giñan.

Zazpi pieza edo zati joten ziran, ni musika taldean, bandan, sartu nintzanean. Asteko ta amaitzeko pasodoblea joten zan, eta azken aurrekoa "jotea" izaten zan, erdiz-erdi dantza aske ta baltseokoa. Gero, bederatzira geitu genduzan. Izeta zuzendariari entzun neutsanez, bera Ondarroa'ra etorri zanean, beti ritmo jakiñekoak joten ei zituan alkarren urren. Len esan dodan lez, pasodobleagaz asi ta amaitu; baiña besteak, baktotxetik bat, beti bere tokian. Ez naz gomutaten zelan esan eban; baiña, esate baterako, olan: foxa, *valsa*, tangoa, mazurkea ta abar.

Eguerdiko kontziertoa egun oneitan joten zan: Urte Barri, Errege egun, Pazko, San Iñazio, dagonilleko ta irailleko Andra Mari egunetan eta Natibitate egunean. San Iñazio egunekoa, deun onen amaren etxea izandako torrearen aurrean, Likona torrearen ondoan. Dagonilleko Andra Mari egunekoa Alamedan jo genduan, Agirre'tar Juan alkate izan zaneko urte batzuetan. Baiña ango jendetza ta aruntzonuntz ta abarrek zarata andiegia ataraten eban, eta atzera enparantzara biurtu giñan.

Ureña zuzendari zala, Andra Mari aurregun baten, gabean, abesbatza ta musika taldea alkaturik, kontziertoa emon genduan pelota tokian. Abesbatza Don Imanol abade gazteak gertua zan. Joaldi ederra izan zan.

San Iñazio egunean, len esan dodan lez, Kale Andian, Torre Likonaren aurrean jotzen genduan kontzertoa. Guztia euskal musikea izaten zan. Asteko pasodoblea edo martxa, *Donostia* edo *Arraunlariak* izaten zan. Ez naz gomutatzen besterik bein be jo dodanik. Gero, *Vizcaitik Bizkaira*, *Eusko negarra*. *Euskeria*, *Aires Vascos* edo antzekoak. Geienez be, amabikoren bat euskal eresi lan geunkazan, eta andik eralduten zan kontzertoa. Amaitzeko, San Iñazioren martxea.

Kontzertoa jotera, kalejirea joaz joaten giñan Kalandian zear; eta, geugaz batera, erriko agintari, sermolari josulaguna ta abaderen bat edo beste etorten ziran, entzutera.

Gabaz, San Iñazio kalean jotzen zan. Likona Torrearen azpian izango zan, kontixu, lenengoan. Baiña gerora, aruntzago ta onuntzago, toki askotan jo izan dogu: Eskola Berrietako terrazan, Torre azpian be baietz uste dot, Plaza Verdura'n goian ta beian, eta Kalandiko arri-eskillaretako zabalunean be bai.

San Iñazio gabaz, lenengo, pelota plazan asten giñan musikea jotzen; eta, joaldi bat, iru piezakoa, amaitutakoan, Alameda'tik asi ta kalejiran San Iñazio kalera arte, edo jo bear zan tokirarte, joaten giñan. Ta, musikea amaitutakoan be, kalejiran biurtzen giñan Alameda arte. Baiña, azkenengo urteetan, biurtzerako jote oitura au galdu egin zala uste dot. Beno, 1965'garren urterarteko kontuak esaten diardut, urte onetan musika taldea laga bearra izan nebalako.

Urte baten polita egin genduan, amaitu ta geroko kalejiran. Ez dakit guda aurretik ala guda ostean zan. Ba-gentozan musikea jotzen; eta Zubi-zar ondodetik igarotzean, atzekoak, klariñeteak, musika jotea laga ta Kale Kutz'ean goruntz asi ziran. Gu, euren ondoan aurrean giñan saxofoiak, atzean utsa nabaitu ta, burua biurtuaz zer jazotzen zan konturatu giñanean, geu be ixildu ta korri besteen atzetik, danok algaraka. Moillan zear aurrera joiazanak be ixildu egin bear izan eben; eta danak, zuzendaria be bai, Kale Kutz'ean gora joan giñan, atzetik saltoka etorren gazte jendea zer jazotzen ete zan ao zabalik lagata. Ez zan asarratu izeta zuzendaria, eta ez eban ezer esan.

Musikariak mundu guztian lez, Ondarroa'ko bandiak be Santa Zezili eguna jai egiten eban. Ni bandan sartu nintzeanean, 1928'garrenean, orduan oituten zan lez, musikuak txapel gorriakaz ibilli giñan. Baiña urte aretan amaitu zan oitura au. Argazkia be atara genduan, eta gudate arte euki neban. Baiña gero aldendu egin jatan. Oraindik Aristondo'tar Segundo'k ba-eukala entzunda nago. Au neugaz bate-re sartu zan musika taldean. Baiña denpora gitxian egon zan barruan. Geienez be, urte bi.

Orduan bazkaria ta aparia egiten genduzan, Santa Zezilia eguna ospatzeko. Biak amabost laurleko inguru kostaten ziran; au da: jatordu baxotxa zazpi laurleko ta erdi. Azkenengo urtean, 1935'garren urtean, amasei laurleko ordaindu bear izan genduan. Ordurarte, geienetan, Kasto Etxaburu'nean egiten genduan geure bazkaria ta aparia. Ortik kanpora, Prantzisko Etxaburu'nean, Azpiltza'nean, Penta'nean eta, azkenengo urtean, Antzomendi'nean.

Gudea ezkerro, jatordu bat egiten genduan bakarrik, bazkaria, ta ez danok. Oitura au galtzen joian; eta Agirre'tar Juan alkatea edo, obeto esanda, bera buru zan udala, bazkaria ordaintzen asi zan.

Ez dakit zein urte zan; onenbesteko bat emon euskun udalaren kontura bazkaria egiteko. Batzuk gripegaz ondoezik egozalako, ta beste bat edo bi edo geiagok dirua naiago ebelako, bazkaritara ez etozela esan eben, eta dirua jaso naia erakutsi. Ori zala-ta, eztabaida andiak euki genduzan. Orduan, ni, musika taldekook ipiñita geunkan batzordekoa nintzan; eta ezetara be ez geuntsan emon nai diru ori; ba, bein olan asi ezkerro, ez egoan bazkaririk bein be, ta ori itsusikeria andia izango zan. Bazkaria egiteko udalak emondako dirua, orretarakoxe izan bear zan bakarrik. Bestelan, emon be ez eban egingo geiago. Ta olan, gogor egin gendualako, urrengo urtetik aurrera danak etorten ziran bazkaritara.

Bazkari onegaz beste gauza polita jazoten zan. Esan dodan lez, alkateak edo, obeto esanda, udalak bazkaritarako dirua emoten euskuen, eta guk alkatea bera bazkaritara konbidaten genduan. Jakiña, diru aretatik ordainduta jaten eban. Gu izan giñan, au da, beste birek eta nik osatzen genduan batzordea, lenengo bazkaritara deitu geuntsanak.

Santa Zezili egunean, kalejira ondoren, mezea abestuten genduan, musikarien artean koruko abeslari asko egozan da. Ta iñoiz, bazkaritan ederki berotuta, kalerik-kale musikea joten urten izan genduan. Urte baten, ni sartu ta laster, aurrekuia egin genduan musika enparantzan. Au, nai ta nai ez, guda aurreko kontua izango da; ba, Ondarroa'ko aurrekuak gudea etorri zanean amaitu ziran; au da, guda ezker aurrekurik ez dala egin gure errian esan nai neban.

Len arratsaldean, beste jaietan lez, musikea izaten zan, jendeak dantzan egin eian. Baiña oitura au kendu egin genduan, geure eguna geuk jai egiteko zala-ta, eta ez iñori jai eragiteko. Azkenengo urteetan ez; baiña len kontziertoa be joten genduan eguerdian, eta iñoiz ordu aretan enparantzan umeak jolasean ipiñi ta jendeari naikoa barre eragin be bai.

Ni musika taldean sartu baiño bi-iru urte lenago, bizikleta lasterketea egin eben musikariak, eurak ziklista jantzita, Santa Zezili egunean. Baiña, gero jakin nebanez, itxurea bakarrik egin eben. Txirringa gaiñean, lasterketa antzerara, Alliri baserriraiño joan; eta, an nai beste sagardau edan ostean, bandako txikiena zan Blas Txikia, orduan amalauren bat urte eukiko zituana, aurretik bialdu, ta gero jo besteak atzetik! Jakiña, azkenengo zatia al ebanak al ebana joaz izan zan.

Ondarroa'ko lenengo musika toki edo kioskua, bukoi gaiñean egindako olezko itxura bakoa zan. Nik a ez neban ezagutu; baiña apur bat urrunetik bada be ikusten dan argazkia badaukat.

Baten, nire gomutaz baiño lenago —1917'garren urtean?—, zearo ausi eban bera gazte jendeak. Nik zementozkoa edo arrizkoa ezagutu neban lenengo kioskua. Ez eukan teillaturik, ezta taldean sartu nintzanean be. Euria asten ba'zan, geure musikak, instrumentuak artu ta alde egiten genduan. Geienetan pozik gu, baiña ez gazteak. Ordutik laster ipiñi jakon teillatua, 1930'garrenean-edo. Ordurarte, kioskuaren egalean, biran edo zutiñik joten genduan musikea. Teillatua ipiñi jakonean, jarri-lekuak illaran zituala egin zan; eta, jakiña, arrezkerokoa da jarrita jotea.



1965'garren urte arte egon zan kiosku a. Enparantza erdian egoan, eta ederto emoten eban, enparantza ta pelota tokia dana batera ta agirian egozalako. 1965'garren udako jaiak igaro ziranean, kioskua jaurtiteko ziralako, Kofradian asi giñan joten; gu barruan eta jendea kanpotik. 1966'garren urteko Urte Barri egunean, jo neban azkenengo musikea, ta antxe jo neban. Ta egun bira, ilbeltzaren 3'an, Ondarrabi'ra aldatu giñan, arrezkero emen biziteko. Olantxe amaitu zan nire musikari bizitzea.

Gero, pelota tokiari alboan jarri-lekuak egin jakozan, eta atzean udaletxe barria. Eta lengo erdira gitxitu zan, enparantzako zirkulu baten egin eben kiosku barria, nire ustez dotorea ez. Kontixu, naikoa ta geiegi be ba-zan, gerora izan zan musika taldearentzat. Makiña bat obeto emoten eban lengo kioskuak, ta musika talde ederra bertan joten!

1927'garren urtean, udalak araudia egin eban musika taldearentzat. Ordurarte oitureari jarraituaz joko zan, jo bear zan egunetan; baiña urte aretako garagarrillaren 23'an onartu eban udalak esan dogun araudia. Musikea jo bear zan egun, ordu, zigor eta beste gorabera guztiak ipinten zituan bertan. Egundak eta orduak, len esan dodan lez. Oraindik ba-daukat araudi ori.

Edonun be olan oituten da-ta, edozein jaun andi Ondarroa'ra etorreanean, musikeagaz artzen zan. Girón ministrua etorri zanean, *Cine Alameda*'n zerbait izan zan; eta Juanito Irigoyen erdal idazle euskaltzale ezagunari bururatuta, musika taldeak euskal eresi edo doiñu bi jo zituan, biak gure errian guztiz ezagunak ziranak: Santa Klararena eta Baliaren bertsoak abestuteko erabiltzen zana. Azkenengoa, orain *Aitor'en izkuntza zarra*'ren bertsoak abestuteko erabiltzen dana. Ni orduan ez nintzan bandakoa.

Beste baten, orduan Bilbo'ko gotzai zan Morcillo jauna zan etorteko. Amarretan elduko zala esan euskun zuzendarriak, eta ordu orretarako an egon bear giñala danok. Baiña jaun andiak, beti, esandako orduan ez dira etorten, naikoa beranduago baiño, ta musika taldeko gitxi egoan an ordurako. Ni ez beintzat, eta beste geienak be ez. Eta gotzai jauna puntuan etorri! Ni, amarretan, orduantxe etxetik urteteko nengoela, gotzaiaren beribilla igaroten ikusi neban leiotik.

Eskola barrietan ondoan bizi nintzan da andik Alameda'ra bidea naikoa, ta erri guztia putz otsean igaro neban, eta Kale Kutz'etik gora ia itoan eldu nintzan bear zan tokira. Orduantxe asi ta etorzan elizaruntz, musikea aurretik zala. Sei edo zazpi laguneko musika taldea zan! Eta lantzean musikari bat sartzen zan taldean, eta Elixope orduko itxurazko sailla geratu giñan.

Pelotariak, zestozko pelotariak, Ameriketara urte asko eginda etorten ziranean, musikea jotzen jaken illuntzean etxe aurrean, eta jendeak baltsean egin. Au musikeruak dirua atarateko asmatakoa izango zan. Beste idazlan baten esaten dot zeintzuai jo izan jakon, eta ez noa emen barriztatzerara.

Juanito Urkizu ostikolariari be jo eutsen, ni taldean sartu baiño lentxoago. Urkizu, Ondarroa'ko lenengo fubolista, ta orain arte ospetsuena be bai, Orduan *Osasuna*'n egoala uste dot, ta *Español*'egaz Ameriketara joan zan, an joko pilloa jokatzeko. Ta, biurtu zanean, etxe aurrean musikea jo zan.

*Numancia* egazkiña arkitu ebenean, igandez, enparantzan musikea jotzen gengoan, eta andik urten da kalejirea egin genduan. Egazkin au baiño lenago, beste bat egin zan ospetsu. Danok dakigunez, Franco, Ruiz de Alda, Durán eta Rada egazkinlariak lenengoak izan ziran Europa'tik Ameriketara egazkiñez eldu ziranak. Euren egazkiña *Plus Ultra* zan. Gero, bigarren ibillaldia asmau eben. Munduari birea emotea zala uste dot. Bira ori *Numancia*'gaz egingo eben. Ta urten eben. Baiña ez egoan barririk; iñok ez ekian zer igaroten zan, eta alan egun batzuk igaro ziran. Eta, danok txarrena buruan genduanean, igande arratsaldean eldu zan albistea: arkitu zituela egazkinlariak. *Eagle* izeneko ingelandar *portaviones* batek arkitu zituan itxaso erdian. Egazkiña uretakoan zan, uretara jaisten diranetarikoa. Eskerrak orri. Ta, barria zabaldu zanean, enparantzan musikea jotzen gengoan, eta kalejiran urten genduan, ango gaztedi guztia atzetik geroala.

Beste arratsalde baten, Bahamontes txirrindulariak Frantzia'ri birea, *la vuelta a Francia* izenez ezagutzen genduan, ta oraindik irauten dabena, irabazi ebalako, urten

genduan enparantzatik kalejirea joten. Geienok ez genduan gogo onez jo. Loroño ta Bahamontes ziralata, txirindulari kontuan egundo izan ez dan eztabalda ta zer esana egoan. Ta gu, jakiña, bizkaitar euskaldunaren aldeko gogorrak giñan. Orregaitik, Porru'neko gazteenak, Lersundi'tar Karmel'ek, ez eban jo. Orretara bera ez etorrela ta an geratu zan; eta musika taldekoa izatea laga eban. Baiña geroko egunetan, geiagoko barik musika taldetik kanpora geratu bearraren atsekabea erakutsi eban. Eta Izeta'ri berba egin bearra izan neban, a barrero barruan artzeko. Ez egoan konporme zuzendaria aren jokabideagaz; baiña alan-olan zuritu neban eta sartu zan barrura Porru.

Ondar eta abar atereaz kaletan urak anditzen zituan *Euskal-Erria* draga itxasontzia etorri zanean be, urten eban musika taldeak. Ni bigarrenge etorreran taldekoa nintzan, orduantxe sartuta. Orduko motor txiki baten sartuta joan giñan Saustan aldera, ta Ondarroa'ko itxasontzi pillo andiaren artean an ibilli giñan jira ta bira, bera Bilbo aldetik noiz agertuko. Musika taldeko birek ez eben musika asko jo. An egon ziran zearo mariata —mariatuta—, pael gañean etzinda, Santa Kruz'dar Iñazio ta Bengoetxea'tar Pedro.

Enparantzan guk musikea jo ta jendea baltseotan ebillela, bein baiña geiagotan bat-batean geratu bearra izan genduan. Len, danok dakigunez, gaxoari agirlan eroaten jakon Gure Jauna etxera, abadearen aurretik beste bat, sakristaua-edo, txiliña joaz joiala. Ta olan iñoiz musika jotan enparantzan gengozala, an ondolik elexakoak igaroten ba'ziran, elizatik beruntz etozela norbait konturatzen zan, eta zer jazoten zan bereala zabaltzen zan; eta jende guztia, baltseotan ebilzanak eta gaiñontzekoak, belauniko jarten ziran. Geu be bat-batean ixilduten giñan, zuzendariaren aginduari begira egon barik.

Olako bat, politena, enparantzatik kanpora jazo jakun. Ez dakit zergaitik, *Club Deportivo Aurrera*'k eratutako kontua zan; eta, amabesoetako edo *madrina* izan zala ta edo, Beristain'dar Jenobeba andreari musikea jotan gengozan bere etxe aurrean, Alamedako egalean. *Rose Marie* jotan genduan. Ta zati baten, Izeta, buruz, konpasilloa zan baten 3/4'ko konpasa eroaten asi zan. Jakiña, nastea sortu zan;

eta, alantxe gengozala, elizakoak igaro ziran gure ondotik, eta bat-batean ixildu bear izan genduan. Ta, eskerrak ari, alantxe konpondu zan nastea. Ez genduan geiago musikarik aora eroan, eta zer jazo zan edo ez iñok ez eban mistik egin. Uste dot iñor ez zala konturatu zergaitik izan zan ezin konpondu a. Izeta ez beintzat.

Nik amazortzi urte neukazala, joan zan lenengo Lekeitio'ra musika taldea, musika jotera ango jaietan. Lau-bost urte lentxoago, guztiz asarratu ziran Ondarru ta Lekeitio, estropadak zirala-ta. Lekeitio'n ba-zala treiñeru bat eta a ekarteko edo erosteko asmoan joan ziran ondarrutarrak 1925'garrengo udan; eta an baztar baten euken treiñeru zar bat, barruan zituan kaka zar eta zikinkeriak kendu ta ekarteko ustean zirala, lekeitiar batzuk aurka urten eutseen ondarrutarrak, eta ezin ekarri izan eben. Bearbada, emongo eutsela aginduta joan ziran gure erritarrak treiñeru billa.

Ara joateko giñala jakinda, astilleroko langilleak ziran Periko *Totu*'k eta Arriola'tar Luziano'k, posturea egin eben, musika taldekoak lekeitiarrakaz asarratu baietz eta ezetz. Periko'k, asarratu egingo giñala; ta Luziano'k, bandako bonberua zan-da, ezetz. Ta ez giñan asarratu. Geu be angoak pozik laga naian alegindu giñan, eta ondo artu ginduezan. Beraz, Luziano'k irabazi eban posturea.

Baiña gizajoa adu txarrekoa zan; sarri izaten eban eztabaidea ta orduan be izan eban. Ara zelan izan zan. Musika taldea auzo errietara giñoazanean, bertan autobusean gazte jendea be sartzen zan, an dantzaz egitera. Beste erara joandako geiago be izaten ziran batzutan, eta bein baiño geiagotan, musikea amaitu ta autobusera joaten giñanean, jendez ia beteta arkitu izan genduan, eta guretzat toki gitxigaz. Orduan be olakoa jazo zan: gu baiño len pillo bat egoan autobusean sartuta. Ta ori zala-ta, eztabaidea asi zan. Egun aretan, sekula ez-ta, autobusean bertan egoan *La Esperanza* beribillen jaubeetakoa ta burua, Beristain'dar Jazinto, Jazinto *Mantxua*. Ta eztabaidea geienbat Luziano'k eta onek izan eben. Lekeitio'n asi ta Ondarroa'n jatsi giñanean amaitu. Antxe, Alameda'ko aurrean amaitu eben, alkarrereri edozer esanda. Posturea irabazi eban Luziano'k; baiña, alan da guztiz be, izan eban alako edo olako asarrea.

Beste baten, ni Motriku'ra azkenengo joan nintzanean, olakoxe bat jazo jakun. Beti lez, *La Esperantza*'ko autobuse-tan joan giñan. Eta, goizeko ordu biak inguruan, musikea amaitu ta etxerako asi giñanean, autobusa jendez beteta egoan.

Baiña ori ez zan txarrena. Txoferrak ziñoanez, a ez ei zan musika taldearentzat ipiñitakoa, ta berak ostera aretxegaz amaitzen ei eban; aginduak alantxe zirala. Itxurea zanez, gugaz aztu egin ziran. Baiña orretarako agindurik artu ez arren, Ondarroa'rako ostera a egindakoan, etorriko zala gugana ta zain egoteko esan euskun.

Ori ikusita, batzuk olan egitea erabagi genduan. Baiña beste batzuk, erdiak baiño geiago, ez egozan egin euskuen bidebakokeria parkatzeko, ta ez eben nai zain egoterik eta oiñez asi ziran errira. Ogei bat miñitura-edo, eldu zan autobusa ta sartu giñan bertan, goizeko orduetan Motriku'tik Ondarroa'raiñokoa oiñez egin nai ez genduanok. Geure lagunak bidean noiz ikusiko etorri giñan, eta Katei'ko aldatzean arkitu genduzan, euren eskuetan instrumentuak zituela. Antxe Jose *Sagu* be, ia bera baiño musika andiagoa besoetan ebala, bide baztarrean gora, danak bata bestearen atzetik. Orduan, geratu egin zan autobusa, baiña eurak ez eben sartu nai izan. Izan be, ia lau kilometro oiñez egin da gero autobusean sartzea, bertsoak atarateko modukoa izango zan. Eta eurak antxe itxita etorri giñan errira. Amaika barre egin genduan!

Jose *Sagu*'k ia irurogeta bost urte eukiko zituan, eta bera izan zan orduko buruzagia.

Ondarroa'ko musika taldeak 1955'garren urteko Andra Mari aurregunean jantzi eban uniforme, jaien aurreko kalejiran. Eta urrengo goizean, oiturea zan lez Antigua'ra meza nagusitara joiazan abade ta alkate ta ziñegotziaz Pixape ondora laguntzeko zain gengozala, argazki bat atara euskuen Elixope'ko arri-eskillaretan.

Jantzi a zartu zanean, beste barria egin euskuen. Baiña lenengoan pozik jantzi genduana, gero ez zan gogoko askorentzat. Naiago eben uniforme jantzi bearrik ez izatea. Onek badauko bere errezoia. Bazkaldutakoan jantzi barik

kalera urteten ebenak, gero, musikako ordua eltzean, etxera joan bearra euken, eta ori astun egiten jaken. Ba-ziran arratsalde erdirako jantzi ta etxetik urteten ebenak, eta oneintzat ez egoan buruausterik. Baiña besteak gelago ziran; eta, bigarren jantzia zartu zanean, ez eben nai barririk, eta alantxe amaitu zan. Ni orduko Ondarrabia'ra etorrita nengon. Gero, udaren baten, margozko jaka ariñen batzuk-edo euki ei zituen, baiña gauza utsa.

## Txistua edo danboliña

**O**NDARROA'KO txistu edo tanboliñaren antxiñako konturik ez dakit. Ba-dira, bai, gure errian Ttanbolin desizenagaz ezagutzen diran sendiak.

Nire umetatik, Jauregialzo'tar Damian ezagutu neban tanbolintero. Ez zan ondarrutarra; Oñati'koa zan. Mutil gaztea zala etorri zan txistulari lez Ondarroa'ra, ta emengo neska bategaz ezkondu.

Oposiziñoiz edo zein gelagoka atara eban gure erriko txistularitzea. Orretarako, orain juzgaua dagoan etxean, Zubibbarri ondokoan, jo eban zein gelagokara etorri ziranak. Banan-banan eroaten ei zituen aguazillagaz udaletik juzgaurra. Batek amaitzen ebanean, bestearen billa. Damian azken eroan eban; eta, Patxiko'neko ardandegi aurretik igarotzean, onek ardau zuria bota ei eutsan txistura, besteai be alan egin eutsela-ta, ta zori ona opauaz. Lenen atara eban eta jarri zan txistulari. Baiña andik laster, ez dakit zein errititik, deia izan ei eban, joan nai ba'eban joateko esanaz, ba Ondarroa'ra baiño len beste erri baten izan ei zan zein gelagokan, eta bigarren geratu. Ta txistularitzea irabazi ebana il egin ei zan, eta orduan berari deltu. Baiña Ondarroa'n pozik ei egoan, eta bertan geratu zan.

Txistulariaren zeregin bat, igande goizetan erriaren biran txistua jotea ei zan, eta alan egin eban urte askoan. Baiña

bere bizibide nagusia bizargintza zan; eta, orduan igande edo domeketan be lana egiten ebalako, txarto etorkion berari goizeko kalejira ori. Ta, udalari eskatuaz, larunbatera aldatzea lortu eban.

Nik neure bizi guztian, larunbat arratsaldean, bazkal ostean, ezagutu izan dot kalejira ori. An egoten ziran txistulariak, eliza aurrean, erlojuari begira, ordu bietako drangadearen zain; eta, entzuten zanerako, bereala asten ziran. Ordu orrek be aldaketea izan ebala uste dot, ni Ondarria'ra etorri nintzan ezkeror. Orain, ordu ori baiño egokiagoa dabenen baten jotzen dabela esango neuke. Beintzat, ala esan eusten, an izan nintzan baten.

Igande ta jaiero, musika taldeagaz txandaka, lau pieza jotzen zituan tanboliñak dantzarako. Musika taldeak iru joaldi egiten zituan; eta, tarteko utsune bietan, bakotxean pieza bi txistuak. Musikeak len bi, bi ta iru, au da, zazpi guztira jotzen zituan. Gero iru iruko, bederatzi. Baiña txistuak betikoan jarraitu dau: bi ta bi.

1936'garren urteko gudate arte, iñoiz, batez be San Pedro edo olako jairen baten edo bestean, aurrekua egiten zan enparantzan. Alan egin nai eben, gazte edo ez ain gazteak eskatuta.

Esan dodan gudate arte, asko egiten zan dantza askea Ondarroa'n. Baltseo dantzea asten zanetik amaitu arte, jendeak ez eban alde egiten enparantzatik. Ta baltseoan egiten eben guztiak ez eben dantza askean egingo; baiña askok bai. Ta, musikea ta tanboliña ixiltzen ziranean, antxe bertan jiraka egurastuten zan jendea, urrengo musikea asi arte. Beko bide zabalaren alderdian, luzean izaten zan jira ta birarako eguraste ori. Au be nire denporan asi zan, udalak aginduta-edo. Baiña gero, gudea amaituta, musika ta txistua jotzen asi ziranean, baltseokoa amaitzen zanean, jendeak iges egiten eban enparantzatik, eta txisturako iñor ez zan geratzen.

Orduan ez egoan euskal gauzen alde urteteko girorik. Baiña, geroago bada be, nai izan neban zerbait egin txistuzko dantzaren alde. Ara zer argitaratu neban elizako aldizkaritxu *jBoga, boga...*'n, 1961'garren urteko dagonillean:



*“Carta abierta:*

*Es lamentable el espectáculo que nuestra plaza ofrece respecto al baile suelto, que la gente joven ha dejado de practicar. Y es doblemente lamentable, porque nadie intenta poner remedio a este mal. Por lo visto, poco importa que desaparezcan nuestras honestas danzas y bailes.*

*Tratemos de dar auge a nuestros bailes vascos. Para conseguir esto, mucho podría hacer la Acción Católica con sus ramas de jóvenes de ambos sexos. Y también podrían las niñas de las escuelas buscar su recreación aprendiendo en algunos ratos a bailar nuestros bailes. He aquí una idea que brindo a los directores y directoras de las escuelas.*

*También se debería tratar de hacer resurgir el aurreku, que podría comenzar bailándose en las fiestas patronales.*

*Nosotros estamos convencidos de que la juventud se animará para dar vida a los bailes del País, si los que moralmente están obligados a ello le orientan y ayudan.*

*Ondarrutar bat.”*

Geroago, ordutik lau-bost urtera, dantzearen alde zerbait ganorazko egin naian, onetan zer edo zer egin eikeenakaz batzea bururatu jatan. Eta *Club Deportivo Aurrera*’n batu giñan Uranga’tar Manolo txistularia, Don Imanol abadea, Latxanbre dantza erakuslea, Atxukale irratitik berba egiten ebana ta neu. Alegindu nintzan eurak berotzen, baiña orretan jokatzea bearrekoa zanik ez eben uste ta ezer ez genduan egin.

Ondarroa’ko txistulariak euken beste jo bear bat, Korreta’reñ birea zan. Jai andi batzutan, urteko bi edo iru egunetan, ez dakit noiz, abadeak meza nagusiari asiorea emon aurretik, korretearen birea egiten eben prozesiñoan lez, txistulariak San Iñazoren martxea joten aurretik zirala. Baiña nik Ondarroa’tik alde egin aurreratxoagotik, galtzen egoan ori. Korreta’n bueltea —olantxe deitzen geuntsan— egun jakiñetako kontua zan, da an egoten ziran txistulariak Elixope’an, abadeak noiz agertuko.

Olako baten, Manolo txistulari lagunarengandik jakin neban zer jazoten zan. Eurai iñok ez eutsela ezer esan; eta

egun jakinietan, beti lez, Elixope'ra urreratzen zirala, txistua eskuetan ebela; baiña azkenengo iru edo lau jaitan alperrik joan zirala, abadeak ez ebela elizatik urten da. Ta, alan, bertanbera amaituko zan, kontixu, eliztar oitura ori.

Txistulariak joten eben beste gauza bat alboradea zan. Au, baiña, iñok agindu bakoa, dirua atarateko nozbait asmautakoa. Iru egun ziran orretarakoak: Kontzeziño, Errege eguna ta Kandelario eguna. Lenengoan neska joten eutsen; bigarrenean, gizonai, gizon ondruai, esaten zanez; eta irugarrenean, andra ezkonduai. Ta bazkaritako orduan oituten eben etxe aurretara joan eta zerbait jotzen eben, eta esku sarria artu. Jotzen jakenak, apur bat obeto bizi ziranak izaten ziran. Mariñel eta esku langilleen etxe aurrean ez zan jotzen. Jakiña, abade ta alkate ta olakoai be bai.

Baiña ori be amaitu zala esan eusten. Gaur Ondarroa'n txistulariai eskupekoa errez emoteko aiñako jende asko dago, ta batak eurenera joateko ta besteak be bardin, eta orretarako be astia bear izaten da; ta, danen ona ezin egin da, iñori ez jotea zala onena ikusi eben, eta oitureari amate-rea emon.

Niri neuri txistua atsegiñen izan jatana, erriko jaletako golzeko dianea izaten zan. Jaureglalzetarrak, bai aitak eta bai semeak gero, gauza bat jotzen eben golzean: Segura'ko alboradea. Lo edo erdi lo gengozala, ama deitutera etorten jakunean, alango arrarea egiten euskun golzeko ixiltasunean doñu gozo arek, umetan Ipar-kalean bizi giñanean.

## Musika geiago jo bear da

**O**NDARROA'KO enparantzako musikea dala-ta, zerbait esan bearra dagoala uste dot, ta orretaraxe noa. Bearbada danak ez ditue pozik irakurriko nire esanak; baiña esan bearra dagoanean, esan egin bear da. Neuk be nalago neban beste batek eldu ba'leutso arazo oní.

Iñok ez dau ukatuko gure enparantzako erromeria gauza ezereza dana. Ordu biterdiko denporan, getenez berrogei miñutuan jotzen da musikea. Beste denpora guztian or ibilten dira neskak batera ta bestera, aspertuta. Musika denpora getenean ez da egoten musikarik; eta, jakiña, jenderik be ez enparantzan.

Lenago be geiago ez zala joten norbaitek esango dau. Bai, baiña gaur ez dago lengo konturik. Aldatzen doaz gauza asko, ta txarto dagoan guztia aldatu egin bear da. Jendeak orain musika geiago eskatzen dau; ta, plazan ez ba'jako emoten musika gelago, dagoan tokira joango da.

Joaldi bat amaitu ta berrogei miñutuan musika barik egotea ezin daiteke ontzat emon. Utsune ori bete egin bear da. Alkateak nai izan dau ta udan musika gelago joko da: len bederatzi zati edo pieza joten dirana, gero amabi joko dira. Uste dot, amabi zati joten, amabiren denpora egingo dala, ta ez bederatzirena.

Udako izentau diran amabi piezak zegaitik urte guztian jo ez? Jakiña, getagoko barik ezin esan leikigu guri, musi-

kuoi, geiago jo bear danik. Len be naikoa egiten dau musikuak, aste guztian lan egin ondoren, bera, atsegiñez dagoan tokitik, igande ta jai guztietan enparantzara joatea. Euri nai aterri, otz nai bero, besteak zinean edo ardandegian sartzen diranean, bere kapelua jantzi ta trastea eskutan artuaz, plazara joan eta an putzka egon bearra. Musikuak be, aste guztian lan egin ondoren, jaian jolastu nai dau, besteak lez.

Bai; orreik danok olantxe dira. Baiña txarto dagoana txarto dago, ta Ondarroa'ko enparantzako erromeria obetu egin bear dogu. Ta musikuen kontu orrek ba-dauko konponketa: diru geiago ordaindu.

Alan be, amabi zati urte guztian joteagaz ez dago dana eginda. Oraindik utsune andiak geratuko litzakez, eta utsune orreik bete egin bear dira. Lekeitio'n egiten dana emen be egin leiteke. Bandako musikuagaz orkestina bat eraldu ta jo tartean, diru apur bat kobrauaz.

Ta tanbolin soiñuaz be berba egin nai neuke. Ondarroa'n iñok ez dau dantzan egiten tanbolin soiñuan, iru-lau ume-kondok izan ezik. Gaurko gazteak ez dabe euskaldun sentiduten. Gure gauza guztiak galtzen doaz; pelotan iñor ez da ikusten, dantzan bardin eta bardin beste gauzetan be.

Baiña oraingoan dantzaz diardugu. Indar-barritu geinkeala uste dot dantza aske edo suelta. Naikoa da orretarako noizik bein, dantzan egiten dabeen guztiak alkartu ta konpromiso txiki bat egitea. Uda amaitu arte gitxienez tanbolin soiñu zati bi domekero dantzan egingo dabeela berbea emon deiela. Gero, jendeak jendea ekarten dau,

Baiña, dantzearen indartze onetan, txistulariak be lagundu egin bear dabe. Gaiñera, orretara iñor baiño bear tuago dagozala uste dot. Bai; txistulariak jendeari atsegiña emon deioela. Dantza soiñuak amaitutakoan, joaldi baxotxean ez ba'da be, ezin leiteke biribilketea jo jendea enparantzan jira ta bira ibilli daitean? Bearbada, onetxek eroango leuke jendea tanboliñera.

Ta beste gauzatxo bat: baltseoa egiteko be, lagun askoko musika aldea atsegiñago izaten da. Ori igazko udaran ederto ikusi genduan. Bandea kenduta egon zanean, eta orkestinak nai ta polito jo, iñor ez zan enparantzara joaten.

Txistuaren otsa be gauza utsa da; txiroa emoten dau, apur bat urruneratu ezkerro. Ta txistu ots ori edertu egin bear litzake; loditu. Antxiña txistu bakarragaz jendeak dantzaz egingo eban, bearbada danbor utsagaz. Baiña orain, zinean nai irratian musika soiñu ederrak entzuten oitu gara, ta erromeri baten danbolin soiñua utsa gelditzen da.

Ori gure errian errez konpondu leiteke. Txistua jotzen ikasi dabeen gazte asko dagoz; eta diru barik, tarteka ba'da be, joko leukee.

Kaleko biribilketa joteko, lau laguneko txistu aldea ondo dago. Baiña erromerirako, geiago sartu ezkerro, askoz obeto urtengo leuke.

Ea, ba, txistu ta musika geiagogaz agiriko erromeria eder bat ipinten dogun.

\* \* \*

Oarra: Ondarru'n bizi nintzala, ango *Boga-boga* aldizkarrira bialdu neban idazlantxo au. Baiña ba-dakit zegaitik ez zan argitaratu.

## Abesbatza

**N**I umea nintzanean, amar-amabi urte neukazala, abesbatza egoan Ondarroa'n, Arantzamendi'tar Sebero erritar osagillea zuzendari zala. Onek, sendakintzagaz batera, musikea be ikasi eban.

Gero, il arte kontixu, Zaldibar'ko zoro-etxeke buru izan zan; ta ango kale bateri bere izena ipiñi eutsoen.

Abesbatz aren abesaldiak etxeke balkottik entzuten genduzan, enparantza ta musika toki edo kioskoa agirian eta ez urrun geunkazan da.

Abestuko eben, kontixu, abesbatz aretan, Iruña'ko eliza nagusiko abeslari ziran Don Segundo Egaña eta Don Karlos erritar abadeak, eta baita Bilbo'n bizi zan Iturriza'tar Boni'k be. Irurak abots ederrekoak, abotsak euren bizitzan eragin andia izan ebenak. Abesbatz arezaz zeaztasun andirik ez dot emongo, ume-umea nintzan orduan da. Baiña bertako bakarkako abeslari bat zein izan zan ba-dakit, bearbada geroago jakinda: Aranbarri'tar Juan, *Akulu* ezlzenez. Baritonua zan. Ta abesbatz arek abestuten eban abesti bat be beti gogoan euki dot: "Bautista Basterretxe". Alan izan zala etxean entzunda ete?

Baiña ez zan izan luzarokoa abesbatz a.

Geroago, zarauztar abade gazte Urzelai errira etorri jakun organista lez, eta urte gixira abesbatza ipiñi eban. Errepublikan denporea zan.

Abesbatz a Bilbo'n ospatzeko zan sariketa batera joateko asmoz sortu zan. Ta, joan be egin zan. Ta nai zana abestuten ondoen gelditu ziran arren, Castro'k edo Montaña'ko batek irabazi eban lenengo saria, beartua zan abestia abestuten egin eban ekiñaldiagaz. Ta, ondarrutarrak, urte batzuk lenago estropadetan be nagusi izan ziralako-edo, abestuten be alantxe izan bear zirala uste eben, eta marmarra ta zer esana naikoa ekarri eben, epallleen erabaglia zuzena ez zala erakutsi naian-edo.

Urrengo urtean be joan ziran Bilbo'ko sariketara, eta bigarren gelditu ziran.

Munduko gudea amaitu ta urte batzutara, beste abesbatz bat sortu zan, Markuerkiaga'tar Jose zuzendari zala. Abesbatz a gizonetzkoena zan bakarrik, Abesaldi batzuk emon zituan errian, ez dakit bi edo iru urte inguruan, eta bertan bera amaitu zan.

Gero barriro biztu zan. 1955'garren urtea zan. Urte aretako ilbeltzaren 16'an *Maitane* arrastero itxasontzia galdu zan eguraldi txar baten, ta barruko amabi gizonetatik amai-ka ito ziran. Ta, euren sendial laguntzeko dirua batzeko, jai edo ikuskizun batzuk eraldu zituan *Club Deportivo Aurre-ra*'k. Ta, abesbatzak be bertan abestu eian, batzarrera deitu jaken abeslariak; ta, erantzun ona izanik, len lez gizonetzko utsakin taldea jarri zan, jakina, Markuerkiaga'tar Jose buru zala. Ta ito ziranen pamilletakoen alde otsaillaren 27'an *Cine Alameda*'n egin zan jaiari agertu zan lenengo aldiz, beste talde batzukaz batera.

Orduko bere abesaldia egitarau onegaz izan eban:

<i>Festara</i> .....	4	abotsetara	<i>Sorozabal</i>
<i>Racata plau</i> .....	6	"	<i>Almandoz</i>
<i>Las ruinas del monasterio</i> .....	6	"	<i>Morera</i>
<i>Boga, boga</i> .....	3	"	<i>Guridi</i>

Au zala edo ori zala, naikoa alditan abestu genduan. Baten Mutriku'n izan giñan, eta Almandoz beraren aurrean bere musika lan bat abestu.

1955'garren urteko urriaren 9'an Arrate'n izan giñan. *Maitane* itxasontziaren itxas ezbearra zala-ta, diru asko batu zan Euskal-Erria'n. Baiña danetatik geien Eibar nabarmendu zan ondarrutar arrantzaleen alde. Ikaragarrizko dirutza eldu zan Eibar'tik. Gitxi gora-bera, eun milla laurleko. Gaurko millo bat baiño geiago.

Baiña gogorra gertau zan orduan. Ondarroa'ko udalari, arazo ori erabillenari, ez jakon bururatu iñor eskertu bear ebanik; ezta laguntza andia egin ebenik be. Gerora, bere uts egiñaz konturaturik, Arrate-ko a asmau eban: mezea, abesbatzaren saioa ta gero ango jatetxe baten bazkaria. Ta bertara deitu eutsan Eibar'ko udalari. Ta an joan giñan gu, baiña Eibar'ko udalekorik ara ez zan eldu. Azken orduko bazkaria baiño naiago eben, kontixu, bere sasoiari berbatxu bigaz ba'da be eskertzea.

Arratsaldean Eibar'ko enparantzako musika tokian abestu genduan.

Beste bein Deba'ra deitu euskuen ango ondartzai gaineko kasinoan abestuteko. Ez dakit zein urte zan. 1957'garrena edo urrengo izan eitekean. Baiña illa ta eguna esan daike-daz: jorraillaren 14'a. Ain zuzen, errepublikearen eguna. Baiña ori buruan artuta ez euskuen deitu ango *Amaikak-Bat* kirol bazkunakoak.

Ondo gertuta joan giñan. Baiña zer zan a! Eldu giñanean, abesaldia asteko ordua gainean zan arren —gabeko amarrak—, aretoan lagun bakar batik ez egoan. Akeita tokian iru-lau lagun egozan. Euren artean, guri entzutera joandako an bizi zan ondarrutar bat. Baiña, gertatzen zana ikusita, ez eban sarrerako txartelik artu. Lagun bakar bat ez zan sartu abestu bear zan tokira.

Ez zan pozgarria; baiña, ainkea austea baiño obe zala-ta, lasai jarri ta akeita artuaz denpora apur bat joan jakun. Orratio, Landaribar'tar Prudentzio'ri gauza itxusia iruditu jakon jazo zana, ta atsekabeturik Ondarroa'ra biurtu zan, besteok an lagata. Gero, bein ara joan ezkerro, bardin euskun eta antxe, kafean, abesti batzuk abestu genduzan, edatera joanda egozanak entzun eiezan. Ta, saioa amaitzean,



zuzendari jaunak, entzule ziran iru-lau laguntxoai begira ta naikoa arpegi illunez, au esan eban:

— *El orfeón Kresala es esto, ni más ni menos.*

Olantxe ba-geniarduan an edo emen tarteka abestuten. Baiña gerotxuago aldaketa bat izan genduan. Organu jotzaille barria etorri zan elizara: Don Imanol abade gaztea. Ta abesbatzako gizonetzkoak, geienak, elizako koruko abeslariak be ba-ziran; eta organista barriak, koruko zuzendari zan lez, *Kresala* abesbatzaren zuzendaria izan naia agertu eban, bidezkoa zan lez, kontixu; eta Markuerkiaga'tar Jose'k berari laga eutsan zuzendaritza. 1960'garren urtea baiño zerbait lentxuago izango zan ori.

Don Imanol abesbatzaren buru jarri ta laster, bide barrietan zear jo eban *Kresala*'k. Len, beste edozein abestaldekan lez, abesbatzentzat idatzitako musika lanak abestutea zan bere egitekoa. Gero antzertiari eldu eutsan, *estampa* edo olakoai.

Zubikarai'tar Agustin'ek —bera be *Kresala*-ko abeslaria—, abesbatz onegaz baliaturik, euskal *estampa* edo irudi batzuk agertzeko aukerea ikusi eban, kontixu; ta, alantxe, iru antzezlan gertu zituan: *Seaska inguruan*, gabonetakoa; *Jaunaren bideetan*, Jesus'en nekaldia; ta *Kresala*, *Kresala* idatzitik ataratakoa. Irurok, abesti askokoak.

Antzezlanok erri ta erbeste egin ziran. Bilbo'n, Donostia'n, Gazteiz'en, Eibar'en, Bermeo'n, Galdakao'n, Ondarroa'n eta abarretan naikoa txalotuak izan ziran Zubikarai'ren lan oneik.

Beste kontu polit bat be jazo jakun aldi areitan. Abesbatz sariketea eraldu eban Aurrezki Kutxa batek. Ez naz gomutatzen Bizkai'koa ala Bilbo'koa zan. Bietako bat zan beintzat. Ta emon genduan gure abesbatzaren izena sariketa aretarako. Ta erri geiagotako abesbatzak be emon eben euren izena.

Ta asi giñan abestu bear ziranak ikasten. Astean egun bi ziran ikasten jarduten genduzanak. Gogotsu ekin geuntsan geure egitekoari; ta abestiak itxuran abestuten jarri giñan.

Baiña sariketarik ez zan egin. Izena emon eben abesbatza batzuk, gauza andirik egingo ez eben bildurrez-edo, atzera egin eben. Geu bakarrik gelditu giñan. Beraz, ezin eitekean sariketarik ospatu. Orduan *Kresala*'koak, abestu bear ziran lan areik ikasten egin genduan lanaren ordaiñez saritzat ipiñitako dirua, berrogei milla laurleko, geugandu nai izan genduan; eta alan eskatu geuntsan sariketea eraldu eban Aurrezki Kutxeari. Eraltzailleak zerbait emoteko ez euken atzerarik. Baiña gure eskabidea, zan guztian infundik inhora ez eben nai ontzat artu. Sariketea jokatu barik lenengo saria inori emotea gelegi iruditzen jaken. Orduan, Aurrezki Kutxa bertako bezero edo klienteak ziran *Kresala*'ko batzuk izenpetuta, eskutitz luze bat egin jaken, gure errezoiak agertuz: ainbat lagunek guztira zenbat ordu galdu genduzan ikaste saloetan: orduko —*por hora*— zenbana urteten eban eta abar. Aurrezki Kutxako bezero ziranak, eurak eroan eben eskutitza eskuz. Ta eskutitza barregarri —*txungan*— be ba-egoan idatzita, ta artzeko zerbait aldatu eragin eutsen. Baiña, beintzat, lortu zan nai zana. Berrogei milla laurlekoak *Kresala*'koentzat edo *Kresala*'rentzat izan ziran. Abestu barik, lenengo sarlaren jaube egin giñan.

Ta abesbatzaz amaitzeko, berbatxu bi bada be esan egin bearko doguz elizako koruko abeslari taldeaz. Len, Euskal-Erria'n beintzat, abeslari talde ederrak ziran eliza askotan. Mezak latiñez emoten ziran aldietako jaletako meza nagusiak ikusgarriak edo entzungarriak izaten ziran sarri Ondarroa'n. Meza ederrik abestuten zan! Ta bardin Aste Santuko ta beste elizkizun batzutan be. Jakiña, onetan be aldi guztiak ez dira bardiñak izaten. Ta Ondarroa'ko korua gorengo maillan, nire ustez, Urzelai abadea zuzendarri zala izan zan.

Ara emen, irabazi ez genduan saria emoten euskuela esaten, Bizkaï'ko Aurrezki Kutxa'k egin euskun eskutitza:

*“Caja de Ahorros Vizcaína*

*Bilbao, a 24 de Octubre de 1963*

*Sr. Director del Orfeón de Ondarroa*

*Ondarroa*

Muy Sr. nuestro: Conocidos los esfuerzos realizados por el Orfeón con vistas a su participación en el I Certamen de Masas Corales convocado por esta Caja —y que no ha podido celebrarse por falta de preparación de las demás entidades orfeónicas inscriptas—, tenemos el agrado de comunicar a Ud, que la Caja de Ahorros Vizcaína ha acordado compensar esos esfuerzos del Orfeón Ondarrés, durante nueve meses de ensayos, con la cantidad de CUARENTA MIL PESETAS, que podrán hacer efectiva, mediante recibo, en nuestra Agencia en esa localidad.

Con este motivo saludamos a Ud, atentamente.

El Director General".

## Lenengo zinea

**Z**INEA ipiñi baiño len, ez dakit urte baten ala geiagoan, antxoba gatzitua edo salazoa egiten eban Bitor Zelaia'ren ama Gregori'k, gero bere semeak 1922'garren urtean *Cine Celaya* zabaldu eban tokian.

Ain zuzen, ni fabrika txiki aretan asi nintzan antxobeari burua kentzen, 1921'garren urtean. Orduan eguen arratsaldetan ez zan eskolarik izaten. Eta lenengo urterako naikoa zala eguen arratsaldetan bakarrik lanera joatea; ta, alantxe, lau eguenetan joan nintzan. Eta, esan dodan lez, gero zinea ipiñi eben fabrikatxora joan nintzan lelengo.

Zinea zabaldu zan eguna, Zubikarai'k esan eustanez, 1922'ko aratuztiak ziran.

Egun gitxi gora-bera noiz izan zan beste barri bat be badakit: Izeta musikako zuzendaria orduantxe ezkondu ta ezkon barrien ibillaldia egiten Madrid'en egoala. Bitor'en telegramea artu ei eban, zinearen asierea garaitza andia izan zala esaten. "*Gran éxito*" edo olako zerbait ziran telegramako berba guztiak.

Kontu au Izeta'k berak esan euskun musika taldeko asteko entsaio egun baten, antxiñako zinearen kontuak esaten genbiltzala.

Zinea edo bere tokia beia zan bakarrik. Aurreko aldean, erdi inguru arte, bizkarrik bagako aulkiak ipiñi zituen,

bakotxean sei lagun inguru sartzen ziranak; eta atze aldean, euskera txarrean esanda, *sillak*.

Zinea asi ta bi edo iru urtera, sua izan zan makiñan, eta zalaparta andia izan zan, bertan egozanen artean, danak arin-aringa kanpora urten naian. Ez zan eriotzarik izan; baiña asko miña artutakoak.

Zinea asi ta amr bat urtera-edo, saldu egin eban Bitor'ek. Eta erosleak, gitxien uste ziranak izan ziran: beti zinearen aurka didarka ebilzanak, parrokia edo parrokiako abadeak.

Zinea eurak artu ta lotsako pelikulak emonaz, zantarkeriari ateak itxiko eutsezala uste eben. Baiña eurak nai edo uste ebenik ez eben lortu, ta urte batzutara saldu egin eben eurak be.

Zine ixilla edo mutua izan zan denporan, orkesta bat egoten zan. Doiñu gozoak jote zituen eta jendea pozik egoten zan. Oneik ziran orkestakoak:

Izeta, zuzendari ta pianoa joten ebana.

Lekuona, bioliña joten.

Lesmes Arrizabalaga, klariñetea joten ebana.

Justo Iriondo, saxofoi tenorra.

Azkenengo au arin aspertu zan, zinea be ez jakon atsegin eta. Ta ordezkoa laga eban: Ixidor Etxebarria. Baiña onek be laster laga eban.

Gero, *zine sonorua* indartzen asi zan, eta olakoa ipiñi eban arrain lantegia eukan Joakin Iriondo'k, gitxi gora-bera Errepubliketa'gaz batera.

Ta *Cine Celaya* be ordutxe inguruan *sonorura* aldatu zan.

## Errepublika denporea

**E**RREPUBLIKEA etorri zanean, balioko agerkunde edo manifestaziñorik ez zan izan Ondarroa'n. Abertzale jendea, errikorik gelena, poztu egin zan orregaz; baiña poz ori agertzen ezetan ez zan nabarmendu. Udaletxeko balkolan ikurrin andi bi esegi ziran: errepublikanua ta eusko abertzaletasunarena edo eusko ikurriña.

Errepublika etorri ta egun bira, udaletxean eusko ikurriña esegita egoala lagunak esan eusten; eta, beste egiteko barik, bera ikustera joan giñan Kale Kutzean gora.

Orratio, egun areitan manifestaziño edo olako zertxobait izan zan. Errepublika etorri ta astebete ingurura, illuntzean, beti lez Alameda'n ango eserlekuetan jarri ta kontu-kontari gengozala, zerbait ba-zala ta Loza'ra urreratu giñan, zer ete zan; eta, mutil gazte bi ikurrin bategaz buru zirala, irulau mutil txiki ta gazte batzuk, geienez be ogei lagun ez, zarataka igaro ziran. Ikurriña, eusko ikurrin eta errepublikanua, biak batera eukazana zan, eta Santos Garzia ta Agirre'tar Kelemente'k eraien, edo bietatik batek.

Len esan dodan lez, politika era barria agertu edo nabarmendu naiko ezer ez zan izan errian. Illa batzuk igaro ziran eta Ondarroa'ko musika taldea *Himno de Riego* ereserki nazionala jo barik egoan. Eta erriko errepublikanuak —gitxi ziran— bein bada be entzun nai eben errian ereserki ori, ta baten urrengo igandean jo egin bear genduala agindu eus-

kun Bizkaï'ko agintari edo gobernadoreak. Castro-edo zan bere abizena. Au da: arratsaldean, dantzarako musikea asi aurretik, ereserkia jo bear genduan. Zerbait jai edo akontezimentu egon balitz, joko genduan; baiña geiagoko barik, errepublikanuak nai ebela-ta jo bear izatea, ez jaken gogoko izan taldeko batzual, batez be Aranbarri'tar Tomas'eri, ta ez jotea erabagi genduan abertzaleak. Erriak ba-ekian zer jazoten zan eta jende pilloa batu zan musikea asterako. Ordua eldu zanean, ereserkia joteko aitzakirik ez eukenak edo prest egozanak, musika tokira igon ziran eta jo eben. Eta, amaitu ebenean, igon giñan besteok. Ori zala-ta, berba batik ez zan izan musikarien artean; ez zan jolaseko kontua.

Ereserkia jo ebenak erregetarrak izan ziran, musikari zar edo adin onekoak, au da, musikari onak; eta taldean zan errepublikanu bakarra: Justo Perez'ek. Au, euskeraz be ikasi eban erdalduna zan.

Andik laster, isun edo multea ipiñi euskun jo ez genduanol gobernadoreak. Ez naz gogoratzen zenbat zan, baiña irurogeitamabost laurleko zala uste dot. Ordurako ez zan gitxi. Ez genduan ordaindu ta auzia bertan bera amaitu zan.

Erriko kejea egon zala esan zan, eta ori egin ebana zeln zan be bai. Baiña bearbada ez zan egia izango jendeak ziñoana.

Geroago, bat be aitzaki barik jo genduan. Errepublikanuen batzokira etorri zan orduan Bizkaï'ko gobernadore zana, Amalibia zala uste dot, eta an izan giñan musikea joten; eta, jakitña, lenengo jo genduan *Himno de Riego* izan zan. Gero, jo bear zan guztian jo genduan. Ministruak etorri zirala edo gobernadorea etorri zala, bein baiño geiagotan jo genduan. Baiña ez musika enparantzan jendea dantzan egi-teko batuta egoala, lenengoan nai eben lez.

Ondarroa'n izan zan lenengo huelgea, 1934'garren urteko urrian ezkertarrak España osoan egin eben matxinadean izan zan.

Opor ori, gelen bat, kala garbitzen egoan *Euskal-Erria* dragako makiñista batek sortu edo indartu eban. Ta gizon oni gelen lagundu eutsana Lertsundi'tar Andres izan zan. A sozialista ta bigarrena ondarrutar eusko abertzalea, *Tostartekoen Alkartasuna*'koa; au da, *Eusko Langille*'etakoa.

Oporra zala barria zabaldu zan errian illaren 6'an. Batabatean eta bein be ikusi barik gengoan kontuak arritu egin ginduzan; baiña danok jarraitu geuntsan. An ikusi genduzan gizonak dendak itxi eragiten, eta baita baserritarrak ekarrezan esne kantiñak lurrera ustuten be.

Arratsaldean errian ez egoan ezer; eta, sarritan lez, Berriatua'ra joan giñan lagunak, oi genduanez pelotan jokatu ta sagardaua edatera. Bidean asarre txiki bat ikusi genduan; baiña ez oporragaz zer ikusirik eukana. Bollin gaudu tratuko ezaguna ta an ingurukoa ez zan beste bat eztabaidan ebilzan bide baztarrean. Besteak, au da, ez-ezagunak makilla andi edo akulua eukan, Baiña Bollin'ek esku zabalik ezpanetako andia emon eutsan eta beste baserritarra ankaz gora lurrera joan zan, eta ezpanetan min artu. Gu euren ondora eldu giñanean, diskulpau egin zan Bollin, besteari zartako andiegia emon eutsala ta; baiña, zera, besteak akuluagaz min emon bear eutsan bildurrez, aurrea artu nai izan eutsala.

Bollin gorputz sendo ta astunekoa zan, berriatuarra. Bestea ez-ezaguna zan gutzat, eta ez dot uste Berriatua aldekoa zanik.

Ta, opor kontuaz amaitzeko, Ondarroa'ko Eusko Alderdiak ez eban ondo artu Lertsundi'ren orduko jokabidea, ta zigortua izan zan. Auzi ori zala-ta batzokian egin zan baztarrean, onez artu eban emon jakon zigorra; baiña berak asmo onez jokatu ebala esan eban. Berak esan barik be, danok uste genduan olan zana.

Egia esan, zigorra nok ipiñi eutsan ez naz gogoratzen. Ez dakit Ondarroa'ko Uri Buru Batzarra'k ala Bizkai Buru Batzarra'k zigortu eban. Ziurrago azkenengoa izango zan.

Oporrak egun bat iraun eban Ondarroa'n.

Zerbait esan leitekean orduko beste kontua, katalanak etorri ziranekoa da. Baten, Euskadi ikusten edo ikertzen katalandar abertzaleak etorri ziran: Carrasco Formiguera ta beste jaun batzuk. Jakiña, olakoetan beti lez, musika taldea joan bear zan eta joan giñan. An gengoan esan euskuen ordurako Kanpos'eneko ardandegi aurrean. Ondarroa'n toki onetan egi-ten da kanpotik datozenen artzea edo errezebimentua.



Jendea batzen asi zanean, bildurgarria jazo zan: abere iltegitik, mataderiatik, bei batek iges egin eban eta, botika aurreko kantoian bira emotean, an pilloan egozan andreeta-ko bateri besoan eukan umea adarretan artu ta Zubi Barria'n gora korrika eroan. Jendea berari jarraitzen asi zan, eta beste aldetik etorren batek, zezenaren aurrean zezenlaria jartzen dan lez jarrita, umeari tira egin eta adarretatik kenduaz lurrera jaurti eban. Artu eben umea eta ez eukan ezer miñik. Beia, geratu barik, aurrera joan zan, Gorozika'ko bidean goruntz, bere etxe aldera. Ango baserri batekoa ei zan, ba.

Gero, katalandarrak etorri ziranean, abertzale agintariak lagun zituela ta musika taldea aurretik jo ta jo, erri osoa zarataka ta jauzika, San Pedro Txurru ingurarte joan giñan. An, katalandarrak beribilletan sartu ta Lekeitio aldera alde egin eben, eta guk etxe aldera.

*Cine Alameda* ondora eldu giñanean, *guardia de asalto*'koen autobusa egoan, goia iragita, ertzaiñez edo guardiz beteta. Guri ezer txarrik ez jakun bururatu, ta eurak be zirkiñik ez eben egin, eta alantxe amaitu zan. Baiña, izparringiz urrengo egunean jakin genduanetz, Lekeitio'n eta Bermeo'n egundoko zalapartak sortu zituen, katalandarrakaz kalerik-kale joian jendeari astiñaldi ederrak emonaz. Ori jakinda, geuk be ari-aritik iges egin genduala konturatu giñan.

Errepublikaren denporako aintzat artzeko kontuak, Agirre euskal idazleari egin jakozan omenak be ba-dira: Txomin Agirre'ri.

Lenengoa udalak egin eutsan, erriaren izenean. Udala abertzaleen eskuetan egoan; au da, abertzaleak ziran ziñe-gotzi geienak, bederatzi, alkate ta guzti; ta lau karlatar edo karlista. Baiña karlatarrak ez eben tarteko izan nai udalaren omenean: Agirre karlatarra izan zala ta eurak euren omena egingo eutsoela.

Jakiña, Agirre denpora areitako karlatarra ba-zan be, euskaltzale andia izan zan; eta gure denporetako karlatarrak ez. Oneik bein be ez dabe ezer egin euskeraren alde; alderdi lez ezer be ez, eta gizon lez euskeraren arerio lez agertzen ziran. Ondarroa'koak beintzat, iñor ez zan euskera maitalea.

Erriaren omena egin eutsoenean, zine zarrean zerbait jai egon zan aurregun gabeen. Omen eskeintzea edo zerbait Zubikarai'k irakurri eban. Jaiko buru lez, Azkue egon zan. Biaramonean, igandean, zer egon zan ez naz gomutaten; bakarrik, arratsaldean, bera jai egon zan etxeko orman, plaka bat ipintea izan zana. An, beste bat edo bestegaz batera, Don Juanito Izurrategi abadeak berba egin eban, Agirre jai egon zan etxeko balkoitik. Don Juanito ondarrutartzat geunkan Ondarroa'kook; baiña ez zan alan, Bilbo'n edo ez dakit nun jai egon zan da. Omena erri osoaren izenean egin jakon, eta ez zan politika usaiñik egon. Baiña, Don Juanito berbetan egon ala, andra batek —andra txotxin batek esan bear neuke ta ba-dakit zein izan zan—, aurreko balkoitik, "Biba Don Domingo ta berot be bai!" didar egin eban; eta aren *biba* didarra alako edo olako politika usaiña artuta-edo, olan erantzun eutsan: "Ixillik txotxiño!". Eta, ondoren, abertzale margo biziko berbaldia egin eban, Agirre zanagaz aurrez-aurre berbetan bailegoan.

Txistulari aldra ederra etorri zan, berrogei inguru, ta eguerdian kontziertua emon eben musika enparantzan, Don Anjel Urzelai organistek zuzenduta, Len esan dodan lez, zarauztarra zan Urzelai, eta lenengo mezea emon eta biaramonean etorri zan Ondarroa'ra, ta Franco'ren gudarriak erriagaz jaube egin ziran arte egon zan. Ondorengo urteetan, nai ta be ez eukan gure errian sartzetik. Gero, Sebilla'ko katedraleko organistea izan zan urte askoan. Urteak daukaz eta onezkero itxiko eban bere zeregin ori.

Len esan dodan lez, plakea ipiñi zan Agirre jai egon zan etxeko orman, Goiko Kalea'n, eta kale oni bere izena emon jakon, erderaz eta euskeraz idatzita. Euskerazkoak *Agirre txaldia* esaten ebala uste dot.

Beste omena, bigarrena karlatarrak egin eutsoen. Orretarako, Gernikako artziprestea ekarri eben. Karlatar andia ei zan elizgizon au. Oneik be plakea ipiñi eutsoen Txomin Agirre'ri. Plaka biak alkarren urrean egozan. Jakiña, biak euskeraz egozan. Erriarenak *jaupari* berbea ekarren; eta karlatarrenak, *abade*.

Francotarrak sartu ziranean, ez dakit bereala ala urte batzuk geroago, plaka biak kendu egin zituen. Polita izan

zan a! Eurak agintzen ez ebenean eurak ipiñtako plakea, gero, nagusi jarri ziranean, eurak kendu.

Plaka biak udaletxeko ganbaran egon ziran gauza zarren artean. Eta 1958'garren urtean izan zan suak erre zituan. Nik ba-nekian plakak nun egozan, musikako entsaiuetara joatean an ondoan ikusita. Eta areik andik atarateko gogoa ba-neukan. Sakel edo poltxikoan atarateko modukoak izan ba'lira, atara ta ezkutauko nituan. Baiña ez egoan ezer egite-rik. Eta len esan dodan sutan erre ziran.

Karlatarrak Don Domingo Agirre'ri egin eutsoena, obeto esateko, *doble homenaje* izan zan, erderaz esanda. Ba, Agirre'gaz batera, Don Luis Arriola osagillea izan zan omendua. Bizirik egoan eta ordutik berrogettaka urtetara bizirik dago, ta bigarren omena be izan eban.

Omen eguna zanerako, paper txiki batzuk atara nituan euskaraz eta erderaz idatzita, erriko ormetan ipinteko. Ni orduan ogei urte inguruko mutil gaztea, naikoa abertzaletasun sentiduten neban, eta karlistai eusko abertzaletasunaren errezolak ezagutu eragin naian egin nituan, baiña alako orritxu baten ezin sartu ala gauza esanaz. Berba baten, gelegi idatzita. Ta gabaz, goizaldean, sei bat lagunek erriko orma guztietan ipiñi genduzan.

Alantxe genbilzala, Ipar Kanean sartu giñanean, beste aldeko ertzean, Trintxa inguruan, gazte batzuk ikusi genduzan. Ez genduan nai iñok ikusi gindeizan, eta apur bat atzera egin genduan. Besteak be beste ainbeste egin eben. Baiña ez zan bildurtzeko kontua ta aurrera asi giñan, eta ezagutu genduan alkar. Areik be abertzale gazteak ziran, gu baiño lru edo lau urte zarragoak: Itzlar, Etxabe ta lagunak. Areik, berba batzuk idatzitako orri andi bat frontoian ipiñi nai eben, iñok ez artzeko edo kentzeko modura. Erriko karlista nagusi jaun bateri txarto esaten zan orria. Ez noa esatera zertzuk ziran itzak; ez dot nai iñor mindu.

Ta ipiñi be egin eben. Korretatik lokarriz dindilizka eratxi ta ezkerreko ormearen erdi-erdian ipiñi eben, orria aurretiaz kolaz beteta. Baiña karlatarrak be goizean ez egozan danak lo; ta, konturatu ziranean, makiña bat kostau ei jaken, baiña jendea kalera urteten asi baiño len kendu eben.

Errepublikaren denborako beste egun nabarmen bat, ministroak etorri ziran da. Errepublikak jarri ta oraindik ezker-tarrak nagusi ziran denporea zan; au da, Gil Robles ta lagunak oraindik indartu barik edo nagusitu barik egozana. Kaia egokitze lanai asierea emotera etorri ziran; esaten dan lez, "lenengo arria ipintera". Azaña ta Prieto; ta irugarrena Marcelino Domingo zala uste dot. Azaña orduan gobernuko buru zan; 1936'ko auteskunde ostean egin eben lendarikari. Orduan oraindik Alcalá Zamora zan lendarikari.

Olakoetan beti oi dan lez, musika taldea an egon bear zan, eta joan giñan. Agintari, errepublikazale eta abar, jende apurra batu zan; baiña ez jendetzarik. Erriaren onerako etozan eta, politikea albora lagata, erri guztia batu bear giñan bertan. Abertzaleak be joan egin bear giñan arrera on bat egiteko. Dana dala, jendetzarik ez ba'zan be, itxurea egiteko ainbat batu zan. Gauzak ondo egin ziran. Eta, musikea joaz eta danak atzetik genduzala, an joan giñan kaira, ta egin zan egin bear zana.

Orduan eta geroago be aldi batzutan emen Ondarroa'n bizi izan zan Sebastian Bakeriza donostiar arrantzale ospetsua, Prieto'ri kokotetik besoa birata joan zan. Eta Marcelino Dolmingo'k be olako adiskide bat, edo orduan alako itxurea egin ebana, arkitu eban: *Polka popularra*.

Prieto ta Bakeriza'ren arteko adiskidetasunaren oiñarria zer izan zan danok dakigu. Politika zala-ta ezkutau bearra izan eban baten, Bakeriza'k eroan ei eban Prieto bere itxasontzitzoan Prantzia'ra. Ba-eukan, beraz, bere errezoia bien arteko adiskidetasunak.

Mardelino Domingo ta Polka'ren alkar ezagutzea olan ei zan: 1917'garren arteko España'ko opor ospetsua zala-ta, Marcelino Domingo espetxean sartu ei eben. Eta Ondarroa'n, musikea zala-ta, beste alderdi baten esaten dodan lez, karabineruak gazte bat il ebanean, gazte batzuk espetxeratuak izan ziran; euren artean, Polka. Ta antxe alkar ezagutu ei eben. Ta bera zan modukoa izanda —Ondarroa'ko gizonik popularrena, danen adiskidea, saltsa guztietako perrejilla—, ez zan baztarrean geratuko, alako gizon ospetsu bateri arpegia emoteko bildurrez.

Egun arek ondoren bat ekarri eban. Erriari ainbat on ekarriko eutsan kaia egokitzeagaz, eskerrak emon bearrean gengoan ori egin ebenai. Ta, alan, izen edo firmak batzen asi ziran, Prieto'ri eskerrak emoteko. Ta jendeak gogo onez emoten eban bere izena.

Baten, Izeta'k, musikearen entsaiua egiten gendun tokira ekarri zituan paperak, guk, musikariok, geure izena ipiñi gengian. Izeta, len be esanda daukat, orduan, musika taldeko zuzendari izanaz gaiñera, udaletxeko kontularia zan. Ta Prieto'ri esker oneko agertzea udalaren kontua zan, kontixu; ta, esan dodan lez, ekarri zituan orretarako bearrekoak. Orduan ez zan boligrafurik; orduan dana tintaz idazten zan. Ta, orain batek eta gero besteak, an geniarduan izenpetzen.

Lesmes idazten asi zanean, zirikatzearren, Tomas Mixel'ek, ori egitea Prieto'ren politikea onartzea zala esan eutsan. Orduan Lesmes'ek, jakea jantzita eukan besoagaz, *raaa!*, dana borrau eban, eta lentxuago egindako ta oraindik ondo legortu barik egozan beste batzuenak be bai. Zuzendariak eskuak burura jaso zituan, ministruari bialtzeko ainbat izenekaz egoan papera itxurabakotu ebalako. Ea zegaitik a egin eban, an ez zala alakorik esaten-da. Zuzendaria asarretuta didarka ta beste batzuk barre algaraka, axe zan erromeria!

Gizon errikoaia, popularra, zan Lesmes —Arrizabalaga'tar Lesmes—, langille ona, musika taldeko punterengoa, koruko abeslaria ta karlatarretan aurrenengoa. Lantegietan lotsako agintaria zan, biguna ez; baiña lagunartean jolaserakoa.

Orduko beste kontu polit bat —zer edo zelan esatearren—, Attapireri'n jazo zana izan zan.

Ondarrutarra ez danak errez ez leuke atarako izen onen etimolojiarik. Auzo orretan antxiñatik kapilla edo elizatxo bat dago. Bertan, Jesus kolumna baten lotua, arrizko irudia dago. Kontixu, lenago *Padre de Piedad* edo olako izenez deituko eutsoen erderaz berba egitean, eta *Piedad* ortik *Pirere*'ra aldatu denporeagaz. Ortik etorriko da ziur *Aita Pirere* edo *Atta Pirere*, elizearen edo auzoaren izena.

Ba, esan nai nebana, errepublika denporan auzo orri izen barria ipintea bururatu jaken, abertzaleak nagusi ziran

udalekoai: Sabino Arana Goiri. Euskeraz eta erderaz izango zan, kontixu. Ta ori esaten eban plakea ipiñi eben, bat be anditasun barik. Egunen bat langilleren bat joango zan eskilareagaz, ango etxe bateko orman zuloak egin eta josi bertan, eta kito.

Baiña kontuak ziran an! Auzo aretako jendea oso-osorik espanar zalea zan, errege zalea. Amar bat sendi biziko ziran bertan, eta eusko abertzale bakar batik be ez egoan an. Eta, jakiña, arek min emoten eutsen eurai. Egia, asarre ba'ziran edo ez, errian olakorik ez zan entzun. Baiña egun baten, argitu zanean, an ez egoala plakarik ikusi zan. Ango jendeak, danak lagunak, asko estutu barik kendu eban gau illunean, eta Zubi Zar'etik ibaira jaurti edo ezkutau nunbait.

Jazo zana ikusirik, plaka barria ipintea erabagi eban udalak. Eta ordukoa anditasunez ipiñia izango zan. Eta, orretarako eguna izentau zanean, igande arratsalde baten, musika taldea aurretik zala, udala ta jende apur bat bertaratuaz ipiñi zan. Eta berba egin ebanak, beste batzuen artean, au esan eban:

— Len burdiñazkoa zan; oraingoa arrizkoa; eta,, au kendumo ba'lebe, urrengoa urrezkoa izango litzake.

Baiña a be ez zan izan luzaroko. Francotar gudariak errian sartu arte iraun eban, geienez be urte bi.

## Auteskundeak

**N**IK ezagutu nituan lenengo auteskundeak, 1931'garreneko errepublikea etorri ta bi edo iru illabetera Madrid'erako aldunak aukeratzekoak izan ziran. Baiña orduko goraberak geroago edestuteko laga ta lenagoakoagaitik berba batzuk esango ditut.

Auteskundeaz egindako bertso sail bi ezagutu izan dira Ondarroa'n, nik dakidanez. Lenengoa, bertsoen asieran esaten danez, 1896'garren urtean ataratakoak dira. Bizkai'ko Aldundirako aldunak aukeratzeko izango ziran orduko auteskundeak. Bizkaia'n, edo Bizkai'ko gure alderdian, Aznar eta Rodas'en artean zan auskea; burrukea. Ez dakit zer politikakoak ziran bata ta bestea. Baiña bietatik iñor ez zan izango eusko abertzalea, Arana Goiri'tar Sabin politikan orduantxe asi barria zan eta.

Dana dala, orduan be auteskundeak, beti lez, eztabaida ta asarreak sortuko zituen. Auteskunde batzutan, edo bein bai beintzat, dirua emon eben. Niri esan eusten auteskundetan bost ogerleko emoten eutseela, euren alderdira autarkia emoten ebenai.

Kontixu, alderdi biak emongo eben dirua, ta olan gauza gitxi irabazten eben. Bearbada, ondo bizi ziranak ez eben artuko diru ori. Baiña dirua emotea baiño gelago be egiten zan. Euren maizterrak nagusiaren naira autarkia emotera beartu nai izaten zituen etxe jaubeak izaten ziran, danak ez bada be. Baten, nire ama-ta etxetik kanpora jaurti zituan nagusiak, autarkia bere alderdira emon ez ebelako.

Beste baten, txapel okerrak, errian abertzale lez geien nabarmentzen ziran batzuk espetxean sartu zituen goizean, autarkirik ez eien emon; eta arratsaldean, auteskunde orduak amaitu ziranean, kalera atara. Markiña'tik etorten ziran txapel-okerrak, iñoiz zaldi gaiñean-da, ta ikarea sar-tzen eben. Auteskunde egunetatik kanpora bein be errian ikusi nituanik ez naz gomutaten.

Gorago esan dan lez, nik ezagutu nituan lenengo autes-kundeak, edo eurakaz ondo gomutaten nazanak, errepubli-kea etorri ta lasterkoak izan ziran. Abertzaleak eta karlistak bat eginda joan ziran, eta Bizkaia'n katolikoek batasun onek irabazi eban.

Talde onetan lau abertzale ta karlista bat izan ziran aldun urten ebenak. Azkenengo au Martzelino Oreja zan, geroago, 1934'garren urteko gorrien matxinadan, Mondra-go'i'n il ebena.

Polita jazo zan auteskunde aretan! *La Esperanza* auto-busen jaubeak ziran sendiko Beristain'dar Periko'k, errepu-blikatarra bera, berak sartu nai izan eban bere autarkia; eta, bere naia ezin egin izan ebanean, ez dakit zelan jo urnea ta autsi egin eban.

Jendea, batez be abertzalea, asarratu egin zan, ori jakin ebanean. Jazo zana jazo zalako, auteskunde areik Onda-rroa'n ez baliotea be izan eitekeala esaten asi ziran, eta ortik kaltea etorkien arrantzaleai. Bagillaren 28'a zan, eta San Pedro-txiki eguna igaro zain egozan, beti lez Santander eta Asturias aldera atunetara joateko. Ta, auteskundeak barriro egin bear ba'ziran, astebete luzatzeak iru edo lau egun atze-ratzen eban arrantzaleen atunetarako urteera.

Olan, jendea gero ta beroago, eguerdi inguruan bere billa joan ziran; eta, ganbaran ezkutau zan arren, arkitu eben, eta lau foralen erdian kuartelera eroan. Eskuak lotuta eroan ebela uste dot. Naikoa estua izan zan kaleetan zear eroate au. Jendeak artu nai eban; eta foralak, eskopetak eskuetan zituela, lau alderdietara begira ta gizona ezin zainduta, ez ziran bereala eldu kuartelera. Baiña azkenean be gauzea ondo amaitu zan.



Balio izan eben auteskundeak; eta, jendeak lenengoan olakorik uste ez arren, bi edo iru egun barru, Periko auzo erri baten kalean ikusi eben.

Errepublikoa ekarri eban 1931'garren urteko jorraillaren 12'an, auteskunderik ez zan izan Ondarroa'n. Ez dakit zelako 29'garren artikuluaaren araura jarri zan udala; au da, alkatea ta ziñegotziak. Gero, España'n izan ziran auteskunde guziak egin ziran.

Auteskundeak askatasun osoz egiten ziran. Nai ebanak nai eban aiña zabalkunde egiten eban. Berbaldiak batzoki ta enparantzan, eta orriak zabaldu. Baiña orduan ez zan orain beste orri ormetan itsasten; ezta eunetik batik be.

Bai; askatasun osoz egiten ziran auteskundeak, baiña tranpatxuak be egoten ziran. Autarki bat edo beste legez kanpora irabazteko lan asko egiten zan. Eusko abertzale alderdian bai beintzat. Errian ez egoanen bat edo besteena, edo gaixoz etxetik urteten ez ebanaren edo dana-dalakoaren autarkia norbere alderdira bear zan. Orduan ez zan, orain lez, ezer agiri edo *dokumenturik* erakutsi bearrik.

Baten, nire arreba Justina'k iru autarki emon zituan: bi Ondarroa'n eta beste bat Berriatua'n.

Ondarroa'ko autarkien kontua olan izan zan. Nire arrebearen izena ta abizena oneik dira: Justina Etxaburu.

Ta ba-zan neska bat kanpoan neskame egoana, eta politika kontuak gitxi arduraten ebalako ziurren etorriko ez zana. Bere izen-abizenak: Agustina Etxaburu. Ikusten dan lez, ia bardiñak. Ta adin berekoak ziran.

Aren autarkiagaz jaubetu nai izan eben JEL alderdiko buruak, eta nire arrebeari agindu eutsen berak emoteko bere abizeneko neska arena.

Bestearen autarkia beste tokian emon bear eban. Ta Ondarroa txikian nor zein alderditan bizi dan ba-genkian orduan, Au da, berea ez zan auzora joan bear zan autarkia emotera nire arrebea. Baiña ausartu zan ori egitera. Ta joan zan.

Mai aurrean izen-abizenak emon zituanean, maiko batek arpegira begiratu ei eutsan, angoa ez idurituta kontixu,

baiña izen-abizenak ondo emoten zitualakoan, ez eutsan ezer esan, eta emon eban autarkia.

Gero joan zan bere auzokoak emoten eben tokira, eta emon eban berea.

Berriatua'ko autarkiaren kontua olan izan zan.

Ondarroa'n Zubi-barri'tik goruntzko eskumaldea Berriatua da, ta autarkia be antxe emoten dabe alderdi artean bizi diranak. Gure etxeokak be antxe emon eben Errepublika denporan izan ziran auteskundeetan. Baiña nire arreba Justina, Errepublika etorri zanean ezkondu zan, eta kale bertako ezker aldera joan zan bizitera, Karoliña'neko etxetara. Ta orduan aurtarkia Ondarroa'n eukan, eta emon be antxe egin eban.

Baiña ordutik iru urtera kale bertako eskuma aldera bizitera joan zan barriro; au da, ostera be autarkia Berriatua'n eukan. Ta urrengo auteskundeak eldu ziranean, autarkia erri bitan eukala jakin eban: Berriatua'n eta Ondarroa'n. Erri bitako zerrendetan arkitzen zan Justina'ren izen-abizenak. Ondarroa'koai aztu egin jaken euren zerrendatik izena kentzea.

Ta Ondarroa'ko auteskunde kontua eroen Batzokiko arduradunak orregaz konturatu ziran, eta bietan emoteko agindua bialdu eutsen nire arrebeari. Ta pozik bete eban agindua.

Baiña, olako tranpatxu batzuk gora-bera, auteskunde areik garbiak ez zirala ezin esan leiteke. Gitxi izaten ziran *bolillea* esaten jakon alako autarki zikiñak; eta, gaiñera, alderdi guztietakoak egingo zituen, batek emen eta besteak an.

Errepublika denporako auzi garrantzitsu bat Estatutoa izan zan. Katalandarrak lortu eben euren Estatutoa edo Araudia; baiña guk ez genduan lortu. Euzkadi guztia gudan ia galdu arte.

Errepubliketa nai ebenak Donostia'n batu ziran Ditadurearen azken aldian. Katalandarrak be antxe ziran, eta Estatutoa izango eben baietza antxe lortu eben.

Eusko abertzaleak ez ziran izan batzar aretan, ez dakit deitu ez euskulako ala geienak Jaungoiko bakoak ziran

arekin ezer nai ez gendualako. Beintzat, guk ezin izan genduan Araudia lortu. Lenengoa, *Estella'ko Estatutoa* izenez ezagutzen zana, ez zan geroago egin zan Konstituzioaren barruan egokitzen. Erlejiñoari ainbat aurka egiten jakon aldi aretan, Euskal-Erriari bada be Elizak eta bere erakutsiak askatasuna izan eien, Konkordatua egiteko eskubidea Estatuto orretan sartu nai izan genduan. Baiña orduko España'ko giroan eziña zan ori, ta baztartua geratu zan gure Askatasun Araudia.

Gero, eskumatarrak nagusitu ziranean, ez egoan ezer lortzerik gure erriarentzat, bere eskubide kontuan. Irugarren aldian, 1936'garren urteko ezkertarren garaitza ondoren, barriro gure Estatutoa lortuko genduan itxaropena biztu jakun. Baiña, katolikoak nagusi edo geiago ziran Euskal-Erriari, ezer eskubiderik emoteko gogo andirik ez egoan Madrid'ko kortetean. Estatutoaz itz egiten eta erabagiten asi ziran arren, dana zan atzera egitea ta denpora igarotea; ta alan, ezer lortu baiño len, gudea asi zan. Gero, ba-dakigu zer jazo zan: ia dana galdu ta gero, errepublikearen alde burrukateko, emon eben zorioneko Estatutoa.

Estatutoa zala-ta, erreferenduna izan zan 1933'garren urtean. Olakoetan beti lez, Eusko Alderdi Jeltzalea oso-osorik jarri zan Estatutoaren alde.

Ezkertarrak ez egozan Estella'ko Estatutoaren alde. Karlatarrak ez bero-bero; baiña lagundu eben.

Gero ontzat emon zan Konstituzioan, Estatuto orrentzat ez egoan tokirik, eta baztartu egin zan. Gero bestea gertutu zan. Bigarren Estatutoa eskumatarrak, karlatarrak-eta, ez eben onartu, Jaungoiko bakoa ta garestia zalako ta ez dakit zenbat aitxakigaz. Ezkertarrak, ez bete-beteian, baiña onartu eben. Ta errefendunera atara bear zan eta, olakoetan oi dan lez, naikoa zabalkunde egin zan. Bere aldeko zabalkundea ia oso-osorik abertzaleen kontua izan zan. *La Voz de Guipúzcoa* izeneko donostiar ezkertar izparringiak Estatutoaren aurkako idazlan sakon bat baiño geiago argitaratu eban, Sarasketa abizeneko batek idatzita. Egia esateko, ez nago orain ziur bere izen-abizenak zeintzuk ziran. Baiña, azkeneko egunean, izparringi orrek, auzia danetara aztertze

aukerea emon ebala, baiña bere izenean autarkia emoteko eskatzen eutsan irakurleari.

Estatutoaren aldeko zabalkundean, euskal ikasleak, estudianteak be, lan egin eben. Egun baten Ondarroa'ra eldu ziran, eta Batzokian berba egin eben. Euretatik ondoen berba egin ebana, jendeari gogokoen izan jakona, Serrat izan zan. Bermeotarra zala uste dot. Baiña gero, Franco jagi zanean, Serrat bat, ez dakit zein, francotarren alde nabarmendu zan.

Aitatu dodan ikasleak emondako berbaldian, Ondarroa'ko abertzaleen buru zan *Txori Erreka* euskal idazleak be ba-eukan zerbait esateko, ta jagi zan eta egin eban berba. Zera, Don Luis Arriola ondarrutar osagillea Gazteiz'en egoan iru probintzietako gotzai Mujika'tar Mateo'gana joan zala Estatuko auzian zelan jokatu bear zan itaunka, ta gotzaiaren erantzuna baietzkoa izan zala; Estatutoaren alde emon bear zala autarkia erantzun eutsala.

Barri au txaloka artu eban jendeak. Karlatarrakaz nai-koa txarto konpontzen giñan, baiña nai genduzan euren autarkiak Estatutoaren alde.

Ordutik egun batzutara, Bengoetxea'tar Bitor karlatar ziñegotzia, arrantzalea, Batzokira etorri zan *Txori Erreka*'ren itaunka. Ez egoan an *Txori Erreka*. Orduan, ara zetara joan zan esan eutsen berak, an egozan gizon abertzaleai. Zera, Don Luis Arriola ez zala joan gotzaiarengana, ta *Txori Erreka*'k ori ezeztu edo errektifikatzeko eskatzera.

Gero, *Txori Erreka*'k ori jakin ebanean, ederto garbitu eban auzia. Orria atara eban eta errian zabaldu: egia zala berak Batzokian esandakoa, gotzaiaren urrengoa zan bikarioarengandik jakindako kontua zala ta. Ez naz gomutaten bikarioaren izenagaz.

Don Luis'en orduko jokabidea zer zan argi egoan. Gotzaiak Estatutoaren aurka berba egiten ba'eban, danean zabaldu Eliza agintariak berari esandakoa, ta Estatutoari lurra jo eragiten alegindu. Eta Estatutoaren alde agertzen bazan gotzaia, iñori ezer aitatu be ez. Baiña txarto urten eutsan.

Karlatarrak ez ziran Estatutoaren aldekoak; aurka geiago egozan. Baiña alde agertu ziran jaun andiren bat edo beste

izan zala uste dot karlatarren artean be, ta orregaitik aurka gogor jokatzeko ez egozan. Gure errian ez beintzat. Olan, erreferenduna zan egunean, auteskunde maikoak ziran karlatarrak ez ziran agertu. Errepublikanoak, ostera, Estatutoaren alde egozan. Beraz, autarkia emon bear zan toki edo kolejio guztietako arduradunak batera egozan, eta nai zana egiteko ez egoan oztoporik. "Guztietakoak" esan dot, ia alan zalako. Baiña Elixope gaiñeko kolejioko bat, maiko zuzendaria bera, Estatutoaren aurka egoana zan: Doña Anita Arriola maistrea, ain zuzen Don Luis Arriola'ren arrebea.

Esan bearrik be ez dago ta, abertzaleak, erriko alderdirik indartsuena, Estatutoaren alde emon eben autarkia, iñok utsik egin barik. Errepublikanuak be danak edo geienak. Eta karlatarren batzuk be bear bada emongo eben. Alan be, bear zan eta nai zan beste autarkirik lortuko ez zan bildurra egoan. Beste kolejioetan nai zan aiña autarki atarako zan. Baiña Elixopean ziran kontuak! Egia, aurkakorik egongo ez zana jakiña zan. Baiña baietzkoak be geiago nai ziran. Eta, aukera eltzean edo eldutean, *bolillak* edo autarki paltsoak pilloka sartzeko prest egozan maiko arduradunak. Baiña Doña Anita geldi antxe! Orduak aurrera ta geldirik arria.

Orduan auteskundeak lauretan amaitzen zirala uste dot. Dana dala, ordu erdi inguru palta zala, geiago ezin eutsi ta jagi ta korrika komunera joan zan Doña Anita. Ta orduan bixkor mutillak autarki paltsoak sartzen!

Bereala an ei zan Doña Anita lengo tokian; ta igarri be egiten ei zan autarki paltsoak sartu zituenan. Ta berak, Doña Anita'k, areik ez zituala zenbatuko esan ei eban. Baiña auteskunde orduak amaitu ta autarkiak zenbatzen asi ziranean, aurkako barbarik ez ei eban esan eta danak zenbatu ei ziran.

Kontu aretan garbi jokatura be, naikoa autarki izango ziran Estatuto edo Araudiaren alde. Baiña legeak asko eskatzen ei eban bera ontzat emoteko, ta premiña barik zikin jokatu eben Elixopean.

Doña Anita'gazko kontu au, ni lez musika taldekoa zan Aranbarri'tar Pedro'ri, Pedro Mitxel'eri, orduantxe entzundakoa da.

Estatutoagaz amaitu baiño len, beste kontutxo au be esan bear dot.

Euskal Erria'k erreferendun bidez Estatutoa onartu eta urrengo eguenean, manifestaziñoi andia izan zan Ondarroa'n arratsaldean, musika taldea urretik zala. Baiña guk, musika taldeko bost-sei gaztek, zertxobait geiago nai genduan; eta, iñok ezer ez ekiala, goizeko seirak inguruan kalerik-kale musikea joten urten genduan, lo egoan jendea esnatuaz. Ta azkenerako pillotxo geunkan atzetik.

Nik, ez orduan eta ez arratsaldeko agermenean, iñor ez neban ikusi iñoren aurka didarrrik egiten. Baiña urrengo egunean, Don Luis Arriola'k Bizkai'ko jaurlariari egindako telegramearen barri ekarri eben izparringiak. Kalerik-kale izan zan agermen edo manifestaziñoian jendea bere etxe aurrean didarka ibilli jakola, Estatutoaren aurka agertu zalako; eta urrutidatza alan amaitzen eban:

*“Pueblo que no respeta libertad individual no merece libertad colectiva”.*

## Eliza nagusia edo Parrokia

**O**NDARROA'ko lenengo eliza nagusia, parrokia, Antigua'ko elizea zala esaten da, naita ori egiztuten daben argitasunik emon ez. Beste au be esaten da edo, obeto esateko, *Torres de Vizcaya* liburuak dakar: zera, Antigua'ko eliza ormaz inguratua izan zala.

Ondarroa'ko gaurko eliza nagusia, erriko mustur-musturrean dagoana, 1480'garren urtean asi ziran egiten.

Lekeitio'koa egin ebanaren diru laguntzaz egin zala be esaten da. Baiña, egiten ziarduela, diru emoillea il egin zala; ta ustea zan lez egiteko laguntzarik ez, eta ala-olako amaierrea emon jakola. Garbi agertzerik ez dabeen antxiñako kon-tuetan milla eretxi agertzen dira, ta gure elizaz beste au be esan izan da: aurrez erabagi zan baiño txikiagoa egin zala bere luze-zabaleran; eta olan, kanpoan gelditu zan oiñarri gaiñean, Korretea deitzen dautsaguna egin zala.

Azkenengo au olan izan zanik ez jat iruditzen. Gero Korretea egin zan tokiraiño elizea zabaltzea asmoa izan balebe, egaleko oiñarria arku utsak ez zan izango, orain ageri dan lez, guztia betik goraiño betea baiño.

Eliza amaitu barik geratu zala egia izan leiteke. Beintzat, bere goi egaleko orratzak ez dirudie ondo amaituak diranik. Bearbada, gaiñeko musturretan dituen *mamu*-akaz apaiñagoak izango zirala iruditu bide jaken, orratzak egiten asi ta gero.

Nik amazortzi urte inguru neukazala, aize andia izan zan baten, San Jose egunez, bolada batek neurkin luze inguruko zatia orratzari musturretik kendu ta kalera jausi zan, *Mari Mutriku*'neko denda aurrera. Gora eta bera beti norbait dabilen tokia izan arren, eta meza nagusia amaitu ta laster, ezbearrik ez zan izan.

Elizearen aurreko arpegia apaiña zanik ez neuke esango. Beintzat, balio andiko aurre ta elizarako sarrerea izan ba'leu, ez eben egingo gero egin ebena: aurreko alde orri erantsiaz —beraz, estaliaz be bai—, udaletxea eregi. Udaletxe au, aurreko aldian dituan abe biak kenduta aintzat arztekorik ez daben etxe au, 1852'garren urtean jaso zan.

Ta oraingo zapai ta teillatuak 1860'garrenean egin ziran. Elizeak berak eukan zidarragaz ordaindu ziran azkenengo lanak.

Aldaketa andia izan eban koruak 1950'tik 1960'ra bitartean. (Noiz egin zan, urte kontuan zeaztasunik emon ezin dodalako ipinten dot amar urteko tarte ori; baiña lanak denpora gitxi iraun eben.) Ordurarte, iru zati anditan banatzen zan korua, aurreko aldean eukazan abe nagusi biak agintzen ebenez: sakristia gaiña traste gorde leku zan; erdia, organu ta abes leku; ta ezkerrekoa, leku illuna, gizonentzat. Barrizate lanak eginda, erdia lengo tokian geratu zan, betik goraiño mailladiagaz; eta bi alderdiak aurreko abetaraño aurreratu ziran. Eta organua, aurreratutako ezkerreko orretara aldatu.

Koruko lanak egiten ziarduela, arritzar edo olako zerbait jausita, eskumako ur-bedeinkatu-ontzia autsi eban. Ta aren orde, Antigua'tik edo ez dakit nundik ekarrita, orain dagoan txikiagoa ipiñi zan.

Orreik lanok Don Pedro Arakama bikario egoala egin ziran.

Gu umeak giñanean, zar txikitxoia zan Errosarioko altaera ta bertako Ama Birjiña, bai ordurarte ta bai geoago be, ibildeunean eta urriko errosariuetan-da ataratzen zan kendu-ipiñiko irudi txikitxua. Ta orduantxe aldara barria ipiñi eben.



Orain aldara orretan goian dagoan Balentin deuna, len, sakristia baiño aurrerago eskumako orman egoan aldara txiki baten egoten zan. Ta, bera aldatu ebenean, aldara soil a be kendu egin zan.

Ezkerreko orman, erdi inguruan, Ortu Santuko Otoia esango geuntsakean irudia egoan Franco'ren guda aldirarte. Ta aldi aretan, orduko bikarioa zan Don Gines Aretxaga'k, kendu ta bere erri Bermeo'ra-edo eroan eban. Ta arrizko irudi eder aren ordezt beste bat ekarri eban, olezkoa, Aste Santuko ibildeunetarako egokitua.

## Elizakoak eta illetak

**G**URE denporan, ta batez be Batikanoko II Batzarra ezkeroko azken urte oneitan, gauza asko aldatu dira Elizan, Beste batzuen artean, illetak eta onein inguruko oitura ta elizkizunak.

Oneik guztiok gure gaztaroan, eta geroago be bai, zelan izaten ziran jarriko dogu, gerokoak euren asaben bizimoduaren alderdi baten barri jakin daien.

Gaxoa txarto jartean zanean, osagillearen aginduz abadeari dei egiten jakon, oean zanari elizakoak emoteko. Elizakoak emotea gure Jaunak emon eta olio santuagaz azken igurtziak egitea da.

Lenengo, abadea etorri ta gaxoa autortuten zan. Gero gure Jauna agirian eroaten eutsan gaxoari etxera. Aurrez kanpaiak joten ziran, zertarako zan erakusten emoten eban jote bereziagaz, gure Jaunari iñok lagundu nai ba'eutsan, ta beti bat edo beste edo geiago agertzen ziran orretarako.

Abadeak, gure Jauna ontzitxu baten artu ta zapi baten batuaz eta esku bien puntan bular ingurura jasoaz, eta aurretik sakristaua-edo, esku baten argi ontzia ta besteakaz txiliña joten, gradaren erditik igaro ta ate andia *grink-grank* iragiaz, kalera urtengo eban. Ta, bidean joiala, txilin otsera kaleko guztiak belauniko jarten ziran, gure Jauna aurretik igarotean.

Iñoiz, antxoba asko izan eta Kofradia aurrean gurdiak ustu ta beteten jendetza andia ta zaratea be naikoa izan arren, danak lana laga ta ixil-ixilik belaunikotuko ziran. Ta baita gazte jendea, enparantzan musika otsean dantzan ebillela, elizakoak igaroten ba'ziran, soiñua ixildu ta baltseo dantzariak, asko neska ta mutillak, alkarri laga ta belauniko jarriko ziran. Olako jazoerea bi edo iru alditan ikustea gertau jat.

Franco'ren guda ezkerro, meza nagusitan, sagaratzean, *Marcha Real*'a jotzen zan Ondarroa'n urte askoan; eta, olandxe, elizakoak enparantza ondotik igaro zan esan dogun areitan, dantza soiñua ixildu ta bereala *Marcha Real* ori jotzen asten giñan, iñoiz taldeko zuzendaria zer jazotzen zan konturatu baiño len.

Gaxoa ilten zanean, lenengo, ia-illeko edo agoniako kanpaia jotzen zan, eta miñitu batzutara il kanpaia. Ildakoa andrazkoa bazan, azkenean kanpai ots bi jotzen ziran; eta iru. gizonezkoa bazan.

Baten, abade barri bat errira etorri zanean, ia-illeko kanpaia jo ta il kanpairik ez zala jotzen-eta, jendea zer jazotzen ete zan egon zan. Ta jakin zan jazo zana. Zera, gaixoa il agiñean jarri zanean, egokion kanpaia joteko agindu eban abade barriak, eta bi edo iru ordu alantxe egon zan gaxoa, ta il kanpairik ezin jo il arte. Alantxe izan zan kanpai jo-aldi bien tartea. Jokabide a ezin-ta zuzenagoa izan zan; baiña ez dakit iraun eban ala ez.

Norbaiten eriotza izaten zanean, gabean, etxean, ildakoa bertan egoala, agurtza bederatziurrena asten zan. Lenengo egunean, amabost siñeskaiko agurtza otoiztuten zan, eta urrengoetan bostekoa. Orrezaz gaiñera, deun oni ta beste ari, otoitz asko esaten zituan errezatzaileak. Guztia ezin-ta bigunago, ezin-ta gozoago. Aingeruak eurak be ez eben obeto egingo.

Errezatzaileari —andrak izaten ziran— egunero, bere lana amaitzean, kafe-esne gozoa erooten eutsoen, eta antxe danen aurrean zurrutaka edaten eban. Jakiña, orrezaz gaiñera, diru-saria, alogera be izaten eban.

Illa obiratzea ta illetak biaramon goizean izaten ziran.

Len, il obiratzeetan, *anda-jasotzailleak* esaten jakenak egozan: lau gizon, gain jantzi antzeko baltzez jantzita. Entzunda nagoanez, ez ziran antxiñatik etozenak. Illak eroateko lagunak billatzea kostau egiten zala izurrite baten, ta orduantxe sortutako taldea zala.

Baiña, zeregin orretarako taldea sortu zanean be, ildakoa beti bere senide edo lagunak eroaten eben. *Anda-jasotzailleak* lagundu egiten eben bakarrik: il-kutxa etxetik maildian bera eratsi, besteai lepora emon eta olakoak.

Orain ez dago *anda-jasotzailerik* Ondarroa'n.

Il kutxaren atzetik, ildakoaren etxeko ta senide gizonezkoak lerroan banan-banan alkarren atzetik joaten ziran, senidetasunak agintzen eban ez bata bestearen urren. Orain be bai. Il kutxea eliza atarian —elixoan— oial baltzez estalitako mai baten gainean lagaten zan; eta, bertan abadeak otoitz batzuk abestu ondoren, guztiak eliza barrura sartzen ziran, gorpua antxe kanpoan lagata. Au España'ko legeak agintzen ebena zan.

Len iru maillako illetak izaten ziran, ordaindu nai zana-  
ren arabera. Erriko berbetan esateko, primerakua, segundakua ta tertzerakua. Lenengo maillakoa, abadeak jantzirik onenak jantzi, argi asko biztu, koruan be naikoa abeslari, geienetan Perossi'ren illeta mezea abestuten. Bigarren maillakoa apalagoa izaten zan, bai jantzi, bai abesti ta bai argietan. Ta irugarren maillakoa, txiro itxurakoa, jantzi zar itxurabakoak, argiak iputargia baizen makalak, ta abestu be aringa-aringa ta makal.

Baiña ba-egoan irugarren maillakoa asko beeratzen eban beste zerbait. Ondarroa'ko elizan aldara aurrean, bai ezkerrean eta bai eskuman, aulki luze bana dago. Ta illetetan, ildakoaren gizonezko lerroa elizaratzean, lenengo ta bigarren maillako elizkizuna zanean, ezkerreko aulkian jarten —jezarten— ziran; eta, irugarren maillakoa zanean, eskumako aulkian jarri bear ziran. Baiña eskumako aulkia txikiagoa zan, biurgunea eban eta lerroko bost edo sei gizon egon eitekezan patxadan. Baiña urrengoak, iru-lau zutiñik ezin egonda egongo ziran; eta beste batzuk, aulkian tokirik ez-ta, kanpoan.

Guk lenengo ezagutu genduan bikario zarra, Don Agustín Zenarruzabeitia, gizon zuzen eta biotz onekoa zan, esaten ebenez. Baiña aurretikoengandik artutako oitura itxusi areik txarto egozanik ez jakoen iruditzen abadeai; ta jendeari be ez, kontixu.

Gizon lerroa aurreko aulkietan jarte kontuan beste polit bat be ba-da. Ezkerreko aulkia, jai andietako meza nagusietan, udala elizara joateko egunetan, udalgizonen jarrilekua izaten zan. Ta asierako egalekoa, alkatearen jarri lekua, bestearenengandik berezi egiten zan, ez dakit zer agintaritzaren agergerri zan apaingarritz, ta beso biak ipiñi al izatekoagaz. Lenengo maillako illetak ziranean, senidetzako lenengoa jarri eitekean an, alkatearen jarlekuan, eta jarten zan. Baiña bigarren maillakoetan alkatearen jarrileku a utsik gelditu bear zan; an ez egoan iñor jaterik. Baiña baten, bigarren maillako elizkizuna izan arren, jarri egin zan lerroan lenengo zana, ta ez dakit sakristaua edo akolitoren bat joan jakon abadearen izenean, andik kentzeko esaten. Baiña besteak ezetz. Beste a Adrian Baltza arrantzale sendo ta ospetsua zan, Donostia'ko Karril'en aurka estropadea galdu eben taldekoa izandakoa. Ta, berak nai ez ba'eban kendu, zeiniek kendu a andik?

Aldi baten gorpuaren illobiratzea, illetak eta abar zenbat izaten zan jakiteko, ondo etorriko da 1963'garren urtean il zan nire amaren eriotzako ordaindutekoak zelan izan ziran emen ipintea. Emon euskun lez, ezer aldatu barik, doa:

#### GASTOS DE ENTIERRO

<i>Entierro</i> .....	975
<i>5 misas de entierro</i> .....	425
<i>Caja de entierro</i> .....	835
<i>Cementerio</i> .....	475
<i>Juzgado</i> .....	25
<i>Certificado de Marquina</i> .....	50
<i>Certificado de D. Sabin</i> .....	25
<i>Lazos de la caja</i> .....	190
<i>Cruz de hierro</i> .....	500
<i>Petra</i> .....	200

<i>Recordatorios</i> .....	220
<i>Leona</i> .....	25
<i>Misas gregorianas</i> .....	<u>1.500</u>
	5.445

Ori zenbat zan ondo ikusteko, au esango dot. Orduko nire alogera ta amairu puntogaitik emoten eustena, illean lau milla laurleko zan, urte bi lenago Orlando'nean sartu nintzanean.

Illetak bigarren maillakoak ziran, baiña orko kontu askok ez dauke zer ikusirik maillakaz.

## Elizako illobi edo sepulturak

**D**ANOK dakigu antxiña ildakoak eliza barruan obiratzen zirana gure errietan. Jakiña, orduan Ondarroa'ko elizaren beian-gaiña ez zan olezkoa izango, gero guk ezagutu izan dogun lez.

A. Zubikarai'k diñoanez, 1751'garren urtean sepultura edo illobi banatzea izan ei zan Ondarroa'ko elizan. Illobi banatzea, ildakoak nun obiratu pamiliei edo senidetzai tokia izentatu edo emotea izango zan. Ebanjelio alderdian, au da, elizan sartu ta ezker aldera, 89 illobi banatu ziran; eta epistola alderdian, eskuman, 90 illobi.

Dirudianez, senidetza zerrendan nire abizenik zuzenean ez dator, olan baiño:

*31 Elizondo junto a Echaburu*

*75 Ibarrecoa Echeburua*

Ordutik urte pillora, 1787'garren urtean, illak elizatik kanpoan obiratzeko agindua etorri ei zan Madrid'tik; eta 1811'garren urtean asi ziran kanposantuan obiraten.

Baiña, illak illerrian lurperatu arren, jarraitu egin eben *sepulturak*, errian esaten dogun lez, Ondarroa'ko elizan, gure egunak arte. Ostera, Frantzia ta Frantzia'ko agintea Elizarenganako emengoa baiño otzagoa izan arren, an lagaten eben ildakoa elizara eroaten. Franco'ren gudea zala-ta Ziburu'ra joan giñanean ikusi genduan ori.

Emen, kanposantuak sortu arren, jarraitu egin ebela elizetako sepulturak esan dogu. Eurok, senideak, andrak, ildakoaren arimaren alde otoi egiteko batzeko tokiak izan dira. Bat ilten zanean, bere senidetzako sepulturan argizaiola ipinten zan. Argizaiolean, lapitzaren loditasunaren antzeko argizaria lokarria bailitzan batzen zan, eta elizkizun jakin batzutan biztuten zan. Biztuten zanean, etxekoren bat gitxienez bertan egon bearko zan. Inhor ez egotea gauza itxusia zan.

Sepulturak banatu ziranetik asko ugaritu ziran sendiak, eta baita barriak erriratu be. Ta batzutan argizariak ipinteko edo euren sendikoak egoteko tokirik ez; eta inhoiz andrak, argizaiolai aruntzago ta onuntzago bultzaka, eztabaidak izaten zituen eliza barruan.

Argizaiolak biztuten ziran elizkizunak, oneik izaten ziran: igande ta jaietako meza nagusi ta bezperak; egunero meza bat, meza nagusia esaten jakona, naita abade bakarrekoa izan. Bearbada, onetxegaitik, argizaiola biztuten zalako, deitzen jakon meza nagusia asteguneko abade bakarrekoe arei. Ta larunbatetako Salbetan be biztuten ziran. Oneitatik kanpora biztuten ba-zan edo ez ez dakit.

Sepultureak, urtea inguru irauten eban, eta illeta elizkizun berezia eginda kentzen zan. Elizkizun oni *mankala jasotea* deitzen jakon. Azkue'k, bere *Euskalerraren yakintza* idaztitan, Ondarroa'ko kontutzat emoten dau *mankala jasotea*. Ipinten danean eta urte guztian, *mankala* itza ezertarako ez da erabilten. Baiña, kentzean, izen ori emoten jako, ta baita *sepulturea altza* be. *Mankala*, nire ustez, oial baltza izango zan, il obiratze ta sepultura jasotzean argizaiola azpian egoten dana. Baiña, gure denporan beintzat, egun bi orreitatik kanpora, paper zuri baten gainean egoten zan argizaiola, ta paper ori larunbatero aldatzen jakon; au da, barria ipiñi. Estankuan erosten zan papera.

Sepulturea eukitea astun egiten jaken ildakoaren etxe-koai, argia biztuten zan elizkizun guztietara bat edo birek gitxienez joan bear ebelako. Ta azken aldian, illakaz gitxiago gogoratzen garan aldian, argizaiolik ez ipinten be asi ziran batzuk, etxean izandako eriotzetan. Ta ipinten ebenak be ez eben eukiten urte osoan.



Ta Ondarroa'tik alde eginda laster —1966'garrenean alde egin genduan—, elizari beko ola kendu ta losak jarri ta lengo bakotxaren aulkiak kendu ta aulki ederrak eliza osoan ipiñi ziranean, ez egoan argizaiolentzat tokirik, eta alantxe amaitu ziran argizaiol eta sepulturak.

Sepultura edo argizaiola eukiteak beste bearkizun bat eukan beragaz batera. Len, igande ta jaietako meza nagusitan, ogia edo opilla —gauza bat— eskeintzen eutseen abadeai. Ez dakit zenbat; opiltxo bat-edo izango zan. Baiña urte barruko illak bearbada orduan be ogetamarretik gora izango ziran, eta ogi asko zan ori eurak jateko. Ez dakit zer egiten eben ainbeste ogigaz. Bearbada, ospitalera eroan edo beartsuai emon. Baiña lenengo guda denporan-edo izan bear eban, entzunda daukadanez, ogi gitxi be bazala, ta ogia kendu ta orde z dirua emotea erabagi eben. Abadeak, kontixu, egingo eben ori. Diru ari *opillan dirua* deitzen jakon.

Ez dakit zenbat izaten zan. A be, beste gauzak lez, geitzen joango zan. Baiña Franco'ren guda aurretik errial bat, gitxi gora-bera, izango zan. Meza nagusitan *ofertorio*'ko denporan iru abadetatik bat jatsiten zan aldaratik grada asten zan tokira, akolitoa lagun ebal. Abadeak estola ipinten eutsen aurrean, eta andrak estoleari musua emon eta akolitoak esku biakaz eukan *bandejan* laga dirua. Andrak grada erdian lerroan jarten ziran; eta, euren egitekoa egin ala, banaka bere sepulturara.

Ofrenda eroatekoa ildakoaren etxekoa edo urrekkoa izaten zan. Gure amaren ofrenda egitea nire andreari tokatzen jakon. Lau alaba an eukazan, baiña erreñari tokaten jakon.

## Aste Santua

**E**LIZA Katolikoak andikiroen ospatzen dituan elizkizunak, Jesukristo'ren eriotzea gomutatekoak izaten dira; Aste Santukoak.

Asierea, Aste Santua baiño len egiten zan santu ta kurutzak oial morauz estaltzea izaten zan. Eta au lengo barri lez emoten dogu. Urte batzuk dirala, oitura au galdu egin zan; edo, bearbada, eliza agintarien aginduz kendu eben.

Esan dogun lez, Pasiño igandean elizetako irudi guztiak zapi morauz estalita agertzen jakuzan. Ondarroa'n, erdiko aldarako irudi guztiak batera estaltzen zituan oial andia ipinten zan goitik bera dindilizka. Ta alantxe egoten ziran Pazku egunerarte; edo, obeto esateko, estalki barik agertzen ziran egun orretan.

Erramu igandeko meza nagusitan eriñotz edo erramu bedeinkatzea izaten da. Umeak danak abadearengana arin eldu naian, an izaten da zaparradea!

Eriñotzea etxeetako balkoietan, itxasontzietan eta olakoetan ipinten da. Aldi baten, kontixu, zerbait txarretik zaintzeko ustean izango zan. Gaur, olakoetan, lengo oiturai jarraitzea baiño beste usterik ez dogu izaten.

Erramu eguneko goizpar edo ebanjelioa Jesukristo'ren Nekaldia izaten da, ta iru abadek irakurten dabe meza nagu-

sitakoa. Ondarroa'n, orain urte gitxi dala aldara nagusiko balaustradea kendu eben arte, onen alderdi banatan urre margoko txori andi bana egoan, eta euren gaiñean orduko liburu andiak ipiñi ta epistolea ta ebanjelioa irakurten ziran meza nagusitan. Aldareari begira ezker aldekoa ebanjelioko alderdia zan; eta eskumakoa, epistola alderdia.

Olantxe, Erramu eguneko ebanjelioa irakurteko, abade bat erdian, aldara nagusian, gelditzen zan; eta beste biak, esan doguzan alderdi bietan. Ebanjelio aldekoak edeslari egiten eban, eta doiñua erdi maillan eroanez abestu. Besteak, aldaran egoten zanak, Jesukristo'rena egiten eban, betik eta goibel antzean abestuz. Irugarrenak, epistola aldetik, Nekaldiko alkarrizketetan tarteko izan ziran Pilatos, Herodes, Pedro deuna ta abarrena egiten eban, goi-goitik abestuz. Erriarena koruak egiten eban, iru abotsetara abestuz.

Aspaldi da nik Ondarroa'tik alde egin nebana, ta oraingo konturik ez dakit. Orratio, igaz, 1978'garren urtean, amabi urtean egon ez-ta, bertan egon nintzan Eguen Santu egunetik Pazku egunerarte, ta orain zer egiten dan jakin al izan neban. Orain, abade barriak sartu ziranetik edo noiztik ez dakit, Eguen eta Bariaku Santu arratsaldeetako ibildeunik ez da egiten. Orratio, Attaternua bere elizatzotik ataraten da, ta onek emoten dautso bere itxuratxua, kalean, Aste Santuari. Beraz, len izaten zana edestutea obe izango da.

Eguazten Santu egunean asten ziran ibildeunak Ondarroa'n. Biaramoneko ibildeunerako, Attaternua eliza nagusira eroaten zan arratsaldean, Zubi-zar ondoko bere elizatzotik; Atta-Pirere'tik. Len Zubi-zar'etik bertatik izaten zan eroanekarte ibildeuna. Gero —España'ko guda ezkeretik?—, astilleru ondotik gora, Zubi-barri'tik. Len abade bakar bat izaten zan, geienetan Don Eujenio Usobiaga, bere eroan-ekarrirako, betiko abesti latinezkoa abestuz. Ta orduko elizkizun guztietako apostoluak be an joaten ziran, ibildeunari bere itxurea emoten.

Attaternua, Aita Eternua ondo esanda, zigortuta ta buruan arantzazko koroia daben kolunan loturik dagoan Jesukristo da; ta Atta-Pireri ondarrutarrez deitzen dautsagun elizatxoari ondo deitzekotan, Aita Piedad'ekoa edo olako

zerbait esan bearko geuntsake. Ikusten danez, ondo esanda be, biak naikoa desegokiak dira.

Attaternua, Bariaku Santu goizeko elizkizunak amaitutakoan eroaten zan bere elizatxora.

Len esanda lez laga dogunez, orain urte batzuk arte, Eguen eta Bariaku Santu arratsaldeetan, ibildeunak izaten ziran. Bariakukoa ederragotzat eukiten genduan. Egueneko irudiak oneik izaten zirala uste dot: Kristo txikia, Attaternua, San Juan Ebanjelaria ta Ama Birjiñea Doloretakoa. Bearbada besteren bat be bai, baiña ez dot uste. Geroago beste bat ataraten asi ziran: Jesukristo Jetsemani'ko Ortu Santuan. Au bere armatoste ta guzti, ta astun egiten zan. Irudi au guda ezkeru asi ziran ataraten. Onek argitasun geiago eskatzen dau.

1930'garren urtean, Zenarruzabeitia'tar Don Agustin bikario zarra il zanean, Aretxaga'tar Don Jines, bermeotarra, etorri zan aren orde, eta España'ko 1936'garren urteko gudate arte egon zan. Beintzat, urte aretan erritik igesi joan da ordutik lau urtera errira biurtu giñanean, beste bat egoan bikario: Arakama'tar Pedro jauna.

Gudate arte Ortu Santuko Otoitza irudi eder bat ba-zan arrizkoa Ondarroa'n. Ta Don Jines'ek Bermeo'ra-edo eroan ei eban, gu errian ez giñala; ta orde beste ori ekarri eban, andia baiña olezkoa. Ziur, eroan ebana obeagoa izango zan. Bestelan ez eban eroango, ta ori txarto egin eban. A ez zan iñor aldaketa ori egiteko. Erbestetik etorri ta iru-lau urte egin ondoren barriz erbestera biurtu zana, edozein ondarrutar baiño gitxiago zan ori egiteko.

Kanpora eroan zan Ortu Santuko irudia ez zan ibildeu-netan erabilten; astuna zan.

Bariaku Santu eguneko ibildeunean, Kristo txikia, Aita Eternua ta Ortu Santuko Oraziñoa ez ziran ataraten. Orduan, Jesus illa il kutxan sartua eroaten zan, San Juan Ebanjelariagaz eta Ama Doloretako edo Neketsuaz gaiñera. Eta Nekaldiko beste lagun asko pertsona biziak: Maria Madalena; Iru Mariak, arpegia estalduta; Jesukristo'ren irudia oialean eroana; Jesukristo gurutzea eroaten, Simon Ziri-neo lagun ebala; San Migel aingerua; erromatar gudariak,

*palazeruak* izenez ezagutzen genduzanak; ta betiko apostoluak, Kristo buru ebela. Ta musika taldea. Koruko abeslariak egun bietan joaten ziran.

Guda ezkerero, beste ibildeun bat asmau eben, Bariaku Santu gabean, andrazkoentzat bakarrik. Danak kandelak biztuak eskuetan zituela egiten zan. Ama Birjiña Doloretakoagaz izaten zala uste dot.

Ondarroa'ko Aste Santuko ibildeunetako nagusienak apostoluak izaten ziran: amasei urte inguruko mutil gazteak; morauzko jantzi luzeak eta ortozik —oin utsik—; buruan, goi alderdi bako bisera antzeko kartozkioak, bako txak bere apostolu izena eroela: gerria kordioagaz lotuta; ta eskuetan atzaparra ainbat lodiko makilla, luze antzeko kurutzea apur bat jaso ta gorputzean arrimauta. Bariaku Santu arratsaldeko ibildeunean, kurutze orde, Nekaldiko tresnak eskuetan eukiten zituen, sudur zapiagaz elduta: ultza, eskillara txiki, INRI ta olakoak.

Ibillerea ez zan berezkoa, alako ritmoko baiño, oinkada bakotxean alde batera ta urrengoan bestera asko okertuaz. Ta, geldi egozanean, ibilkundea geldirik egoanetan be, ritmorik ez eben galtzen, oiñak aurreruntz apur bat jaso ta atzera lengo tokiratuaz. Kristo'k zuzentzen zituan; danak batera asi ta batera geratu. Ori danori Polka'k erakusten eutsen, bizi zan artean.

Apostolu bako ibildeunik ez zan izaten, guda ezkeroko Bariaku Santu gabeko Ama Doloretakuagazko andreen gabekoa izan ezik. Baiña euren egitekoa, orretzaz gaiñera, Nekaldiko abestiak abestutea izaten zan, elizkizunak asi aurretik. Kristo'k abestuten eban, eta erriak erantzun, estribillo lez artuta egoan Nekaldi bertako bertso bat. Bertsoak, Basterretxea'tar Agustin lekeitiar joasulagunak (1700-1760) asmatuak. Irurogei ta bat bertso dira guztira, ta bakotxean iru-lau abesten ziran.

Asierakoa olan zan:

Jesukristori kendu ezkerero  
pekatuagaz bizitza,  
baldin ezpadot begar egiten  
arrizkoa dot biotza.

Guztiok lagun  
kantadu daigun  
bere penazko eriotza.

Erriak amazortzigarren bertsoagaz erantzuten eutsan.  
Ori zan estribillo lez eukana.

Damut dot, Jauna, biotz guztitik  
zeu ofenditu izana;  
ez, ez geiago pekaturikan,  
neure Jaungoiko laztana.  
Lar da kulparik,  
betoz agaitik  
pena oriek nigana.

Egia esan bertso ori zan abestu bear zana, Baiña erria  
urteen buruan txarto abesten asi zan, ezer esan nai ez eben  
berbak sartuaz. Nire bizi guztian olan abestu izan dau  
erriak:

Damu dot, Jaun, biotz guztitik  
zu ofenditu izana;  
ez, ez geiago pekaturikan,  
neure Jaungoiko laztana.  
Ez, ez kulparik,  
betor zeugaitik,  
pena ori ez nigana.

Baten, aldrebeskeria onen aurka idatzi neban elizako  
aldizkaritxo baten, baiña iñok ez eban jaramonik egin.

Apostoluak, Bariaku Santu goizean, Aita Eternua bere  
elizaxora eroandakoan, Ondarroa aurrean mendi gaiñ-gai-  
ñean dagoan elizaxora joaten ziran, bidean estaziñoiak egi-  
ñaz. Euren estaziñoiak egitea bideko amalau gurutzeetan  
aita gure bat edo beste errezatzea zan. Baiña ortozik edo  
oiñ-utsik ibiltzen ziran, eta ez jakoen erreza egiten, batez be  
Burgo baserri aurreko ota ta zakarkeriak igarotea. Elizea,  
Santa Ku(ru)tz zan.

Ondarroa'ko aste santuko oitura bat *santuak adoratzeara* esaten jakona izaten zan. Ibildeunerako deunak elizan aurre aldean egoten ziran, mai edo olango zerbaiten gaiñean. Ta Eguen eta Bariaku Santu gabeetan, apaldu ondoren, erri guztia banan-banan euren aurretik igaroten zan, aurrean euken *bandejetan* txori-txiki edo txori-andi bana jaurtiz. Jakiña, askok, joan aurretik edo joan ostean, otoiztxu batzuk egingo zituen. Baiña gizonezko askok, batez be gazteak, ziurrago aita gure batik be ez. Elizan ate batetik sartu, deunen aurretik igaro ta beste atetik urten.

Beste oitura bat be ba-zan orduan, eta azkenetan egoala esango neuke. Beintzat, kontu a etxean eta lagunen artean bein be ez neban entzun: Eguen Santu eta Bariaku Santu bitarteko gaberdian, eta beranduago, elizarik-eliza errezaten ibiltea. Ta ez erri barruko bi edo iru elizatxoetan bakarrik; baita mendian batetik bestera bide andiak egiñaz baserri elizatxoetara be, Santa Klara, Andra Marixa, Idurre ta abarretara joanaz. Olan bein baiño geiagotan ibillitako neu baiño zarragoa zan neure lantegiko neska bati entzundakoa da kontu au.

Aste santuko beste oitura bat erroskak edo erroskillak ziran. Oneik be asteko egun bi nagusienetan izaten ziran; eguenean eta bariakuan. Eliza aurreko *plazuela* deitzen dautsagun enparantzaxoan, errozka saltzailleak egoten ziran. Toki txikia izan arren, lau edo bost saltzaille egongo ziran, bakotxa otzara andi bana errozkaz. Egun orreitan ez zinerik ez beste jolasik ez zan izaten; eta, elizako jirabirea egindakoan, erroskak erosi ta jan, eta kontuak esanaz, danak antxe egoten giñan, batez be gazteak, zirkiñik egiteko be toki andi barik.

Abadeen gogokoa ez zala izaten a iñoiz entzunda nago. Baiña bein be ez eben ezer esan elizan, eta ez zan debekau.

Aste santuko elizkizunak esatean, ibildeunak bakarrik esango doguz. Baiña eliza barruan be elizkizun ederrik egiten zan: estaziñoak, sermoi ederrak, kurutzeari mun emotea, tinieblak eta abar abestutea, ta urte guztian orduan bakarrik egiten ziran beste gauza asko. Ta, jakiña eliza beti jendez gaiñezka egoten zan.

Beste oitura bat, aspaldi galdu zana, esan barik ezin geinke laga. Orduan gizonak *traje* baltzez ezkontzen ziran. Ain zuzen, orretarakoxe egiten eben euren jantzi baltza. Gero, il-obiratze ta *honretan*-da, jantzi ori jazten eben; eta Bariaku Santu arratsaldeko ibildeunerako be jantzi baltz ori jazten eben. Ostera, Eguen Santu egunekoan ez.

Ezkontzeko *traje* baltza egitea noiz sortutako oiturea zan ez dakit, bada nik beti alantxe ezagutu neban. Baiña noiz galtzen asi zan esan daiket. Nire arreba bi, Rosario ta Justina, 1931'garren urtean ezkondu ziran; eta lenengoaren gizona, Zendoia'tar Migel, baltzez ezkondu zan, ordurarteko oiturea zan lez. Baiña Justina'ren senarra, Uribe'tar Lorentzo, urdin erraidunagaz, ziur andregaiaren naia alan izango zalako. Dana dala, ni gomutaten nazan *traje* ez baltzagaz ezkonduko lenengoa, nire koñatu a izan zan, orain berrogei ta zortzi urte. Ezkontz eguneko argazkian be ikusten jako margozko jantzi ori.

Pazko eguna beti igandean izan arren, eta Jesusen Biztuerari dagokiozan elizkizunak egun orretan ospatu, Biztuera ori domekako meza nagusitarako laga ezkerko mezarik entzun barik be bat baiño geiago geratuko zirala-ta, larunbat goizean ospatzen zan. Bederatzietako mezatan, *Gloria in excelsis Deo* abadeak esatean, erriko eliza guztietako kanpaiak joten asten ziran. Ta labea biztuta eukan itxontzirik kaian baegoan, turrun edo soiñua joko eban. Udabarria antxoba denporea izaten da; eta, eguraldi txarra izan ezik, itxasontziak antxobatar joanda egoten ziran, Baiña ordurako, beti edo geiengan, ontziren bat edo beste antxoba apurragaz etorrita egongo zan, edo bearbada iru edo lau be bai, ta areik be turruna jotzen asiko ziran, ta naikoa alaitasun errian ipinten eben.

Jesus'en Biztuereak poztu egiten ginduzala ta ori agertzeko zaratea atara bear zala uste izaten zan. Neuk be baten, elizako kanpaiak jotzen asi zirala entzun nebanean, lata uts pillo bat mailladian beruntz jaurti nituan, lan egiten neban lantegian. Ez zan an egongo nagusia, kontixu. Bestela, garbituko ninduan italiar arek.



## Misiñoiak

**L**EN izaten ziran elizkizunik ospetsuenak misiñoiak izaten ziran. Urte askoren buruan izaten ziran; bearbada, ogei edo geiago urteren ondoren egiten ziran.

Misiñoiak, erderaz esanda, *akontezimzentua* izaten zan errian. Ta orregaitik makiña bat tokitan bertsoak atara be bai, beste edozer gertaera ospetsuri lez. *Auspoa* idazti saillean olako naikoa bertso irakurten dira.

Sermolari bi izaten ziran, eta astebetean ekiten eutsen euren egitekoari. Errira eltzen ziraneko, erriko abadeak kurutzeagaz, eta jende pilloa lagun ebela, itxaroten eutseen; eta guztiak, ibildeunean lez kurutzea jasota, elizaratzen ziran.

Umeentzat, euskeraz ez ekiententzat eta abar, ia egun guztian izaten ziran sermoiak. Baiña itzaldi nagusia arratsaldekoa izaten zan, iruretan-edo asten zana. Ez zan erreza izaten sermoi orretarako elizan tokia izatea, erri guztia bertara joaten zan da. Ez dakit arrantzaleak aste orretan itxasoratzen ziran. Ziur negua izango zan; eta, bizkor ibilli ezker, arratsaldeko iruretarako egingo eben besigutarako osterea. Elizkizun guztiak, sermoi danak izaten ziran goi-maillakoak; baiña bat guztietan ospetsuena, bariaku arratsaldekoa: parkaziñoiko sermoia. Asarre ziranak adiskidetzekoa izaten zan. Ta alantxe, urtetan-da alkarrerri berbarik egin barik egozan

askok, egun orretan bakeak egiten zituen. Alkarrerri berba egin eta parka eskatu.

Zubikarai'k diñoanez —ez diño zein urtetan—, Mutriku'ko misioetako parkaziñoko sermoia erri bien erdian dagoan Errotabarri baserriko zelaian egin ei zan, auzo erri bien bakea lortzeko. Ondarrutarren eta mutrikuarren asareak aldi areitan itxasoko lanetan eben euren sorrera.

Ta, gure erriko misioari jarraituaz, nik ezagutu nituan lenengo misioiak umea nintzala izan ziran, oraindik eskolan nenbillela. Amar-amabi urte geienez eukiko nituan. Aita Apolinar eta Aita Martin karmeldarrak ziran. Biak gizon ederrak. Aita Apolinar gizon garaia zan, andia ta abots sendokoa. Kurpituari dardarea ataraten eutsan, bere ukabil sendoakaz jotzen ebanean.

Iñor eliza-zalerik izan ba'da, gure ama izan zan bat, eta sermoia naikoa entzundakoa. Ta Aita misioolari areik lakorik berak ez ebalá entzun esaten eban; areik lako sermolariarik Ondarroa-ko kurpitoan ez zala ikusi.

Len esan dogun lez, gure ume ta gazte denporan misioiak gauza andiak izaten ziran. Eta olantxe, baten, Berriatua'n ziran eta oiñez jende asko joaten zan bertara Ondarroa'tik, arratsaldeko sermoitara. Bein neu be amagaz joan nintzan. Amagaz elizara joateko, oraindik umea izango nintzan, kontixu.

## Antigua'ko kanpaiak<sup>(1)</sup>

**K**ANPAIAK egiteko asko izan ditue gizaldietan zear: otoitzera, elizkizunetara ta batzarretara deitu; saldu-erosietara be bai; ekaitzen bai gaiñean zala erriari jakin eragin; il barria zabaldu; jaiak iragarri ta abar. Orregaitik, bere ots ta durundiak iñoiz pozgarriak izaten jakuz; beste batzutan alderantzira. Ondarroa'n larunbat arratsaldeko ordubietan jotzen dituen kanpai andiak il kanpaiak baiño pozago lagaten eben Txangille, astilleruan lanean ziarduala.

Antigua'ko kanpai otsa be ots alaia da ondarrutarrontzat. Len, oraingo parrokia egin aurretik, orain bost mende edo siglo arte, Antigua'ko elizea ei zan Ondarroa'ko parrokia. Orduan, jakiña, danetariko kanpaiak joko ziran Antigua'n; il kanpaiak be bai. Beraz, beti ez ziran atsegiñez entzungo bertako kanpaiak. Baiña 1480'garren urtean asita oraingo parrokia egin zanetik, Antigua'ko kanpaien egitekoa bertako elizkizunetara deitzea bakarrik, kontixu, izan da. Gure denporan, Irutasun eguneko eta dagonilleko Andra Mari eguneko mezatara, ta Andra Mari aurreko bederatziurrenera bakarrik.

Orain urte asko ez dala, ortik zear nunbaiten ur azpian ondoratuta egoan itxasontzi bati kenduta ipiñi eben; eta, meza txikietarako jotzen dabeen txiliña kenduta, kanpai bi dira aspalditik Antigua'n dagozanak. Ez dakit noiztik dago-

---

(1) *Agur* aldizkarian argitaratutakoa.

zan. Len, gudateetan, elizetako kanpai asko kañoiak egiteko eroaten zituela entzun izan dogu bein baiño geiagotan. Olakorik Antigua'koak ez bada jazo, antxiñakoak izan leitezke eurok.

Ederrak dira kanpaiak, andiak. Ez dira jira-birakoak, geldiak baiño. Jolea bien erdian jarri ta esku bakotxagaz kanpai bakotxak erdian dindilizka dauken miñari eraginda joten dira. Ta bai durundi ederra atara be!

Edozer gauza zelan oituten garan izaten da. Emen baltza dogu lutua; beste nunbaiten, zuria edo gorria. Olan, kanpai otsa be askotan berak adierazo nai dabenagaitik izaten da itzala edo alaiia; ez bere durundi ta otsagaitik. Baiña egia da, baita be, alde andia dagoala kanpai baten otsetik beste kanpai baten otsera. Ta Antigua'ko kanpaien otsa ots onen taldean edo alderdian sartzekoa da. Bai orixe!

Gaurko kanpaitorrea 1931'garren urtean egin zan, eta orain kanpaiak joten ia ikusi be ez da egiten. Ordurarte ez egoan kanpaitorrerik. Oraingoa dagoan tokian bertan, lurretik sei-zortzi mailla edo eskillara igoaz eltzen zan aterpedun kanpai toki zar bat egoan; eta antxe danen agirian jotzen ziran kanpaiak.

Antigua'ko kanpaiak musikako nota baten alde dauke, gitxi gora-bera: bat *sol* bada bestea *la*. Ta jakin egin bear da jotzen; beti entzun dautsagun soiñua atara bear jako. Musikako berbakaz esanda, oiñarrizko nota bekoa da; beko notea da dominantea ta geiago jotzen dana, ta beragaz amaitzen da kanpai-aldia.

Aldi baten, Antigua'ko kanpaiak erritik kanpora be entzutea ba-eukeala esan leitezke. Beintzat, Azkue'k bere *Euskalerraren yakintza* liburuan diñoanez, Arrua'n belarriko miñez ziran umeak Ondarroa'ko Antigua'ra ekarten ei zituen, eta kanpai barruan sartu, ta kanpai otsa entzuten eukiten ei zituen, alantxe belarriko miña joaten zala ta. Ume koitaduak besterik ez eben bear betiko gortzeko!

## Komentuak

**E**USKAL-ERRIA'N ba-dago komentua naikoa, Bi edo iru dagozan erriak be ba-dira. Ondarroa'n bat ba-daukagula esango dogu; baiña berari izen orregaz ez dautsagu deitzen. Ondarroa'koa 1903'garren urtean etorri ziran Gurutzeko Alabena da. Mojak eta mojetako eskolea beste izenik ez dautsagu emoten. Mojetan, mojetako txiliñak, mojetako mezea ta olantxe beti. Komentu izenik bein be ez.

Etorri ziranetik eskolea ipiñi eben. Eskolan sartu barri ziran txikitxoak, neska ta mutil ibilten ziran bertan. Baiña, anditzean, neskak bakarrik gelditzen ziran, eskolea lagateko urteak arte. Gure ume denporan illeko iru laurleko izaten zan lekaimcen eskolea.

Euren etxe edo komentutik kanpora be emoten eben eskolea, liburu onen asieran esaten dogun lez, parbulutan, erriak edo laterriak ordainduta. Emen be, gure denporan, lenengo urte bat edo bian neska ta mutil ibilten giñan. Gero, azkenengo urte bietan, mutil utsak. Jaunartze nagusia egin arte ibilten giñan mojakin. Gero, maixuenetara.

Moja guztien artean ezagunena Sor Amalia izan zan. Lenengoetakoa zan, eta urte pilla andia egin eban Ondarroa'n.

Mojak edo lekaimceak beste egiteko bat be ba-euken, eta gaur be alan dauke: ospital izenez ezagutzen dogun zar eta nok jaube egin ez eukenen erruki etxeko ardurea. Eta bertan, Sor Teresa mojak erri guztikoen zauri ta min sendaketa egiten eban. Goizean zortziretan eta arratsaldean lauretan, amabost edo ogei laguneko pilloa bertaratzen zan, min eta

zauriak osatzera: batek, amua beatzean sartuta eukala; besteak, begiko miña; urrengoak, zaldarra; ta besteak, beste zerbait. Olako miñakin iñor ez zan osagilleakana joaten.

Zaurientzat, berak egindako baltsamoa eukiten eban potu andi baten. Zaldarra eukanari, esku bietako atzapar sendoakaz estutu, birikea atara arte, izarrak erakutsiaz. Ta iru-lau egunera min guztiak osatu edo obeagotzen zituan. Gatxa menderatu ezin ebanean, osagillearengana bialtzen eban minduna.

An ez zan erabilten izen ori zegokion bendarik. Berak ondo garbitutako izara zarren bateri tarratadea egiñaz zatiren bat kendu, ta aretxegaz lotzen eban zauri edo miña.

Miña osatzean, bere lana iru-lau txori-andi izaten zan. Egun asko iraundako zauria izanda be, bein be laurleko batera ez zan eldu ari ordaindu bearra.

Nik neuk makiña bat ostera egin bear izan neban beragana. Lenengo, begiko miñagaz; urrena, oraindik mutil txikia, arrain lantegian latagiñan ojalategaz eskuak ebagita; eta gero, bizarraren urteeran, sama ta inguruko zaldarrakaitik.

Zartu zanean, omena egin jakon. Gu, musika taldea be, joan giñan bere omenez zerbait jotera, ta Don Luis Arriola'k berba egin eban bere goraltzan. Don Luis sendagillea zan.

Iñok sekula omenik irabazi ba'dau, aretxek irabazi eban. Alan be ez zan jendetza andirik joan, berari esker ona agertzera.

Zubikarai'k bere Egutegian diñoanez, Ondarroa'n komentuak ipinteko, itz batzuk esan edo pausu batzuk emon ziran antxiña: 1484'garren urtean, Sixto IV-ak bulda bat bialdu ei eutsan Aita Goitiniz'eri, Ondarroa ta Mutriku bitartean komentu bat zabaltzeko.

1623'garren urteko azillaren 12'an, Garro'tar Domingo, erritar aberats ta ongillea, Peru'ko Lima'n il zala albistea zabaldu zan. Bere diruak erriko beartsuen alde laga zituan: ospitala. alargun, neskatiñ eta abarrentzat. Baita komentu bat egiteko be. Baiña josulagunak eta prantziskotarrak ez eben nai izan; ta Durango'ko agustindarrak jarri ziran orretarako. Baiña areik nai eben eran, ez jaken ondo iruditu Ondarroa'ko agintariai, eta dana ezerezean gelditu zan.

Ondarroa'n praille etxe bat ipinteko azkenengo saioa, 1960'garren urtean izan zan. Asmo orren asierea, auzi one-gaz zer ikusirik ez eban gora-bera batetik etorri zan. Nik *Pan-pin* umeen tebeo euskaldunaren alde Ondarroa'n niar-duan lana ikusirik, Bizkaia'n zabaldu naian, Aita Ladislao etorri jatan Ondarrabia'tik, *Lambretta* motorrean, Lekeitio'n ea zerbait egiten ete genduan. Nik Lekeitio'n lagun bakar bat ez neban ezagutzen; baiña bai Ondarroa'n nire lagun bate-gaz ezkondata egoan andra bat. Alantxe, argitzen ete ginduzan, andra aretxengana joan giñan Aita Ladislao ta biok. Baiña andrearen ordez gizona arkitu genduan: Etxeba-rria'tar Ixidor. Erlejiñoak eta euskereak asko kezkatzen eben gizona zan, eta biai diruz laguntzeko amorratzen egoana. Ta, berari gogoko jakozan kontuaz itz eta pitz geniarduela, bat-batean au bota eutsan prailleari:

— Etorri zaitzeze Ondarru'ra! Neuk lagunduko dautsuet.

Ori entzun ebanean, ao zabalik gelditu zan Aita Ladislao.

Ixidor'ek jolasean ez eutsan esan ori. A benetan ebillen. Aita kaputxinoak Kamiñazpi'ra ekarri nai zituan. Ta, bitarte-ko jendeagazko artu-emonetan ni baiño milla bidar geiago dan Zubikarai'tar Agustin arturik, baietzean ipiñi zituan kaputxinoak. Zubikarai jauna, ain zuzen, orduan Onda-rru'ko parrokiako buru edo bukarioa zan Arakama'tar On Pedro'ren lagun andia zan. Erderaz esan oi dana euskera-tuaz, aren eskumako eskua zala esango genduke.

Prailleak, Ondarroa'ko etxea zabaltzeko baimena eskatu eutsoen Bizkai'ko gotzaiñ Gurrupide'ri, 1969'garren urteko azi-llearen 20'an. Baiña eskabide a ez eban ontzat artu gotzai-ñak. Ezetza erantzun eban, urte bertako abenduaren 2'an egindako eskutitzéz.

Gotzaiñak, auzi au erabagiteko, Ondarroa'ko elizakoakaz berba egingo eban ziur. Ta onein eretxia itanduko eutsen. Ez dakigu onein erantzuna zelakoa izan zan. Baiña ezetzaren aldekoa izateak ez gindukez arrituko. Euskera txarrean esanda, ofiziokoak ofiziokoen kontra. Ta elizgizonak bein baiño geiagotan olakoetan alkarren aurka jokatu izan dabe-la, danok dakigun kontua da.

## Aratuzteak

**L** 936 GARREN urteko guda arte, beste edonun lez ospatzen ziran aratuzteak Ondarroa'n. Dendetan kartoizko maskarak saltzen ziran; eta geu, umeok be, asko olantxe ibilten giñan, arpegia maskareagaz estalduta.

Jakiña, guk umeok baiño nagusiagoak ardura ta zaletasun geiago izaten eben aratuzte jaietarako. Arrantzaleak aurretiaz gomutaten ziran eurakaz; eta neguan, besigutako arrantzako irabazien partillak egitean, apur bat antxe lagaten eben. Neguko irabaziak orduan be, orain lez, andiak ez ziran izaten, eta gauza andirik ezin kendu etxera eroan bear zan dirutik. Baiña aste baten laurleko batzuk eta urrengo astean beste laurleko batzuk, bi edo iru illabeteko besigutean, aratuzteak ondo igaro al izateko aiñako poltsikokoa izaten eben.

Iru izaten ziran aratuzte egunak, baiña batez be irugarrena izaten zan nagusiena edo zaratatsuena. Jana ta edana gitxi ez zan izaten; batez be edana. Ta, jakiña, asko ikusten ziran mozkortuta.

Gizonezko gazteak geienak mamu jantzita; asko, andrazko. Orduan, sendiari nasaitasun apurra emon naian, aberatsen etxeetan ume azten edo iñude egoten ziran andra gazteak. Eta, areik etxera biurtzean ekarrirako jantzi bitxiakaz be, gizon bat eta bi baiño geiago ikusiko ziran. Baiña, geienbat, ez ezagutzeko eran eta gangar edo baldraz jantzita



ta baldrazkeriak egiten. Jakiña, andrazkorik ez zan karnabal jazten. Bearbada, bat edo bat noizbait jantziko zan, baiña nik ez dot ikusi izan.

Egun orreitan, iruretan, pekatu asko egiten zala ta elizan, ordaiñez lez, *desagrabio* lez, elizkizunak izaten ziran arratsaldeetan,

Igandez eta martizenez, betiko tokian, au da, pelota enparantzan, eta betiko orduetan, musikea jotzen zan. Martizen edo asteartean, enparantzakoa amaitutakoan, Berdura-plazan akordeoia egoten zan, gabeko amarrak inguru arte. Angoa gangarkeria edo, gaurko berbaz esanda, *ganberrokeria* izaten zan. Iñoiz euria-edo ba'zan, itxasorako izaten zituen zirazko jantziak jantzi ta buruan suesta ta oiñetan bota-trasko andiak zituela, dantzaren edo baltseoan ebilzanen artean astokeriak egiñaz ikusiko ziran bat edo bi baiño geiago.

Biamamonean, Autsaren-egunean be, eguerdian-da, oraindik mozkor batzuk kalean ikusten ziran.

Ez urtero, baiña iñoiz talderen bat edo bestek kalerik kale abestuten urtengo eban, soiñuaz lagunduta. Ta abestuten ebena denporeagaz jendeak ikasi egiten eban; eta, jakiña, abestu, nai gizonezko gazteak sagardotegietan, nai emakumeak arrain lantegi edo jantzi garbitegi, nai etxean edo edonun.

Nire gomutako abestiak danak euskerazkoak izan ziran. Euretatik batzuk, *Acción Católica*´koak atara eben *Ondarru'ko kantak* izeneko abesti liburuan arkitzen dira. Ta aratuzteetako doiñu bat naikoa erriko edo *populartu* zala esango neuke. Liburu orretan dagozanak nire gomuta baiño lenagokoak dira. Baiña geroagoko batzuk, lana egiten neban arrain lantegiko neskai entzunaz ikasi nituanak, eresi bera-gaz abestuten ziran.

Erdizka bertso bat baiño geiago ikasi nituan arren, bat beintzat betiko buruan geratu jatan, eta emen ipiñiko dot:

Nikolas dogu presidentia,  
Garmendia komenante,  
oiek orrela ikusi eta  
zerbaitxo eman leiteke.

Ez degu eskatzen gauza andirik:  
txakur andi bat bastante,  
apari on bat ein al bagendu  
osasuna degun arte.

Auxen da ditxa eta  
au da umorie,  
guri begira dago  
erririk erdie.  
Sabela betetzeko  
au da saiatzie,  
ai neure biotzeko  
Maritxu maitie!

Nire gomutaz, musika taldeak be urten eban bi bidar kalerik kale abestuten aratuzteetan. Jakiña, orretarako, musikariez gain, taldeko ez ziran abeslari batzuk tarteko zirala. Bearbada lenago be urtengo eban, baiña musika taldearen nire gomutazko lenengo urteerea 1927'garren urtean izan zan. An abestu zan bertso batek au esaten eban:

estropadako bandera eta  
besigu eta papardu.

Abestiak, urte a Ondarroa'rentzat urte ona izan zala esan nai eban. Izan ez? Bai orixe! Aurreko udan Donostia'ko ta Bilbo'ko estropadak irabazi zituan; au da, Donostia'ko ikurriña be bai. Eta, bestetik, gitxitan ezagutu zan lako negu ederra izan eben arrantzaleak. Besigu ta papardu urte gogoangarria izan zan, dirua ederto irabaztekoa. Orretxegaitik, berba orretxekaz amaitzen zan aratuzte areitan musikari ta abeslari taldeak kaleetan abestu eban abesti bat.

Niri abesti aretako beste barbarik ez jatan buruan geratu. Baiña, neuk lez, orduko guztiak daukez buruan berba orreik, bere doiñu ta guzti.

Beste urte baten be urten eban musika taldeak aratuzte-etako egun baten. Orduan neu be barrukoa nintzan. Zein urte zan ez naz gomutaten, baiña gauza bat garbi azaldu daiket: 1928'garren urtea ez zala izan. Urte aretan aratuzte-

etan ez zan musika talderik Ondarroa'n. Beste nunbait be esaten dot eta urte aren asieran amaitu egin zan musika taldea, diru geiago eskatu ta udalak bere eskaria onartu ez eutsalako. Ta geu gazteok sartu giñan, eta ikasten geniarduan. Baiña oraindik ezer joteko ez giñan gauza 1928'garren urteko aratuztetan.

Beraz, urrengo urtean edo urrengoagan urten eban musika taldeak kalerik kale, musika jo ta abestuz diru batzen. Urte a izan zan azkena. Arrezkero, ezetariko talderik ez da ikusi karnabaletan Ondarroa'ko kaleetan.

Musika taldeak urten ebanetako abestien doiñua, Izeta berak, au da, musika taldeko zuzendariak, ataraten eban. Ni barrukoa nintzanekoa bai, beintzat. Itzak ez dakit zeñienak ziran. Orduko Ondarroa'ko bertsolariak —sasi bertsolariak— Brontxe ta Burgoa ziran, biak arrantzaleak. Brontxe ta Izeta etxe baten goian eta beian bizi ziran, eta berak atarako zituala bertsoak uste izatekoa da. Baiña, beste aldetik, Burgoa'k be atara eikeezala pentsateko errezoia ba-dago. Abesti baten, neskak arpegiak margoztu egiten zituela esaten da. *Margoztu* ta olako berbarik ez dot uste Brontxe'k ezagutzen ebanik. Burgoa'k bai, eusko abertzalea zanez euskeraz geiago irakurriko eban da.

Gu joan giñanean, galtza zuri, jaka baltz eta pajaritakaz joan giñan. Abestu bear zanean, bandako batzuk be, musikea besapean ebela, abestu egiten eben.

Orduan, doiñu mota bi edo abesti desbardin bi ziran abestu genduzanak. Bat, martxea, pasodoblea edo orretari-koa, *Lenagoko urtian bezela* berbakaz asten dana; ta bestea, *Udabarrian txoriak-kaz* asten dana. Bien doiñuak, bearbada ez zeatz, baiña buruan daukadaz. Itzak beste batek esan eustazan eran daukadaz. Ez dakit guztia ondo dagoan. Beintzat, nik dakidan doiñuagaz ondo-ondo ez dau urtetan. Dana dala, emen doa, abestu eusten lez:

Lenagoko urtian bezela  
musika joten gatoz gu,  
gaur karnabal eguna da ta  
orregatikan kalera gatoz gu.

Libertadia eskatzen diogu  
gure erriko alkate jaunari,  
ta erria alegretzearren  
apropos kalera gerare etorri.

Besuak zabaldurik gatoz  
geure alegrentzia ematen danari,  
Jaunari eskatzen diogu,  
osasan bakean gera etorri.

Libertadea eskatzen diogu  
gure erriko alkate jaunari,  
ta erria alegretzearren  
apropos kalera gerade etorri.

Gure erri maitea alegratu gaitean;  
besiguak ez du eman aurtengo urtean.  
Antxoak emango du etortzen danean,  
irabaziko degu aukera danean.

Bertso izenik merezi ez dabeen oneik, batzutan ni'ka egoazan idatzita, ta beste batzutan gu'ka. Orregaitik, dana pluralean ipiñi dot.

Azkenengo bertsoak 1927'koa gomuta eragiten dau. An, irabaziak eta ugaritasunak aitatuten zituan pozik. Emen, ostera, irabazi ta ugaritasunik ezin aitatu ta gero gauzak obeto joango dirala esaten dau, alan naita.

Bigarren abestiaren doiñua ez dakit zer ritmotakoa dan. Ni musikaria naz, baiña olako modutako doiñurik orain ez da izaten, eta ez dakit zein doiñu maillatan sartu. Bakarrik auxe esan daiket: 3/4'koa dala.

Udabarrian txoriak  
alegre egoten diran moduan,  
gu ere alegre gatoz,  
triste egonagaitik neguan.  
Kalian buelta egiteko  
aspaldian pentsa genduan;  
eguna etorri da  
pentsatzen zan moduan.

Tristerik baldin badago  
iñor gaur Ondarrua'n,  
etorri guregana ta  
jarriko ur geure moduan.  
*Udabarrian txoriak...*

Mutil gaztiak, egon aditzen,  
Ondarru'ko neska gaztiak  
ondo dakielako pintatzen.  
Ondo garbitu ezkeru,  
errezak ez litzakez izango  
danak ezagutzen.

Ondarrua'ko neska gaztiak  
.....  
sarri askotan egoten gera  
ezin ezagututa.  
Autsez eta pinturaz  
arpegi dana margotuta,  
guregana bazatoze,  
betoz garbituta.

Azkenengo bertso au, erdi aztuta daukadan au, bearba-  
da urte aretakoa ez da izango.

## Arrantzaleen Kofradia

**O**NDARROA'KO arrantzaleen kofradia noiz sortu zan esango leukeanik ez dagoala dirudi. Euskal-Erri'ko kofradi batzuen sortzea zein urtetan izan zan gauza jakiña da, edozein idaztitan irakurten danez. Bermeo'koak 1358'garren urtean ipiñi zituan bere arau edo legeak. Lekeitiokoa 1381'garreen urtean sortu zala esaten da. Ta alde andi barik beste kofradia batzuk be. Ostera, Ondarroa'ko kofradia noiz sortu zan edo noiz sortutakoa izan daitekean iñok ez dau berbatxu bat be idatzi edo esan; edo, beintzat, olakorik gure belarrietara ez da eldu.

Olako gauza zarren jakin-zalea zan Irigoien'dar Juanito'k gure erriko kofradiako paper zarren azterketea egin ebala entzundakoak gara. Ta ez aztertu bakarrik; agiri batzuk eroan be egin ei zituan. Ez dakigu au egia dan ala ez. Baiña, egia izatera, txarto egiña izango litzake, eta zuzendu egin bear izango litzakeana.

Dana dala, bere sortze agiria egon edo ez egon, Ondarroa'ko kofradia be, besteak lez, antxiñakoa izango dala ez dago ezpairik. Zubikarai'tar Agustiñ'ek diñoanez, Ondarroa, beroneri erri nortasuna emon baiño lendik, "arrantzaleen eta itxastarren bizi leku" lez ezagutzen ei zan.

Ondarroa'ko arrantzaleen kofradia Santa Klara izenekoa da. Baiña 1907'garren urtean erriko arrantzaleak auzi batzutan batera egon ez ta batzuk lengo eta betiko kofradiatik

urten egin eben, eta beste bat sortu, San Pedro izenekoa. Eta, olantxe, arrantzaleen kofradia bi egon ziran gure errian, aitatu dogun urtetik 1927'garren urte arte. Urte onetan, barrero bat egin eben.

Eztabaida ta asarreak arrantzaleengan sortu zituan auziak ez eukan politikeagaz zer ikusirik. Baiña gerora kofradia biak politikatu egin ziran. Santa Klara'koak eusko abertzaleak ziran; eta españiar eta errege-zaleak San Pedro'koak.

Au olan izanik, itxasontzietako jendea be geienetan alderdi batekoa edo bestekoa izango zan, kontixu, arraiña euren kofradietara eroateko. Bestelan ez zan erreza arraiñ zati bat kofradia batera ta bestea bestera eroatea.

Ni orduan umea nintzan, eta gero be kontu ori zelan izan zan ez dot jakin. Baiña olako zer edo zer etxean entzunda nago ordutik asko geroago. Gure aita, ni mutil txikia nintzanean, *San Pablo* izeneko itxasontzi txiki baten, zortzi zaldi inguruko motor txiki baten, ibilli zan urte batzutan. Bere lengusu Juan Alegria'nekoa zan ontzia; beno, onen emaztea zan gure aitaren lengusiña. Lau lagun inguru ziran udabarrarian antxobaten ibiltzen ziran ontzikoak. Itxuraz, bat karlista zan. Arraiña, geiena edo geiago beintzat San Klara kofradiara eroaten ei eben. Baiña San Pedro'ra eroaten ebena lagun bati egokiona baiño geiago izaten zala-ta, gure aita pozik ez ei zan izaten, eta bai iñoiz jaubeen aurka berba egin kontu onezaz etxean.

Santa Klara edo, esaten zan lez, *kofradia zarrekoak* lagun geiago ziran. Zubikarai'tar Agustiñ'ek diñoanez, 1925'garren urtean olan ziran kofradietako zenbakirik garrantzitsuenak: Santa Klara'n, 560 bazkide ta 2.717.704 kilo arrain atrapau. San Pedro'n, 390 bazkide ta 1.500.930 kilo arrain.

Ikusten danez, erriko politikearen arabera ziran kofradietako bazkideak, auteskundeetan be antzeko desbardintasuna izaten dan da.

Santa Klara kofradiatik alde egin da San Pedro kofradia sortu ebenak, ainbat urtetan ez eben euki toki egokirik arraiña saldu ta batzarteko. Ta urteakaz egin eben gaur be

*Kofradia Barria* izenez deitzen dana. 1922'garren urtean izan eban bere askundea. Beraz, urte gitxirako izan zan, ikusiko dogunez.

Erriko arrantzaleak kofradia bitan egoteak iñorentzat ez ekarren onik, eta batutea nai zan. Baiña danak ez ziran ori nai ebenak. Banatuta egon ziran azken aurreko urteko *Kofradia Zarreko* lendakaria, 1925'garren urtekoa, nire osaba Martin, Etxaburu'tar Martin, ez zan iñundik be batasun zalea. Kofradia zorretan lagata alde egin ebela; ta gero, zor barik egoan Kofradiara, zorrak zituela sartu nai ebela.

Alderdi onetatik begiratuta, gauzak zelan ziran orain guk garbitu ezin geinkean kontua da. Beintzat, beste bati bestelan entzun neutsan: zera, *Kofradia Barrikoak*, zorrak bazituen be, ba-eukeela balioa be. Kofradia etxea, etxe galanta, an egoala beintzat. Ta, txikikeria batzuk gora-bera, bat egitea obe zan; eta alan egin zan 1927'garren urtean, estropaden urrengo urtean.

Nire ustez, estropadetan egon zan alkartasunak, ezek baiño geiago ori lortu eban.

Kofradia bien batzeaz olan diño Zubikarai'k, bere *Egutegia*, 1976'an:

"1927'n Araudi barriak agertu ziran Bizkaiko Gobernu Zibilean, Kofradia biak bat egiteko.

Kofradia biak batzeko araudiak Pedro Aranzamendi'k lendakari lez eta Juan Bautista Beitia'k ordeko lez izenpetu zituen".

Kofradia biak bat egin ebela edo batu egin zirala esatea ez dago txarto. Baiña *Kofradia Barrikoak* lengo betiko kofradiara biurtu zirala esatea obeto izango litzake. Batzuk alde egin ebenean, *Santa Klara* kofradia lengo izenez eta izatez geratu zan oso-osorik: agiri zar guztiakaz, estropadetan irabazitako ikurrin guztiakaz eta abarregaz.

Kofradia bi egozala, 1926'garren urtean, Donostia'ko estropadetan irabazi zana be *Santa Klara*'ra eroan zan, an, oiturea zan jai andietan, beste ikurriñakaz batera, leioetan eskegita ipinteko. Treiñeruko erramulariak, Beitia lemazaiña tartean zala, erdi inguru *Kofradia Barrikoak* izan arren, iku-



rrin tokitzat, bat be ezpai barik eta eztabaida barik, *Santa Klara* kofradia aukeratu zan, gitxienez bosteun urte eukazan Ondarroa'ko arrantzaleen betiko alkarte.

*Kofradia Barria* kofradi lez amaitu zanean, bizileku biur-tu zan. Amabi etxe edo bizitoki egin ziran bertan. *Santa Klara* kofradia jaubea izanik. Orretarako, len kurutze itxura-ko etxea zana, lautu edo kuadrautu egin eben bere kanpoko alderdian.

Kofradia biak erriak *Kofradia Zarra* ta *Kofradia Barria* ize-nez ezagutzea, banatu ziran ezkerokoa izango dala uste dot.

Dana dala, *Kofradia Barrian* egin ziran etxeak, gaur be izen onegaz ezagutzen dira. "Urlia *Kofradia Barriko* etxeetan bizi da" esaten da.

*Kofradia Zarreko* etxeaz zer edo zer esan daigun.

Ni umea nintzanean, sei-zortzi urtekoa bearbada, etxe zar-zarra ezagutu neban; eta, lengoaz ezer gomutaten ez ba'naz be, dana barriztau ebela esango dot. Ta, arkitetura lez gauza andia ez izanda be, bere izakera edo itxura berezia emon eutsoen, batez be Zubi-zar aldeko alderdiari.

Geroago, Franco'ren denpora erdi aldean, lan andi batzuk egiñaz egokitu egin eben bere barrua, kontularientzat toki barriak eta baita osagilleak jendea artzeko tokiak egiñaz.

Baiña, aldakuntza ta barrizatze guztiakaz be, beste baten premiñea eldu zan. Kai barria urrun gelditzen zan eta kofradia etxe barria egin zan orain urte batzuk, gu Ondarra-bia'ra bizitera etorri ezker.

Ondarroa'ko kofradien barri batzuk emon doguz, batez be zelan bi zatitan banatu ziran eta etxe modura nun izan diran eta abar. Baiña ori baiño ardura andiakoakoa, bere egitekoa zer izan dan esatea izango litzake.

Bere zeregiña arrantzaleei laguntzea izan dala esango ba'gendu bakarrik, ezer ez esatea beste litzake, ori danoi burura etorten jakun ustea dalako. Orregaitik, laguntza ori zer izan dan eta zer dan apurtxu bat zeaztu bearra dago.

Kofradiak gorputz eta arimako premiña guztietan lagun-tzen eutseen arrantzaleei. Gaur olako kontuetan asko aldatu bagara be, len, kofradiako bat ilten zanean, bertako bazki-

deak, al izanean, elizkizunera joan bearra euken; eta zenbat aita gure ta agur mari otoitztu bear zituen be, euren legeak agintzen eutsen.

Baiña arimearen aldeko bete bearrak alboan itxita, Kofradiaren beste egiteko batzuk aitatu daiguzan.

Itxasora noiz urten; itxasoan jaso eitekean edo jasotzen zanaren barri emoteko begirale edo talaieroa ipiñi; itxasoan erdipurdizkoa edo txarra ba'zan eguraldia, itxasora joan edo ez joan erabagia artu, orretarako ipiñita egozan *seiñeru* izeneko arrantzaleen bitartez; edo-ta, itxasora joan da gero eguraldia txartzen ba'zan, eta oraindik illundu barik ba'egoan, orretarako ziran ontziak ikurriña jaso ta danai etxera etorri eragin —au antxobataro joandako itxasontzi txikiakaz egiten zan—; bear ziran mazia ta olakoak erosi; arraiña saldu ta saldutakoaren diruaren jaube egin; eta, garrantzitsuena, gaur erderazko izenez *Seguridad Social* izeneko gaixo, osakai eta zartzaroko laguntzak eralduta euki.

Gizarte laguntza au ez da antxiñakoa gure artean liortarrontzat. Franco'ren denporetan jarri zan. Nire gazte denporan ezetariko laguntzarik ez genduan, liorrean lan egiten genduanok. Nik 1935'garren urteko azken aldean eta urren-go udan gaixorik egon nintzan bi bidar; guztira sei illabetean egon nintzan lanera barik, eta egun bateko alogerik ez neban jaso aldi orretan. Osagillea be oso-osorik ordaindu bear izan genduan; bardin Donostia'n ebakuntzea ein eustan Lerenbur osagillea be; ta bardin osakai guztiak.

Arrantzaleak, ostera, olako kezkarik eta zamarik ez euken. Ontan, liortarrok baiño asko aurreratuago egozan. Ondarroa'n 1936'garren urteko gudara arteko kontuak zelan ziran, orduko danok dakigu. Arrantzaleak, gaixotzen zanean, bere gaixoa urte bete baiño gitxiagokoa ba'zan, soldata osoa jasotzen eban, ez nagusiak emonda, ontziko beste arrantzaleak emonda baiño. Auzi au ondo ulertzeko, zerbait argitu bearrean gagoz: atrapatzen zan arraiñaren irabazia, lenengo bertatik ordaindu bear ziranak ordaindutakoan, erdia itxasontzi jaubearentzat eta beste erdia itxasontziko guztien artean banatzen zan. Beraz, bat gaixotzen zanean, aren ordezkorik ontzian ez zan artzen, eta besteak lan geiago egi-

ñaz beteten eben bere utsunea, ta irabazi osoa emoten eutsosen, tostarteko arrantzaleen aldetik.

Gaxoa luzatzen ba'zan, urte bete etxean eginda be, itxasorako gauza ez ba'zan, ontzikoak Kofradiaren gain lagaten eben, eta onek eguneko amar erreal emoten eutsazan. Bizi guztian gaixorik ba'egoan, beti jasoko zituan amar errealak. Zarrak, irurogetabost urte ezker, nai itxasoan ibilli nai ez ibilli, eguneko laurleko bat jasoten eben.

Gaxoentzak osakaiak duan ziran; ez euken ezer

ordaindu bearrik. Azken aldera —betiko ta daneko kontura— osakaiak, asko alperrik galtzeko izaten zirala-ta, obeto begiratuak izan eitezen, euneko amar ordaintzea erabagi eban Kofradiak.

Ez-unea zanean —ez-unea arrain bako aldi luzeari esaten jakon, eta geienetan neguko kontua izaten zan ori—, Kofradiak, bi bider-edo, *diru partiue* esaten jakon diru banatzea egiten eban bertako arrantzaleen alde, bostna ogerleko. Batzutan bera Kofradiaren kontura, atzera ez biurtzeko. Baiña iñoiz, ori egitera ezin eldu zanean, Aurrezki Kutxaren bateri dirua kenduta, gero atzera biurtzeko. Olakotetan, arrantzaleak euren irabazietatik apurtxoak lagaten eben, zorra ordaintzeko.

Kofradiaren konturako *diru partiue* zanean, gaxo ta zarrentzat be izaten zala uste dot. Bestelan zanean ez, kontixu, olan ezer onik ez euken eta.

Kofradiak, bere premiña guztiai arpegi emoteko, arraiñaren baliotik euneko zazpi kentzen eutsan ontzi bakotxari.

## **Mutualidad Obrera de Artibai**

**L**ENAGO esan dogunez, liortarrak ez euken gizarte ziurtasun laguntzarik. Bai; asita egozan, nai ebenentzat, eskier bazkunak. Baiña ez, orain lez, laterriak ipiñitako danok nai ta nai ez barruan artzen gaituanak.

Olako lenengoa, Ondarru'n, 1923'garren urtean sortu zan. Bere izena goian ipiñi dogun ori zan; eta bere egitekoa, bertako bazkideai gaixotasun eta eriotzan al eban aiñean laguntzea.

Bere egitekoan sortu eitekiozan gora-bera guztiak kon-tuan izanik, larogetalau lege-ataleko araudia eban. Txisten guztiak ondo lotuta geratzen ziran an.

Orduko giroa alakoxea zan eta erlejiño usain andia erion araudiak. Bertako bazkide izateko, zazpi baldintzetatik lenengoa, katoliko apostoliko erromatarra izan bearra zan. Ta, bazkideren bat erbestean edo atzerrian ilten ba'zan, oge-tamar laurleko bere etxeokoi, obiratze diru eralketan laguntzeko. Baiña orretarako, nai ta nai ez, obiratzea katoliko lez izan bear zan.

Bazkideren bat gaxo egonda elizakoak baeroatsen, gure Jaunari laguntzeko ta, ilten ba'zan, obiratze-elizkizunean be izateko eskatzen eutsen bazkideai.

Baiña, egia esan nai badogu, bazkunaren sakristia usain au ez zala barru-barrukoa autortu bearko dogu. Jakindako zerbaitek esan eragiten deusku au; baiña ez daukagu onetan zetan luzatu.

Bazkide sartzeko, amabost urtetik berrogetamabost urtera bitartekoa izan bear zan. Ta illero amar erreal ordaindu bearra. Inoiz, batzordeak zerbaitegaitik alan erixonean, zer-bait geitxuago be emon bear eban.

Gaxorik egozanean jasoten ebena olan zan: gaxotasuna-ren lenengo lau egunak ez ziran ordaintzen. Lau egun baiño gitxiago gaxorik egonda gero lanerutzen ba'zan, ez eban ezer jasoten. Egun orreik igaro ta oraindik gaxo jarraitzen ba'eban, olan jasoten eban:

Lenengo iru illabetean:	eguneko 3	laurleko.
Urrengo lau illabetean:	" 2	"
Urrengo bost illabetean:	" 1'50	"
Urrengo sei illabetean:	" 0'75	"

Ta, denpora orreik igarota be gaxorik jarraitzen ba'eban, alan zirauan artean edo il artean, eguneko 0'50 laurleko edo errial bi.

Sukar bako erreuna eukenak ez eben diru laguntzarik, erreuma edo umore articularra euki ezik; eta ez-ta be burua galduta eukenak edo zoroak.

Ezta gaixo egozan denporan ardandegi ta olakoetan sartzen ziranak, eta bardin mozkor eta asarreaz auskan egindako gaxoz edo miñez egozanak be.

Esan dogunez, araudi luzea zan, eta gauza jakingarri asko daukaz.

Baiña asmo ta zentzun onez egindako bazkun arek bere-ala izan eban amaierea. Kanpoko eskier bazkun indartsua-goak eldu ziran, errian sartu naian. Jazo leitekezan ezbear andi edo gaxo aldi andietan, bazkun indartsu batek errezago arpegi emon eikeala sortutako premiñai ta batzuk beste barrira aldatu ziran; eta errian erritarrak sortutako liortar langilleen aldeko bazkunak lur jo eban.

Baiña, entzutea dodanez, gero danak damutu egin ziran,  
euki eben jokabideagaz.

Amaitu zan langille bazkunako agintari bi oneik ziran:  
Arrizabalaga'tar Lesmes lendakaria ta Oleden'tar Jose Maria  
idazkaria.

## Langille alkarteak

**G**ERO, Errepublika denporan, langille alkarteak sortzen asi ziran. Baiña oneik ez ziran, len aitatu doguzanen antzekoak, langilleak euren gaixo ta premiñetan laguntzeko, nagusiengandik irabazi ta eskubide geiago lortzeko indarra euki eien baiño.

Lenengoa arrantzaleak sortu eben Ondarroa'n. *Eusko Langille Alkartasun*'ren barruan egoan, eta *Tostartekoen Alkartasuna* izena ipiñi eutsoen. Don Polikarpo Larrañaga'ren eragiñez sortu zan.

*Tostarteko* itza nundik datorren esan daigun. Len, ontziak arraunekoak ziranean —len eta orain be bai—, *tostak* edo jarri-lekuak izaten zituen, arraunean egin eien. Ta, lemazaiña ez beste guztiak, *tostarteko* izenez deitzen ziran. Gero, lurruntziak-eta egin ziranean, *tostarik* ez euken; eta, baeuken be, motor txikiagotan be erramutan egiterik ez egoan. Baiña betiko izenak jarraitzen eban. Lemazaiña edo makiñako arduradunak ez ziranai, au da, ezer kargurik ez eta aloger txikiena irabazten ebenai, len lez deitzen eutseen. Ta eurak sortu eben bazkunari izen ori ipiñi eutsoen: *tostartekoak* ziran eta *Tostartekoen Alkartasuna* zan izenik egokiena eurentzat.

Bazkun arek lurruntzi bat egin eban, eta euren izena ipiñi eutsoela ta nago. Jakiña, *Tostartekoen Alkartasuna*'ko

bazkide guztientzat itxasontzi bakar bategaz ez egoan ezer; an ez egoan danentzat tokirik. Baiña beintzat asi egin ziran zerbait egiten; eta, gauzak ondo urtetera, goruntz egingo eben. Baiña bereala gudea etorri zan; eta, beste itxasontzi geienak lez, erritik urten bearra izan eban, eta orduantxe izan zan aren amaia. Gero, danok dakigun bez, ordurarte ziran Langille Alkartasun guztiak ankaz gora joan ziran, eta euren ondasunak ezereztu edo eskuz aldatu. Ta *Tostarteko-en Alkartasuna* itxasontziak be olako azkena izan eban. Garbi ez dakit.

*Tostarteko-en Alkartasun* orren ondoren, ordutik denpora gutxira, langille alkarte bi sortu ziran: *U. G. T.* eta *Eusko Langille Alkartasuna*. Au itxasokoentzat lendik be bazan.

*U. G. T.*'k, gerotxuago, alkarte biak batzeko eskabidea egin eutsan *Eusko Langille Alkartasuna*'ri, baiña onek ez eutsan ontzat artu. Zerbait auzi egoanean, biak alkartuta joatea ondo zan; baiña, betiko batzekotan, baktxaren nortasuna galdu egin bearko eben, eta ori ezin eitekean gauzea zan.

Baten, Basaldua'tar Pedro, Bilbo ondoko abertzalea, etorri zan berbaldi bat egitera eguerdian, *Cine Alameda*'n. Orduan jendea politika giroan sartu-sartuta egoan; eta, abertzale ta ezkertar, jendez gaiñezka bete zan zinea.

Berbaldia amaitu ebanean, iñok ezer esateko ba-eukan, igon eta berba egin eikeala esan eban Basaldua'k. Ori entzunda, Xanti Meabe, Ondarroa'n bizi zan ezkertarra, iñoiz eusko abertzalea izandakoa, igon zan.

Berbaldi baten gauza askori ikutu egiten jako, ta an esandako gauza batzutzaz zerbait esan eikeala iruditu-edo egin jakon, kontixu, Meabe'ri, ta igon ta asi zan bere berbalditxua egiten. Ez eutsan aurka andirik egin Basaldua'k esandakoari. Baiña jendeari, batez be beretarrai, txalo pillo bat atarateko bestean berba egin eban.

Basaldua'k, langilleari gitxi ordaintzen jakola erakusteko, eredu lez, Naparra'ko Erribera'ko lur langilleai egun guztiko lana lau laurleko ordaintzen eutsela ta ori ez egoala ondo esan eban. Ta Xanti Meabe'k, demagojia egiñaz, Erribera'ra joan bearrik ez egoala esan eban, olango bidebakoke-



riak agertzeko, Ondarroa'n bertan be arrain lantegietako emakumeak eguneko laurleko bi baiño ez zituela irabazten eta. Au entzutean, jendearen txalo otsa andia izan zan.

Beste kontua: Basaldua'k Errusia'ko komunismoaren aurka berba egin eban, ango ondo ez egozan gauzak aita-tuaz. Xenti Meabe'k oneri be erantzun nai izan eutsan; baiña bere erantzuna balio gitxikoa izan zan, eta zati bat oker esana. Errusia'ko konturik iñok ez genkiala esan eban; baiña gauza bat zala ziur esan eitekeana: zera, an ez egoala dibortziorik,

Jakiña, iñok ez ekian an ori zelan zan; eta, dibortziorik ez egoan barri au ontzat emonaz, txalotu egin eban jendeak.

Xanti Meabe'k amaitu ebanean, Ondarroa'ko emakumeen aloger auziari Basaldua'k baiño obeto erantzungo eutsa-la-ta, *Eusko Langille Alkartasuna*'ko burukidea eta *Jel* alderdikoa be zan Egiguren'dar Pelipe jagi zan berba egitera, berbaldi a ipiñi ebenetakoa be ba-zan da; eta emakumeen alogera igoteko egiten ebilzan lan eta joan-etorriak agertzen asi. Orduan, entzuleetako bat, *Xebito* arrantzalea, aldi aretan *Centro Republicano*'n kontserjea egoana, zarataka asi zan eta egundoko iskanbilla ta nastea sortu zan, eta alantxe amaitu zan berbaldia.

Jendeak, kanpora urtenda be, eztabaida gogorrean jarraitu eban.

## Itxasontziak eta arrantzea

**G**URE denporak baiño lenagotik be, desbardiñak izaten ziran andi-txikian arrantzako itxasontziak. Arrantza era bakotxari egokiozanak ziran.

Makiñazkoak asi baiño len, azkenengoak olan izaten zirala uste dot, txikietatik andietara; *batelak*, lagun bat edo bigaz itxas ertzean txibi, berdel, kraba ta olakoetan ibiltekoak. Urrengoak, antxoba, sardiña ta olakoetarako *treiñeruak*, antxiña baletarako be ba-ziranak. Gero, *meriñajeak*, ez dakit zer arrantzarako, besigutarako-edo. Ta andienak, *potin-andi* edo *txalopa-andi* izenekoak, egaluzetarako. *Zagakoak* be ba-zirana entzunda daukagu; baiña zer arrantzarako izaten ziran ez dot jakin. Izenetik ataraten danez, besteen atzetik lotuta joaten ziranak izango ziran. Jakiña, ori egiteko, makiñadunak izango ziran aurrekoak, lurrunontziak-edo.

Treiñerurik ez neban itxasoan arrantzan ezagutu; kaian baztertuta usteltzen egozanak bai. Txalopa-andiak be ezagutu nituan. Nire ume denporan egaluzetara joaten ziran udan, Santander eta Asturias aldera, lurrunontziak lez; eta an ibiltzen ziran San Pedro'etatik Dagonilleko Andra Mari jaiak arte. Ta gero be ez ziran geratzen, urrilla erdi inguruan egaluzea amaitu arte.

Andiak ziranez, aize oialez ibiltzen ziran, eta kaian sartu-urtenerako bakarrik erramutan edo arraunean ontzia erabiltzen eben. Nik ezagutu nituanean, lagun asko be ez ziran iza-

ten itxasontzi bakotxeko lagunak: zortzi-amarren bat. Eta abiada andirik ez eutsoen emoten ontziari, ez zan erreza be ta. Berrogetamar-irurogei oin luzeko ontzitzar sakonak ziran.

1922'garren urtea-edo izango zan txalopa-andiak azkenengo aldiz itxasora urten ebena. Urte aretan, garagarrilla-ren 6-an, galdu zan Ondarroa'n azken galdu zan txalopa-andia: *San Pedro*. Bederatzi gizon eta txakur bat ito ziran: ontziko guztiak. Ta urte a edo urrengoa izan eben azkenengo urtea txalopa-andiak.

Egia esateko, txalopa-andi batek jarraitu egin eban 1931'garren urte arte: Joakin *Arteta*'renak, *Jose Maria* ontziak. Lagungarri bere beste ontzi txiki *Begoña*'ren zortzi zaldi inguruko motorra sartu eutsan.

Ondarroa'n azken egin zan txalopa-andia, *Maria Luisa* izan zan.

Lurrunontzi edo baporak izango ziran ziur lenengo ontzi gaineko solairu edo kubiartadunak. Eta, ori itxasontzientza ona dalako, txalopa-andiak be asi ziran ipinten. Ondarroa'n solairua lenengo ipiñi eutsen txalopa-andia, *Dorita* izan zan, Agirreoa'rena, 1902'garren urtean. Eta urrengo urtean danari ipiñi eutsen, lengo zar eta barriai.

Txalopa-andietako irabaziak olan banatzen ziran: gizon bakotxak, soldata bat; lemazaiñak, soldata laurden bat geiago; jaubeak, iru soldata; gero, solairua ipiñi eutsenean, jau-beak iru soldata ta erdi.

Zubikarai'tar Agustin kondairaleak lenengo lurrunontziak olan izan zirala esaten dau: 1880'garren urtean, Donostia'n; 1893'garrenean, Ondarroa'n; 1898'garrenean, Getaria'n; eta 1900'garrenean, Bermeo'n.

Ostera, Jose Antonio Acado'k, Bizkai'ko Aurrezki Kutxak argitaratzen dituan *Colección Temas Vizcaínos* bildumako 47'garren liburutxuan, *Carpinteros de Ribera* izenekoan, Bizkai'ko lenengo lurrunontzia Bermeo'n egin zala esaten dau, 1902'garren urtean. Ara diñoana:

*“La primera lancha vaporea pesquera de Vizcaya se hizo en Bermeo en 1902, con máquina construída allí mismo en los*

*Talleres de Agapito Aranguren. Después se hicieron muchas, todas del orden de unos 14 metros de eslora, y en Lequeitio y Bermeo gran cantidad de boniteras entre 15 y 20 metros”.*

Nik, Ondarroa'ko lenengo ontziaz, osaba Martiñ'ek esandakoa dakit. Ta nire osaba, Etxaburu'tar Martiñ, itxasontziko makiñista, lemazaiña ta jaubea izan zan, eta Kofradiako lendakaria be bai. Beraz, olako kontuetan naikoa ekiana zan. Nire osabak esan eustanez, Ondarroa'ko lenengo ontzia *Ondarroa n<sup>o</sup> 1* zan izenez; *Nerviön* tallarrean egin zan; laba etziña ingelesa eukan, 25 HP-koa; ta guztira ogetabost milla laurleko kostau zan. Baiña ez eustan esan zein urtetan izan zan.

Makiñaz ibilten ziran itxasontziak sortzeak, aize oialez eta erramuz ibilten ziranen amaia ekarri eban. Ni umea nintzanerako, makiñadun ontzi pillo andia egoan. Bitarikoak ziran lurrunontziak: ikatza erreaz ebilzanak eta gasoliñezko motor txikiak.

Ontzidi edo flota garrantzitsuagoa lurrunontziak ziran. Orduan ba-ziran berrogetamar inguru, 25-30 zaldi indar inguruko laba ta makiñadunak. Ni umea nintzanean, geienak laba zutiña euken; baiña gero, azkenera, laba etziña nagusitu zan.

Lurrunontzi bakotxean amalau gizon inguru ibilten ziran: lemazaiña, lemazaiñ-ordekoa, makiñista ta onen ordeko su egille edo feonerua (fogoneroa), ta beste amar inguru tostarteko.

Urte guztian ibilten ziran itxasoan: neguan besigutan; udabarrian antxobatan; eta uda ta udazken asieran egaluzetan.

Irabazirik gitxienekoa negukoa zan. Besigutan tretzakaz egiten zan; au da, amu askoko aparejoak, karnatatzat antxoba edo, au ez eukenean, lantzoi zatitxoa ipiñita. Antxobea edo dana-dalakoa urrian atrapauten zan, eta gazituta euki. Tretza bakotxak berreun amu inguru izaten zituan, ogetabost zentimetro inguruko tartea ebela. Arrantzale bakotxak lau tretza itxasora eroaten zituan; au da, ontziko guztien artean ia irurogei. Itxasoan ondoa baiño zerbait gorago lagaten ziran luzean, eta tretza biko mundil edo kulubi (*boya*) bat egoten zan, lokarriagaz beko tretzari eusten.

Gure aita-aiten denporetan, naikoa diru emoten eban arraiña ei zan besigua. Baiña gure aldirako ia amaituta egoan eta ez eben ezer irabazten. Gu mutil kozkorrak egin da, arrain barri bat ezagutu genduan, ainbat urtean ikusi ez zana: papardoa: erderaz *palometa* izena ipiñi eutsena. Ta asko atrapau eben urteak be izan ziran. Baiña, atzera, agertu zan lez desagertu edo aldendu be egin zan, bat-batera.

Besiguak laurleko bi inguru kiloak balio eban, eta papardoak iru txori andi; au da, besiguaren ia zazpitik bat. Ala be, papardoa ibilli zan urteak izan ziran negurik onenak, nire gazte denporan.

Besigua gitxi atrapauten zala esan dot, eta onen erakusgarririk onena auxe da: zera, egunero besigu bat ezin izaten ebela etxera eroan, itxasoan izaten ziranetan. Berlenka, kolajo ta olako arrain merkeak eroango zituen jateko; ta, bear ba'zan, saltzeko be bai. Baiña besigua txandan eroaten eben: gaur batek, biar besteak, eta olan. Egia esan, ez dakit txandan egunean arrantzale bat edo bi sartzen ziran. Baiña gure aitak noizik bein bakarrik besigua etxera ekarten ebana ondo gomutaten naz. Gabon egunean bakarrik danak eroaten eben besigua, ta orduan txandakoa be ba-zanarentzat egun andia izaten zan egun a: loteria. Ori, etxean ikusita dakit.

Tretzak gertutea edo arraiñakaz jarri edo enkarnatea etxean egin bear zan lana zan Ondarroa'n, emazteak edo alabak. Semeak be bai, koskorrak ba'ziran eta itxasoan asi barik-edo ba'egozan. Ni amabi urtegaz asi nintzan lanean, aita il baiño iru-lau illabete lenago; eta, ordurako, egunean tretza bi enkarnaten nituan. Egia esateko, ez dakit lan au igande ta jaietan egiten neban bakarrik ala egunero, ba ordu bi bear nituan ori egiten, eta eskolan nenbillela ez dakit astirik izango neban. Lau tretza egitea laurlekoa ordaintzen zan itxasontziko irabazien baltsatik.

Lan asko ta irabazi gitxi emoten eban besigutea, aspaldi amaitu zan Ondarroa'n. Ez dot uste guda ezkeru urte askoan iraun ebanik arrantza era onek.

Besigutea laga ta beste zerbaitetan asi bear zan, eta txi-txarrutan ibilli ziran urte batzutan. Arraiñak ataraten eban

ubillean ezagutzen zan an egoana txitxarrua; ta, inguruko ontzi guztiak sarea jaurti nairik, zalaparta asko sortzen zan ontzietakoen artean. Arrantza a be irabazi gitxikoa zan; irabazi gitxi ta zalaparta askokoa, ta urte gitxikoa izan zan.

Udabarriko arrantzea antxobea zan, eta da. Len era bitara atrapatzen zan: bat, geienetan, mandtxuba erera, Itxasora urten eta lenengo ixurdeak billatu. Au lortzen ez zanean, egun guztian alperrik itxasoan, askotan geldirik, orduan jateko kabratan-da. Ixurdeak billatzen ba'zituen, jarraitu geratu barik eurai egun guztian; eta, antxobarik arkitzen ba'eben eta jateko edo jolaserako gogorik ba'eben, ixurdeak artzain txakurrak ardiak batzen dituen eran batuko eben antxoba sardea, ta orduan arrantzaleak biran sarea jaurti ta atrapauko eben.

Baiña onetan be kontuak izaten ziran. Arrain sardearen ondoan aldi batera itxasontzi bat baiño geiago be izaten ziran; eta, atrapatzen eban bakarrarentzat izan ezkerro, inguruko ontzi guztiak sareak jaurtiten asiko ziran, eta ori alkarri kalte andiak egiteko arrisku andia zan. Orregaitik, neurri baten barruan egozan itxasontzi guztiak: bat, bi, iru edo ziranak zirala, danak euken parte irabazian. Orri, *konpañian* sartzea esaten jakon; eta gero, egun guztirako lagundia erata eukiten eben. Areik, ontziak, gero, alkarrengandik urrun antxoba geiago atrapatzen ba'eben, aren balioa danen artean banatzeko izaten zan.

*Konpañia* kontu onetan iñoiz asarre andiak sortzen ziran. Ixurdeak antxobea atara ebela konturatzean, oartzen ziran guztiak bertara jotzen eben, gitxienez lagundian sartzeko; ta, bein baiño geiagotan, neurrira edo arraira denporaz sartu zan ala sartu ez zan, eztabaidarako modukoa izaten zan, eta ortik asarreak.

Mandxua arrantzan, naita goizetik illundu arte ixurdeari jarraitzen ibilli, egun asko izaten ziran sarerik uretara jaurti bakoak; edo, eurak esaten dabeen lez, *etxararik* be egin bakoak —*echada* erderaz itzetik artutakoa—, antxobarik ikusi ez ta. Orregaitik, jaubeak beste arrantza guztietan erdia jasoten ba'eban be, mandxuan irutik bi artzen eban, egun guztiko geratu bako ibillian ikatz asko erreten ebelako itxasontziak.

Orduan beste arrantza modu bat be ba'zan: gabekoa. Ondarroa'n *saritea* —saretea— zan. Egia, antxobea, eta baita sardiña be, beti sarez atrapatzen da. Baiña ez dira bardiñak izaten sareak, eta ezta arrantzakerea be. Gaiñera, sare mota birek beren izen berezia dabe: *treiña* ta *bolintxe*. Oneik zulo txikiak dira, ta arraiña moltsoan atrapatzen dabe. Baiña *saritako* arrantzako sareak zulo anditxoago dabe, ta itxasoan zuzenean ipinten dira; ta, antxobea ibillian doala, buruz aurrera zuloan sartzen da, ta alantxe atrapauta gertzen da. Oneik, sareok, ez daukea beren izen berezirik. Sare bakotzak, ez dakit, ogetabi braza luze izango da, ta sei braza inguru goitik berakoa. Ta, ontziaren indar eta lagunen arabera, zortzi-amar sare alkarrerri lotuta eunkak neurkin luze-rea artuko eben uretan, alderdi bat kortxoaren indarrez ur azalean, eta beste alderdia berunaren pixuak beruntz zuzenduten ebala.

Arrantza onetan udabarri guztian ibiltzen ziranak, zortzi zaldi inguruko solairu bako ontzitzuak ziran, lau-bost lagunekaz bakotxa. Ontziak euren argitxua eukiten eben; baiña sareak nun zear eta nun amaitzen ziran ez argi ta ez ezaugarriarik eukiten eben, eta larri egoten ziran merkanteren batek-edo aurrean artu ta trixkantzaren bat egingo eutsen bildurrez.

Sareak illundu baiño len jaurtiten ziran uretara, ta illundu ta laster, eurak esaten eben lez *gau lenean*, lemazaiñak sare ertza edo *tranpea* izena emoten jakona, neurkin inguru goitik berako guztia, ontzira jasoten eban, antxobea atrapatzen ba'zan edo ez ikusteko. Zerbait artzen ba-joiala ikusten ba'eban, jaurti barrero sare ertza uretara, ta geldi antxe. Baiña arraiñik ez zala artzen ikusten ba'eban, deitu lo egozan beste arrantzale guztiai, al bait aguroen sareak jaso ta *aldarea* egiten eben; au da, abiada guztian andik urrunduta, beste tokiren baten sareak uretara jaurtiteko. Arraiñik ez zanean, bearbada aldara bat baiño geiago be egingo eben; baiña beste askotan gabetik goizera arte toki baten eukiten zituen sareak.

Eguna egiten asten zanean, jaso sareak; eta, gitxi ba'zan atrapautakoa, eurak, arrantzaleak, kenduko eben banan-banan antxobea saretik. Baiña, eurentzako baiño geiago

zanean —ori bear zan— liorreratutakoan, oraindik goizaldean askotan, orretan ibiltzen ziranai etxerik-etxe deitu ta kanpotik sartutako gizon eta andrak, edo neska ta mutil, danen artean antxobea saretik kentzen zan, askotan sareak arrain eta guzti moillara atarata, barruan bear besteko tokirik ezagaitik.

Neu be bein baiño geiagotan joan nintzan goizean, lantegira baiño len, iru-lau orduan ogerleko batzuk irabaztera. Jantzi zirazko galtza ta jakea ta antxe, lepoa edo bizkarra okertuta, jo ta jo zikiñez beteta.

Itxasoan gau illuna danean, arraiña nai edozer ikusi egiten da; ta, aldaran doiazala antxobarik azpian ba'zan, ikusi egiten zan; eta, ontzia gaiñean abiadan ikustean, aguro alboratzen zan bera, antxobea.

Len esan dogunez, udabarri asieran lurrunontziak mandxua arrantza eran ibiltzen ziran. Baiña gerora, antxoba geiago etorten zanean, maiatzean bein sartu ezkerro, eurak be *saritan* —sareetan— asten ziran, eta alan jarraituten eben, antxobatea amaitu arte. Lurrunontziak, sareetan, beste ontzi txikiak baiño sare geiagogaz lan egiten eben; baiña alan da guzti be, eun arrua ekarten ebenean, askotzat artzen zan. Arrantzu orrek lan andia emoten eutsen. Ostera, mandxuan arraiña aukeratzen jakoenean, irureun edo lareun arrua ekartea ez zan arritzekoa. Orretxegaitik asten ziran berandu sareetan arrantzan lurrunontziak.

Sareetan antxobarik atrapauten ba'eben, sareak garbitu bearra izaten eben, euren antxoba buru, eskama ta abar kentzeko; ta itxasora urten eta abiadan joiazala egiten zan lan ori. Batek alderdi batetik eta besteak beste alderditik sareari eldu ta neurkin bat edo biri ura jo eragin eta blastada batzuk emonaz jaso, ta olantxe sare guztiak igaro. Oni *sare jotea* izena emoten eutsoen.

Ogetamar bat urte izango dira sareetako antxoba arrantzea amaitu zala.

Ori zelan etorri zan gauza jakiña da. Beste antxoba arrantza erea ezagutzen zan, *ardora* deitzen jakona. Baiña, kaltegarria zala-ta, galerazota egoan. Alan be, goitarrak, donostiar, ondarrabitar eta abarrek, ixilka bada be, beti egi-



ten eben; eta, olan urteak joanaz, bizkaitarrai be *ardorean* asteko gogoia etorri jaken. 1947'garren urtean edo urrengoan izango zan, batzarra egin zan Ondarroa-ko Kofradian bertako arrantzaleakaz, auzi oni buruz erabagia artzeko. Bat ez beste itxasontzi jaube guztiak gaiztetsi egin eben *ardora*, ta orretan ez astea erabagi zan. Baiña arratsalde bertan danak joan ziran *ardorera*. Ta gaur arte!

*Ardora* izena, arraiñak nai beste edozerk gau illunean itxasoan jaurtiten daben argitasunari emoten jakon izena da.

Ta, bein *ardora* nagusitu zanean, zearo amaitu zan *sari-tako* antxoba arrantzea. *Ardorean*, antxoba billa batera ta bestera geratu barik ibilten dira itxasontziak, eta itxaso betean ur azalean egongo litzakezan sareak, danak ausi ta aurrean eroango litueke ta.

Udako arrantzea, bajurako itxasontzientzat, egaluzetea edo atunetea da. Ondarroa'n egaluzeari atuna deitzen jako; ta egamotzari, zimarroia.

San Pedro-txiki eguna igarotakoan, Santander eta Asturias'ko itxasoetara joaten ziran dagonilleko Andra Mariak arte, txalopa-andiak ziranean lez, gero lurrenontziak asi ziranean be; ta atrapatzen eben atuna ango kaietan saltzen eben. Au da, illaterdian egoten ziran Ondarroa'ra etorri barik. Ori lenengo kosterea zan.

Andra Mari jaiak igaro ta irailleko Andra Mariak arte —gure errian *Arratik*, *Arratiak*, deitzen jake— izaten zan bigarren kosterea; ta au be Santander eta Asturias'ko itxaso ta kaietan igaroten eben. Ta erriko bigarren jaiak igaro ostean, Ondarroa'tik ibiltzen ziran atunetan, goizaldean urten eta illuntzerako kaiara biurtuz. Oneri *kostera azkana* deitzen jakon; ondarrutarrez esanda, *kostazkana*.

Orduan atun edo egaluzeta eizean atrapatzen zan; au da, ontzia ibillian joiala. Atuna atrapatuta egoala konturatzean, ontzia erdi geratu egiten eben, arraiña errezago ontziratuteko. Olan zan eizean egiten zan arrantzea: ontziaren alde bietara aga bardiñak zabaltzen ziran, alde bakotxean desbardiñak ziranak andik txikira, euretatik dindilizka apaxuak (*aparejos*) uretara jaurtiz. Apaxuak amu andiak eukezan bakotxean bana, maluta edo txurikiñakaz estalita, loroagaz

lotuta, ta gero lokarri luzeak. Ta, ezer atrapatzen ba'zan edo ez ba'zan, egunero liorrera jotzen eben itxasontziak.

Aurrerabidea ekarri eutsen 1933'garrengo urteak Ondarroa'ko atun arrantzaleai. Ordurarte, emen esanda dagoan lez, lenengo aldi edo kostera bietan atuna Santander eta Asturias'ko itxaserrietan saltzen eben. Ta urte aretan Ondarroa'n saltzeko bidea asmau eben. Ondarroa'ko itxasontzi guztiak Santander'era eroan atuna egunero; ta an orretarako ipiñita egoan itxasontzi batek artu ta Ondarroa'ra ekarri. *Osasuna* izeneko ontzi bat Pasaiatik alkilatuta ekarri eben. An artu danen atunak eta, gauez zortzi ordu inguruan bidea eginda, goizeko zortzirik aldera eltzen zan Ondarroa'ko kaira.

Iñoiz atun gitxi atrapatzen ba'eben, egun aretan ez eben egiten Ondarroa'rako joan-etorri ori. Ta antxe, Santander'en, saltzen zituen atunak.

Orduan Ondarroa'n bizi zan Oliden zumaiarra izan zan *Osasuna*'ko lemazaiñ edo arduraduna.

Urrengo urtean be bardin egin zan. Atuna ekarteko ontzia beste bat izan zan: *Julito*. Eta lemazaiña, Kandido Arrasate.

Era arek erria biztu egin eban. Len, lurrunontziak atunetara joandakoan, erria ilda geratzen zan. Ta, atuna bialtzen asi ziranean, barriro errira lana ekarren. Zaldi-gurdi ta kamioi txikiak atuna lantegietara errotan; arrain lantegiak danak lanean; ta ondarrutar arrantzaleak jaten ebena be erritik bialtzen eutsen, atuna ekarten ebillen ontzian. Bai; dana zan lana, dana zan irabaztea ta dana poza.

Ala be, urte bi baiño geiago ez eben iraun era aretan. Aurrerabidean beste oinkada bat emon eben. 1935'garren urtean, izotz tokiak, jelerak, ipinten asi ziran atunetan ibiltzen ziran itxasontziak; ta, Franco'ren gudea eldu zanean, ia geienak ba-eukezan. Ordutik aurrera ez euken egunero liorrera atuna eroan bearrik. Astebetean euki eikeen atuna ondo, izotzetan.

Baiña benetan atunetea aurrerabidean ipiñi ebana, 1953'koa izan zan. (Urteaz ez nago ziur.) Aldakuntza andia izan zan a: itxasontzia geldirik egoala, beita bizia, antxoba

txikia edo olako zer edo zer kañaberako apaxo puntan amua ipiñi ta arrantzan egin.

Orretarako, txapazko askak ipiñi zituen ontzietan, beitatzat izaten zan arrain txikia bertan ibillian ebillen kresaletan eukiteko; ta orretarako bear zan ura itxasotik artzeko ta baldintza onean eukiteko, motor laguntzailleak.

Arrantza era onetan, egaluzerik izan ezkerro, geiago atrapauten da.

Egaluze kontuaz amaitzeko, beste au be esan bear da: len, oraindik eizean atuna atrapauten ebenean edo eizean ibiltan ziranean, udazkenean iñoiz bateren batek *alas*-ean be atrapautea gertaten jakola. *Alas*-eko arrantzea olan zan; saregaz antxoba atrapau ta, ontziratu barik, antxe euki; ta sarean egoan antxobea jan nalan urreratzen ziran atunak, amudun apaxuakaz atrapau. Olan be, eizean baiño asko geiago atrapauten eben; baiña gitxitan izaten eben zori ori.

Itxasontziak, euren arrantza erari begiratuaz, sail bitan banatzen dira: alturakoak eta bajurakoak.

Arrastean jarduten dabeenak, geienetan andiagoak izan eta urrunago be ibiltan dira, ta orretxei emoten jake alturaren izena; euren arrantzea alturakotzat artzen da. Ta besteak, txikiago izan eta geienbat antxoba ta egaluzetan jarduten dabenak, bajurako izena daroe, eurak eta euren arrantzeak.

Baiña, gu umeak giñanean, ez ziran olan kontuak, eta izena emotea be orduko kontuen arauz egiten zan. Orduan Ondarroa'n ez egoan arrasteko itxasontzirik; orduko andienak 25-30 HP'ko laba-makiñadun lurrunontzi edo baforak ziran, besigutan, antxobata eta egaluzetan ibiltan ziranak. Ta errikorik andienak izanaz gaiñera, itxasoan urrunean be joaten ziralako, euren arrantzea alturakotzat artzen zan.

Beste ontzi pilla andia be ba-zan errian: zortzi zaldi inguruko motordunak, gasoliñez ibiltan ziranak, Ezagutzen doguzan treiñeruak baiño asko luzeagoak ez ziran, eta kubiarta edo solairurik be ez eben. Euretariko geienen arrantzea udabarriko antxobatea izaten zan; ta batzuk, gitxienak, udabarriko antxobea igarotakoan, bolintxen ekiten

eutsen, sardiña ta txitxarrokumetan, mazia uretara jaurti ta aren usaiñera batzen zan arraiñari bolintx-sarea jaurtiaz. Motor-ontzi onei bajurakoak esaten jaken, euren arrantzea alan zalako. Ta, jakiña, errian egozan iru-lau bateleroak be, bajurakoak ziran.

Baiña España'ko gudea amaitu ta geroko urteetan, arrastea errian indartu zanean, onek artu eban alturako arrantzearen izena; ta len alturako izena emoten jakenak, bajurako izenagaz geratu ziran. Ta areik, len bajurakoak deitzen jaken motor txikiak, bolintxeroak eta sareetakoak, aldendu egin ziran.

Beraz, emendik aurrera alturako ta bajurako izenak emoteko, oraingo erara egingo dogu, gaur eguneko izate ta izenari begiratuaz.

Ondarroa'ko ontzidi edo flotea, geienbat edo nagusi, orain bajurakoak deitzen dautsegunak osatzen dabeena izan da, gure umetatik oraintsu arrastekoa nagusitu dan arte. Gu umeak giñanean, berrogetamar inguru baziran, baktxe-an amalau gizon inguru ibilliaz.

1934'garren urtean Ondarroa'ko Kofradian ziran: 48 itxasontzi bajurako, 105 motor txiki, 40 batel eta 1.100 bazkide.

Arrantzaleen zauri ta ezbearrak ordaintzeko zan Bizkai'ko Mutualidade edo Alkartasunak, zenbaki oneik emoten ditu, 1943-garreen urtekoak:

Kaiak	Bazkideak Eskiertuak	Itxasontzi Polizak	Emondako
Zierbana	220	17	17
Santurtze	305	35	35
Armintza	90	12	12
Bermeo	1.950	182	182
Mundaka	85	10	10
Elantxobe	140	20	20
Lekeitio	660	63	63
Ondarru	1.082	113	113
Guztira:	4.532	452	452

Ondarroa-ko ontzidia urrengo urte batzutan olan izan da:

Urtea	Itxasontziak	HP	TN	Bazkideak
1952	134	11.582	6.008	
1972	154	64.670	20.411	2.914
1973 bajurakoak, egurrezkoak:	43	12.450	3.796	
burdiñazkoak:	7	3.810	1.115	
1975 arrasteroak:	85	60.695	17.450	

Ikusten denez, azkenengo urte bietan erriko itxasontzi guztien barri ez dau emoten, bakoitzean mota batekoena baiño.

## Nire umetako itsasorateak

**I**TXASOA baiño zigor andiagorik ezin izan leiteke orain nitzat. Bizirik geratzen jatazan urteak arrantzale lez ala espetxean igaro aukeratu bearra ipiñiko ba'leust, giltzapea aukeratuko neukeala deritzat. Urteakaz orretxenbesteko bildurra artu dautsat itxasoari.

Baiña, mutiltxoa nintzanean, itxaso zalea nintzan. Ni ez naz gogoratzen; baiña, arrebai entzuna nazanez, baten, ordurako lantegian asita nintzala, kamadarrari —oe adarrari— elduta arratsalde guztia negarrez igaro oi neban, didar eta didar, itxasora joan bear nintzala-ta.

Baiña bere sei alaben arteko seme bakarra ez eban itxasorako gure amak. Senarra arrantzalea izatea be naikoa eban, ekatx egunetan ordu larriak igaroteko. Agirian genduan itxasoa etxetik; eta, aita itxasoan zala denporalea sartzen ba'zan, begiak malkoz bustirik ara begira orduak igaroko zituan, txarrenaren bildur. Bein baiño geiagotan Jesus'en Biotzari kandlea biztuten ikusi izan neban. Ez; ez neukan itxasora joaterik. Langintza lez, liorrekoea artu bearko neban.

Baiña, oraindik umea nintzala, lanean asi baiño len, tarte-marteka joaten nintzan itxasora, iñoiz aitagaz ta beste batzutan lagunakaz edo auzokoakaz. Iru-lau arrantza era ezagutu nituan. Aitagaz bolintxean izan nintzan iru arratsaldetan-edo, Saustan'era. Gure aita orduan Badiola'tar Jon'en ibiltzen zan. Baiña itxasontzi a zerbait konpontzen egoala-

edo, jaubearen lengusiña zan Manuela Rochil'en motor txikian joan ziran egun batzutan gorago aitatu dodan itxasonzikoak. Eta antxe joan nintzan neu be. Orduantxe ikusi neban lenengo —eta azkenengo aldiz— arrain pilloa saretik erregiñagaz ontzira jaurti ta pael gaiñean ataraten eban danbor otsa.

Tresmalletara uda guztian —eskola opor denpora guztian— joan nintzan, orduantxe amabi urte egiteko neukazala. Goizaldean eta arratsaldean joaten zan. Illuntzea baiño lentxoago sareak uretara jaurti ta biaramon goizean, eguna argitzean, jaso. Orduko arraiñik baliotsuena barbariña izaten zan.

Etixerako arraintxu batzuk emoten eustezan, eta asteazkenean laurleko batzuk be bai. Jakiña, amarentzat, Ontzia, sei zaldi ingurukoa, gure beko Jose Gorra'rena zan, eta nigaz lau lagun giñan arrantzaleak.

Arrantza aretan kontagarri izan leitekezan gauzatxu bi igaro jatazan.

Baten, gau guztirako txibitara joan giñan Saustan aldeira. Lengo lau lagunegaz gaiñera, beste bi etorri ziran: jaubearen seme Lorentzo, gero nire koñatu izango zana, ta beste gizon urtetsu bat, Bizente Akarregi'ren aitagiñarreba. Jaubekak, bere seme Lorentzo ta Liburio'k eta beste zarrak talde bat egin eben. Laurak artzen zituen txibiak laurentzako ziran. Eta Joakin *Bizkaitarra*'k eta nik, bakoxtak atrapatzen gendua bakoxtarentzat. Joakin be uda aretan asitakoa zan itxasoan. Amalau urte eukazan. Ta bai arek ta bai nik lenengo aldiz artzen genduan eskuan txibi-koraiña.

Arrantzale-arrantzale ziran lau laguneko taldeak eun eta asko geiago txibi artu zituen. Joakin'ek ez dakit. Ta nik lau. Baiña nik txibi bakoxtxean nastea sortzen neban ontzian. Txibiak eldu eustala igarten nebanean, kexu-kexu ta barruko arradaz apaxua gora ekarten asten nintzan zer ikusiko; ta txibiak, ur azaleratzen zanean, *fart!*, bere tinta baltza jaurtiten eban, eta arpegian eta begietan joaz itxututa lagaten ninduan. Nik itxumustuan apaxua barrura arrain ta guzti jaurtiten neban, eta nastata gelditzen zan. Ni ez nintzan gauza izaten apaxu a askatu ta bear zan lez ger-

tuteko. An egoten nintzan besoak gurutzatuta besteai begira: ta, arrain makal aldia zanean, Lorentzo'k askatzen eustan nastea. Ta, urrengo txibia atrapatzen nebanean be, bardin: barriro arpegi ta begiak tinttaz beterik eta apaxua pael gainean nastata, Lorentzo'k astia artzeko zain. Lauretan bardin jokatu neban. Nik, gau aretan, besteai kaltea baiño ez neban egin.

Urrengo jazo jatana guztiz desbardiña izan zan. Udea aurrera joian. Arratsalde baten, eguzki ederra egoan eta jaka barik itxasora joan nintzan, alkandora utsik. Baiña illuntzean otza sartu zan, terrala-edo. Ta etxerunzkoan otzak kikulduta etorri nintzan, *guardakalora*'ren ondoan kukulumutxu.

Gure ama, eguraldia ainbestean oztu zala ikusi ebanean, ba-ekian ia jantzi barik nengoala-ta, estutu egin zan, eta jaka lodi bat artuta Alameda'n egoan, gu noiz elduko. Ta, oiña liorrean ipiñi nebanerako, jakea lepoan ipiñi eustan eta "Korri etxera!"; ta etxean bereala oera sartu ninduan. Bañan ez neban berbarik egiten; joanda neukan berbea. Bonbilla—*botella*—beroak ipiñi eustazan, eta estalki pilloa be bai. Ta alako baten asi nintzan berbetan. Otzak jaurti nituanean, bereala ondo jarri nintzan. Baiña ikara ederra emon neutsen ama ta etxekoai.

Bertan urtean udabarrian, oraindik amabi urte egiteko neukazala, antxobatara joan nintzan egun baten, saretea deitzen jakon arrantza modura. Sareetara arratsaldean urtetten zan, biaramon goizerarte. Arrantza era aretan ontzi txikiak ibilten ziran, zortzi zaldi inguruko motordun kubiarta bakoak, lau-bost lagunekaz. Ontzi bakotxak zortzi-amar bat sare eroaten zituan. Sareak, goian kortxua ta beian beruna, ur azaletik sei braza inguru luzatzen ziran; eta amar sarek, alkarrerri lotuta, berreun eta ogei braza inguruko luzera artzen eben itxaso gainean.

*Bi anaiak* zan ontziaren izena. *Pedro-txikije*—Pedro Burgoa— zan jaubea, nire aitaren lengusua. Au; beronen seme Esteban; Daniel, Klara Mutriku'ren semea, biak ni baiño iru-lau illabete zarragoak; eta laugarrena, Hilario, gero Arantzazu'ra praille lego izatera joan zana. Onek amasei-amazortzi urte izango zituan, eta makiñista egiten eban ontzian. Lau lagunok egiten eben ontziko taldea.



Illundu baiño len jaurtiten ziran sareak itxasora. Ta, orretarako gengozala, itxasontzi andi bat geureganako zuzenbidean etorrela ikusi genduan, eta bera igaro arte sarerik ez jaurtitea erabagi eban lemazaiñak, sarritan gertau ei zana gertau ez eitean: zera, itxasontzi andiak musturragaz edo *helizagaz* sareak urratu edo eroan.

Makiña geratuta nasai gengozan, itxasontzia urretik ikusteko asmoz. Baiña, berreun neurkin baiño gitxiago palta jakozala, zuzenbidea apur bat okertu ta gure gaiñera etorrela konturatu giñan larri-larri. Orduan lemazaiña didarka asi zan, motorrari *abante* emoteko Hilario'ri esaten. Bolada aretan ezin *abante* artuta ibilten zan motorra; baiña *manibelari* bira bat emon orduko ibilten asi zan, eta iges egin geuntsan apur bat. Ari bategaitik ez ginduzan jo! Igesian giñoiazala, gure lemazaiñak, erramua bi eskuakaz jasoaz, didarka ekin eutsen amorru bizian, aretxegaz il egingo zituala ta. Baiña an, itxasontzi andian, lagun bakar batik be ez zan ikusten; ezta *puentean* be. Ederretik iges egin genduan!

## Itsasoko ezbearrak

**A**RRANTZALEEN bizitzan, zoritxarrez, gizon ta itzason-tzien galtzeak askotan gertaurik, gitxiago ba'da be, euren barri emotea itxurazko gauzea da, Ondoarroa'ko itxastar bizitzako kontuak emotera doanak.

Bizibide txarrak ba-dira munduan; baiña neure ustez bi ba-dirala beste edozein baiño txarragoak esango neuke: meatzlaría edo minerua ta arrantzalea.

Bai; meatzlariaren bizibidea, izan leitekean txarrena da: lurrean bide askoan sartu ta erdi illunetan arnasa zikiña artzen dabela, toki itoan pikatxoi ta antzeko tresnakaz lurra arrakalatu ta atara; ta, askotan, irabazten daben aloger txikia biziagaz ordaintzen dabela, bizirik obiratuaz.

Arrantzaleena be ez da bizibide ona. Ta len, makiña bako ontzi txiki ta makaletan, txarragoa. Gora ta bera ta alabandan gelditu barik dabillen ontzian lan egin bear ainbeste orduan, sarritan eguraldi txarretan ekatxak iruntsi bearrean, otzak ilda. Ta iñoiz, norbera gaiñean eukan ontzia ondora joan eta zeri eldu ez ta ur arpira joaten dira. Zenbat olako ez dira gertau itxasoan!

Ondarroa'ko kondairan be, ontzi asko galdu ta gizon asko ito izan dira. Batzutan, itxaso zabalean ontziak ondortu ta gizon guztiak edo geienak galduaz. Beste batzutan, barran tirabira eginda, erriko jendean aurrean, liorrekoak eurai ezin lagunduta. Urrengoan ontzia ondo kairatuko zan,

baiña lagun bat edo bi galduta. Milla eratarra galdu izan dira gizonak.

Agustin Zubikarai'k emoten dau Ondarroa'n izan diran eta ondarrutarrak urruneko itxasoetan izan dituen ezbearren barri. Olan esaten dau berak:

“1625'garren urtean, Txomin Asterrika bere ontzian Galizit'ik etorrela beste iru lagunegaz, Ondarroa'ko kaian ezin sartu ta Mutriku'ra joiala, erri guztiaren aurrean itto ziran.

1741'eko Dagonillaren 25'eanean, udabarrian Terranoba'ra joandako txalopa baten bost ondarroatar itto zirala jakin zan.

1838'garren urtean, Epailaren 20'an, plai muturrean, batel baten itto ziran: Txomin eta bere seme; Juan Zelaia eta Jose Zubikarai.

1878'garren urteko Jorraillaren 20'an, 300 arrantzale baiño geiago itto ziran Kantauri itxasoan.

1899'ko Garillaren 3'an, Sota'ren Goizeko Izarra yateak Josefina ondarroatar txalopandia billatu eban tirabira egin da, Santoña gainean. Bi itto ta lau salbau ziran.

Josefina'k goizaldeko lauretan tirabira egin eban, eta Sota'ren yateak zortzirak inguruan artu.

1902'ko Gabonzar aurreko illuntzean tirabira egin eban bertan, barran, Itziar txalopandiak. Gizonak, emeretzi gizon andi, olatu artean burrukan, noiz ittoko.

Argirik ezak eta ango zarateak bear zan lez lan egiten ez ebalaga diñue zarrak. Dana dala, negarra zabaldu zan, benetan zabaldu be.

Bederatzi gizon ozta-ozta atara ziran, baiña an egozan beste amar mariñel gordin ittota.

1909'ko Orrillaren 24'an egon zan galerren andian, iru ondarroatar itto ziran. Orduko bertso batek olan diño:

Maiatzaren ogetalugarren arratsian,  
galerna bat sortu zan modu zorrotzian;  
urrengo egunian kontu txarrak ziran,  
txaluparen granorik etzala etxian,  
zer pena izango zan askon biotzian.

1912'ko Dagonillak amabi. Gure denporan alako trixkantzarik ez da gertau euskaldun arrantzaleen artean. Bermeo'n bakarrik 112 izan ziran ittoak. Elantxobe, Lekeitio ta abarretan be asko.

Ondarroa'n txalopandi bat bakarrik galdu zan, bere gizonakaz. Ori Santa Klara eguna zalako ondo urten eutsen ondarroatarrai. Euskalerriko arrantzaleen kofradiak geienak Pedro Deuna'ren aintzaz dagoz; deun orren izena dauke; Ondarroa'koa, ostera, Santa Klara'ren izenekoa da. Ta orregaitik, Santa Klara'ren Andra Mari edo erriko jaiak baiño iru egun lenago izaten dan arren, orduan etorri egiten ziran ontzi asko bere eguna ospatzera. Ta urte atan be, ekatxa jagi zanean, Ondarroa'ko txalopandi asko kaian egozan, eta euretako arrantzaleak Santa Klara'ren elizatzora joan eta meza entzun, bere abestiak gogotsu abestuten:

Bieta Santa Klara  
euskeraz argia,  
zu zera zeruetan  
dontzella garbia".

Orain arteko itxasoko ezbearrak, antxiñakoak, Zubikarai'k edestu ditu; ta emendik aurreragokoak. neure aldikoak, zoritxarra famili askotara eroandakoak, neuk kontauko ditut.

1922'ko Garagarrillaren 6'an, *San Pedro* izeneko txalopandia galdu zan, atunetan ebillela ekaitz andi batek atrapauta. Bertan ebilzan arrantzale guztiak il ziran, bederatzi. Iñork ez zituan ikusi; ez eben azterrenik laga.

Ondarroa'ko kondairan galdu zan azkenengo txalopa andia izan zan. Aize oialez edo aizearen indarrez ibiltzen ziran ontziak, uda atan joan ziran azkenengo aldiz atunetara, eta baita itxasora be.

Domuru Santu eguna zan, 1929'garren urtekoa. Eguraldiak lagaten ba'euskun, beti egiten genduan igande ta jaietako arratsaldeetan Arta'n ziar joan etorria. Ta egun aretan be egin genduan. Eta Santa Klara azpian gentozala, begira egon giñan itxasoan ikusten zan itxasontzi bakarrari, ta

beragaitik zer edo zer esan be egin genduan; nungo kaiatik urtendakoa izan zeintekean eta nora joango zan, eta olakokak. Ta tapa-tapa Arta'n beruntz, bereala frontoian gengoan pelotan ebilzanai begira.

Bereala bat-batera zurrumuru bat zabaltzen asi zan: itxasoan Ondarroa'ren parean itxasontzi bat galdu zala; labea lertuta ondora joan zala.

Ori olan ba'zan, geuk ikusi genduan itxasontzia zan ezpai barik, itxasoaren zabalera guztian besterik ez zalako ikusten ordulaurden lenago. Ta danok urten genduan pelota tokitik kai aldera edo itxasoa ikusten zan tokietara.

Bereala, lau motor txikirek urten eben itxasora bata bestearen atzetik, ezbearra izan ebenai lagundu naian. Gu talaiara joan giñan. Ara eldu giñanean, talaietua sua egiten egoan talaiaren eskumako aldean, larrak pillatuta. Itxurea zanez, ezbearra gertau zan baiño ezkerrerako joiazan laguntza emotera urten eben motorrak. Ondoratzea nun gertau zan arrastua arkituta eukan talaietuek katalejoakaz.

Gu ara joan ta bereala, beste motor batek urten eban itxasora. Ta axe zan ezbearra! Besteak baiño ezkerreragoko zuzenbidea artu eban. Ta su barria egiten asi zan talaietua, Arta alderago, eskuma alderago, ezbearra gertau zan tokira zijozanak zuzenbidea eskumarago okertu eien.

Katalejuagaz arrastua zaintzen, beste arrantzale bat lagata ebillen sua egiten talaietua.

Illuntzen asi zan eta arrastua ozta-ozta zer edo zer ikusten eben. Ta ordutik laster illundu zan eta ez zan ezer ikusten; ezta lagundu naian joan ziran motorrik be. Ta orduan, talaietan egozan danak errira jatsi ziran, geienak kaiara, zerbait jakin naian. Ezbearra Ondarroa'ko kaiatik lau bat milla zala esan eben.

Ta ordutik ordubete edo geiagora asi ziran motorrak kaietatzen. Eta geienak ez ebela ezer ikusi esan eben. Baiña batek gizon bat ekarri eban, ittota. Ain zuzen, itxasora azken urten ebanak ekarren. Ontziratu ebenean, gonbittuak jaurti zituala esan eben. Gitxigaitik galdu zan. Lenengoan beruntz geien jo eban motorrak, gero billa ta billa goruntz edo Gipuzkoa alderuntz iñor baiño geiago ibillita arkitu ei eban.

Lenengotik talaieruak ipinten eutsen zuzenbidera joan ba'lira motor guztiak, bat baiño geiago bizirik arkitzea izan eitekean. Baiña itxurea zanez, kaian emoten eutsen zuzenbidea itxasora urtendako motorrai, beruntzkoa, ezker erdiragokoa, ez zan zuzena.

Ekarri eben itotakoa, amazortzi urteko mutil gaztea zan, Reinosa'koa. Soiñean igari egitekoagaz egoan, kortxoazkoaz.

Ordutik egun bira beste gizon bat arkitu eban itxasora arrantzara joandako ontzi batek. Bigarren a jantzi barik egoan, eta arrain andi baten aginkadeaz zati bat janda.

Biak Ondarroa'ko illobian lurperatu ziran.

1944'garrenean urte bat gora-bera, alde atan sareru motor txikientzat apur bat urrun egoan antxobea, lau orduko bidean. Eta arrantzan ibiltzen ziran ontzi andien batzuk atoian erabilten zituen motor txikiak, antxobea egoan tokira, eta gero kaira ekarri. Bai; eurak, txikiak be, makiñak ibillian zituela egiten eben joan etorria, baiña itxasontzi andien babesean ebilzan.

Baten, beste geiagotan lez, *Artibai* lurruntziak *Ama Antiguakua* lau lagun ebilzan motor txikia eroan eban atoian. Eta, gaua antxobatan igarota, etxeruntz asi ziran, ontzi andiak txikia atoian ekarrela. Eta alantxe ainbeste denpora igarota gero, atzean iñor ez ekarrela konturatu ziran. Eguraldia be ez egoan ona, ta lurruntzikoak egin eutsan tengaden baten lokarria eten eta motor txikia musturrez bera itxasoan sartu ta ondora joan zan kontixu. Ta *Artibai*'ko gizonak ikusi be ez gertau zanik. Atxobarik, esatekorik ez eben atrapauko; ta, lan gitxi eukenean, kubiertapean etorriko ziran lurruntzikoak, lemazaiña ez besteak, eta konturatu be ez ontzi txikiari zer gertau jakon.

Lau gizon ziran *Ama Antiguakua* ontzian, eta laurak galdu. Pedro Berridi zan lemazaiña.

1951'ko Epaillaren 13'an, barri txarra jakin zan itxasoko irratitik: *Aldebaran* edo *Alcor* arrastero bikotea etxeruntz etozala, olatu andi batek ia galduan laga eban lenengoa. Ori ikusi ebenean, bertako gizonak beste ontzira aldatzeko asmoz asi ziran, kexu. Soka puntea *Alcor* ontzira jaurti eben

eta ziran amaika gizonetik zortzi, banaka lokarri aregaz lotu ta uretara salto egin eben, ontzi lagunera eldu naian.

Baiña eguraldi txarra egoan, otza ta olatu andiak; eta, *Alcor*'koak alegin andiak egin arren, lokarrian joiazan lenengo laurak bakarrik bizirik jaso zituen ontzira. Bertan lokarrian atzerago lotuta joiazan beste lau gizonak, itota ontzira-tu zituen. Alako ikuskizunik!

Galdu zan ontzian gelditu ziran beste irurak be aldendu egin ziran, ito. Bat, Elantxobe'koa, besteak gaizkatzeko ainbeste lan egin ebana, beste ontzira bere aalez igari joiala aldendu zan urpean; eta beste biak, *Aldebaran* ondora joan jakenean, uraren gainean gelditu ziran, zeri eldu ez eukela, ta denpora gitxira urak iruntsi zituan. Guztira, zazpi ito ziran, eta euretatik lau errira eroan zituen.

Simon Larrinaga zan arrantzako lemazaiña.

1955'garren urteko Urtarrillaren 16'an, *Maitane Arriola* arrasteroa galdu zan; amabi gizonetik amaika galdu ziran. Bat bakarrik gelditu zan bizirik.

Igande arratsaldea zan eta axe andia jagi zan. Eta Zaldupe'ko futbol zelaian egoan jendea, ekaitz arek nun edo nun ezbearren bat egingo ebala esaten asi zan.

Ta ostiko jokuko zelaitik urten orduko jakin genduan albista txarra: ondarrutar arrasteko ontzi bat galdu zala, ta gizon pilla bat be bai.

Laster jakin zan dana, galdu zanagaz bikotea egiten eban ontzi lagunak itxasotik irratiz barriak emonda. Lenago esan dan lez, *Maitane Arriola* zan galdu zan arrasteroa. Amaika gizon ziran ito edo aldendu ziranak, eta bat ekarren bizirik. *Carmentxu* zan ontzi laguna eta bizirik gelditu zan gizon bakarra ekarrena.

Denpora gitxira sartu zan kaian. Esan ebanez, ontzi biak barruko bandan ei etozen, ordu gitxira erriko kaian sartuko ziran ustean. *Carmentxu*, *Maitane* baiño apur bat aurreratuago ei etorren, baiña ia batera. Ta ekatxak ekarri eban illun aldi baten ondoren *Carmentxu*'ko lemazaiñak atzera begiratu ebanean, ez eban ikusten an urren egon bear zan ontzi laguna, *Maitane*. Bildurtu zan ta aguro birea emon

euren ontziari, ta bestearen billa asi ziran. Gizon bat arkitu eben biziari ezin eutsita, olatu andi ta aizeen artean.

Itxurea zanez, bat-bateko ezbearra izan eben. Olatu andiren batek tirabira eragin edo. Beintzat, irratia ba-eukan ontziak, baiña ez eban txarto arkitzen ziran berbarik egin, eta ezta laguntzarik eskatu be.

Bizirik urten eban gizonak be ez eban ezer esan: danak kubiartapean egozala ta, berak ez ekiala zelan, bere burua itxasoan arkitu ebala,.Joakin Omil Piñeiro zan.

Ito ziran amaikatik sei, ondarrutarrak ziran. Kosta patroia, Jesus Maria Ugartetxea, ezkondua eta seme biren aita, ogei ta bederatzi urtekoa.



## Kaia

**G**ITXI dira berez egokiak diran kaiak. Geienetan, kai sarreran edo barran, moillen bearra izaten da, bertako sartu-urtena arrisku gitxiagokoa izan daien itxasontziak.

Ba-dira, bai, olako arresi edo moilla barik be sartu-urten txarra ez dabeenak. Donostia'k ez dauka moillarik itxaso zabalera urtetean, olatuen indarra makaltzeko. Ta bear be ez dau. Nik beintzat sekula ez deutsat entzun iñori Donostia'k sartu-urten ohea izango leukeala itxasotik, ugar-tean edo lgeldo azpian moillea ba'leu.

Ostera, beste kai batzuk, barrako moilla orreik barik dagozalako, sartu-urten txarra dabe. Orio'n, Zarautz'en eta Deba'n ez dago itxasontzirik sartzerik, eguraldia apur bat arrotzen ba'da. Ta Zumaia'n be, balio gitxiko moillatxo-a baiño ez dago, ta ez da itxasontzi sartu-urtenik, eguraldi onean izan ezik.

Jakiña, kai askotan barrako moilla orreik ezer baiño bearragokoak diran arren, barruan be moillak bear izaten dira, itxasontzientzat tokiak egokitu ta euren karga-deskarga edo, euskeraz zer edo zelan esanda, zama artze-ustutze lanetarako.

Kaietako moillak, nai barrakoak nai barrukoak, ez dirudie antxiñakoak. Edozer antxiñako gauzak urteak emoten dabeen alako zar itxurea izaten dabe, ta gure kaietako moi-

llak ez dauke zar itxurarik. Ez dot uste iñok berreun urte izango dituanik.

Beraz, gaur toki batzutan ain bearreko diran barrako moilla barik, kai orreik arrisku andikoak izango ziran.

Ta, askotan, arrantzan ziarduela, eguraldia txartu eta talaieruaren bearra izaten eben, kaian sartzeko, Ondarroa'n.

Gure gurasoen denporetan, barrako moillak eginda egonda be, oraingoa baiño laburragoa zalako, makiña bat ezbear izaten zan bertan.

Ciriquiain Gaiztarro'k, Texera'gaz baliaturik, ez zala ona Ondarroa'ko kaia esaten dau. Ipar, ipar-sartalde eta ipar-ekaldeko aizeak ondarrez beteten ebela barrea, eta ezin igarroteko eran laga.

Ondarroa'ko kaiaren sartu-urtena aspaldikoa da. 1335'garren urteko Azillaren 10'ean, Don Juan Nuñez de Lara'k berari uri izatea baieztuten eutsan agiria emon eutsanean, "olezko zubiaren azpitik igaroten ziran itxasontzi guztiak bost diru emon bear zituela" agindu eban.

Olezko zubiaren azpitik igaroten ziran itxasontziak, geinak zamakoak izango zirala esan leiteke, orduan Artibai ibaian gora ta bera ebillen karrioa jakinda. Ciriquiain Gaiztarro'k esaten dabenez, urtean larogei milla kintal burdiña eroaten ziran inguruan egozan amar burdiñola andi ta beste ainbat txikietara.

Ta Amallo'tik be ol asko ataraten ebela ibaian zear lekeitiarrak, ontziak egiteko.

Arrantzale ontziak, itxasora askotan joan bear ebenak, ez eben izango zubia igaro ta gorago joan bearrik. Berago, itxasotik urrerago geratuko ziran.

Dirudianez, Arritzea esaten eutsena egoan, meatza ta beste gauzak itxasontziak ustuteko ta zamatuteko.

Zubikarai'tar Agustin'ek, berak atara eban *Egutegia 1976*'an diñoanez, 1863'garren urteko Urriaren 9'an Iparreko (Norteko) moillak egiteko errematea izan ei zan, 45 egun barru lanean astekotan.

Errematea irabazi ebanak beste bateri laga eutsan lanak egitea, ta beste a zintzo asi zan lanean; baiña andik urte

bira laguntasun eske zan Madrid'era, itxasoko eguraldi txar andi batek bere lanak ondatu egin zituala-ta.

Barrako geroagoko beste lanen barria auxe da: 1878'ko Otsaillaren 28'an onartu ziran. Ondartzako moillea egin eben, gero gure denporan loditu ta anditu ebena. 212 neurkin zan luzean. Orduko 152.627 laurleko kostau zan.

Ondarroa'ko arrantzaleak barrako moillak gogo andiz eskatzen ebezan. Danak ekien bearrezkoak zirana. Orregaitik, Ondarroa'ri ondo egin nai eutsen gizon andi ta politikokak be, barrako moillak aitatuten eutsezan ondarrutarrai: egingo zirala.

Politikea zala-ta 1896'garren urtean ondarrutar batek ataratako bertsoetan au esaten dau barrako moilleazaz:

Ainbat urtian egondu gera  
molla batzuen eskian,  
esan bezela logratu eta  
or ari dira lanian.  
Rodas jaunaren erregalua  
or daukagu ondarrian,  
gizon batzuek ori salduta  
dabiltza beste aldian.

Geroago, Don Domingo Agirre'k be aitatzen dau erriaren kezka nagusia zan auzia *Kresala'n*. Auteskundeak zirala-ta, upiñeko andra-gizon batzuai auxe esan eragiten dautse:

“—Ta ainbeste lagundu dauskun gizonari emondako itza jan?

— Nik ez nekian orduan Peru zein zan; txarra dala diño, ta gaiñera Patxi'k nasa barriak egingo dituala, bearra be ba-dago-ta”.

Moillak zirala ta berba egin dogunean, barrakoagaitik egin dogu. Ta kai barruan be egin bearra egoan, eta egin be egin dira.

Orain arte antxiñako kontuak esan doguz zer edo zelan. Aurrerantzean esaten diranak, neuk ezagutu ditudanak izango dira.

1919'ko urtean barrako moillea luzatzea erabagi zan, 48 neurkin. Egun baten, Bizkai'ko Aldundia'ko agintariak etorri ziran, barran egingo ziran lanen lenengo arria ipintera. Erri guztia joan zan bertara, asko lurrunontzi ta motor txikietan, an egingo ziran gauzai anditasuna emotera: lenengo arria ipiñi, bedeinkatu, ta gizon andien berbak entzutera. Egun a zein izan zan esaten eban arria antxe egon zan berrogetamar urte inguruan, bertan tokian, lan barriak egi-ten asi arte.

Moilla luzatze lana Manzisidor buzuak egin eban. Baiña ez eban asko iraun, txarto bururatuta edo planeatuta egin zalako.

1922'garren urtean amaitu zan erri lanak, beste pare bat urte bakarrik iraun eban. Neguko itxaso andiak jo ta zati bat kaiko barruko aldera jausi zan, eta ibai edo kairako sarrera itxita laga eban.

Anedota bat lez au esan daidan. Baten, Alameda inguruan nenbillela, Blas Kamiña'ren arrain lantegi aurrean jendea zarataka ebillela oartu nintzan, eta zer ete zan urreratu. Andik ondo ikusten zan barrako moillea. Ekatz gogorra zan eta olatuak moilleari zirkin eragiten eutsoen, birea bai emongo ez emongo. Olatuaren ots baxotxean jendeak "eeup!" esaten eban, olatuari indarra emon naian lez; eta alako baten olatu andi batek lortu eban moilla zati andi bateri birea emotea. Moilla zatia barruko aldera jausi zan, eta kairako sartu-urtena itxita geratu zan. Ta negu atan geiago ez ziran joan itxasora Ondarroa'ko itxasontziak, kairako sarrerea garbitu arte.

*Brontxe* erriko arrantzale bertsolariak Santa Ageda aurre-gunez lagunakaz kaleetan zear abestuten esan eban lez:

Barra ori dala mediante  
emen gabiltz paseante.

Barrea jausi baiño lenago be lurrunontziak besigutara joan eta errira etorri baiño len eguraldia txartzen ba'zan, talaieruaren laguntasuna bear izaten eben kaian sartzeko; ta orduan geiago.

Baten, ez dakit barrea jausi aurretik ala jausi ta gero, beste askotan lez, urten eben besigutara goizaldean. Eta angoa amaituta barruko bandan etozala, txartu egin jaken eguraldia; Ondarroa'ko kaian sartzeko geiegi. Lurrunontzi guztiak, berrogetamar inguru, an egozan kabran (abran), kaian sartu naian. Baiña barra musturrean orretarako egoan talaieruak ez eban ikusten aukera onik. Olatu andiak gelditu barik etozan. Ezin zeitekean sartu Ondarroa'ko kaian. Eta, an alperrik egozala ikusirik, itxasontzi guztiak Getaria'ra joan ziran eta erri atan sartu.

Getarian orduan be kai ona egoan, eguraldi txar-txarretan be sartzeko lakoa. Eta zan lakoa zalako, eguraldi txarretan beste kaietan ezin sartu ta ara joan eitekezanak abaroa euki eien, etxe andi bat egoan, gaur be ba-dagoana, kaian bertan. Eta antxe arkitu eben nun lo egin zazpireun gizonek. Eta biaramonean, lurrunontziak zaintzeko lemazaiñak eta makiñakoak laga ta besteak bultziz etorri ziran errira, danak zirazko jantziak jantzita ta bota traskoak oiñetan zituela. Beno, trenez Deba'raiño. Ta andik Ondarroa'ra geienak oiñez, orduan ez egoan orrenbeste autobusik-eta.

Ondarroa'ko kaia txarto egoan. Barriro jaso bearra egoan eta 1925 urtean onartu eben Laterriko agintariak barra barria.

Bigarrenez egin ebenak ez eukan atxakirik. Lengo etxeak edo lagundiak ez eban egin. Orain Iriondo'ren lantegia dagoan tokian, orduan ez egoan ezer eta antxe egin zituen, gitxienez amar neurkin kubiko zituen zementozko arritzarrak, eundaka. Ta gabarretan eroan eta uretan ondoan zimentarritzat ipinten zituen, eta arein gaiñean arresi edo moillea egin. Arrezkero, makiña bat olatu ta itxas indarren erasoak artu ditu barreak, baiña arei zirkiñik eragitekorik ez dago.

Ez dakit noiz egin zan barrearen bigarren luzatzea. 1926'an egindako zinean, oraindik egiteko egoala ikusten zan.

Barrako lanak amaituta, ondartzako edo plaiako moillea be barriztau egin eben. Etxe berak egin eban. Lengoa barruan artuta, luzeagoa, zabalagoa ta goruntzkoa be geiago eukana egin eben.

Lengoa bere luzera guztian mailladizkoa zan, alderdi bakotxean goitik bera bost, sei edo geiago mailladi andikoa. Ta sarri. urak guztia artuta egoten zalako, batez be eguraldi txarretan, ur azpiko atxak lez dana latztuta egoan, lapa txikiz josita.

Moilla biak, au da barrakoa ta ondartzakoa, 1.200.000 laurleko, ordukoak, kostau zirala diño udalaren txostenak.

Lenengo egin eta jausi zanaren diru konturik ez dau emoten.

Errepublika denporan, 1932'garren urtean, gorakada andia emongo eutsan bidean sartu zan Ondarroa'ko kaia. Gaur egunean arrasteruen gora-bera guztia egiten dan dikea, ordurarte maria berakoan liortu egiten zan dana; eta moillarik be ez egoan alde atan. Bertan egoten ziran ontziak, geienak, itxasora joatea lagata euken, eta usteltzen egozan treñneru ta txalopandi zarrak ziran.

Ondarroa'n etxeak egiteko toki aukerakorik be ez, eta erri barria antxe egingo zala esaten zan.

Baiña kaien ardurea ebenak, Ondarroa'n nai zana egiten laga ezkeru, naikoa mailla oneko kaia izatera eldu eitekean bat gitxiago izango zala ikusten eben. Ta kaia barriztatzea erabagi eben. Dikan sondea anditu ta moilla batzuk egingo ziran.

Ta, egun baten, Prieto, Bilbo'ko asturiar ospetsua, orduan Gobernuko Erri Lanen ministrua zana, etorri zan Ondarroa'ra, kaiko lanen lenengo arria ipintera. Beste ministru bigaz etorri zan, areik be ospetsuak: Azaña ta Marzelino Domingo.

Laster egin ziran Prieto'k dirua emondako lanak: dikako sondea anditu ta moilla zati bat egin.

Ta oraindik Errepublikoa kendu baiño len, iru milla tonelada inguruko zama ontzia, *Etxano* izenekoa, dikan sartzten ikusi genduan, antxoba gatzitu kontserbea Italia'ra erotatera etorrira.

Franco'ren guda ostean naiko arrastero ontzi asi ziran arrantzan Ondarroa'tik. Eta kaia laster txiki gelditu bear zala ikusirik, toki geiago izateko, tankeraz aldatu egin bear-

ko zala esaten asi ziran; ondartzea edo plaiea kendu egin bearko zala.

Kaia itxuraz oso-osorik aldatzea gauza andia zan. Baiña zer esan andirik ez eban emoten. Itxasontzi jaubeak ondo artu eikeen kaia obetu asmoz egin nai ziran lanak. Baiña asko geiago ziran asmo ori ondo ikusten ez ebenak; kaia obetuteko ondartzea kendu bear ba'zan, gauzeari len lez lagatea naiago ebenak.

Baiña Ditadura politikan goikoen asmoen aurka agertzea alperrekoa izango zala iruditen jaken kontizu.

Ni, ostera, ezin nintzan ixilik egon txarto egoan auziaren aurka neure eretxia agertu barik, eta au argitaratu neban eleiz aldizkari *Boga Boga* n, 1964'garren urteko Garagarrilla-Dagonillan:

### *¿DESAPARECERA LA PLAYA DE ONDARROA?*

*De todos es sabido que existe el proyecto de mejora de nuestro puerto y, como consecuencia, la desaparición de la playa.*

*Desde luego, el puerto es vital para Ondárroa y todos deseamos su acondicionamiento lo más antes posible: mayor amplitud para el estacionamiento de las embarcaciones, mayor fondo, más muelles para carga y descarga, etc.*

*Pero no creemos que para ello sea necesaria la desaparición de la playa; no creemos que ésa sea la única solución.*

*Indudablemente el puerto es la vida de Ondárroa; pero también es cierto que la playa es el lugar más agradable de nuestro pueblo.*

*Hace 40 años sólo los veraneantes se aprovechaban de ella; pero hoy también los erritarras sabemos apreciar su valor y disfrutarla.*

*Los pueblos en la actualidad no cuentan con mejores atractivos que las playas explotándolas al máximo. Verdad que Ondárroa saca poco provecho con su playa, comparado con lo que sacan otros pueblos de nuestra costa; pero no hay razón alguna para privarle a la gente del pueblo de lo que más disfrutan.*

*La solución del puerto hay que buscarla sin perjuicio de la playa.*

*Sin duda alguna, en Ondárroa el puerto es lo primero; pero cabe su mejora en grandes proporciones, sin que se llegue a ese extremo de desaparecer la playa, nuestra bonita playa, popularizada por el canto más famoso:*

Ez det nik ikusiko  
zure plai ederra.  
Agur Ondarroa'ko  
itxaso bazterra.

*Que no sea realidad lo que el poeta cantó con otro sentido.*

*Creo que los ondarreses moralmente tenemos el derecho a intervenir en este asunto y tratar de impedir lo que creemos no debe tener lugar.*

*Jose María Echaburu.*

Ez eban izan oiartzun andirik nire eskutitz arek. Sekula iñok ez eustan esan irakurri ebanik be.

Ordutik urte batzutara, agermen edo manifestaziñoi andi bat egin zan Ondarroa'ko kaletan zear, ondartzea ez kentzeko esaten. Oraindik Franco bizirik egoan eta, ondartzea atxakitzat artuta, jendea kalera ataraten ikasteko saioa zala esango neuke. Jakiña, geienak fede guztiaz ondartzearen alde joan ziran.

Geroago be barrako moillea asko luzatu da Ondarroa'n; musturra ur andira eltzen da, ta kairako sarrerea on-ona da.

Baiña oraindik kaia anditu nai da, aldatu nai da, mundua kostako litzakezan lanak eginda. Orrek ez dauko amairik. Beti obeago ta andiago nai izaten da.



## Estropadak

**O**NDARRUA bere denporan ezertan entzutetsua izan ba'da, estropadetan izan da: erramutan. Igaro dan mendean, erdi ingurutik azkenerarte —kondairak jasoten dituan lenengo estropaden aldia—, gure erria onenentzat jotzen zan erramutan; arraunketan.

Jakiña, entzutea egiteak emoten dabe, ta irabazle askotan izango zana ez da ezpaian ipintekoa.

Baiña antxiñako kontuetan elezar edo *leyenda* be egoten da; ta guk, Ondarroa'ko kondaira edestuten ari garanean, upiñik ez dogu sartu nai bertan, alik-eta zeatzen kontau baiño, olan egin al dogunean beintzat.

Ta onetan, asierea, estropada entzutetsu bati buruz beti entzun eta esan izan doguna ez dala egia esatea izango da. Guk gure errian zarragoai entzun da ikasitakoa auxe da: Ondarroa'k estropada bat bakarrik galdu izan dabela, ta bera lemazaiñaren etoikeriz edo traiziñoz.

Azkenengo au be ez dot uste egia danik; beintzat, galtzen daben edozeiñegaitik esan laiteke. Ta bestea, Ondarroa'k estropada bat baiño geiago galdu dabena argi dago. Alan be, oraindik bi edo iru urte, olan irakurten genduan erdal izparringi baten, gure erriari buruzko estropaden kontuaz ziar-duala: "*Una derrota no puede empañar el recuerdo de tantas victorias*".

Estropada kontuan dagoen barririk zarrena, Azkue'k bere *Cancionero Vasco*'n dakarrezan bertsoak dira, doiñu ta guzti. Estropadea, dirudianez, 1854'garren urtean lekeitiar eta ondarrutarren artean jokaturakoa da, ta Azkue beraren errikoak irabazle geratu ziran.

Ondarrabia'n ikasi ei eban ondoren datorren olerkitxu au. Baiña urtearen ziurtasunik ez dau emoten. Arritzekoa be bada estropadearen irabazle ziran bere errian bertan ez ikastea. Berak diñoan lez ipiñiko dogu:

*“Es un poemita muy humilde compuesto en ocasión de una regata habida hacia el año 1854 entre lekeitianos y ondarroeses, a empezar del cabo de Santa Catalina y terminar en el puerto de Guetaria”.*

Beste estropada edo sasi estropadaren antxiñako albistak 1964'garren urteko uztaillaren 26'ko *Zeruko Argia*'k ekarri zituan, *Nonzebarri* izenordez izenpetu eban batek idatzita.

Gorago diñodan lez, estropada a benetako estropadatzat baiño sasi estropadatzat artzea zuzenagoa da. Dana dala, aspaldikoa dalako, aitatu dodan euskal asterokoak ekarren lez, ezer kendu ez aldatu barik, emen ipiñiko dogu.

“Milla zortzireun eta irurogei ta batgarren urtean (1861), garagarrillaren ogeian, orain eun da iru urte, Españaiko erregin-erregeak eldu ziran Santanderrera. Jakiña: uri guzia jaietan ipiñi eben. Egunero ez da etorten norbere auzora erregiñarik, eta an zan Santander osoa, uri ta probintzi, senar-emazte ain andi ta itzalgarriai ondo etorria emon eta urrengo egunetako egotaldia atsegingarri egiteko.

Egun areitako paperak baeuken zer esanik: erregiña Santanderko ikuskizun ederrakin zoraturik egoala; egunean baiño egunean murgilla luzeagoak egiten zituala Sardinero-ko uretan; alango ta olango ur-soñekoakaz ikusi ebela; kaleko andra bati guztizko txeraz eta apalik berba egin eutsola. Tintarik aiña koipe erabillen. Sekulan ikusi ete zan, ba, alango erregiñik, ain apalik eta otzanik? Bilboko agintariak be Santanderrera agertu ziran, euren agur onak emoten, eta

egundoko pozaz etxeratu ziran, euron buru joianari erregi-  
ñak beren ondokoakin bazkaldu-azo eutsola-ta.

Egun pozgarri oneik, orraitio, euren ostetxo garratza  
ekarri eben. Erregiñaren omenez, illaren ogei ta bian, estro-  
padak egin ziran, eta Castroko batel bik urten eben nausi.  
Catrotarren pozak ez eukan neurrik. Eurak zabaldu ebe-  
nez, Bizkai guztiko indarrak ausita itxi ei zituezan. Bertsoe-  
tara be jo eben. Bertsoan egilleak: All El Mordaz ezizeneko  
bat eta Antonio García Gutiérrez; azkeneko onek Barbieri'n  
musikea ezarri eutson bere "*Jota del regateo*" izeneko ber-  
tsoai. Santanderren neurtu ei ebezan euren indarrak Castro  
eta Bizkaiak. An ei ziran Bermeo, Lekeitio ta:

*entre otros insignes luchadores,  
de Ondárroa los famosos bogadores.*

*Iurac*-bat Bilboko egunerokoak zabaldu zituen Castrota-  
rren erronka oneik. Ta laster etorri zan bizkaitarren erantzun-  
na. Zelan izan zaitekean Castrotarrak iñoena, Santanderko  
estropadetara Bizkaiko batelik etzan agertu be eginda? Non  
zan egia? Ara: estropada areitarako Castroko batel bik emon  
eben izena; besterik etzan agertu. Ezer gitxi, jokoari berorik  
emoteko. Santandertarrak zer egiten dabe? Baziran an por-  
tuan Bizkaiko ontzi bat edo bi, Bermeo, Lekeitio ta Ondarro-  
ako mariñelakin, porturik-portu eroan-ekarrrika ibilli oi dira-  
netakoak; eurekana jo eben laguntza eske, batel bat eta  
arraun bana opatuaz. Bada-ezpadako batel astun bat emon  
ei eutsen; alan da guzti bere, burrukarako orduan eurek  
eldu ei ziran lenengo bira lekura, azkenengo txanpara ordu-  
ko Castrotarrak aurrea artu baeutsen bere.

Castrotarren erronkai Bermeok. Lekeitiok eta Ondarroak  
erantzun eutsen, eta Ali ta García Gutierrez-en bertsoai  
Lekeitioko seme argi batek, Eusebio María Azkue, geroko R.  
M. Azkuen aita izango zanak:

Iru aupalda egin dira  
ta euren durundua  
erri ta itxasoz dabil  
beteten mundua.

Bizkaiko arraunlariak ez ei ebezan egundo euren buruak Santanderkoen mendean ikusi. Lekeitiokoak, batez bere, lentxoagoko urte baten, Kantauri itxasaldeko arraunlari guztien gañetik gelditu ei ziran nausi ta txapeldun. Etzan errez eurak azpiratzen:

Nun dago Lekeitio,  
nun dago Ondarroa?  
Nun da Bermeotarren  
kalako zantsoa?  
Onek azpiratuta,  
Garcia Gutierrez,  
iñoz ikusi eztira  
ta ezta ikusten errez.

Barriketa ta bertsoakaz barik, besoakaz arraunean erakutsi bear zan nortzuk ziran geiago. Orretarako gertu dagoz nainon ta noznai Bizkaikoak.

Ia bada, Castroko  
kaskabel-jotzaillak,  
eztabe ezer balio  
gedar ta barailak.  
Baldin nai badozue  
onriagaz urten,  
ezta euskalduna atzera  
iñoz biurtuten.

Bizkaikoen ondorako, giputzak besterik ez.

Asko ta asko zagoze  
abantari putzak,  
baiña geugaz bardiñak  
bakarrik giputzak.

Castroko bertsoak, Gutierrez orrek egiñak, Santa Ana ta San Pelayo aitaturten ebezan, santu oneiri deiez Castrotarren alde etorteko. Eurentzako da onako zirikada au:

Ondarruan sortu zan  
aize puzkadeak  
eleizan sartu al dituz  
Castroko abadeak,  
eskatuten Santa Ana  
ta San Pelayori  
miñean emoteko  
indarra Castrori.

Castrotarrak ez eben jaso nai izan Bizkaikoen aupadea.  
Utsean gelditu ziran euren arropuzkeriak.

Nun estaldu ete dira  
Castroko batelak?  
Osorik ete daukez  
erramu ta belak?  
Castrokoak nai eben  
gelditu nagusi,  
ta euren andikeria  
koplakaz erosi.

Baiña Castron nunbaistan  
dagoz gizon putzak,  
min zorrotzdunak baiña  
zaizkoak gorputzak;  
aixe biurtu dan lez  
euren ots andia,  
munduak ikusi dau  
euri bako odeia.

Arrezkero, euridun odeirik bere agertu da Bizkaiko itxas  
aldean. Eta Bermeo, Lekeitio ta Ondarroako arraunlariak  
bere ikusi dabe gorunzko ta berazkorik.

*Nonzebarri".*

Irakurleak igarriko eban azkenengo esaldi au euskal  
idazlearen eretxi bat dala; orduko estropadakaz zer ikusirik  
ez dabena.

Ondarroa'k urrengo jokaturako estropadea, 1865'garren urteko dagonillaren 3'an Donostia'n izan zana da. Estropada onen barririk inok ez dau ataraten; baiña onetan ez dago ezpairik, bertan irabazitako ikurriña Ondarroa'ko Kofradian dago ta. An ikusi izan dogu geure bizi guztian, orretarako oiturea zan jai andietan, Kofradiako leioan isegita, estropadetan irabazitako beste ikurriñen artean. Ta ez egun areitan bakarrik. Gu umeak giñanean, eta geroago be bai, San Pedro-txiki egunean, *Saliña-saliña* izena emoten jakon zaragi dantzzea egiten, arrantzale gazte aldra batek kalerik kale urteten eban, ikurrin a aurretik ebela.

Kantauri guztian estropadetan irabazitako lenengo ikurriña, diogun auxe izango da ziur. Beintzat, besterik ez da inun aitatuten.

Geroko estropaden barri jakiteko, batez be gure denporak baiño lenagokoena, Agirre Franco'tar Errofaill'ek 1972'garren urtean *Estropadak* izenegaz argitaratu eban erdal idaztia kontuan artu bearrekoa da.

Baita be aintzat artu bearrekoa da Iturriza'tar Blas Ondarroa'ko Kofradiako kontulariak eskuz idatzitako liburua. 1890'garren urtean donostiarren aurka jokaturako ta aurreko beste iruren barri zeatza emoten dau bertan. Baiña arritzekoa: Agirre Franco'ren liburuan agertzen dan estropada bat ez dau aitatzen; bera, Bermeo'k irabazitakoa. Ta ez dirudi galdutakoak ezkutau nai izan zituanik; beintzat, aitatzen dituan estropadetan, bi dira irabaziak eta bi galduak. Urte asko da Iturriza'ren liburu ori eskuetan euki nebana; baiña lenengoa 1887'garren urtean irabazi ebana ta azkenengoa Karrill'en aurka 1890'garren urtean galdutako estropada entzutetsua dirala uste dot. Eta, bitarte orretan, beste estropada bat ipinten dau Agirre Franco'k, Ondarroa tartekoa dala.

Zelan ete dira gauzak? Iturriza'ren liburu a, beintzat, berak orduan ikusitako jazoerak edestuten egindakoa da.

Dana dala, *Estropadak* idaztiari jarraituaz, azaldu daiguzan lengo mendeko azken aldi ta oraingoaren asierako Ondarroa'k jokatu zituan estropaden barri emoten.

1887-9-12'an, Bilbo'ko ibaian, lenen eta bigarren Ondarroa, ikurriña ta saria irabaziaz.

1888-11-21-ean, Bilbo'ko ibaian, lenen eta bigarren Bermeo, ta irugarren Ondarroa.

Itxura danez, bermeotarrak estropadarako bereziki egin-dako ontziak eroan ei ebezan, oraindik arrantzako treiñeroakaz jokutzen zan arren. Orregaitik, beste errietakoak jokatu nai ez-ta egon ei ziran. Baiña agintariak zuritu ei zituen ta egin ei zan estropadea.

Au Agirre Franco'k esaten dau. Baiña Iturriza'k, aitatu dogun bere eskuz idatzitako liburuan, beste kontu bat diño, zera: udaletako agintariak aukeratzeko auteskunde denporea ei zan; eta Ondarroa'n, estropadeari baiño politikeari ardura andiagoa ipiñita, bear zan lez ez ei ziran gertutu. Baiña Bermeo'n auteskunderik ez ei zan izan, ez dakit zer artikuloren bidez udala eratu edo aukeratu zala-ta.

Au ez dau aitatzen Agirre Franco'k, ziur, Iturriza'ren liburu orren barri izan ba'leu pozik irakurriko ebana irakurri ez ebalako.

Estropada onek Pasaia ta Ondarroa'ren arteko desapiozko estropadea ekarri eban. Au be, aitatzen ditudan idaztiak desbardin edesten dabe.

Agirre Franco'k diñoanez, Pasaia'k Ondarroa desapiatu ei eban; eta Iturriza'k, ostera, bestelan diño: Bermeo zemaitu ebala lenengo Pasaia'k, eta arek ez ebala jokatu nai izan ikusi zanean Ondarroa'k jaso ebala zemaia, estropadan bigarren geratu zana bera zala ta. Ta onek egia itxura andiagoa dauko; edozetan be, zemaia irabazleari emoten jako.

Dana dala, estropadea 1888-11-25-ean jokatu zan, Getaria'tik Donostia'ra; ta Ondarroa izan zan irabazle.

Iturriza'k diñoanez, Ondarroa'k amasei-amazortzi treiñeru aldea artu ei eutsan Pasaia'ri; ta, ori ikusirik, ondarrutarrak geratu ta edaten asi ei ziran. Ta geratze ta edate areik mesede baiño kalte geiago egin ei eutseen, eta gero larri, are-rioa gaiñera etorkiela ikusita. Baiña tira: azkenean be, irabazle izan ziran, amabost segundokaz-edo.

1889-9-23'an, Nervion ibaian, lenen eta bigarren Bermeo, ta irugarren eta laugarren Ondarroa.

Auxe dala uste dot, Iturriza'k aitatzten ez daben estropadea.

1890-12-2'an, Donostia'k Ondarroa'ri egindako zemala: Lekeitio baiño arago dagoan Santa Katalina musturretik Getaria'ra, amar millako bidea gitxienez, Karril'dar Luis zan donostiarren lemazaiña, ta Bedialauneta'tar Ambrosio ondarrutarrena. Donostiarrak irabazle, miñutu ta ogetazortzi segunduren aldegaz.

Estropada kondairan izan dan jokorik entzutetsuena auxe izan da.

Estropada onek ondatu egin ebala Ondarroa esaten da; diru asko galdu ebala; ta lemazaiñaren etoikeriz, traiziñoz, galdu zala. Baiña kontu au geroago esango dogu.

1897'garren urtean —egunik ez diño Agirre Franco'k *Estropadak* izeneko bere liburuan, eta onetzaz egundo berba batik ez dot entzun—, Bermeo'k eta Ondarroa'k alkarren aurka jokatu ei eben, eta Bermeo'k irabazi, bere denporea 31' 12" izanik.

1898-9-8'an, Ondarroa lenengo, Beitia'tar Manuel lemazain zala. Estropada bi egin zituen —domeka bitan ziur—, ta biak Ondarroa'k irabazi zituan. Estropada au Donostia'n egin zan.

1902-9-7'an, Bilbo'n ospatu zan jokoa, ta Ondarroa lenengo. Saria ta ikurriña jaso zituan. Emen be Beitia'tar Manuel izan zan lemazaiña.

Esaten danez, eta Agirre Franco'k be olan esaten dau bere idaztian, asmakizun barriakaz joan ei ziran bermeotarrak estropada onetara. Erramu —arraun— musturrari lokarria lotu ta, lepo edo bizkarretik birea emonaz, beste puntea be musturrari lotu.

Orain arteko estropadak gu jaio baiño lenagokoak dira. Baiña ondoren aitatuten doguzanak gure denporakoak, ta euren barri ziburra emongo dogu.

1925'garren urtean, *Club Deportivo Aurrera* sortu ta laster, Portugalete'n estropadak zirala-ta, arako gertuten asi



zan, Ondarroa'n kirola indartzeko ipiñi zan bazkun au. *Aurrera*'ko bazkide ziran arrantzaleak, orduan esku bateko atzaparrakaz errez zenbatzeko ainbat ziran; eta treiñeruan asi ziran geienak, erramua bein be eskuetan artu bakoak. Lenengoan jendeak aintzat be ez zituan artu, laster geratuko zirala ta. Baiña, benetan ziarduela konturatu zanean, estutu egin zan arrantzale jendea, estropada kontuan ain kondaira ona eukan erria lotsagarri lagako ebela liortar areik eta. Ta Kofradia arazoan sartu zan, eta arrantzaleakaz talde bat egin eban. Ez zan orduan errian egin eitekean talderik onena. Baiña astirik be ez egoan eta estropadea irabazteko naikoa zan. Zazpi segundogaz irabazi eben lenengo estropadea.

Lenengo estropadea iraillaren 20'an jokatu zan, eta olan geratu ziran: Ondarroa, 14'56; Zierbana, 15'03; Sestao, 15'10; Portugalete, 15'20; Santoña, 15'25.

Ondarrutarrak, lenengo tandan, azken geratu ziran biakaz jokatu eben. Orregaitik, egin ebanak balio andiagoa eukan.

Orduan, bigarren igandean, lenen geratutako biak jokatzen eben bakarrik. Beraz, Ondarroa ta Zierbana ziran jokatzeakoak. Baiña onek zerbait atxaki edo errezoi atara eban eta ez eban jokatu nai izan edo kanpora jaurti eben. Beintzat, bigarren igandean Sestao izan zan Ondarroa'ren aurka jokatu ebana. Ta bigarren igandeko estropadeak olan emon eban: Ondarroa: 15'00; Sestao: 15'15.

Oneik erri biok adiskide geratu ziran: eta, ordotik aste betera-edo, Sestao'ko erramulariak Ondarru'ra etorri ziran txistu ta guzti, gure erriko erramulariakaz egun eder bat igarotera; ta an ibilli ziran kalerik-kale zarataka, gazte jendea atzetik ebela.

Estropadako saria, kontixu, diru apurren bat be izango zan; baiña Bizkai'ko Aldundiak ipiñitako kopa eder bat zan. Iru urtean jarraian, edo jarraian izan ezik ez dakit lau bidar-edo, irabazi bear zan. Eta an egon zan, *Club Deportivo*'n, urrengo urteko estropadak jokatu arte.

Ondarrutarrak orduan egin ebena iñok ez dau egin: arrantzako itxasontzi guztiak makiñaz ebilzanak izanik,

erramutea oso-osorik lagata egoan denporan, ogetiru urtean estropadetara joan barik egon arren, egun gutxiko saioakaz irabazle urten.

Jakiña, bein Bilbo'koa irabazi ezkerro, Donostia'ra be joan egin bear zan, orain lez orduan be estropalaririk one-nak an batzen ziran da, urrengo urtean Brontxe'k atara eban bertsoak esaten daben lez:

Estropadea irabazita  
jendia asi zan esaten:  
Bilbo'ko galdereteruari  
errez zala irabazten.  
"Orren abilla izanda zetan  
Donostira etzera etortzen?"  
Gipuzkoa'ko mekanikuak  
probatu ditugu aurten.

Bai; 1926'garren urtean Donostia'ko estropadetara joan bear zan. Eta gauzak astiro artu ta buruagaz egin ziran.

Orduan, eta ia beti lez, San Pedroak igarotakoan egalu-zetara joaten ziran, dagonilleko Andra Mariak arte, Santander eta Asturias'ko itxasoetara. Eta amazortzi inguru mutil gazte aukeratu ta errian geratu ziran, beste egiteko barik estropadarako gertuten. Erdi inguru-edo, aurreko urteko erramulariak ziran, eta gaiñontzekoak barriak. Aurreko urtean Portugalete'n jokatu arren, estropada kontuan gipuzkoarrak baiño atzerago gengoan; ezjakiñagoak giñan. Beraz, Donostia'n irabazi nai ba'zan, gauzak ondo egin bear-ko ziran. Ba ondarrutarrentzat, esate baterako, bigarren geratzea estropadea galtzea zan. Lenengo atara bear zan, nai ta nai ez.

Lemazaiña izango zana —aurreko urtekoa: Beitia'tar Juan Bautista— ez zan geratu mutillai irakasten. Lurruntzi jaubeak ziran eta joan egin bear itxasora, kontixu. *Milanton-txiki* esaten jakona geratu zan irakasten; eta beste antxiñako arraunlari bi be bai, arduradun lez: Markue'tar Jesus eta Etxaburu'tar Iñazio. Oneik biok Andra mariak ezkerro geldituko ziran.

Egunean jatordu bat, eguerdikoa, *Aurrera*'n egiten eben, orretarako sukaldari andra bat bere laguntzalleagaz eroanda. Bazkari au, jakiña, Kofradiaren edo estropadarako batu zan diruaren konturakoa da. Ederto jaten eben, okelea nai beste. Bearbada, orretan gaur beste jakin izan ba'litiz, ez eben egingo ainbesteko betekadarik.

Dana dala, mutillak gogoz alegintzen ziran: itxasoan arraunean bear zan bestean jarduten eben; mendian be ibiltzen ziran eta sendo egozan.

Txanda baten, denpora igaroteko, edo bearbada bide batez diru apur bat irabazteko be bai, treiñeruagaz beragaz bolintxean arrantzan astea erabagi eben; eta ibilli ziran, ez dakit zenbat denporan.

Kondairan irakurten danez, Bizkai'ko eta Gipuzkoa'ko batel eta treiñeru geienak, arrantzakoak, Ondarroa'n egiten ziran, igaro dan mendean. Ondarroa'ko ontzitegi edo *astilleruak* kostako entzutetsuenak izan ziran orduan. Baiña estropadarako ontzirik egin barik egozan urte askoan, eta orduko treiñeruak zelakoak ziran ondo ez ekien. Orregaitik, treiñeruak egiteko oiturea egoan tokian egitea ohea izango zan, baiña errian bertan egin ziran bi: *Ama Antiguakua n<sup>o</sup> 1* ta *Ama Antiguakua n<sup>o</sup> 2*. Astunak zirala esaten zan. Pixaterik iñori ez jakon bururatu, ta ez dakigu egia zan ala ez esaten zana. Baiña, beintzat, bietatik bat ondarrutar taldeagaz lenen eldu zan, jokatu eban bietan. Beraz, ez zan esaten zan besteko astuna.

Uda aretan Ondarroa'n ez egoan beste konturik: estropadea gora ta estropadea bera. Irabazle urtengo genduan ziurtasun osoa egoan, ta alantxe egin ziran posturak. Esaten zanez, Donostia'ko neurria eukan bidea zana, ango estropadetan baiño asko ariñago egiten ei eben. Ta ortik urteten eban, itxurea danez, ustezko nagusitasun arek. Baiña, gerok erakutsi ebanez, neurriak ez egozan ondo artuak.

Andra Mari jaietan arratzaleak etxeratu ziranean, orduko giroan eraginda, diruz be ez ebilzan eskax, eta bigarren treiñerua bialtzea erabagi zan. Alako burubakokeriarik! Ta, egunak urreratzen joiazala, bigarren treiñerukoak besteak baiño asko gitxiago zirala ikusten zan. Ez mutil makalagoak

ziralako, ez. Denporeagaz, areikaz be aldra ederra atara eitekean; baiña, geienez be, aste bi eukezan erramutan ikasi ta gogortuteko. Ta esku ta ipurdiak narru gorrian eukezala joan bear izan eben, eta lotsagarri geratu ziran. Beraz, onezaz geiago barbarik ez dot egingo.

Estropada eguna eldu zanean, itxasoz joan ziran erramulariak Donostia'ra. Orduan, eta geroago be bai, Donostia'ko estropadak ikustera itxasoz joaten zan. Beti ziran irulau itxasontzi ara joiazanak; eta nai ebenak sartu bertan eta an joaten ziran ordu bi ta apurtxo bat geiagoko bidean. Neuk be joan-etorri ori sei bat bidar egin dot neure bizian. Beraz, erramulariak be alan joatea ez zan arritzekoa. Atsedentsu eroan nai ziran mutillak. Orretarako, Bilbo'ra-ta kargea eroan-ekarrian ibilten ziranetako bat, *Jesus Maria* izenekoa, geienez be eun toneladakoa, aukeratu zan; ta, bertan etzinda joateko, oe antzekoak ipiñi eutsezan. Ta an joan ziran, ta beste itxasontzi naikoa be bai, jendez beteta.

Eguardian, estropadako ordua eltzean, an egoan erria nundik zer entzungo. Orduan ez zan irratirik, eta urrutizkiña be ez asko, aurreko urtean ipiñi bai-ziran zentraletik kanpora ziran erriko urrutizkin apurrak. Ta ez ori bakarrik; ditadurea zan eta egun aretan, ain zuzen, zerbait *mobimentu* izan eta urrutizkiñagaz agintariak jaubetu ziran España'n. Olan, urrutizkiñez be ez egoan berba egiterik. Ta orduan txirringa-zale zan Urresti'tar Ildepontso gazteak, Saturraran gaiñeko Katei mikeleteen etxera joan eta an jakin eban estropadea nok irabazi eban; eta Arrigorri'tik Alameda'ra didarka edo seiñaka asi ta alantxe jendeak jakin edo konturatu zan Ondarroa'k irabazi ebala estropadea, ta an jagi zan zarateal (Oraindik Plai'rako zubia egiteko egoan.)

Irabazi eben, bai; baiña ondo kostauta. Ondarrutarrak beti aurretik ei etozan. Baiña ortxe, kai barruan sartu ta laster, olatu baten indarrez gaiñera etorri ei jakezan pasaitarrak, eta estu mutillak! Eta, jo eta jo, bederatzi segundoren aldeagaz lenengo eldu ziran.

Urrengo igandean, neuk be joan nai neban Donostia'ra, ta Kepa lagunarenean joateko berbatuta nengoan. Ta, lo asko egin barik, goizaldean Kepa'nera joan nintzan. Biok Ipar Kanean bizi giñan. Baiña kubierta edo solairu bako zor-

tzi zaldiko ontzituarentzat eguraldi txarra egoan. Euri apur bat be ba-egoan, eta Kepa'ren aitak, Paulo *Soxua*'k —nire aitaren lengusuak ez giñoiazala esan euskun. Orduko nire atsekabea!

Baiña ez; konponduko giñan. Lurrunontzi ta txikiagoak itxasontzi asko joiazan Donostia'ra; eta gu, mutil txikiok be, norbaitek eroango ginduzan. Eta kaian *San Agustin* izeneko lurrunontzian sartu giñan. Kepa'ren lengusua zan jaubea.

Estropada ordua baiño asko lenago eldu giñan Donostia'ra; baiña ez genduan liorrera urten orduan.

Denpora areitan, oraingo estropadetan baiño lotsa andiagoa egoten zan Kontxa'n. Estropadea egin bear zan tokia, mustur bietatik barrukoa beintzat, kanpokoa ez dakit, itxi egiten eben lokarri ta kulubiakaz. An barruan treiñeru, epaikari ta olakoak bakarrik ibilli eitekezan; eta estropadea ikustera joandako ontziak, lokarrietatik kanpora.

Orduan errege beti joaten zan udan aldi baterako Donostia'ra. Orduan be an egoan, eta *Facun-tusin* izeneko ontzian —*yatean*— jarraitu eutsan estropadan joiazan treiñeruai.

Gu an egon giñan kexu-kexu estropadea ikusten. Eguraldia be ez egoan argia; ta asieran gure aurretik igaroten ikusi genduzan treiñeruak, biak bardin samar, baiña gero ez genkian ezer ganoraz. Alako baten, gure ondoan egoan ondarrutar erramulariak Donostia'ra eroandako *Jesus Maria* itxasontziko palo musturrera igonda egoan bat —makiñaz eta aize oialez ibiltan ziran zamako ontzietakoa zan— zarataka ta besoakaz seiñaka asi zan, eta guretzat gauzak ondo etozala igarri geuntsan. Eta alantxe zan. Dreiñeruak urreratu ziranean, ondarrutarra naikoa aldegaz aurretik etorrela agirian egoan. Eta, alantxe, bat be estutasun barik, amasei segundogaz irabazi eben.

An, *Jesus Maria*'ko palo musturrean, zoro baten gisan ibilli zan gizona, ordurarte ez neban ezagutzen. Baiña bai gero! Bakeriza-tar Sebastian donostiar arrantzale entzute-tsua zan.

Bigarren igandeko estropadea, orduko oiturara, aurreko igandean lenen eta bigarren gelditu ziran jokatu ebela esan

bearrik ez dagoala uste dot. Beste estropadarik ez zan jokutzen.

Denporak olan izan ziran irailaren 5'an: 1º: Ondarroa'ko *Antigua'ko Ama nº 1*, Beitia'tar Juan Bautista lemazain: 19' 32"; 2º: Pasai Donibane'ko *Sanjuandarra*, Laboa'tar Prantzisko lemazain: 19' 41" 3/5; 3º: Ondarrabia'ko *Ondarrabitarra*, Agirre'tar Erroman lemazain: 19' 50" 4/5; 4º: Donostia'ko *Donostiarra*, Domingo de la Hoz lemazain: 19' 53" 4/5; 5º: Ondarrabia'ko *Virgen del Mar*, Goikoetxea'tar M, lemazain: 19' 57" 2/5; 6º: *Ondarroa'ko Antigua'ko Ama nº 2*, Balenziaga'tar J. M. lemazain: 20' 24" 1/5; 7º: Portugalete'ko *Virgen de la Guía*, L. A. Gutierrez lemazain: 20' 53" 2/5.

Irailaren 12'an: 1º: Ondarroa'ko *Sanjuandarra*, Beitia'tar Juan Bautista lemazain: 21' 03" 4/5; 2º: Pasai Donibane'ko *Antigua'ko Ama nº 1*: 21' 20" 3/5.

Orduko oitura zan lez, treñneruak aldatuta jokatu eben. Lenengoaren saria, ikurriña ta amabi milla laurleko izan ziran.

Irailleko beste igande bietan, 19'an eta 26'an, Portugalete'ko estropadetan izan ziran; eta bietan lenen eldu ziran, eta bigarren Sestao. Bietan alde bardiña atara eutsan: amasei segundu. Portugalete'ra be, Donostia'ra eramán zituan ontzi ta lemazaiña eramán zituan.

Lau treñneruk jokatu eben, baiña lenengo bien denporak ipiñiko doguz, igande bietakoak: Ondarroa'k: 15' 54" eta 14' 46": 30' 40"; Sestao'k: 16' 10" eta 15' 02": 31' 12".

Ondarroa'k bigarren urtean be ekarri eban kopa a, beste urte betean *Aurrera'n* eukiteko. Ta, irugarren urtean joan balitz be, ziur irabaziko eban Portugalete'ko estropadea, ta kopea betiko. Baiña ez zan joan geiago estropadetara. Estropada kontuak estuegi artzen eban erria. Joan ezkeru, nai ta nai ez irabazi egin bear zan. Orretarako, urte guztiko buruauste sortzea zan, eta naiago zan bakea. Ta lenengoan *Club Deportivo Aurrera'n* urte bian egon zan kopea Orio'k irabazi eban, eta orain an dago.

Idaztietan-da, 1926'garren urtekoagaz amaitu zala Ondarroa'ren estropada kondaira dirudi. Baiña gauzak olan ez dira.

España'ko guda amaitu zanean, 1939'garren urtean, Bilbo'ko —euren izenez esanda— *liberaziño* urtebetetea ospatuteko jaiak egiteko asmoa artu ebenean, estropadak egitea be erabagi eben, kontixu; ta Ondarroa be nai eben eroan. Gure erriak ez eban joan nai izan; eta, Kofradian egin zan batzarrean ez joatearen aldekoak nagusitu ziran arren, orduko politikearen indarrez ala-olako taldea ipiñi ta joan egin ziran, eta irugarren-edo geratu. Ez dakit au ziur.

Jakiña, estropada a irabazi ba'litz, egindako lez edestuko zan. Baiña galdu egin zan; eta, besteak aitatzen ez dabeenean, geuk be ixillik daukagu.

Egia esateko, gauzak bear diran lez ez ziran egin. Guda amaitu ta bi edo iru illabetera zan; eta oraindik mutillak, geienak edo danak, errira biurtu barik egozan: batzuk gudari eta beste batzuk espetxe edo laneko batallioetan, erbestera joandakoak kontuan artu barik.

Egia, ori beste errietan be olantxe zan. Baiña beste errietan, Orio'n esate baterako —irabazi ebana—, gudea asi zan arte urtero joaten zan Donostia'ko estropadetara. Beraz, bakian zeintzuk ziran estropadarako balio eben mutillak, nai ta guztiak ezin ba'zitan erriratu be.

Ostera, Ondarroa amairu urtean egoan estropadara joan barik. Beraz, ez eukan erramutan ekian mutillik, eta ez ekian zeintzuri deitu. Ta, orregaitik, ezer onik egiteko astirik barik, gertatutako taldeagaz ez eban joan nai izan Beitia lemazain ospetsuak, eta *Milanton-txiki*'gaz joan ziran. Ondarroa'k estropadetan eukan kondaira eukita, era orretan ez ziran joan bear. Baiña politikearen indarrez beartuta joan ziran, eta erriaren izena kakaztuta itxi.

Bear zan lez gauzak egin ba'lira, Ondarroa'k asko geiago egingo ebala konturatzeko, gero jazo zana gogoan artzea nai-koa da.

Estropada a galdu zanean, jendea asarre geratu zan errian, batez be bear zan lez gertuta joan ez ziralako. Ta len 1926'garren urtean joandakoak, amairu urte lenago joan eta geiago erramurik eskuetan artu ez ebenak, eurak be orduko erramulari gazteak aiña bazirala-ta, eztabaidak izan ziran, eta estropadea egin eben errian. Ta zarrak, amairu urte

lenago estropadan izandakoak, nagusitu jakezan orduan Bilbo'ra joandakoai.

Orregaitik, ondarrutarrak estropada a aintzat ez artzea, erderazko itzez esanda *anormalizat* artzea, gauza bidezkoa da. Baiña kondairan danak ipiñi bear dira, ta guk orixe egin dogu.

Orain, batel eta treiñerotxueta ekiten dautse gazte-txuak. Baiña estropada konturik erriak geiago benetan ez dau artu, ta obe gaiñera.

Eta orain, kontu onezaz amaitzeko, len antxiñako estropadetaz niarduala aitatu dodan 1890'garren urteko Ondarroa'k eta Donostia'k jokatu eben buruz-buruzko jokoaz zerbait geitu nai neuke.

Treiñeroko lemazain Bedialauneta'tar Anbrosio'ren etoikeriz galdu ebala Ondarroa'k eta, egin eban okerrak bildur-tuta, biaramonean Santander aldera iges egin ebala erakutsi dauskue gure errian. Ume-umetatik besterik ez dogu entzun. Ta zein mendi aldetik iges egin eban be geituten zan. Baita, garbi jokatu ez eban ustean, bere jokabidea zelan izan zan ziur jakiteko, zin egitera deitu jakola; ta, zin ori ez egiteagaitik, iges egin ebala esaten dala be irakurri izan dot.

Baiña danak upiñak dira. Estropada aren barri emoten daben Kofradiako kontulari Iturriza'k eskuz idatzitako liburuan, olakorik ez da ezer irakurten. Galdu egin zala ta kito. Ta ordutik aste batzutara, treiñeroko guztiai, estropada a egiteagaitik, bakotxari zenbat ordaindu eutsoen esaten dau; gauza utsa: iru-lau laurleko. Beno, an dana errealetan dator. Ta dirua artu eben guztien izenak ipinten ditu; lemazaiñarena be bai. Beraz, estropadea jokatu ta egunetara be errian egoala argi dago. Olan, ba, iges egin ebala ezin esan leiteke.

Ni gaztea nintzala, ondarrutarrak Donostia'ra azkenengo aldiz estropadetara joan da iru-lau urtera, 1930'garren urte inguruan, Bedialauneta'tar Anbrosio'ren semeak Santander'ko ez dakit zein erritatik idatzitako eskutitza argitaratu eban Bilbo'ko kirol izparringi *Excelsior'*ek. Itxurea zanez, orduan Ondarroa'n bizi zan Xanti Meabe erdal idazleak berrogei urte aurreko estropada arezaz idatzi eban; eta,



errian esaten zan lez, lemaizaiñaren etoikeriz galdu zala esan: "Cosas de hace 40 años". Ta semeak, bidezkoa zanez, aitaren izen ona zaindu naian, idatzitakoa zan: euren aitak ez ebala etoikeriarik egin, eta ezta iges egin be. Orduko beste askok lez, bizimoduagaitik erriz aldatu zirala, estropadea jokatu ta denpora askora. Ez dakit urte bete ala bira esaten eban. Ta, erri aretako jendeak ongi ikusiaz, bakean bizi zala euren aita.

Izan eitekean, bai, errian, Ondarroa'n, jendeak bere aurka zurrumurru egitea; ta, orregaz atsekabetuta, denpore-agaz erriz aldatzea. Baiña beintzat egia da, orduan Montaña aldera bizitera Ondarroa'ko arrantzale familiak joaten zirana.

Dana dala, estropada a izan zan erramu kontuko jokurik entzutetsuena. Bearbada, Ondarroa'k irabazi ba'leu, ez eban ainbesteko oiartzunik kondaira zear lagako, len be txapel-dun lez ezagutzen zalako. Baiña onenentzat lez ezagutzen zanari irabazteak, goi-goian ipiñi zituan donostiarrak, batez be orretarako aukera-aukerako tresnea, izparringiak, euren esku eukita.

## Aurrera ta kirol edo deporte

**K**IROLARI buruzko atal onetan, gurea dan kirol peloteaz ez dogu ezer esaten, zestozko pelorietatik kanpora gure errian pelotari esatekorik emon ez dabelako, ta peloteaz pelota tokia aitatzen dogun atalean zerbait esaten dogulako. Ta, ikusi danez, estropada kontua be emendik kanpora gelditu da. Gure erriari ainbat ospe emon eutsan kirola beste zerbait izan da guretzat.

Jatorriz gureak ez diran kirolen asierea gure errian noiz eta zelan izan zan esango dogu, zeaztasun andi barik, gure ume denporan ikusi ta buruan gelditu jakun antzera, iñun ezer irakurri ta entzun barik.

Kirol eta jolas oneik danok *Club Deportivo Aurrera* sortu ta lasterko kontuak dira. Baiña ementxe da ultzea: noiz sortu zan *Aurrera*?

1971'garren urtean, Ondarrabia'n Orlando'ren arrain lantegian nengoala, ni lez ondarrutarra izan eta bertan lantegian lan egiten eban Solaegi'tar Txomiñ'ek, arrituta itxi ninduan albistea emon eustan; zera: *Club Deportivo Aurrera*'ren berrogetamargarren urtea betetea edo urrezko eztaiak ozpatu zirala Ondarroa'n. Berbea amaitzeko astirik be ez neutsan emon. Ori ezin izan eitekeala, erantzun neutsan; sortu zanetik berrogetamar oraindik ez zirala-ta. Jakiña, Ondarroa'n bizi

izan ba'nintz, jai ori egin bear zala asmatzen asi ziranean, aurka urtego neban, eta garbituko zan auzia. Baiña eginda-koa eginda egoan, eta ez egoan gauzeari birea emoterik. Esan neban, bai, neure bostean: "Olantxe idazten da kondairea!"

Ordutik geroago, ez dakit ill batzutara ala urte bat edo bira, gauza bera idatzi eban Ondarroa'ko kondairea geien edo ondoen dakien batek. Ez dakit neuri zuzenean ala argitaratu eban idazlanen baten izan zan. Onezaz ez naz gogoratzen. Ta bereala erantzun neutsan ori ez zala olan izan. Ta orduan berak, *Aurrera*'k bere urrezko eztaiak ospatzen atara eban bere kondairea liburutxoa bialdu eustan, auzia antxe argituko bailitzan. Baiña ez liburutxo aretan eta ez iñun ezin eitekean ori alan agertu, ori baieztuko leukean agiririk ezin egon eitekealako; ta *Agur* aldizkarian neure eretxiak edo kondairea agertzen idatzi neban.

Ikusi daigun *Aurrera* 1921'garrenean sortu zala agertze-ko ataraten dituen errezoiak:

*"Digamos que, efectivamente, allá por el año 1921, quedó fundado nuestro Club. A falta de mejores argumentos, hemos de aceptar la fecha como buena.*

*El dato más antiguo que se ha podido encontrar en los archivos del Club data del mencionado año. Una letra de redondilla, cuidada con mimo exquisito, nos refiere un partido de fútbol en la playa, en el que la recaudación alcanzada fue equis céntimos. En la misma fecha podemos encontrar datos que nos hablan de algunas representaciones artísticas —zarzuela concretamente— bajo el amparo del C. D. Aurrera.*

*Estos documentos de archivo llevan la firma de don Santiago Irala, a la sazón secretario del ayuntamiento ondarrés.*

*Precisamente de este documento, un grupo de entusiastas del C. D. Aurrera ha partido como base para la celebración de las Bodas de Oro en el presente año.*

*Es posible —no ha podido encontrarse dato alguno con fecha anterior— que anteriormente a esta fecha existiera ya el C. D. Aurrera; pero al carecer de datos suficientes, se ha partido de la fecha más remota hallada en los archivos del Club.*

*Para más abundancia de datos, se recurrió a la Federación Guipuzcoana de Fútbol; allí, desde el año 1924, consta como federado nuestro Club.*

*Tres años de vida de nuestro Club, que pasaron en ambiente local, muy bien pueden considerarse como reales, pese a la carencia de identidad oficial.*

*Por lo tanto, este año de 1971, cumple cincuenta años de vida el C. D. Aurrera de Ondárroa; de ahí este breve preámbulo; de ahí este modesto —de Club modesto se trata— acto conmemorativo de las Bodas de Oro.*

*Y en marco de oro, aquella primera directiva, que tuvo el honor de fundar a la entidad deportiva y cultural de Ondárroa.*

*Don Alberto Irazábal y Gúrpide, como presidente; don Santiago Irala, como secretario; y junto a ellos don José Campos López de Letona, don José Eguiguren Ibaibarriaga, don José Arruti Aulestiarte, don José María Aguirre Uranga, don Juan Izeta Ciarán, don Alberto Echebarria Barrena, don Pedro Echebarria Barrena y algunos más que en el anonimato trabajaron en la fundación del Club de Ondárroa.*

*Pedro M<sup>a</sup> Echano  
Ex-presidente”.*

Erderazko orrek agiri bat dirudi; ta, agiria egizkoa danean, ez dago aurka egiterik. Baiña nai neuke ikusi *erredondillan* egindako ta fuboleko jokoan artutako zentimo batzuk zirala esaten daben agiria! Egia, orduko zentimuak gaurkoak baiño asko geiago balio eban. Baiña orduan be zentimua zentimu, karamelotxo bat erosteko balio ez ebana. Gaiñera, Ondarru'ko ondartzan egiten ziran lagun arteko jokoetan, nik dakidanez, dirurik ez zan ordaindu bear izaten, eta esateko ainbat ikuslerik be ara ez zan batzen. Ta aitatzen dituan antzerkiak be, noizkoak ete ziran?

Nik gauza bat esan daiket ziur: 1921'garren urtean antxoba gatzitua gertuteko lantegia zan, gero antzerkiak emon ziran *Cine Celaya*. Zinema ipiñi eben Zelaia'tar Bitor eta bere amaren etxean neskame egoan orduan nire arreba zarrena, ta urte orretan bertara joan nintzan, amagaz bate-

ra, antxobeari burua kentzera lenengo aldiz. Beste umeak lez, neuk be gauza barria aprobau nai, ta zazpi urte ta erdi neukazala joan nintzan, eguen arratsalde baten. Orduan eguen arratsaldeetan ez genduan eskolarik eukiten; eta, oraindik gazteegia nintzalako, urte aretan lau eguen arratsaldeetan izan nintzan *fabrikan* —olantxe esaten genduan—. Urrengo udabarrian, ordu bete galdu barik ibilli nintzan antxobeari burua kentzen.

Baiña, upiñak dirudien kontutxoak lagata, agertu daigun *Aurrera* 1921'garren urtean ez zala sortu erakutsiko daben errezoia. Ta auxe da: gero *Aurrera* jarri zan tokian, eta oraindik dirauanean, eusko abertzaleen Batzokia egon zan, Primo de Rivera'k España'ko gobernuko agintaritzea artu arte. Beste Batzokirik ez genduan ezagutu ordurarte. Ta, jakiña, Euskal Erri'ko beste Batzoki guztiak lez, itxi egin zan Batzoki lez. Beste edozein akeitetxe lez jarraitu eban; bai lengo konserjeak, Aulestia'k; baiña Batzokiaren izena kenduta.

Ta emen itaun au egin bear da: noiz edo zein urtetan etorri zan ditadurea? Ori ez dakianak, edo orreri erantzuteko gauza ez danak, ez dauko berbarik auzi onezazko eztabaidan. Ta, dirudienez, *Aurrera*'ren kontu onek Batzokiagaz eta ditadureagaz zer ikusi eukala ekianik ez egoan, kirol bazkunaren sortzea 1921'garren urtean izan zala uste ebenen artean.

Zearo arritzen ninduana au zan: zera, orduan ni baka-rrik izatea, ia berrogetamar urte lenago, amar urteko mutil txikia nintzala, jazo zanaren barri ekiana. Ba-ziran, bai, ni baiño adin obeagokoak, Batzokiko ta *Aurrera*'ko bazkide izandakoak.

Ditadurea, adiñeko danok dakigun lez, 1923'garren urteko iraillean jarri zan. Beraz, arrezkero izan bear, nai ta nai ez, *Aurrera*'ren sortzea.

Gero, eztabaidea izan eta bi edo iru urtera, *Mirentxu* ize-nordeaz idazten eban batek, baiña niri esan eustenez *Atxukale* ei zan, esan eban *Zeruko Argia*'n, berak jakin ebanez Mauro Palacio'k etxean eukala *Aurrera* noiz sortu zan agertzen eban agiria: "*en dos de junio de 1924, siendo el primer*

*presidente Don Alberto Irazabal y primer secretario D. José de Eguiguren”.*

Ori irakurri nebanean, amalauko kinielea ataraten dabena beste poztu nintzan.

*Aurrera* kirol bazkunaren diamantezko ezkontzea zein urtetan egingo da? Ondo izateko, 1999'garren urtean egin bear da.

## Txirringilketa

**G**U umeak giñanean, naikoa zaletasun egoan txirringarako. Jakiña, orduan ez zan orain beste dirurik, eta ez ziran asko izaten txirringaren jaube ziranak. Baiña euketak zaletasun andikoak ziran; zerbait izatera eldu nai ebena. Eta, erriko jaietan-da, lasterketa txiki batzuk izaten ziran.

Ondarroa'ko lenengo txirringa zaleak Markuerkiaga'tar Leon, Urresti'tar Ildepontso, Bengoetxea'tar Zelestino, Garzia'tar Santos eta Alkorta'tar Bitor ziran. Au Saturrarangoa, gipuzkoarra.

Gero, beste bi nabarmendu ziran: Guenaga —Binda— ta Aranbarri —Laka—. Lenengoa jaiotzez ondarrutarra zala uste dot; baiña, umezurtz gelditu zanean, senideak Berriatua'ra eroana. Bigarrena Antzubia'koa zan; berriatuarra. Baiña euren bizimodua Ondarroa'n euken, eta emengotzat geunkazan. Onek biok Euskal Erri'ko maillan be ezagunak ziran, txirringalari lez.

Ni umea nintzanean, amabi urte inguru neukazala, txirringa lasterketa andi bat egon zan Ondarroa'n, danak kankoko txirringalariak. Ez dakit zein bidetan zear izan zan lasterketa. Sardui'tar Zesareo bizkaitar andiak irabazi eban, Aiastui gipuzkoarra ondoren ebala. Mojetako aurrean zan amaia, ta azkenengo unean Aiastui'k Sardui'ren atzeko burbilla jo eban, eta arek au jo egin nai izan eban, naita bidea

itxi eutsala ta. Barruetabeña, orduan Bizkai'ko txirringalari-rik onena lez ezagutzen zana, laugarren geratu zan.

Sariak, euria zalako-edo, merkatu enparantzan emon zituen arratsaldean, eta Aiastui oraindik bero egoan, eta barriro Sardui'gaz auskan egin nai izan eban. Jakiña, ez eutsen itxi lasterketea eraldu ebenak.

Sardui ta Barruetabeña Ondarroa'n geratu ziran iru edo lau egunean, irabazitakoa gastau arte, kontixu. Lo ez dakit nun egiten eben; baiña jan lekua Ipar-kaleko Euli'neko sagardandegia izan zan. Orduan bolintxero itxasontziak sardiña apurra ekarten eben; eta, arrantzaleak lagun zituala, bertan erre ta jan, ta sagardoa naikoa edaten eben. Baiña ez basoakaz, Sardui'k irabazi eban kopa anditik baiño.

Umeen aringa-aringa ta ainbat joku ipiñi zituen Ipar-kalean, eta kale aretako jendeak naikoa barre egin eban egun areitan. Neu be bertan bizi nintzan; eta, lanetik etxera-koan, batez be eguerdietan, an egoten nintzan eurai begira.

Aldi areitako beste txirringa lasterketea *Bizkai'ko Lenengo Sari Andia* izenekoa izan zan: *Primer Gran Premio de Vizcaya* izenekoa. Lasterketa areitan, izenpetu ta jaki-edariak artzeko tokia Ondarroa izaten zan beti. Baiña lenengo urte aretan ordu beteko geldialdia euki eben, uretan garbitu ta bazkaltzeko.

Bustialdia artzeko, antxobeari gatza emoteko izaten diran tiñak ur otzez, ziurren, bete zituen, meta ondoko Alameda'ko arrain lantegi baten: Martin Campos'enean. Ta, bustialdia artu ondoren, estalkiakaz estaldurik, *Hotel Comercio*'ra joaten ziran, an barriro lasterketarako jantzi ta bazkaltzeko.

Ta eltzen ziranetik ordu bete zuzenera deitzen eutseen, eta an urteten eben: bakarrik eldutakoak, alantxe bakarrik; eta pilloan eldu ziranak, pilloan alkarregaz. Sardui eldu zan lenengo Ondarroa'ra, ta alantxe urten eban: lenengo, baka-rrik. Bat, Ibañez abizenekoa, urteerakoan ez egoan ondo. Otzez dardaraka ikusten zan, eta urrengo urten bear ebanaren zain egon zan eta alan beste aregaz urten eban.

Urteteko agindua, orain *Café Marina* dagoan goiko bal-koitik emoten zan, *Aurrera*'ko lenengo lendakaria izan zan



Don Alberto Irazabal osagillearen etxetik, *Mediku-txikia* deitzen geuntsanetik. Ziur, orduan be *Aurrera*'ko lendakaria bera izango zan. Txirringalari bakotxari bi bidar deitzen jakon altabozez: lenengo, bost miñutu lenago gertu eitean; eta gero, urten eien.

Sardui ez zan eldu Bilbo'ra. Esan zanez, oraindik lenen joiala, geiegi janak kalte eginda, bere errian geratu ei zan. Karrerea Del Val gipuzkoarrak irabazi eban.

Txirringalari ona zan Sardui. Ez dakit bide-zabalean txapelketarik irabazi ete eban; baiña sprintekoa irabazi ebana gomutaten naz. *Arenas* ostiko jokuko taldearen *Ibaiondo* zelaiak txirringako sprinterako tokia be ba-eban. Ain zuzen, talde aretako ostikalaririk onenetakoa zan Yermo'gaz egin eban txirringa lasterketa ori, ta Sardui'k irabazi eban. Yermo aurreko erdikoa zan ostiko jokuan, eta internazionala be izan zan. Esan dodan txirringa jokoa, Bizkai'ko sprinteko txapelketea izan zan.

Ni mutiltxua nintzanean, edo apur bat beranduago. apostuko iru txirringa lasterketa ikusi genduzan.

Bat, Xanti Meabe txori zale ta erdal idazleak eta Pako *Pasteleruak*. Jokoa naikoa ixillik egin eben. Nik, beintzat, egin da egunetara jakin neban. Lagunak, izan eban garaitzeagaitik, aparia emon eutsoen Meabe'ri *Aurrera*'n. Gu aren urrean bizi giñan; da areik erabilli eben abesti, oju ta dantzakaz, auzoko guztiak esnatu zituen, eta gurekoak be bai —ni ez ninduen esnatu—. Eta orduan etxean entzunda jakin neban. Berak, Meabe'k, aureskua egin ei eban.

Desapioko beste txirringa lasterketa bat Bengoetxea'tar Zelestino'k eta Antzubixa'ko *Laka*'k egin eben. Lasterketa a 1930'garren urte inguruan izango zan. Iturribarri'tik urten eta Berriatua aldera ez dakit noraiño, ta birea. *Laka*'k alde andiagaz irabazi eban: miñutu batzuk bai. An egoan jendea, Bengoetxea'ren zain ulea apur bat artzeko be bai. Baiña bera ez egoan an geratzeko. Ekarren abiadeagaz, ederto zabaldu eban jendeak itxiten eban bide-zabala; ta, geratu barik, Emendiko-erreka'ko bidean gora txirringa gaiñean etxera, Kalandi'ra, joan zan.

Beste larerketea, erri guzian zer esana ipiñi ebana, edo erri guztia zaletu ebana, *Xapatero*'k eta Zabaleta'tar Patxi'k, *Patxi Txispas*'ek jokatu eben.

Irugarrego lez aitatzen dodan lasterketa au bigarrena izan zala uste dot; lenengoa Meabe'rena ta au gero. Baiña, edozelan be, ziurtasun osorik ez daukat.

Lasterketea, gero Ondarroa'ko txirringa lasterketa guztiak izan diran birea izan zan: Ondarroa, Lekeitio, Milloi'ko aldatza, Berriatua ta Ondarroa. Bira bat egin eben: ogetamar kilometro inguru. Berriatua'n, Patxi ogeiren bat metro aurretik etorrela, *Xapatero* jausi egin zan, eta laga egin eban lasterketea.

Biak ziran erritarrak eta lagun asko zituenak. Alan be, *Xapatero*'ren aldekoak geiago izango ziran. *Popularra* zan; eta, mutiltxuak eta gazteak bear ziran edozer joko edo danadalakoetan, an egoan beti *Xapatero*.

Len be esan dogu ta Ondarroa'ko txirringalari onenak *Laka* ta Guenaga erdi ondarrutarrak ziran. Lenengoak Ben-goetxea'ri irabazi eutsanean, sei illabete eroiazan txirringan; au da, sei illabete ziran txirringan ikasi ebala. Erriko lasterketan bein be ez eban urten, eta ortik zearkoetan naikoa ondo geratzen zan.

Gerotxuago, Guenaga, *Binda*, zan txirringan gogor egiten ebana. Gudea etorri zanean, lenengo maillakotzat ezagutzen zan. Errepublikarean azken denporetan, Ondarroa'ko erri jaietan, txirringa lasterketa bat ipiñi zan: Milloi zear lau bira. Eta azkenengo biran, Berriatua'n etozala, ikusle batek, on bearrez, ontzi bete ur jaurti eutsan *Binda*'ri. Baiña emon eutsan parrastadeak, oreka galdu eragin eta lurrera ankaz gora jausi zan, eta baztarñu egin bear izan eban. An gengozan gu Ondarroa'n, erritar guztiok, *Binda* irabazten ikusi naian. Baiña agertu ziran iru-lauren artean ez etorren gu zain geunkazanik.

Lasterketea Erba izeneko italiar erraldoi batek irabazi eban. Orduan Italia Abisina artzera joan da gudan ebillen; eta, ara ez joateagaitik, iges egin da emen ebillen txirringalaria zan. Ez zan Kopi edo Bartali aiñakoa; baiña emengo ontxuenak aiñakoa bai, eta bizitzeko ainbat atarako eban.

Txirringaz amaitu baiño len, gure erriko lenengo txirringazalariak zer maillatakoak ziran ezagutzen emoten daben kontutxua esango dot. Markuerkiaga'tar Leon eta orain ziur ez nagoan beste bat, eskeintza eginda, Urkiola'ra txirringaz asi ei ziran. Baiña aldatza txirringaz igotzeko gauza ez eta oiñez eldu bear izan ei eben Deun Andoni'ren eliza ondora. Ostera, eurakaz joandako erriko txirringazale bat, Aulestia'tar Luzio, goraiño txirringaz eldu ei zan.

Alkorta'tar Bitor'ek, *Aurrera*'ko Lenengo Txapelketea irabazi ebanean, irurogetabi miñutuan egin eban Milloi'ko birea. *Xapatero*'k irurogetamar miñutuan egiten eban.

## Ukabilketa

**U**KABILKETAZ zer esan andirik ez da Ondarroa'n. *Aurrera'n*, aldi baten, ukabilketarako eskularruak egon ziran; eta, denbora-pasa modura, an ibiltzen ziran edo-noiz gazteak. Ta, nai ta jolasen asi, iñoiz berotu ta alkarrerri musturak gorritu, ta begi ondoak baltzitu be bai.

Askotan ez, baiña iñoiz ukabilketa joko batzuk ipiñi izan dira Ondarroa'n, asi barri ta onak ez ziranen artean. Gure errian jokatu dabeen ukabilkarik onena, gero naikoa ospetsu izatera eldu zan bilbotar Argote izan dala esango genduke.

Iru erritar asi izan dira ukabilketan: Ituarte'tar Delfin —ikasten bakarrik?—, gero ertzain dan *Paleton* Iriondo ta Ibarra'tar Justo.

Ibarra'k bi bidar bakarrik jokatu eban. *Paleton*'ek geitxuago jokatu zituan. Ondarroa'n be bai. Baiña baten Donostia'n ederrak artu zituan; eta, bizibide gozoa ez zala ikusita, laga egin eban zeregin ori.

Euskal Erri'ra ukabilketa zaletasuna ekarri ebana Uzku-dun izan zan: Errezil'go Uzku-dun'dar Paulino baserritarra. Lenengo, aizkoran asi zan. Mutil sendoa ikusten ebenez, ukabilketan be gogor egingo ebala ta berotu eben mutilla, ta asi zan ogetairu urtegaz-edo. Ta naikoa egin eban. Europa'ko txapeldun izatera eldu zan 1926'garren urtean-edo, Bartzelona'n Spalla italiarraren aurka jokatus. Gero Ameriketara joan zan, eta munduko txapeldun be urtengo

ebala uste genduan, edo nai genduan, euskaldunok. Baiña ez eban lortu, nai genduan txapeltza ori. Bere alderdirik onena sendotasuna zan: iraute andia. Ogetamasei urtegaz jokatu eban Joe Luis baltz gaztearen aurka egindako jokoan, lurra jo eban. Azkenengo joko axe bakarrik K. O. galdu eban.

Ni umea nintzan Uzkudun ukabilketan asi zanean, eta lenengoan bere konturik jakin be ez neban egin. Spalla'gaz jokatu ebanean, jende asko egoan, kontixu, joko aregaz arduratuta. Orduan ez egoan irrati edo radiorik —jakiña, telebisiñoa gitxiago—. Baiña jendeak, gaberdia izan arren, urrutizkiñez-edo, zer edo zelan jakin eban; eta, erri guztia lotan egoala, txistua joten kalerik-kale urten eban goizeko orduetan Jauregialzo-tar Damin txistulariak, gazte ta gizon pilloa atzetik zarataka ebala. Jende asko uste-uste bako desorduetako kalejira ta zarata arek arrituta laga eban, zegaitik izan eitekean ezin asmaurik.

Andik laster, Uzkudun errian ikusteko aukerea izan genduan. Esan dogun lez, 1926'garren urtea zan: estropada urtea ondarrutarrentzat; azkenengo ikurriña irabazi zan urtea.

Udako arratsalde baten, laneko orduak amaitu ta laster, Uzkudun errian egoan barria zabaldu zan. Eta bereala *Hotel de la Bahía* aurea jendez bete zan, batez be gizonaekoz. Ta *hotel*'eko terrazan an egoan, zerbait edanaz.

Ain zuzen, orduantxe etorren estropadarako gertuten ebillen treiñerua, euren eguneroko saioa itxasoan eginda. Orduan, Ondarroa'ko kaian, maria berakoan ur andirik be ez zan egoten; eta, barrarako bidea zan moillen ondotik, an etozan gogor erramutan.

Jendeak, Uzkudun'eri zerbait on egin naian, antxe treiñeruan itxasora bira bat egin bear ebala esaten asi jakon; ta bera baietzean jarri zan, gertu egoan treiñeruan joateko. Ta, ontzia urreratu zanean, jendea didarka asi jaken erramulariak, geratzeko esanaz, Uzkudun'eri itxasora bira bat emon bear eutsela ta.

Erramulariak ez ekien zer jazoten zan, eta arrituta geratu ziran; eta, zerbait jakin ebenean, barruan lemazaiñaren ondoan eroen Etxaburu'tar Iñazio'k, *Iñazio Saku'k*, ezetzko

lako zirkin bat egin eban. Baiña, ordurako, Uzkudun mailla-di edo eskillaretan beruntz joian eta artu eben. Antxe, atze-an, lemazain eta erakuslearen ondoan jarri zan eta an joan ziran. Mutillen erramukada bakotxak atzerunzko zirkin edo ikara andia ataraten eutsan.

Itxasoan biratxo bat egin da etorri ziraneko, inguru a jendez beteta egoan; eta, tokia egiñaz, erditik igaro zan, txalo ta gora artean, lengo tokira arte: *hotel*'era arte.

Egunetara, jendeari atsegin izan ez jakon kontua errian zabaldu zan, Uzkudun'eri buruz. Zera: ondarrutarrak ez ebela estropadarik irabaziko esan ebala Uzkudun'ek, eta zer esana izan zan errian. Bearbada, berak olako ezer ez eban esango; dana upiña izango zan. Baiña, beintzat, zurrumurru ori errian zabaldu zan.

Uzkudun'en ukabilketa bizitza ikusita, orretarako zaleta-suna sartu zan Euskal Erria'n. Mutil indartsuak ziranak, eurak be zerbait egin eikeela ta ikasten asi ziran. Iru morroso bai, beintzat: Gaztañaga'tar Isidoro, Ibarra'koa; Gabiola, Amoroto'koa, Lekeitio ondokoa; ta Osa'tar Mateo, Saturraran gaiñekoa, mutrikuarra erriz.

Mateo'k Ondarroa'ko astilleroan lan egiten eban, solda-dutzara joan zan arte. Ta an, ordurako orretan asita egoan Isidoro'gaz arkitu zan; eta, onek berotuta edo ez dakigu zelan, bera be asi zan, eskularruak jantzi ta *dinbi* ta *danba* musturrekoak emon eta artzen. Baten, biak Ondarroa'ra etorri ziran, saio bat egitera; eta, gero Eskola Barriak egin ziran tokian, ekin eutseen lagun antzera, Isidoro asko ika-siagoa zan; eta, nai ebanean, nai eban lez joten eban Mateo. Iñoiz, besoa gerrian biran okertu ta atzetik be bai.

Ez dakit beste jokurik egon ete zan. Edozelan be, ordain-du bearrekoa izango zan, ba, nik, beste nire moduko mutil txiki askok lez, ibaiaren andiko aldetik, Gorozika'rako bidea asten danetik, ikusi neban ukabilketa jokua.

Mateo España'ko txapeldun izatera eldu zan pixu astu-netakoetan, ain zuzen Gabiola'ri irabazita, au zan aurrerago-ko txapelduna ta. Gero Ameriketara joan zan. Baiña an ez eukan zeregiñik, eta urte asko baiño len laga egin eban ukabilketea. Edozelan be, lengo lanera ez zan biurtu. Ez dakit

dirurik aurreratu eban ala ez. Baiña zerbait al ebenak eza-  
gun egingo zituan, eta beste bizimodua artu. Ezkondu zan  
andrea-ta be zerbait baziran.

Gabiola gizajoak azken txarra izan eban. Valencia'n,  
Logan pilipinotarraren aurka jokatu eban baten, lur jo eban;  
eta gaixotegira eroan eben arren, egun bat edo bira il egin  
zan, zentzunera edo tentunera etorri barik.

Bera il zanean, ondorengo au irakurri neban izparrin-  
gian: egunean ogerleko bat mozkin edo erredito emongo eu-  
tsan dirua egin arte ebillela ukabilketan, gero *foral* edo Biz-  
kai'ko ertzain izateko. Gizajoa ez ebillen andi izan naiak  
bultzata!

Ukabilkaria baiño len, arri jasotzaillea izan zan.

Bestea, Isidoro, ukabilkari naikoa ona zan. Baiña,  
Ameriketako jende okerragaz nastata-edo, tiroz bizia kendu  
eutsoen.

Mutil gaztea nintzala —Errepublika denporea izango  
zan—, ukabilketa joku barregarri bat ikusi genduan Onda-  
rroa'ko pelota tokian, orretarako ipiñitako tokian: *Xapatero*  
aita, *Cartagena* desizena ipiñi jakon baten aurka.

*Xapatero*, orduan, irurogetamar urte inguru eukiko  
zituan. Gizon txiki gerri okertua zan, ogerleko bat edo bes-  
tegaitik edozetarako gertu egoana. Beti ebilzan bera  
*ring*'ean ikusi naian batzuk; eta, azkenean be, lortu eben,  
kaltza motzak jantzi ta eskularru andiak eskuan sartuta,  
*ring*'ean ikustea. Arerioa be alagalakoa billatu eutsoen:  
komikoa.

*Xapatero* berak be barre egiten eban, bere burua alan  
ikusita. Ta jendeak zer esanik be ez, batez be arerioa ezin  
atrapata ta edonun edozelan joten ikusita.

Baiña barre egiteko asmau zan jokua ezin eitekean geiegi  
luzatu. Gaiñera, adin aretako gizonak, egin ebana be naikoa  
eban; eta bigarren ekiñaldian *Cartagena*'k bere burua lurre-  
ra jaurti eban, eta alantxe amaitu zan jokua. Ori bai: arerioa  
lurrean ikusi ebanean, orduan eban errezen a jo edo zerbait  
egiteko; ta gaiñera joan jakon eta matrailleko bat edo bi  
emon eutsazan.

*Cartagena* izena ipiñi jakona —angoa zalako, kontixu—, gaur emen eta biar an, mundu guztia ikusi bearreko orretarikoa zan. Nundik etorri zan ez genkiala eldu zan errira. Alaia ta barritxua zan, eta bereala danen lagun egin zan. Egia esan, orduan Ondarroa'n lan asko be ez zan izaten; eta, orain emen eta gero beste baten, lan era askotan jardun eban. Gure arrain lantegian be aste batzuk egin zituan. Lenengoan, berrogetamar kiloko gatz zaku bi batera eroaten zituan; eta gero, bat eroateko be atxakia, gerriko miña ebala edo beste zerbait. Ta etorri zan lez alde egin eban erritik: iñok ezer jakin barik.



## Antzerkia

**A**URRERA kirol bazkuna lenengo urteetan geien nabarmendu zana, antzerki arazoa izan zan, erderaz *zarzuela* deritxon motakoa. Jakiña, egin be erderazkoak egin zituan.

Ni gomutaten nazan lenengo antzerki lana, *Alegría de la huerta* izenekoa izan zan. Bakarkako abeslariak Iriondo'tar Martina ta Etxeberria'tar Manuel izan ziran. Antzerki a *Cine Celaya*'n emon zan.

Bertan, antzeztokian, lan egin eben guztiakaz argazki bat atara eben, eta urte askoan *Aurrera*'ko orman eskegita egon da. Orain ez dakit an dagoan ala baztertuta dagoan. Edozelan be, atsegin izango litzakit, antzerkia noiz egin zan ipinten ete daben ikusteko.

Bigarren lana *Molinos de viento* izan zan. Au be lengo zine zar txikian egin zan: *Cine Celaya*'n.

Bertan nabarmendu ziran abeslariak, edo bestelan esanda bakarkako abeslariak, Gabika'tar Asun eta Campos'tar Jose izan ziran. Osaba-lobak —illobak— ziran. Neskea, Asun, ordutik denpora asko baiño len, komentu baten sartu zan. Ta bere osaba Jose, oraindik gaztea zala, il egin zan, emaztea ta alaba bat itxita.

Geroago, *La Dolorosa* eta *Katiuska* emon zituen. Egia esan, ez naz gomutaten zein lenengo ta zein bigarren izan

ziran, Lan oneik emon ziranerako, eraikita egoan *Cine Alameda* zine barria, ta emen emon zituen.

*La Dolorosa* gizionezko utsena dala uste dot. Lan biak ondo emon zituen, baiña *Katiuska* jendearen gogokoago izan zan.

*La Dolorosa*'ko lan nagusia egin ebana Agirre'tar Jabier izan zan. tenor edo goiko abotsa. Abeslari gozoa au.

Bestea, *Katiuska*, Etxeberria'tar Krezenta neskatilla gazteak —arrantzalearen alaba— ta Urresti'tar Paulin'ek abestu zituen paper nagusiak; eta Agirre'tar Jabier'ek.

Lan au ordutik urte askora be berraro emon eban *Aurrera*'k; eta Eibar'en be izan ziran. Oraingoan, lenengo neskea Badiola'tar Agurtzane izan zan; eta, baritonoa, Arriola'tar Jose Luis'ek abestu eban.

Orduan emon zan beste antzerki bat *La del manajo de rosas* izan zan. Antzezlan au Ondarroa'n emon zan lenen Bizkaia'n, Bilbo'n baiño lenago.

Aldi aretan, abestutekoa ez zan antzerki lan bat emon eben, euren lagun taldeari *Bokarena* izena ipiñi eutsen *Aurrera*'ko gazteak. Lanaren izena *Más que Paulino* zan; eta lan nagusia egin ebana Urresti'tar Paulin izan zan, zarzueletako abeslaria.

Azkenengo antzerki lana, zarzuelea, *Los bohemios* izenekoa izan zan. Au andikiro emon nai izan eben, eta orretarako Bilbo'tik abeslari on bi ekarri zituen: Berastegi edo antzeko abizeneko neskea, ta Larrakoetxea, mutil edo gizona.

## Pelota tokia

**O**NDARROA'KO pelota tokia len ez egoan orain dagoan tokian. Musika enparantzan egoan, bai; baiña, entzutea daukagunez, beko bide-zabalaren gaiñeko aldean, bidezabal beraren zuzenbidean. Oraingoa baiño luzeagoa ei zan, zestozko pelotarako be egokia. 1908'garren urtean egin zan orain dagoana, bestea kenduta.

Guk ez genduan ezagutu lengoa, oraindik jaio barik gegozan da. Baiña, tokiz aldatzeagaz, enparantzaren ikuspegiak asko irabaziko ebalu uste izatekoa da, pelota toki barria, ezeri lekurik kendu barik eta kanpo aldera ezelako orma barik, dana agiri-agirian gelditu zan da. Ezkerreko ormea egiteko, ordurarte Korreta-barri azpian egozan espetxeen alderdia artu zan; eta, aurrekoa egiteko, enparantza bertan elizatik berunzko kaleagaz egiten zan ormea. Ori argi erakusten daben Zubiaurre'tar Erramon margolariak margotutako lauki bat ba-dago. Antxe ikusten dira ederto Korreta azpiko kartzelen ate ta leioak, eta gero pelota tokiaren aurrea egingo zana.

Aldi aretan, bearbada zestozko pelotearen asierea izango zanean, era onetariko pelotari pilloak urten eban Ondarroa'n. Nire amak bost lengusu zituan zestozko pelotari: bi Txapasta anaiak, nire ama lez Etxaburu abizenekoak, eta bietatik bat Eibar'en bizi izan zan Txapasta —Romano Etxaburu— eskuzko pelotariaren aita; len aitatu doguzan Txapasta anaien len-

gusu ziran Basaguren Etxaburu anaiak; eta beste lau onein lengusu zan Urrutia Etxaburu'tar Isidoro.

Geroko frontoia, oraingoa, txikiagoa izan arren, len lez urten dabe naikoa zestozko pelotarirek gure erritik. Jakiña, Ondarroa'ko pelota leku txikian bakarrik ibillita ez; mutillak, azten joan ala, Mutriku eta batez be Markiña'ko pelota lekuetara joan bear izaten eben.

Bai; naikoa zestozko pelotarirek Ondarroa'tik urten dau. Ostera, eskuzko pelotari on bat ez da sortu Ondarroa'n. Lenengo maillakorik, bat be ez. Eta ez ondarrutarrak pelotarik atsegin ez jakelako. Orain fubolak kendu dau umeengan pelotarako zaletasuna; ta nagusien artean, errezagoa dalako-edo, paletaz ikusten dira batzuk, ez asko, Baiña, gu ume eta gazte giñanean, beti egoan beteta pelota tokia, ta erreza ez zan izaten bertan jokatzea. Gu, umeak, atzerago edo baztarren baten ibilliko giñan pelotan. Baiña nagusiak, askotan, batera iru partidu txandaka jokatzen egoten ziran, tanto bakotzeko aldatuaz jokalariaik.

Pelotak, *pareterua* esaten jakonak lagaten zituan, jokoko onenbesteko baten truke. Gauza utsa, txori-andi bat edo bi, izaten zan ordaindu bear zana, jokoak iraun ebanaren araber. Galtzalleak ordaindu bearko eban, kontixu.

Ni umea nintzanean, neure aita-aita, *attitte*, zan pareterua. Ta, bera il zanean, nik sei urte neukazala, aren seme ta nire osaba zan Simeon. Attitte amaren aita zan, Errofaill izenez, *Mardiue* edo *Mardiuanekoa* desizenez. Beste arrantzale asko, itxasotik eldu orduko, ardandegi edo sagardandegira joango ziran aguro. Baiña nire aita-aita ta osaba, laurleko bat edo beste andreari eroan al baetsezan, arin pelota tokira!

Arek il ziranean, *Polka* ospetsua, *popularra*, saltsa guztietako perrejilla, izan zan *pareterua*. Azkenengo *pareterua* Ondarroa'n, *Polka*, Santa Kruz'dar Jose izen-abizenez, osasun txarrekoa zan, gaixoa, ta bear eban zerbait irabazi.

Erriko jaietan lenengo maillako pelotariak etorten ziran; onenak. Ez nintzan zarra, baiña Baldasar, Mallabia, Txikito Azkoitia ta abarregaz gomutatzen naz, pelota tokitik izerditan irteten ikusita, norabait, jaztera.

Pelota toki alderdia itxi egiten zan olez, eta ordaindu egin bear, jakiña, an sartu nai ebenak. Baiña enparantzatik Ipar-kaleraiñoako aldatzeko alderdia itxi barik egoten zan; eta Korretea be orduan ez eben itxiten. Beraz, batzuk ezer ordaindu barik ikusi eikeen pelota jokoak, ta laster beteten ziran esandako tokiak.

Aremaio'neko ardandegi kanpoan, aldatzak agintzen eban erako oin desbardiñeko aulki luze bat egoan, ardaoa edatera joan eta gelditu nai ebenak —orduan ez zan txikiteorik—, antxe kanpoan jarri —exeri— nasai ta, gora ta bera igaroten ziranak ikusiaz, kontu-kontari denporea igaroteko. Ta, jaietako pelota jokoak ziranean, aulki a an ezer ordaindu barik egozanen atzeko aldera eroan eta besteen buru gaiñetik egoten ziran ardandegi aretakoak, bost, sei edo aulkian sartzan ziran guztiak. Ta baten, bein be ez dana bein izaten da-ta, aulkiari oiñak okertu edo ausiaz, an joan ziran danak ankaz gora zarata otsean, ingurukoak barre algaraka lagauaz.

Urteak joanaz, aldakuntzea izan eben jaietako pelota jokoak. Udalak, pelota joko orreik eratzea gero ta zaillagoa zala ikusirik, pelota tokia errematean ataratea erabagi eban 1929'garren urtean. Nai ebenak eldu eitezan, egin eban deian baldintza oneik ipiñi zituan:

Dagonilleko Andra Mari egunean eta biaramonean, eta Iraillako Andra Mari egunean eta biaramonean, au da, lau egun guztira, egun bakotxean joko bi ipintea, bat lenengo maillako pelotariakaz eta bestea bigarren maillakoakaz.

Ituna bost urterako izango zan.

Errematea eun laurlekotik asiko zan.

Ta errematera eldu ziranetatik geien eskeiñi ebanari emon jakon, lareun laurlekotan.

Pelota tokia artu ebanak, Aremaio'neko aldatzeko alderdia itxi egin eban, eta Korretea be ordaindu egin bear zan.

Korreta gaiñeko terrazea gelditu zan ordaindu bear bakoa, zarrentzat eta beste batzuentzat.

Olan urte askoan jarraitu eban pelota tokiak. España'ko guda ondoren euki ebenak, udan, jaietatik kanpora be, makiña bat igandetan pelota joko ederrak ipinten zituan.

Gero, udaletxe barria enparantzan egin zanean, pelota tokiari arrizko jarri-lekuak ipiñi eutsoezan. Ta, obe bearrean, egindako lan aren ondorena lenengo maillako pelota jokoen amaia izan zala dirudi. Jarri-lekuak, naikoa toki artzen dabeen arren, jende asko sartzeko aiñakoa ez ei da; lenengo maillako pelotariak ordaintzeko bear dan dirua batzeko ainbat lagun barruan artzekoa iñundik be ez; eta, orregaitik, erriko jaietan ezelango pelota jokorik ez da izaten.

Alde ederra gure ume denporatik oraingoa! Orduan, Andra Mari jaietako ikuskizun ospetsuenak pelota jokoak izaten ziran.

Peloteari buruzko atal onetan, Ondarroa'ko *Txapasta* anaiak aitatzen dituan kontu polita sartuko dogu, Deba'ko euskal idazle trebe Tene Mujika larogetak urteko andreak *El Diario Vasco*'n idatzitakoa, 1977'garren urtean. Berak *Txaparta* izena emoten dautse, txarto entzunaz, kontixu. Argitaratu zan lez, gipuzkeraz ipinten dot emen.

## ETXEKOANDREA TA NI

(Gabon giroan kontu kontari)

Gabon giro pozgarrian, etxeakoandre taldetxo bat elkartu gera kontu kontari. Esan bearrik ez, gure izketaldiaren gaia: Belen'go Sendi Jainkozkoa... zer? Nola? Nun? Belen.

Gure artean Busto'neko Sofia daukagu; adiskide on degun motrikuar anderea. Iztun egokia; berari entzuteak badu, aspertzen ez duan zerbait; oi ez dan bezela atsegiña da. Bestetik, amar aldiz izana da Jerusalem'go Lurralde Santuan, eta esan bearrik ez... ango berri ongi dakiela.

Galde batzuk egin nai dizkiot:

— Eramango al gaituzu, Sofia, entzumenez eta irudimezez, Belen'go estalpera?

— Ango oroigarriak aitzu-eziñak zaizkit, eta pozik edes-tuko dizuet an ikusi ta ikasi dedana.

Belen'go erria, Lurralde Santu aietako tokirik alai, polit, atsegiñean dago. Badirudi Izadiak, Jesus Aurrari "pakea ta maitasuna" eskeintzera etorri zanean, zeukan tokirik onena eskeiñi ziola. Ain da alaia, ain da polita. Gauza oroi-

garri asko gertatu zaizkit an izan naizen bakoitzean, baiña beingoa edestuko dizuet; eta atozte nerekin Estalpe Santura.

Enparantza eder ta ondo zaindu batean dago. Eliz Nagusi eder artan sartzeko, mailladi bat jeitxi bear da; jeitxi giñan bada, eta sartu giñan Elizara, Jesus jaio zan tokira.

Aldarepean dagon atetxo txiki bat makurtuta igaroaz, Jesus jaio zan tokira bertara sartzen da. Ama Birjiñak, oialetan batuta askatxoan jarri zuan toki ber-bertara. Ezin esan... biotzak egiten duen dardara, erakusleak esaten duen bakoitzean: “Emen... Emen bertan...”. “Emen, emen, emen” bakoitzean esan daiteke, biotzak bere tokitik irten eta oiartzun gozo batez deadarka ekin nai duala.

Emendik irten eta estalpe-ondoan... zillarrezko izar batek adierazten du, toki artan aingeruak artzaieri esan ziela... Jesus jaio zala. Goraxeago, aizpe zuri-zuri bat dago; eta, esaleak dionez... toki artan, Ama Birjiña bere Semetxo Jainkozkoari bularra ematen ari zala, esne-tanta bat erori omen zitzaion lurrera; eta, une berean, aizpe guzia zuri jarri omen zan. Augatik, andre ebreatarrak, baldin euren aurrak azitzeko bularrik ez ba’dute, antzu badira, aizpe artako auts zuria edontzi batean artu,... bertan urakin naastu, eta esne ordez ematen dietela. Fedea ere gauza ederra izan!

Berriro estalpe santuan sartu, *Gloria in excelsis Deo* abestu eta Jerusalem aldera abiatu giñan.

Elkarrekin taldean giñoazela, eta nere aizpa Sekun gurekin, taldetik zertxobait alde batera egin nintzan; ango konbentu batera begira jarri nintzan.

Bereala, konbentuko azoteatik moja batek:

— *¡Alabado sea Dios!*

Eta nik erantzun:

— *¡Alabado sea!*

Orduan berak:

— *Espéreme un poco, que voy a bajar.*

Onela, berealako batean, atariko atean zan.

— *¿De dónde es usted?* —galdetu zidan.

— *Soy de Guipúzcoa; de un pueblecito que usted ni siquiera habrá oído mencionar.*

Baiña une artan aurpegi guzia aldatu zitzaion, begiak zabal-zabal zitula, eta aoa zerbait esan nai balu bezela... Eta nik esan nion:

— *Soy de Motrico.*

Au esan nionean eman zuan saltua! Nereganaño eldu zan esanaz:

— *Y...¡yo de Ondárroa!*

Besarkada luze ta estu batean elduta egon giñan luzaro; Txaparta izeneko bi anai pelotari ezagunen arreba zala esan zidan. Nik, berriz,... Busto'ren alaba nintzala...

Gure poza, gure esan bearra!

Baiña aurrera zijoan nere taldea, eta aurrera joan bear nik ere. Lasterka abiatu nintzan, eta nik ari, eta ark neri,... beti ere bira eginta elkarri agur egiñaz... aldendu giñan.

Beste gauza geiago badut an gertaturik... baiñan Belen'go au... bai pozgarri, bai goxo itxatsi zitzaidala gogoan!

Orra, etxeoandre, zuretzat irakurgai dedin, lengo ortan jaso dedan gertatzen atsegiña.

Tene Mujika



## Zubi-Zarra

**O**RAIN lau zubi daukaguz Ondarroa'n. Azkenengoa, Zaldupe'ko ostiko jokoko zelai barria egin aurretxoan egindakoa.

Zubi au egitea ta bere kostua izango zan aurre-eretzia emoten eban barria, 1971'garren urteko garagarrillean —uztaillean— zabaldu zan. Aurre-eretzia: 4.580.520 laurleko. Zubi ederra, berebil eta abar ibilteko erakoa.

Au baiño len beste bat egoan bertan, Zaldupe'ko ostiko jokoko lenengo zelaia egin da gerokoa. Beintzat, lenengo urte bi inguruan, Zaldupe'ko bidetik egin bear izaten zan bertarako joan-etorria. Ta bear zan. Eta fubolagaz zer ikusirik ez eukan batek egin eban, edo bere kontura egin zan, neurkin bat inguru zabalekoa zan olezko zubia; ta bertatik igarotea, zerbait ordaindu bear izaten zan.

Beste zubia, plairakoa, oiñezkoak igaroteko bakarrik dana, ta bear danean zabaldu be bai, ibaitik itxasontzi andiak igaroteko, 1927'garren urtean egin zan, beste nunbaiten be esaten dogunez.

Gu umeak giñanean, barrarako zubitxo aintzat artu barik, zubi bi ziran bakarrik: Zubi-Zarra ta Zubi-Barria.

Bide-zabalak egin ziranean eraikiko zan, kontixu, azkenengo zubi au. Beraz, gitxi gora-bera zein alditan egin zan antz eman leike, Zubikarai'tar Agustiñ'ek bere *Egutegia*

1976'an diñoanez, Ondarroa'tik Lekeitio'rako bidea 1870'tik 1880'ra egin zan. Iru-lau urte gora-bera, ordukoa izango da Zubi-Barria. Gipuzkoa aldetik edo, zeatzago esateko, Mutriku'tik Ondarroa'ra sartzeko, emendik igaro bear dabe beribilak. Eurentzat ez da beste igarobiderik. Bide-zabalak edo karreterak egin ziranean jasoia izan zala uste izatekoa dala orregaitik esan dogu.

Ezpai barik, Ondarroa'ko zubirik antxiñakoena, erria sortu baiño lenagokoa bearbada, *Zubi-Zar* izena emoten jakona da, Bere itxurea alakoa dalako, iñoiz batzuk *errromatar zubia* deitu izan dautsoe berari, Baiña, Zubikarai'k argitzen dabenez, guk ezagutu izan doguna ez da itxuraz edo izenez baiño erromatar zubia; arein denporakoa ez beintzat.

Len, orain mende batzuk arte, olezkoa ei zan oraingo Zubi-Zarraren tokian egoana. 1346'garren urtean, zubi a zartuta ei egoan; eta, bear zituan konponketak egiteko dirua izan naian, ontziak igaroteko bera iragitea onenbesteko bat ipintea erabagi ei eben. Beraz, zubia, iragi-itxitekoa ba'zan, ez zan balio gitxikoa.

Olezko zubi arek 1699'garren urte arte iraun ei eban. Aurreko urtean, arrizkoa egitea erabagi ei zan; eta orretarako dirurik ez ta lurrak saldu ei eutsazan Ondarroa'k Berriatua'ri. Beraz, ainbat margolarik euren laukietan margotutako gure Zubi-Zar entzutetsuak, irureun urte be ez daukaz; edo ez eukazan. Ba, gure denporan, bi bidar lur jo ta barriztau bearra izan dabela ez jaku aztu bear.

Lenengoz, 1936'garren urteko gudatean, frankotar gudalaldeak errira urreratu ziranean, bertan sartzea zaillago izan ekioen, lerkaiz zubi biak jaurti edo ondatu zituen, Gipuzkoa aldera egoan auzoko jendeari aurretiaz beste aldera igaro eraginda. Gaberdian danbarrada ederrak atarauaz jaurti zituen.

Zubi-Barria zeritxona, bestea baiño ariñago konponduko eben, premiña geiagokoa zan da. Baiña Zubi-Zarra be gudea amaitu baiño len konpondu ebela uste dot. (Ni orduan erritik urrun bizi nintzan eta olantxe idatzi bear.) Gudari izandako asko zituen atxillotuta; ta areitakoak, erdaldunak, ekarri ta konpondu eben.

Bigarrenez, ujolak jaurti eban. Bere azpitik makiña bat ur indarrez igaroten ikusi izan genduan, eta ujolak ari zirkiñik eragin eikionik iñori ez jakun sekula burura etorri. Baiña bein be izan ez dana bein izaten da; ta gau illun baten, Euskal-Erria'n ainbat kalte egin eban eguraldi txar bateko euriteak Artibai ibaiko urak bein be ez aiña loditu zituan, eta zubiari lur jo eragin eutsan, eta bere ondoan zan ontzi bat urpean ondoratu.

Orduan euskerazko aldizkaririk ez zan; eta, bera zala-ta, erdal idazlantxu bat *El Diario Vasco*'n idatzi neban.

Oraingoan ez zan bereala egin Zubi-Zar barria. Amar urte inguruan egon giñan bera barik. Ta egin zan noizbait! Lengoa lakoa egin nai zan, bardin-bardiña; ta orren ardura-dun ziranak lengoaren argazkiak ondo aztertu zituen. Baiña bikiak diranak be zerbaitek bereizten ditu, ta zubi au be lengoaren bardin-bardiña ete da?

Zubi-Zarrari buruz gauza au geitu nai genduke: guk bere alderdi bat mailladiakaz amaitzen dala beti ezagutu izan dogu, Baiña beste zubirik ez zanean, errian berau bakarra zanean, olan ez zan izango. Ori ezin eitekean, bertatik gurdia ibilli bearko ziran da.

Ara len aitatu dodan erdal idazlana:

*“Cuando al amanecer del fatídico jueves de las inundaciones, tuvimos conocimiento de los daños que la riada había ocasionado en nuestra villa, nos sobresaltamos, pues en Ondárroa nunca habíamos conocido otro tanto. Después, al saber la magnitud de la catástrofe de Guipúzcoa, bien pudimos decir que aquí no había pasado nada.*

*Ahora bien: aun lamentando los perjuicios que en algunas familias había ocasionado —desde luego no muy grandes, excepto el motivado por el hundimiento de una embarcación pesquera que aún no se ha puesto a flote, a pesar de los trabajos de un bozo—, hubo un hecho que determinó el sentimiento de todo el pueblo, como igualmente lo sentirán todos los ondarreses desparramados por el mundo al conocer la noticia: el derrumbamiento del Puente Viejo. Nada hay en*

*Ondárroa tan antiguo y nada, asimismo, tan íntimo, tan nuestro, después de la Virgen de la Antigua.*

*El Puente Viejo —Zubi-Zarra— para nosotros era el heraldo nuestro por el mundo entero. Si la canción Boga-boga ha difundido entre todos los vascos el nombre de Ondárroa, el famoso puente le ha hecho traspasar las fronteras.*

*Pocos museos habrá en el mundo donde no se exhibe un cuadro del Puente Viejo nuestro. Y ¡qué satisfacción de los errikoshemes cuando lejos de su pueblo, en alguna exposición de Londres o en algún museo de Nueva York o de algún lugar, ven a su Ondárroa en algún lienzo, con el Puente Viejo de primer plano.*

*Días pasados nos contaba un paisano su emoción cuando en una exposición de Japón vio Ondárroa en un colosal cuadro del Puente Viejo. ¡Qué de fotografías de él no se han obtenido! No pasaba un auto extranjero sin que sus ocupantes, echando pie a tierra, no le disparasen sus placas. Sin duda alguna estaba muy señalado en guías turísticas.*

*Y ahora ¿qué?*

*Hacemos esta pregunta porque ha comenzado a cobrar fuerza la opinión de que, si una imitación suya no puede tener el mérito que por su antigüedad tenía el desaparecido puente, más valdría no reconstruirlo...*

*Emen idazkiaren zati bat palta da. Baiña, uste dodanez, zubi barik Kofradia aurreko moillara urreratzea errezagoa dala diño. Baiña nik zubia egin-egin bear dala diñot, besteen eretxiari indarra kenduaz; eta olan jarraitzen dau erdal idazlanak:*

*“...la mayoría tendrá que hacerlo en otros lugares. Por otra parte, en Ondárroa no escaseamos de muelles, y mañana o pasado podremos tenerlos en abundancia. Y, sentimentalismo aparte, es de tener en cuenta que el puente era utilizado por mucha gente, y hoy se lamentan por los grandes rodeos que están obligados a realizar.*

*Para los vecinos del barrio de la Piedad, obreros del astillero, obreras de muchas fábricas de conservas de pescado*

*allí radicadas, mujeres que acuden al lavadero público y para muchas otras personas, el paso sobre la ría por aquel lugar es necesario. Reconstruyamos, pues, el puente. Aprovechemos las piedras básicas del..."*

Azkenean be beste zati bat apurtuta ta ezer ez irakurteko eran dator. Albista idazki au 1953'garren urteko urriaren 5'ean argitaratu zala uste dot.

## Garbilekua edo *Errekia*

**G**URE errian ezagutu dogun garbileku edo *labaderuari*, *Erreka* edo *Erreki* izena emoten geuntsan erritarrak.

Ori nundik etorri eitekean igartea ez dirudi gatxa. Antxiña, garbilekurik ez egoanean, jendeak erreketan jantziak garbitu bearko zituan; au da, mendi tartetean bera etozan uretan.

Ondarroa'ko erreka nagusien artean, oneik arkitzen dira: Txori-erreka, Antzo Solo, San Juan Txurru ondokoa, Zaldupe, Arraueta ta Emendiko-erreka. Erreka orreitan, danetan ez ba'da be erritik urrean egozanetan, egingo zituen euren garbiketak aspaldiko ondarrutar andrak.

Gure erriko lengo garbilekuai buruz, Zubikarai'tar Agustiñ'ek barri labur oneik emoten ditu bere *Egutegia* — 1976'en:

“1826 urtean, errematera atara zan Astilleroko garbilekua. Baiña lanak asi ta laster, urik ez etorrela konturatu ziran, ta origaitik gelditu.

Garbileku onen premiña andia egoalako, nai ta ur gitxi egoala ezagutu, barriro asi ziran lanak, eta 1828'an amaitu.

Arrantzarako sareak erriko garbitokietan garbitzen ziralako, asarre ugari 1827 urtean. Azkenean be, Baraiku'ra urak ekarri arte lagatea erabagi zan”.

Erderazkoan, urte bi geroago izan zala esaten dau:

“Hubo muchas protestas en 1829, porque las ledes se limpiaban en el lavadero municipal”.

“Zaldupe’ko garbilekua 1826 urtean egin zan. Bera egiteko, ardauari sisa ipiñi jakon”. Auxe izan zan lenengo garbilekua.

Guk ezagutu dogun garbilekua, *Errekia*, andi ta egokia zan lan orretarako; berrogetamar arri-aska inguru izango zituan, baktotxa ura ugari emoten eban txurru edo iturriagaz. Orduan, etxeetan be, danean ez egoan urik; egoanetan be, ez oraingo garbiketa tresnarik; eta jende asko joaten zan *Erreka*’ra, buruan *zinka* izeneko ontzia jantzi, izara edo enparau garbitu bearrekoz beteta. Batez be astelenetan jendetza andia batzen zan bertan, eta iñoiz danentzako tokirik ezta be bai.

Batzutan kontu-kontari, bearbada albokoagaz barik urrunagokoagaz, urrengoan abestuten bakarka nai aldran, eta iñoiz gogor errietan be bai. Nik antxe ondoan lan egiten neban, eta bizi be bai, ta ba-dakit ango barri. Ez zan toki ixilla.

Beste gauza askotan lez, *Erreka*’n be gauzak aldatu egin dira. Etxeetan garbiketa tresna edo *labadorak* sartzen asi ziranean, jendea gitxitzen asi zan *Erreka*’n; eta azkenean iñor be ez zan joaten. Ta, alperrik egoala ikusirik, saldu egin eban udalak, bertan etxe barriak jasoteko.

Orduan, entzun nebanez, Urkizutarrak udalari utsean edo erdi utsean emon ei eutsoen lur a garbilekua egiteko; ta orain, beragaz naikoa diru artzeko eran udala jarri zanean, eurak be zerbait jaso nai izan ei eben. “Garbilekua egiteko emon zala lurra, ta ez beragaz dirua atarateko”. Ez dakit zelan amaitu zan auzi au.

Nik uste dot, lurrak emon zituan Urkizu a, Juanito Urkizu ostikolariaren aita izango zala.

## Korretea ta bere teillatua

**O**NDARROA'KO toki jator bat, *popularra*, eliza nagusiaren biran dagoan *korretea* —*korreti*— da edo izan da. Korretea elizeagaz batera egingo zala esango neuke, bere agiriko oiñarri luzeen erdi estalgarri. Olan ez izatera, osorik ikusita itxusia izango zan gure elizea. Dana dala, aspaldikoa dala agirian dauko korreteak.

Baiña elizearen itxusitasunaren estalgarri egin ba'zan be, orretarako baiño geiago izan da. Bertatik Ondarroa guztia ikusten da, batez be itxaso zabala eta kaia.

Zati bitan banatzen dogu korretea ondarrutarrok; izen bi emoten dautsaguz: *Korreta-zar* eta *Korreta-barri*. Baiña dana batera egindakoa izango da, kontixu. Itxaso aldera begira dagoan alderdiari esaten dautsagu *Korreta-barri*; eta *Korreta-zar*, beste enparauari. Beno, gramatikea kontua izanaz, izen oneik olan ipiñi ditut. Baiña jatorragoa da *Korreta-zarra* ta *Korreta-barrixe* deitzea.

*Korreta-barrixe* esaten asi arte, *Korreta-zarra* be ez zan esango. Orduan zer dala-ta edo nundik artu eban bere sortzea *Korreta-barrixe* izenak? Ez dakigu, baiña onezaz geure eretxiren bat esan daikegu. *Korreta-barria*'ren aurrean lan batzuk eginda enparantzea atara eben gure asabak. Ta enparantza orretan egingo zan dana: dantz, jolas ta pelota. *Korreta-barria*'ren azpian espetxeak ziran gu jaio baiño irulau urte lenago arte; ta gero bertara pelota tokia aldatu



eben. Orregaitik, *Korreta* alderdi ori egokitu bearra ikusiko zan, eta goia be estaldu egin eutsen, naita beste guztia goia agirian itxi. Ta, nire ustez, or egingo zituen lanakaitik artuko eban *Korreta-barri* izena. Ez dakigu lanak eta izena bera an-txiñakoak diran ala ez; baiña guk olantxe deitzen ikasi gen-duan ume-umetatik.

*Korrete*a, au da, bere alderdi guztiak kontuan artuta, gauza askotarakao izan dala esango genduke: itxasoari begi-ratzeko; kaian arraiñagaz edo arrain barik sartzen ziran itxasontziaz be bardin; pelotan ebiltzanai begiratu ez baka-rrik, iñoiz zarrak goitik didar galantak egin be bai, txarto jokatu dabeela esanaz; eliza inguruko andrak neguan eguzki epela artzeko *Korreta-zar* alderdian; arrantzarako sareak legortzen ormetatik bera dindilizka ipinteko; Kanean giro txar-ra egoanean, arrantzale zarrak pipa erreaz kontu kontari egoteko; ta batez be mutil azitxoan jolas leku, pelotan, *ingelesean* izena eukan, dirua aizera jaurtiz egiten zan jokoa ta abar egiteko.

Egia esan, bertan jolas egitea galerazota be ba-egoan. Baiña agintariak edo ertzaiñak —*aguazillak*— aldi batzutan laga edo ez ikusi egiten eben, eta urrengoan makilkada ede-rrak emon.

Esan dogu ta *Korreta-barria* beti goian aterpea dabela ezagutu izan dogu. Gu umeak giñanean, teillatua eukan, izenak diñoan lez. Beste nunbait aitatzen dogun Zubiaurre'tar Erramon'en *Ondarroa* izeneko laukian, ederto ikusten da teillatu au. Gero, ditadurearen lenengo urteetan, teillatu zarra kendu eta, erderaz esanda, *terraz*a bat egin eben, *Korrete*a'ren estalgarri. Bertara sartzeko, elizearen aurreko eskuma ertzeko abe edo dana-dalako bateri zuloa egin eutsoen.

Terraza, eliza eta udalaren kontura egin zan. Bakotxak iru milla laurleko emon zituen.

## Ondartzarako zubia

**D**ANOK dakigun lez, len ez zan plai edo ondartzarako zaletasunik gure errietan. Gu umeak giñanean, geienbat barrarako bidea zan igarian egiteko tokia Ondarroa'n, batez be bertako zubi-txiki inguruan. Axe zan mutil txikien eta nausiagoen igari tokia.

Ni neu igari kontuan naikoa atzeratua nintzan. Andik kanpotar nagusirik igaroten ba'zan, mutil txikiak laster asiko jakozan "*¡Echa dinero al agua!*" esaten, kanpotarra, *beraneante* itxurakoa, geienetan erdalduna izaten zan da. Ta, euren eskabideak erantzuna izango eben itxurea artzen ba'eben, erakutsiko eutsen ori zelan egin bear zan: dirua —txori-txikia edo geienbat txori-andia— paperean batuta jaurti bear zala, bestelan ur azpian gitxi edo bat be ez zala ikusten da. Olan, paperean batuta jaurtiten zan dirua, ur azpian goitik bera joiala, laster atrapatzen eben, musean egiñaz —*uretan murgilduaz*—.

Orduan, bearbada banakaren batek bai, baiña neskak ez eben igarian egiten. Olan, ondartzea edo plaia, ia oso-osorik kanpotar udazaleentzat edo, orduan deitzen geuntsen lez, *beraneanteentzat* izaten zan. Udazaleak, ia danak, erdel errikoak izaten ziran. Jendeak, destaiñez, *txitxarrokume-jantzailleak* izena emoten eutsen udazaleai. *Txitxarrokumea*, orduko *bolintxeroak* deitzen geunseen itxasontzi txikiak atrapatzen eben arrain merkea zan.

Orduan oraindik ez egoan plairako zubirik; eta, ibaia igaroteko, itxasontzitxu zuri bat egoten zan, azpi zabala, angulatarako-ta izaten diran orretarikoa. Jakiña, udan bakarrik. Berak, txiki ta andi, geienez ogeiren bat lagun eroan eikezan. Txori-txikia izaten zan aruntz-onuntza.

Iñoiz, jendea ondartzan zala euria asi-edo, danak alik ariñen errira etorri naita, ontzia geiegi bete be bai. Baiña erriak *Pasajero* ezizenez ezagutzen ebanak, astiro ta burutsu erabilten eban, eta bein be ezbearrik ez genduan ezagutu.

Azkenengo urte bian-edo, beste ontzi bat asi zan jendea ondartzara eroan-ekarrian: Garmendia'tar Iñazio, getaria-rra, Ondarroa'n jaiotako familia andiaren aita. Bestea, *Pasajero*, Amutxastegi'tar Gillermo zestozko pelotari ospetsuaren aita zan.

Esan dan lez, ontziak udan bakarrik ibiltzen ziran: eta neguan, fubolera edo ondartzara joateko gogoa izaten ba'genduan, bira andia egiñaz, Arrigorri'tik joaten giñan. Oraingo eskillarak edo mailladia orduan be ba-zan, naita naikoa ondatua. Baiña berunzkoa, geienetan, mailladia alboan laga ta Arrigorri'ko musturretik bera zuzenean egiten genduan, ixirristadaka edo al zan moduan.

Baiña alako baten zubia egin eben, oraindik dirauana. 1927'garren urtea zan. Zubia, dan lez, Alameda'ko alderdi bitan egin eben: zati bat, Alameda'n bertan; eta bestea, gero *Escuela de Pesca* izango zanaren balkoi aurrean.

Bera gaiñean eukiko eben abe edo *kolumna* biak, aurreko urtetik eginda egozan; eta etorri zan, abe bakotxak, erdi-erdian, gora begira euken ardatz musturrean, zubi alderdiak sartu eta ipinteko eguna. Ori ikustera jende asko urreratu zana esan bearrik ez dago. Gabarra batek artu ta sartu bear zitan. Beraz, maria goian egoala egiteko kontua zan, eta arratsaldeko seirak-zazpirak inguruan egokitu zan mare puntea.

Ordu egokia nitzat: lanetik urteteko ordua. Orduan amairu urte ta erdi baiño ez neukazan arren, asita nengoan lanean, Scola'ren arrain lantegian; eta, lanari laga geuntsanean, laster egin nituan gure lantegitik —San Juan Txurru ondoan egoan— Arrigorri'ra arteko bideak.

Andixek, Arrigorri'tik egon nintzan begira. Egia esateko, ez naz ondo gomutaten alderdi biak egun baten ala bitan ipiñi zituen. Ziurrago egun bitan izango zan, ba batek lan asko emon eban bere tokian ipinten. Olan izan ba'zan, nik egun baten bakarrik ikustea izan eitekean.

Zubi alderdi batek, gabarreak lotu ta jaso ebanean, birea artu eban eta *Escuela de Pesca*'ko ikustoki edo miradorari ikutu egin eutsan, eta ainbat leiar eta abar ausi.

Esan dan lez, ez jaken erreza izan ardatzetan sartzea, Makiña bat jatsi-jaso egin bear izan zituen, nai zan tokian ikusi aurretik.

Ditadura denporea zan; baiña zubiari euskeraz eta erderaz izena ipiñi eutsoen. Ez naz gomutaten alderdi bakotxean berbetea batean ala alderdi baten bi berbetetan eukan plakeak:

*Pasarela de Alfonso XIII*  
Alfonso XIII'ren zaldaña — 1927.

Zubiaren askundea emen ipiñi dan urteko maiatzaren 1'ean izan zan. Orretara, Bizkai'ko Aldundiko lendakaria zan Bilbao'tar Esteban jauna etorri zan.

Zubia Aldundiak egin eban. Baiña edonoiz be dirua urri egon oi dan gauzea da, ta orduan be larri ibilli ziran, bera amaitu arte. Lanen balioa 120.775 laurleko izango zala erabagi zan; ori izan zan aurre-kontua. Baiña, lanak amaitu barik egozala, Aldundiak izan eban lagun barriztate baten, aldun barriak olako lanen aurka agertu ziran. Barri onen emoillean erderaz olan diño:

*“Al cambiar, con sus miembros, de criterio la Corporación provincial, en una de sus renovaciones, adoptó el acuerdo de suspender concesiones de obras municipales; la comenzada pasarela amenazaba estancarse”.*

Agindutako dirurako irurogetamar milla laurleko palta ziran; diru ori bear zan lanak amaitzeko. Ta asmau eben. iñok ez eukan diru orren jaube egiteko bidea. Ondarroa'ko udalak aurreratuko eutsan Aldundiari diru ori. Alantxe, Biz-

kai'ko Aurrezki Kutxagandik lortu eban Ondarru'ko udalak bear zan dirua, euneko bostean ordaintzeko; ta Aldundiari laga eutsan. onek berari amar urtean obari edo interes barik biurtzekotan. Au da, diru ori azkenean Aldundiak ordaintzen eban; eta bere obariak, Ondarru'ko udalak.

Diru edo obari orregaz galtzen ebanaren ordeaz, udalaren esku gelditu zan bertatik igarotea jendeari kobratea edo peajea: lagun baktxari txori-txiki bat joan-etorria. Ta onegaz irabazten urten eban Ondarroa'ko udalak. 1928'garren urtean, 6.500 laurleko artu zituan: obariak ordaindu, bertako arduraduneri alogera be bai, ta beste bear zanari arpegi errez emoteko lain.

Zubiaren askundea izan zan egunean bertan. 1927'garren urteko maiatzaren 1'ean, beste askunde bat izan zan Ondarru'n: foralenzako etxe barria edo kuartela.

Orduan ez zan txapel-okerrik gure errian. Karabiñeroak egozan euren betiko zeregiñetarako; ta erri zaintzearen arduradun, Aldundiak ipiñitako foralak. Talde baktxean launa lagun inguru.

Azkenengo foralak euren ezizenez olan ezagutzen genduzan: *Talo*, Aurrezki Kutxaren arduradun izan zana; *Popo-ker* —*Popa-oker*—; *Juanito Kate*'ko forala; ta *Foral-andije*. Danak euskaldunak; au da, euskeraz ekienak. Azken aitatu doguna, matxinadea asi ta laster, frankotarren alderdira igaro zan.

Errizañen etxe au, bere aurreko alderdia, antxiñako gazteluren baten itxuraz arriz egindakoa, Aldundiak egin eban; eta ordurarte musika enparantza azpian izan zan, Bizkai'ko Aurrezki Kutxa bertara aldatu eben.

Larogetazortzi milla laurleko kostau zan.

Frankotarrak errian sartu ziranean, txapel okerren etxe biurtu zan, eta alan da arrezkero. Bizkai'ko foralak, erderaz *miñones* esaten geuntsenak, orduantxe amaitu ziran, Franco'ren gudariak Bizkaia menderatu ebenean.

Jakiña, Ondarroa'ko Aurrezki Kutxa be beste baten ipiñi zan: orain dagoan lekuan.

## Ontzitegiak edo astilleruak

**D**ANOK dakigun lez, Ondarroa'ko bizibide nagusia itxaso da. Ta liorreko langintzak be, danak itxasoagaz zer ikusia daukenak. Onetariko lenengoa itxasontzigintza da; astilleruak dira. Nik neuk iru ontzitegi besterik ez ditut ezagutu, eta len ziran beste bat edo bi nun egozan be entzun izan dot. Baiña len asko izan bear ziran ontzitegiak Ondarroa'n.

Astilleru ta eurretan egindako ontzien barri batzuk Zubikarai'tar Agustin'ek emoten ditu, ainbat bidar aitatu dogun bere *Egutegia*'n. Ara ondoren:

“T. Guiard'en esanetan, Arriolaneko astilleruak, 1878'tik 1911 bitartean, 583 ontzi egiñak eukazan”.

Dirudianez, era askotakoak ziran: ontzi andi eta zagako, potiñ, egurastu edo jolatekoak, bergantiñ, goleta ta abarretarikoak.

“Txalupagintzan entzute andia euki eben gure lantegiak, 1870'tik 1900 bitartean, maixu onak egon ziran lan onetan: Pedro Arriola, Tomas Ikaran, Jose Maria Garli, Bitor Urresti, Jose M. Aranbarri, Anton Arriola, Jose M. Agirre, Kandido Arriola, Jenaro Agirre, Agustin Legarda, Agustin Egurrola, Jose Zumeta, Jenaro Osa eta Domingo Aranbarri, beste batzuen artean”.

Beste batzuk orreitatik, beste bi oneik aitatzea merezi dabeela uste dogu: Paulino Urresti, oraingo Arriola'neko nagusietakoa; eta il arte Zaldupe'ko astilleruan ontzi txikiak egiten geratu barik jardundakoa: Ugalde'tar Teodoro.

1878'ko arrantzale ondamendiak ikusi ondoren, txalupa salbatzaille baten erdua billatzeko sariketa bat ipiñi eban Gobernuak, eta Anton Arriola'k irabazi eban.

Rafael Agirre'k *Estropada* liburuan diñoanez, 1916 arte euskal treiñeru —ta batel— geienak Ondarroa'n egiten ziran. Eta Serapio Mujika'ren *Geografía General del País Vasco Navarro* liburutik artuta, orduan Gipuzkoa'ko arrantzale erri batzutan egozan Ondarroa'n egindako batel eta treiñeruen zenbakiak emoten ditu. Gorago esan dan lez, orduko batel eta treiñeru geienak gure errian egiten ziran. *Estropada* liburuak ez dauka barri au; baiña Ondarrabia'ko orduko batelak Ondarroa'n egindakoak zirala esaten dau Serapio Mujika'k.

Ondarroa'n orain geratzen dan ontzitegi bakarrak lan asko euki izan dau gure denporan, batez be Franco'ren guda ostean.

Baiña gero arrasteko ontziak burdiñazkoak egiten asi ziran; eta, beste aldetik, bajurako ontzidia gitxiten joan da. Urteak dira bertan ontzi andirik egin ez dala. Olan, ba, Ondarroa'ko astilleru bakarrak bizi makala daukala esan bearrik ez da.

Ondarroa'ko astilleru kontuaz berba egiten asita, Arriola'nekoan egin zan itxasontzi andi bat aitatzea merezi dau.

Lenengo guda nagusi denporea zan. Alemandarrak, urpeko edo *sumarinoekaz*, euren arerioentzat ziran merkan-te itxasontziak jo ta ondora jaurtiten zituen, ondamendi ikaragarriak egiñaz. Beraz, onetariko itxasontzi premiña andia egoan. Burdiñazkoak nai beste ezin egin ba'ziran, olezkoak be zerbait on egingo eben; eta, alan, itxasontzi andi bat egiten asi ziran Arriola'nekoan: zortzireun toneladakoa. *Antzo Solo* bere izena. Izen au daben erreka tarte bat dago Ondarru'n. Beraz, bere jaubeak ere ez ziran urrunekoak izango.

Dana dala, amaitu zan, eta uretara jautiteko egun eldu: 1918'garren urteko San Pedroetan, egun bat atzerago edo

egun bat aurrerago, bertako langilleengandik geroago jakin nebanez.

Erria ez egoan aukera a galtzeko; ta itxasontzia uretara jaurtiten ikusi eitekean toki guztiak, jendez bete ziran. Ez nintzan zarra, bost urte oraindik egin barik neukazan da. Baiña neu be an nengoan, amagaz joanda, kontixu. Ta egon be tokirik onenean: Korreta-zarrean.

Musika taldea be joan zan, itxasontzia txirristaka astean musikea joteko ustean.

Erriko lau ontzi, bapor, gertu ziran, tiraka jarduteko. Ta, maria goienera eldu zanean, asi ziran tiraka; baiña alperrik. Al eben indar guztiagaz tira egiten eutsoen; eta, orain bati ta gero besteari, lokarriak eten be bai; baiña ontzia geldi astilleroan. Urrengo beste egun bitan be, ez eben lortu ontzia uretara ataratea. Ta, laugarren egunean, Bilbo'tik Sota'ren erremolkadore bat etorri zan, *Ibaizabal* izenekoa-edo; ta lenengo tengadan zirkin eragin eutsan, eta leun-leun etorri zan uretara.

Gero, jakiña, Bilbo'ra eroan eben, bere makiñeria ta abar ipiñi ta itxasorako eran egokitzen. Baiña Nerbion ibaitik geiago ez eban urten. Ordutik bi edo iru illabetera amaitu egin zan gudea, ta alako ontzien premiñarik ez zan. Ta Bilbo'ko ibaian gabarra zeregiña egiten-edo gelditu zan.

Ordutik ia amar urtera, antxe ibaian ikusteko aukerea izan neban. Bilbo'n, San Mames aldean, Jesus'en Biotzaren arrizko monumentua jaso edo, obeto esan, askundea izan eban eguna zan: 1927'garren urtea. Egun aretan, ogei-ogeitabost bapor jua ziran Bermeo'tik Bilbo'ra jai aretara. Ondarroa baiña Bilbo'tik urrun egiten da, ta jai orrek ez eban izan oiartzunik gure errian, eta ez zan bertara itxasontzirik jua. Bat bai, orratio. Ain zuzen, edo bearbada orretxegaitik, *Josuren Biotza* izenekoa. Ontzi onen bi edo iru jaubeetatik bat nire osaba Martin zan, bertako lemazaiña; ta beste jaubea, Iturriza'tar Boni, ondarrutarra au be, baiña Bilbo'n guztiz ezaguna, abots oneko abeslaria. Ta onen eskariz joango zan, kontixu, *Josuren Biotza* itxasontzia orduan Bilbo'ra.

Ondarroa'tik Bilbo'ra ontzi arek ia bost ordu bear zituan, ta goizaldean urten da joan giñan



Ontziko arrantzaleen gain, neu, oraindik amalau urte ez neukazan mutiltxo, joan nintzan. Ta, Nerbion ibaian goazala, gure osaba Martin *Antzo Solo* ontziagaz konturatu zan; eta, besteori jakin eragin naian, asi zan:

— An, an, an *Antzo Solo!*

— Baiña zein?

— Axe, kolore ederrekoa!

Kolore ederra? Zikiñak be nai ezta egoan.

## Erriko lanak

**1** 924-GARRENDIK 1928'garrenera bitartean egin ziran erri lan eta beste serbitzu batzuk.

### Urrutizkiña

Ordurarte Ondarroa'n zentrolean bakarrik egoan urrutizkiña, Iñora berba egin nai ebanak, araxe joan bear eban, nai ta nai ez. Baiña, bear zan tokian atea joaz, lortu zan urrutizkiña errian zabaltzea. Ta udal, Kofradia, lantegi ta etxe batzutan laster ipiñi eben. Nik lan egiten neban arrain lantegian, 19 eukan zenbakia.

Orain erriko etxerik geienetan, edo askotan beiñepein, dago urrutizkiña. Len, geure bizi guztian, urrutizkiña eskuetan artu barik egondakoak be, orain ttitteen-pottean bear dogu bera. Premiñak, askotan, ez dira benetako premiñak, oiturak baiño.

### Komunak

Ondarroa'n merkatu enparantzako komunak beti ezagutu izan doguz. Izan be, goizero, euren saldu-erosiak egitera joanda, an batzen zan andra jendetzak, ta gaur be bai, komunen bearra ba-eukan.

Baiña beste komun bi, goian aitatu dogun aldi orretan egin ziran: Lau-txurrutakoa ta Korreta-zarrekoa; ta merkatu enparantzakoa konpondu be bai.

Lau txurru eukazan arrizko iturri naikoa apaiña edo itxurazkoa, Alameda aurrean, bide-zabalaren beste aldean, egoan; eta, antxe bertan edo alboratxoago komuna egiteko, kendu egin eben. Baiña komuna egiteak toki a ez eban apaindu; ta, sarri arkitzen zan eran arkitzekotan: bustia, zikiña ta usain txarrekoa, kendu egin eben iru-lau urtera. Ta, ordutik urte batzutara, prankotarren denpora asieran, orain dagoan lekura, ibai ertzera, aldatu.

Korreta-zarrekoak geiago iraun eban; baiña a be kendu egin eben, zaintzaille bat ipiñi ezik, komunak zikinkeriarik andien biurtzen dira ta.

Lau-txurrutakoa, Korreta-zarrekoa ta merkatu enparantzako komunak egin eta konpontzea, 5.725 laurleko kostau ziran.

Lau-txurrutako komuna kendu ebenean, ordez, baztar-txu apain bat nai izan zan bertan egin, ura airera jaurtitekoa ipiñiaz. Baiña ura umeentzat bozingarako berebizikoa izaten da, ta a be kendu egin bear izan zan, eta orain zelai edo jardintxu polita dago bertan.

Orain ogei urte inguru —urte bi edo iru gora-bera— Alameda edo Zugazti erdian urtegi bat, ura airera jaurtiten daben orretarikoa, ipiñi zan, tokiaren apaingarri lez. Agirre'tar Juan alkate zala egin zan lan arek ez eban urte asko iraun. Etxea dotore eukiten ba-dakigu ondarrutarrok; baiña erriko apaindurak ez dauskue ardurarik emoten.

## **Ur kontagailluak**

Aldi aretan, ur geiago ekartea egin zan; baiña urari egokion beste zer edo zer be egin zan: ur kontagailluak ipiñi, erriko urak eukezenai.

Au zegaitik zan argi dago edonontzat. Asko barru nasai-koak izan oi gara; eta, poltsikoari miñik ez ba'dakartso, edo-zer gauza alperrik ondatzeko kezkarik ez dogu izaten. Ura-kaz be bardin jazoten da. Orregaitik, uragaz kontu andiagoa

izan gengian, ur kontagailluak ipiñi ziran, eta agiri-agiriko ona egin eben, urte areitako urik eza amaitu egin eben da.

Kontagailluak, batzuk eurenak ipiñi zituen, eta beste batzuk udalak ipiñi zituan, alokatze eran.

Kontagailluak, guztira, 33.137 laurleko kostau jakozan udalari; ta, urteko 6.627'50 laurleko emonaz, ordaindu zituan.

Ura, zazpi neurkin kubo arte, illeko amar erreal ordaintzen zan; eta ortik gora, amabost neurkiñerarte, neurkin bakotxeko lau txori-andi. Geiago gastaten ebenai, ta lantegi, ardandegi ta olakoentzat, beste arau batzuk egozan.

Emoten zan uraren balioa, urleko ogetamar milla laurleko izaten zan.

### **Tximistargia**

Len tximistargi ariak kaleetan marasma-etxe —armiar-ma sare— itxurea eukiten eben. Ariak, gora ta bera, ezkereruntz ta eskumaruntz, alde guztietatik alde guztietara joiazan. Dana izaten zan itxusikeria ta arriskua, gure kale estu ta zarretan. Aizeak alkar jo eragin eutsela, edo beste zerbaitek elkarri ikutu eragin eutsela, txinparta naikoa ataraten eben.

Tximistargi ariak denporeagaz lur azpitik joango zirala ikusi zanean, Ondarroa'ko udalak olako lenengo lana aldi aretan egin eban. Kofradia Barri'tik Arlanpa'ra bitartean, aga zar oker gaiñeko argiak kendu ta burdiñazko amar kale-argi edo farola ipiñi zituan, eta euretara tximistindar edo eletrezidadaea eroateko ariak lurpean ipiñi. Auxe izan zan, Ondarroa'n, lurpetik argi indarra eroaten egin zan lenengo lana.

Amari entzunda daukadanez, Ondarroa'n kaleetan ipiñi ziran argiak lenengo. Ta an egon ei ziran orduaren zain, zer ikusiko. Bera gaztea zanean izan ei zan ori.

Gu umeak giñanean, eta bearbada urte asko lenagotik, ba-zan argia etxeetan. Baiña orretan diru gitxi joaten jakun. Gure etxean, eta errikorik geienetan be bardin, kontixu, argi makal bat egoten zan eskaratzean, al ba'zan ate marku azpian, kanpo aldea be zerbait argitu eian.

Gure aita, arrantzalea izanaz gaiñera, aize oial edo bela egillea be ba-zan; eta urteko aldi batzutan, illundu ta gero be, makiñan bela josten ekin bearra izaten eban, eta beste argi bat be ezagutu izan neban etxean, aitag lana egiten eban gelan. Baiña, argi oni balio geiago atara naian, gela aretatik kanpora be bear zanean argi egin eian, aitaren gelan eta etxeko beste alderdiren baten txandaka argi egiteko modura ipiñita geunkan, ori egin eikean giltzagaz. Gaiñera, alderdi bietara batera, erdizka be, argi egiten ebala uste dot.

Orduan etxeetan kandelera edo argi-mutillak eukiten genduzan, bai argia amataten zanerako ta baita argirik ez egoan gela edo etxeko alderdian zerbait arkitu nai genduarerako be.

Argi barik gelditzen giñanerako, beste argi ontzi bat be ezagutu izan genduan etxean, ondarrutarrez *krusaillu* esaten geuntsana. Musturra apur bat luzea eukan burdiñazkoa; eta musturretik bera metxa apur bat ebala, orioa erreaz, argi egiten eban. Jaurtiten jakon orioa ezin merkeagoa izaten zan, kolajo —kolaxo— ta olako arraiñen tripakiak sartaiñan erre ta ataraten zana. Krusallua goi aldean ipiñi edo inkauten genduan, eta naikoa usain txarreko argi zikiña egiten eban. Ondarroa'n, *Krusaillu* desizena daukenak ba-dira.

Len, gure gazte denporan, errira tximistindarra ekarten ebana *Saltos del Río Ondárroa* izenekoa zan, Markiña'ko lagundia zan, edo an egoana beintzat.

Geroago, beste lagundi bat be asi zan errian argia emoten. Bere izenagaz aztuta nagon lagundi a, Mutriku'koa-edo zan.

Baiña, denporeagaz, lagundi orreik emon eikeen indarra baiña geiagoren bearra egoan, eta *Iberduero*'ren gain guztia gelditu zan.

Gero, gudea amaitu ta urte batzutan, tximistindarrrik eza izan zan. Bearbada, ludiko guda nagusiak okertuko eban auzi au be. Dana dala, lana geitzen asi zan, eta ez egoan bear ainbat argi indarrrik. Egunez indarra kenduten eben aldia be izan zan, eta gabaz lan egin bear izaten genduan. Geuk be, geure lantegian, andrak egunez arraiñez beteten zituen latak, gabaz itxi bear izaten genduzan; eta iñoiz eguna argitu be izan jakun, geure lanak ezin amaituta.

Baiña beti olan ezin izan eitekean, eta tximistindarra sortzeko tresnak ipiñi bear izaten ziran lantegietan; *alternadora* esaten jakona ta ori erabilteko lerkai motorra.

Baiña munduan, onak eta txarrak, danak dauke amaia, ta oneik be urte batzuen ondoren amaitu egin ziran.

### **Goiko Kalearen adokin arria**

Nik egia esan, gure denporea baiño lenagotik olan egongo zala uste neban. Baiña erriko barriak emoten dituan udaleko idaztiak garbi agertzen dau arazoa zelan zan.

*“En ella no hubiera resultado eficaz el engravado, pues siendo de gran desnivel, del que viene su nombre, la violencia destructora de las lluvias hubiera pronto arrastrado el firme; para evitarlo se acudió al adoquinado, ya que existía en otras calles de pronuncia pendiente, con positivo resultado”.*

Goiko Kalea arrizkoa egitea 10.800 laurleko kostau zan.

### **Ibai ondoko tokiak**

Ba-zituan udalak toki bi ibai inguruan egozan eran eze-tarako ez ziranak: bat, Kofradia Barria egin dan ingurua; ta bestea, Kamiño-Barrian, gero laterriko eskola barriak egin ziran tokia. Ta biak ondarrez bete ta toki baliotsu biurtu ziran.

Lenengo aitatu dogun tokian, denporeagaz, oraindik badirauen Iriondo'neko arrain lantegia egin zan. Baiña lenengoan, zan zulo andia ondarrez bete zanean, Alamedea egin nai izan zan; eta, ordutik laster, zezen enparantzea be biurtu zan uda bat edo bitan. Eta, barrako moillea luzatze-ko, ormigoizko bloketzarrak egin eta aldi baten bertan euki-teko be izan zan.

### **Zugaztiak**

Zugatzak errien apaingarri izaten dira, ta Ondar alderdi barriko kale ta zearkakoetan zugatzak ipiñi ziran. Baiña,

denporeagaz, erritarron ardurabakokeriz, geienak ondatu egin ziran.

Zugatz landarak aldatzea 750 laurleko kostau zan.

Ta, gorago diñogun lez, orain Iriondo'tarren arrain lantegia dagoan tokian eta aurrean, Zugazti bat egin nai izan zan, *Alameda* bat, eta ainbat landara sartu ziran bertan. Ta, bere askunde lez, Ondarroa'n egin izan dan lenengo Zugatz Jaia ospatu zan, erriko eskoletako ume guztiak eta udaleko ziñegotziak bertara joanaz. Baiña, len esan dogun lez, ez eban denporarik egin. Geienez be, urte bi edo iru.

Ez dakigu zegaitik kendu zan *Alameda*. Bearbada, bera salduta diru pilloa artuko zalako. Baiña, orduan kendu ez balitz be, ez dakigu gaur iraun al izango eban. Orain arrain kaia dago bere ondoan, eta ez da erreza izaten bertan batzen diran kamiñoiak tokia izatea.

### **Eskudelak**

Orduan egin ziran erri lanetatik bat, beko kaleetatik goragokoetara errezago igon al izateko zearkako mailladietako ormetan eskudel edo *pasamano* edo *barandillak* ipintea izan zan. Ipar-kalera, Kale Andira ta Goiko Kalera joiazan mailladietan burdiñazko eskudelak ipiñi ziran; eta baita Arrigorri'rako mailladi edo eskillaretan be.

Lanen kontua 1.175 laurleko izan zan.

Urteak joanaz, kale geiagotan be ipiñi ziran olakoak. Ostera, ondatuta egozalako, kendu egin ziran musika enparantzako ta *Alameda*'tik Arlanpa aldera egozan eskudelak; ta, ordez, arrizkoak egin. Au, jarrilekua. Ta musika enparantzakoa, barandilla antzekoa, tarteka jarrilekuak ipiñiaz.

## Ura

**E**Z dakit noiz ekarri zan ura errira Ondarroa'n, eta ezta be zein urtetan ipiñi zan lenengo ur askea edo depositua. Beste atal baten esaten dogunez, Zubikarai'k, erriko garbileku baten barri emotean, ekarteko ziran Baraikua'ko urak aitatzen ditu. Kontu ori 1827'garren urtekoa da. Beraz, ur aska ori izan eitekean Ondarroa'korik antxiñakoena. Baiña diñodan au ziurtatzeko errezoirik ez daukat.

Beste ur aska bat be ezagutzen dogu, gure gomuta baiño lenagokoa: Alliri baserri aurreko goiko aldean dagoana.

Garbilekuak alboan lagata, urak, etxeetan baiño len, kaleetan ipiñiko zituen, kontixu, geroago argiakaz jokatu zan lez.

Gure arazo onezaz jaso dogun barririk zarrena, Zubikarai'k emoten dabena da: Zubi-Barri ta Zubi-Zar ertzeko ur iturriak 1870'garren urtean ipiñi zirala. Au iturrietan bertan irakurten da. Iturri oneik ipintea gauza anditzat erriak artuko ebala esango genduke, eta erriko ur askatik ura artuaz ipiñitako lenengoak izango zirala, kontixu. Beintzat, erriko kaleetan makiña bat iturri ipiñi ziran; baiña aitatutako biak dauke bakarrik idatzita noiz ipiñiak diran. Eta, diran ezerezean be, Lau-txurruak kenduta —aspaldi aldentutakoa—, besteak baiño itxura ta balio geiagokoak dira.

Esan dogunez, iturri geiago be ba-dira Ondarroa'ko kaleetan, beste edonun egongo diran lez. Geienak erriko ur



askatik ura jatorkenak; eta bi edo iru, zuzenean menditik artzen dabeenak: Ipar-kalean bat; eliza ondoan bat; Goiko Kalean bat; Kale Nagusian ez dakit bat edo bi; Txapero'neko aurrean bat; Kantoipean bat; Kamiño barrian bat. Oneik danok erriko ur askako urdunak. Goiko Txurrua esaten dautsagunak ez dakit erriko ura ala berezkoa daben. Gero, beste iru ba-dira, edo egon izan dira, menditik zuzenean artzen ebenak: Iturribarri'koa, len ur metala; San Juan Txurru ta San Pedro Txurru.

Danetik urik onena zana edo entzuterik onena eukana, San Juan Txurrukoa. Eguerdi inguruan, edateko ur billa joanda, jende pilloa egoten zan, txandan artuaz. Orain, bertan etxeak egin dira ta tokiz aldatu egin dabe, ta lengo itxurarik ez dauko.

Euskal idazle lez erabilli neban lenengo izena, *Iturri-ondo*, iturri onetatik artu neban, bere alboan bizi giñan da. San Pedro-txurru bapeztu egin zan, ezkutau, gaiñean etxeak egin jakozanean. Iñoiz, ur gitxi zan denpora areitan, udaldian, udazaleen neskameak-eta, makiña bat denpora bertan galdu bear izaten eben, an etorren ur apurtxuagaz ontzitzu bat beteteko miñutu pilloa igaro bear izaten zan da.

Beste iturri bat mendi-mendikoa zan, Mustu-txurru eritxona. Antigua'tik Santa Klara bitarteko bidean, emendik urrerago, egoan. Gaur ez dau urik emoten, eta nun egon zan be ia ez da ezagutzen.

Gure ume denporan ez zan urik etxe askotan, eta kaleko iturrietatik eroaten zan, buruan zorki gaiñean edarrea ipiñita, andra askok esku biak beruntz dindilizka edo gerrian ipiñita zituela. Eta, euskaldunak bizibidea eben lan asko gero jokorako egin dituen lez —estropadak, zugatzak jaurtitea ta abar—, ur karreatea be bardin. Gu umeak giñanean, edarra jokoak izaten ziran Andra Mari jaietan. Andrak buruan edarrea artu —urez beteta izango zan— eta eskuakaz ikutu egin barik, pelota lekuari aruntz-onuntz batzuk zeiniek lenago egin.

Goratuago diñodan lez, gure ume denporan etxe asko ziran urik ez eukenak, eta gurean geuk ipiñi genduan.

Aldi aretan errian ur aska bi egozala ba-dakigu: Baraikua azpikoa ta Alliri gaiñekoa. Baiña gitxiegi ziran erriko premi-

ñetarako. Udan, legortea zanean, bien artean segundoko litro bi baiño geiago emoten ez zituen egunak izaten ziran. Orregaitik, udako legortetean, egun askotan, goizean ordubete ta arratsaldean beste ordubete bakarrik emoten zan ura.

Olan, ba, ur premiña larri au konpondu nairik, 1921'garren urtean, Olabe-erreka, Aizkibel eta beste erreka batzuta-ko urak artuaz, aska barri bat egitea erabagi eban udalak. Zelaia'tar Bitoriano arkitetoaren asmoetan egin eban Unamuno'tar Gregorio'k.

Lan egitamua 148.698'82 laurlekokoa zan; baiña errematean 126.386 laurlekora jatsi zan.

Lanak amaitu ta askundea 1924'garren urteko dagonille-an izan zan. Lanak, errematean esandako baiño geiago kos-tau ziran: 196.500 laurleko. Ori, oditza —*tubería*— lenengo-an esandakoa baiño neurri andiagokoa ipiñi ebelako izan zan: 150 milimetrokoa izan bearrean, 175'koa ipiñi zan; eta 240 neurkin kubokoa izan bear zan askearen orde, 345'koa egin zan.

Aldundiak euneko berrogei emon eban, urteko onenbes-teko bat; guztira, 60.169 laurleko.

Aska barria egin zanean, ur auzia betiko konpondu zala esan eban orren barri emon eban udalako ordezkariak. Ara orduko bere berbak:

*“Las cifras no pueden ser más elocuentes, habiéndose zanjado para siempre el problema de las aguas”.*

Ederto egoan!

Urak geitu ziranean, kale batzutako urbide edo odiak estuegiak ziran, eta zabalagoak, 150 milimetrokoak, ipiñi ziran Ipar-kale, Kai, Ama Neskutsaren ibilbide, San Inazio-kale ta Iltegi edo *Matadero* kalean. 8.000 laurleko kostau zan lana.

Errietan ur urritasuna betikoa ta danetakoa da. Lan andiak egin eta dirutza andiak eralgiaz, urte pillo baterako arnasea artu dalakoan gelditzen dira; baiña bereala ur geia-goren bearra izaten da.

Ondarroa'n be, gudate ondoren, ur premiña andia zan. Eta 1950'garren urte inguruan, ur asko aurkitu zala ta gogotsu lanean asi ziran. Berriatua'ko alkate zan Gasturu baserriko nagusi jaun Elordui'tar Jose Andres'ek aurkitu eban, edo beintzat Ondarroa'ko udalari jakin eragin eutsan, naikoa ur nundik ekarri eitekean gure errira.

Orretarako, lan andiak egin bear ziran. Besteaz gain, ainbat eunkak neurkin luze izango zan zuloa mendi azpitik, alderdi batetik bestera. Ta udalak, bear zan tokian atea jota, lortu eban bear zan laguntza. Ez nai baizen azkar; baiña eldu zan ura errira.

Egun andia izan zan egun a Ondarroa'n. Agintari nagusiak etorri ziran errira, ur barrien etorrerearen askundea ospatutera. 1955'garren urteko dagonillaren 17'a zan. Ta, ospatuten zanaren gomutagarri, iturri barri bat ipiñi zan ibai ertz gaiñean bertan, erreliebean, ura aurkitu ebanaren irudia ebala. Musikea jo genduan kalerik-kale, ta abesbatzak be jardunaldi bat egin eban.

Ur barria emotean, ur-bide edo odiak, *tuboak*, lertu be egin eitekezala esaten zan. Baiña ez egoan orren bildurrik! Gu ordutik laster Kamiñazpi'ra aldatu giñan bizitera, ta ur gitxi elduten zan ara. Gabaz zer edo zer. Gurean, barriz, ur asko bear zan: bost ume ta ni, arrain lantegiko lan zikiñekoa nintzan da. Eta goizean-goiz, ni lanera baiño len, Iturribarri'ko iturrira joaten giñan ur billa andrea ta biok. Lagun biren artean iru ontzi eroaten genduzan. Ta, alantxe, egunero bi edo iru ostera egiten genduzan, berreun neurkindik gora zituan bidean.

Nire andreak artu eban itxurea! Bere ernegaziñoan, bein baiño geiagotan aitatu eustazan, ur barriak zirala-ta jo genduzan kalerik-kaleko musikak.

— Olakorik! —esaten eban—. Iru bidar musikea kaleetan zear jo, ta gu ur tanta barik, karreoan lertu bearrean!

Ta alantxe zan. Iru bidar jo genduan musikea, urak zirala-ta: Madrid'ko gobernuak ur ekarte lana ontzat emon ebanean, lenengo; mendi azpitik egin zan zulo luzea amaitu zanean edo, zeatzago esateko, alde bietatik asi ziran zuloak

an barruan alkar jo ebenean, bigarrenez; eta len esan dodan ur ekartearen askunde egunean, irugarrenez.

Ta, ur kontu au konpondu barik egoala, Ondarrabia'ra aldatu giñan. Ta, ordutik urte bi baiño len, emon jakon konponketa ona auziari. Artibai ibaitik artu ta garbitzekoa ipiñi zan Okola'n, eta arrezkero naikoa ur da Ondarroa'n. 1967'garren urtean izan zan ori.

## **Merkatu enparantza gaiñeko terraza barria**

**O**NDARROA'N, gure denporan ezagutu dogun erri lane-tako bat, merkatu enparantza edo *Plaza de la Verdura* gaiñeko *terraza* da, 1930'garren urte inguruan egindakoa. Ordurarte, enparantza estalpe edo teillatua txapazkoa zan, burdiñazko abeak eutsigarri zirala. Ta ori kendu ta, ordez, orain daukan xapalda edo *terraza* dauka.

Ara ondoren, egitea erabagi zanean, emon ziran zeazta-sunak:

Terrazearen luze-zabalerea 524 neurkin laukotu, bere ertzean balaustrada apaiña ebala.

Lanak 26.677'21 laurleko kostauko ziran.

Lan egitamua Gimón'dar Pedro eraigilleak —arkitetoak— egin eban: eta lanak, Uribarren'dar Antonio'k. Iru illabeteko epea eukan, lanak egiteko.

Merkatu enparantzea, geienbat, egunero baserritarrak euren salgaiak saltzeko tokia izan da. Baiña ez orretarako bakarrik. Len aldi baten, antxoba denporan, arrain onegazko otzarak bertan ipinten ziran, arrain lantegietako erosleak zelakoak ziran ikusi eiezan.

Sarez betetako gurdi pilloa be egoten zan bertan. Baita oial, oiñetako, nai beste edozer saltzera kanpotik etorritako-

en tokia be bera zan. Merkatu au asteko egun baten izaten zala uste dot.

Ta jendearen egon edo eguras tokia be ba-zan, batez be neguan edo euria zanean. Bertan saltzen ziran gaztaiña erreak janaz, atsegiñez egoten giñan aruntz-onuntzean edo saredun burdientara urreratuaz.

Terrazea egin baiño bi-iru urte lenago, bertan egozan iru arategi, ordurarte olezkoak ziranak, kendu ta arrizko edo igeltsuzkoak egin zituen. Osasun bidea, hijienea, kontuan artuta, udalak orretara beartu zituan euren jaubeak.

## Kale estuak

**E**RRI guztiak daukez euren buruausteak. Ondarroa'k be bai bat baiño geiago. Ondarroa'k daukan erabagi bearreko buruausterik andienetako bat, bide kontua da. Ondarroa'n bidezabal bat besterik ez dago berebil eta gurdientzat, eta guztiz estua bera gaurko premiñetarako. Ta gure erria ezagutzen dabeen guztiak dakie emen beste biderik zabaltzerik ez dagoala. Beraz, aalak egin bear dira lengo bide sistriñak obeagotzen. Bidea, moilla edo kai aldean, errez zabaldu daiteke, iñori ta ezeri kalterik egin barik.

Au zelan leitekean danok dakigu, ta ez dago emen zetan barriro esan. Baiña kontuak Kofradixa ertzetik Zubi-Barriraiño tarteetan dira. Or, atzera edo aurrera, jokabide bakarra ikusten da: ibai aldera dagozan etxeak, zartu be egin dira ta, eraztean, barriak atzerago egin. Toki asko ez jake geldituko; baiña bai piso bakotxean etxetxo bana egiteko: ta goruntz dauke, alderdietara ez dauken tokia. Urteak joan, urteak etorri, ola jokatu bear izango dana iñok ezin ukatu daike.

Ta, asmo oni buruz, lenengo oinkadak emoteko ordua oraintxe da, errira egun batzuk igarotzera joan nazanean ikusi dodanez. Kale orretako etxe zar bat lurrera jaurti ta, bere ordez edo tokian, barria jasoteko lanean ziarduela ikusi dot. Ez dakit zer asmoagaz diarduen; ez dakit bidea noizbait zabaldu bear izango dan kontua buruan izan dabeen ala ez. Bildur naz olakorik iñori be gogoratu barik ez ete dabizan.

Dana dala, errietan lan txar asko egiten dira, erriko jendeak bear dan denporan berba egiten ez dakialako. Ez dakit orain alperrik berbetan ba'diardut be, kontu onegaz bear ebenak ni baiña len gogoratu izan dirala-ta. Obe ala ba'litz. Ta, ala ez ba'litz, jaso dot nik neure abotsa.

\* \* \*

**Oarra:** idazlan au *Agur* aldizkarian argitaratu neban, 18'garren zenbakian, 1971'garren urtean.

Moilla aldeko bide zabaltzea orain urte bi-edo egin zan —1980'garren urteko neguan, epaillean, diardut au idazten—. Lan on bat egin zan: jendearentzat joan-etorrirako ibai gaiñeko tokia. Alan, bai jendea ta bai berebillak, nasai ibiltzen dira bertan orain.

Baiña Zubi-Zarretik Zubi-Barrirako zatia beti lez dago: toki estua. Ta berebillak geitzen doaz, ta gero ta gatxago bertako aruntz-onuntza. Baiña, burua nekatu ba'lebe erriko agintariak, ba-eban orrek be bere konponketa. Lan andiak egin bear! Baiña ondoren ona izango eben lanak. Ibai aldeko etxe zar guztiak lurreratu, ta bardin *Plaza Berdura* izenekoa be; ta, bidea nai beste zabalduaz, ibai ondoragotik etxe ta bear ziran guztiak jaso. Baiña, arrezkero, lengo etxe ta abar zarretan lan asko egin eta diru asko emon da, ta beste lan ori egitea zaillago biurtzen da. Baiña, urteak aurrerago joanaz, beste biderik ez da izango. Nik ez dot ori ikusiko, baiña gure ondorengoak bai.



## Egazkiñak

**G**U umeak giñanean, urte gitxi aurreko kontuak ziran egazkiñak; urte gitxi lenago sortutakoak. Egazkin gitxi ziran oraindik; eta, iñoiz Ondarroa'ren gaiñetik bat edo bat igaroten ba'zan, umeok, gora, zeru aldera begira, didarka asiko giñan:

— An, an arioplanu!

Baiña, baten, urreragotik ikusi al izan genduan. Itxasotan, ur gaiñean, aberiatuta aurkitu eban Ondarroa'ko itxasontzi txiki batek, eta atoian errira ekarri eban, eta gero Kofradia barria egin zan inguruan laga. Orren barria errian zabaldu zanean, danok joan giñan bera ikustera, batez be mutil txikiak. Egun baten edo bian egon zan. Lotuta egoala, motorrak ibillian ipiñi ta saioak egiten be jardun eban. Txikia zan, baiña zarata andia ataraten eban.

Jendeak, guk,egan ikusi nai genduan. Baiña ez zan gauza, orretarako aberia apurren bat-edo eukan da. Ta ekarri eben, biaramonean-edo, bazkal ostean, eskolarako orduan, motor txiki birek atoian artu ta barraz kanpora eroan eben. An, itxaso zabalean, prantzes guda-ontzi bat egoan bere zain. Egazkiña be angoa zan, kontixu. Ta, an be ez ebala egan egiten ikusirik, eskolara joan giñan, naikoa berandu.

1920'garren urtea zan, urte bat gora-bera. Au jakiteko dodan errezoia auxe da: irugarren urtea neroian eskolan;

Sor Dolores'enekoan nenbillen. Ain zuzen, biaramonean giñan Lenengo Jaunartze edo komuniñoi txikia egiteko.

Lekeitio'n be, aldi aretan, egazkiñen bat itxasoan billatuta, errira eroan ebela uste dot. Beintzat, guk umetan ikasi genduan abesti batek ziñoana, gure auzo erri aretan jasotakoa zala esaten zan.

Iru areoplano pasa ta  
bat uretara jausi;  
ekarri,  
Seberiano'k ekarri,  
Seberiano'k ekarri,  
Seberianok  
barran fonduan itxi.

Orduko Lekeitio'ko egazkiñik ez neban ikusi, Baiña andik ogetak urtetara bai beste bat bertan, Lekeitio'n. Eta ederra, gaiñera. Bigarren au be, lengoa lez, ur egazkiña zan, *hidroabioia*. Eta moilla barruan egoan, itxasontzien ondoan.

Bigarren gudea amaitu ta laster izango zan. Lekeitio'n Eukaristi-jaia zan; eta igande arratsaldez ibildeunean musikea jo bear zala-ta, azkenengo orduan deitu euskuen, eta aringa-aringa joan giñan, autobusean sartuta. Baiña, ara eldu giñanean, oraindik ibildeunik ez zala atarako; ta, denpora igaroaz ara ta ona genbilzala, uste-uste barik egazkiña ikusi genduan moilleari lotuta.

## Ondarroa ta auzo erriak

**E**DONOIZ eta edozein alderditan, auzo erriak alkarrei ezin ikusia, ta gorroto be bai, izan dautsee. Gure erria be beti ez da ondo konpondu auzo erriakaz.

Ondarroa'ren auzo erriak iru dira: bi Bizkai aldean eta bat Gipuzkoa'n. Bearbada, beste era onetan bereiztea obe izango da: itxas erri bi: Lekeitio ta Mutriku; ta bat lur barru aldekoa: Berriatua. Eztabaida ta asarreak askotan bizi bi-deak sortutakoak izaten diralako, esan dogu olan sailkatzea zuzenago izan leitekeala. Beintzat, Mutriku'gaz eta Lekeitio'gazko asarreak geienetan itxasoan edo itxasoko arazotan izan dabe sortzea.

Berriatua'gaz izandako eztabaidetan, beti, erri bakoxtaren lurak zeintzuk ziran, euren jauntasuna zein lurretaraño zabaltzen zan, erri bien arteko mugak nun egozan argitu eziña jokatu izan da.

Berriatua, erri lez, noiz sortutakoa dan ez dakit. Baiña, beintzat, Ondarroa baiño antxiñagokoa zala esan leiteke, bien lurak noraiño elduten ziran kontuan artzen ba'dogu. Ondarroa'ren auzo erriak Lekeitio, Mutriku ta Berriatua dirala esan oi da. Baiña, gure auzo erria Berriatua dala bakarrik esanda be, txarto ez giñake geratuko legearen aurrean. Beintzat, Ondarroa, aurrean Kantauri itxaso ta beste inguru guztian Berriatua'gaz mugatzen da. Ondarroa'ko ezker aldetik, eta bai eskuma aldetik, itxasoraño el-

tzen dira Berriatua'ko lurrak. *Boga-boga* abestiak aitatzen daben Ondarroa'ko plaia be, Berriatua'rena da; edo, obeto esan, Berriatua da. Ta baita Zaldu azpiko *Zaldupe* izeneko ostiko jokoko zelaia be. Nire alaba biak be, Ondarroa'ko elizatik zuzenean berreun neurkin baiño geiagora jaio ez arren, erriz —elizaz ez— Berriatua'koak dira, naita an izan sua dala-ta bide ori agertuko leukean garbitasunik inun egon ez.

Auzo errien arteko mugetan olako nasteak ba-dakie egoten; eta Ondarroa'k be, Berriatua gaiñeko Milloi —Mereludi— auzoan, iru baserri eukazan. Ta, Zubikarai'ri irakurten dautsagunez, lengo gizaldietan urtero joaten ei ziran bertara, Eizmendi'ra, Ondarroa'ko agintariak; ta, jaubetasuna erakusteko, alkate ta juezak “bastoiak tente” eroaten ei zituen.

Len erri batak eta besteak zituen lurren luze-zabalaren barri jakin ez ta be, Berriatua asko andiagoa zala uste izatekoa da, ba Ondarroa auzo erri orren lurrean, altzoan, sortu zan.

Zubikarai'k arazo onetzaz emoten dituan barri labur batzuk ona aldatuko doguz zeatz-zeatz:

“Ondarroa'ko erri lege kartan, bere lurrak Amalloganetik Arranoate'n tartekoak dirala esaten da.

Agindu bertan esaten da Amalloko baserritarrak ondarrutar izango dirala, bai eta Gorozika guztia be.

Berriatua'k itxasertzaren zati bat saldu eutsan Gipuzkoa'ri, 1207 urtean.

1479 urtean, eleiz inguruko korretan batu ziran ondarru ta berriatuarrak, alkarren arteko asarreak erabagi eta konpondu nairik.

1699 urtean, erriko zubia arrizko egitea erabagi zanean, gure erriak dirurik ez eukalako, Berriatua'ri saldu eutsazan lur batzuk.

Asterrikako mugarriak zirala ta, berriatuarrak asarre 1827 urtean. Geiago ez zirala etorriko ta bakoitzak al bestean ten egiteko esan eben.

1969'ko egun onetan (21-4) agertu zan Madrid'eko Boleñean Ondarroa eta Berriatua bat egiteko agindua.

Berriatua ta Ondarroa batu aurretik, gure erriak 240 ektarea eukazan, eta zortzi milla ta erdi inguru bizi-lagunetan.

Berriatuak, gure erriagaz batzean, 2.095 ektarea eukazan, eta 1567 lagun.

Ondarroa eta Berriatua bitarteko 36 mugarri dagoz. Lenengotik azkenera: 7.254 metro”.

Goian alan badiño be, Ondarroa'k eta Berriatua'k ez eben bat egin, ez ziran alkartu, gure erriak bestea beretzat artu baiño. Berriatua'k, ordurarte izan eban erri nortasuna galdu egin eban, eta Ondarroa'ren auzo lez geratu. Ta, jakina, ori berriatuarrak iñundik iñora ez eben ontzat artu nai izan, eta autua ta eztabaidea naikoa izan zan. Baiña 1973'garren urte azken aldera-edo, erri bietakoak laterri ordezkariagaz egin zan batzarrean, ondarrutarren naia nagusitu zan, eta Berriatua Ondarroa'ren menpean geratu zan; edo, bestera esanda, Ondarroa'ren zati lez geratu zan, artu zan erabagiaren aurka geiago ezer egiterik ez ebala.

Bidebakokeria zan au niretzat, aberri batek bestea azpiratzea aiñakoa; ta ori esaten, idazlan bat *Agur* aldizkarian argitaratu neban.

Egia, Ondarroa ta Berriatua'ren mugak gaurkotu bearra ba-egoan. Ondarroa'n arkitzen dan eta Berriatua'rena dan auzo andi bateko serbitzuak gure erriaren gain egozan, bertako auzoa zan da. Beraz, Ondarroa barruan arkitzen diran auzo ta alderdiak, plaia edo ondartzea ta abar, gure erriari emotea gauza bidezkoa zan. Baiña erabagi zuzen bat artu eziñik ez egoan arazoa zan. Berriatua'k itxi nai ez zituan lurraldeak kendu bear ba'ziran, kendu; ta, ordaiñez lez, berari Eizmendi-ta biurtu. Baiña Berriatua berari, Ondarroa'tik bost kilometrora dagoan erriari, bearbada bere erraietan sortu ginduzan erriari, bere nortasuna kendu, ezelan be ez.

Mutrikuarrakaz be ondo ez giñala konpontzen uste izateko, Zubikarai'k aitatzen daben eta beste nunbait nik gomuta eragiten dodan Mutriku'ko misiñoetako sermoi bat, erri bien arteko Errotaberri baserriko zelaian egin zana, kontuan artzea naikoa da.

Ondarroa'ko Kofradiako kontularia izan zan Blas Iturri-za'k idatzitako *potpurri* idaztiak, gure erritarrak eta mutrikuarrak izan eben asarre ta iskamilla baten berri dakar.

Ondarrutarrok, mutrikuarrak lez, bultzia Deba'n artzen dogu. Orduan be ondarrutarrak Deba'ra zerbaitetara joan ziran, eta ba-ekien onunzkoan, ez naz gomutaten zergaitik, mutrikuarrakaz auskea izango ebena, ta makillak eskuetan zituela biurtu ziran erriruntz; jakiña, oiñez. Ta, uste eben lez, an ei egozan zain mutrikuarrak, Madalena'ko zubi gainean. Mutriku'ko alkateak, asarreak baketu naian, makillak lagateko eskatu ei eutsen ondarrutarrai, ta oneik nai ez. Baiña, azkenean be, egin ei eben alkatearen naia. Ondarrutarren jokabide orrek ez ei zituan baretu mutrikuarrak —bai zera!—, ta egundoko jipoia emon ei eutsen gure erritarrai. Auzia zergaitik zan orain ez daukat gogoan.

Ondarrutar arrantzaleak eta mutrikuarrak izan eben beste asarrea, nire ume denporan izan zan, nik amar urte be ez neukazala.

Itxasoan bear dan lez arrantzateko, gizontasunez euren lanak egiteko, oituraz ipiñitako arau edo legeak ba-dira. Besigutan, tretsak uretara jaurtiteko, ordu jakiña egoan kostako guztientzat: goizeko zazpirak zala ordua uste dot. Ordua eltzean, orretarako ziranak soiñu edo turruna joaz, abiadan tretsak uretaratzen zituen.

Baiña, baten, ondarrutarrak kalara eldu ziraneko, mutrikuarrak tretsak ordua baiño len jaurtita-edo, ondarrutarrak besteen tretsens eusle ziran mundil edo kulubiai lokarriak ebagi ta ainbat balio eben apaioak an urpean, ondoan, betiko galdu ziran. Ta, jakiña, asarre andiak izan zituen Gipuzkoa ta Bizkai'ko mugetan dagozan erri bietakoak.

Baiña asarre onek ez eban asko iraun. Beintzat, 1926'garren estropadak gure erriak irabazi zituanean, mutrikuarrak pozik artu eben ondarrutarren garaitza, eta gogoz txalotu be bai.

Lekeitiarrakaz be beti ez gara ondo konpondu, edestirako geratu diran bertso batzuk agertzen dabeenez. Azkue'k bere abesti bilduman sartutakoak, 1854'garren urtean erri bien artean jokaturako estropadeari ataratakoak, ez dira

Ondarroa goratzeko egiñak. Ta 1926'garren urteko estropadak zirala-ta Ondarroa'n atara ziranak, Bermeo ta Lekeitio'ren aurka destaiña naikoa jaurtiten dabe.

Txomin Agirre'k, *Kresala* bere irakurgaian, aitatzen dau Lekeitio'koakaz genduan ezin konpondua. Baten, "arraunketarik ospetsuena galdu" ta laster, ango andre zar bat etorri ei zan gure errira. Estropada a galtzeaz Ondarroa betiko ondatuta geratu zala ta zer janik be ez eukeala esanda ei egozan gure auzo erri orretakoak; eta andre zar areri imiñerdi baba zuri ta urdai zati bat emon ei eutsoen, gure errian ba-egoala zer jan da.

## Kamiñazpi ta beste zerbait

**O**RAIN iru-lau urte ezerezetik sortu zan Kamiñazpi gure auzo onek, gorakada ederra egin dau oraintxe. Orduan egin ziran eun da ogetamar etxeri, beste irureun inguru geitu jakoz orain. Eurok amaitu ta jendea bizitzera sartzen danean, bi milla lagun inguru biziko gara bertan. Makiña bat errirek gitxiago dauke.

Baiña bat-batean azten dan mutillak amari jantziakaz sortzen dautsazan lez, auzo onek be buruauste edo problema ugari sortu ditu.

Alan be, ixillik gagoz Kamiñazpi'kuok; dana iñok egin bear dauskulakoan gagoz.

Egia, gure problemai erabagi emoteko indar gitxi daukagu. Baiña beintzat kezkea erakutsi daigun, bear doguna emon deiguen eskatu daigun, erriko ardurea daukenei geure premiña gorria agertu deioegun.

Nire gaurko idazki au orretaraxe dator. Zaratea atara nai dot, emengo problemak eta kontuak argi ta garbi esan, eta egin bear dana egiten asi daitezela ardurea daukenak, arren eskatu.

Gure auzo onetan, biziteko etxetatik kanpora, iru dendetxo besterik ez dagoz: bi janari saltzekoak eta mertzeria orretariko bat. Ail, ta zapatari bat be badaukagu.



Ta akabo! Emen ez dago errian bear izaten diran milla gauzetatik ezer. Ez daukagu elizarik; ez daukagu ikastolarik; ez daukagu jantzi ta milla gauza erosteko bear izaten diran dendarik; ez dago emen zinerik, ez arandangia, ez jatetxe, ez kafe ta ez dantzarik. Berba baten esateko, emen ez dago ezer.

Oneik gauzok, asko, irabazia daukenak dira; ta, kontratistaren batek zerbait egingo baleu, lokalak nok artu ez litza-keala paltauuko uste dot. Komertzioa dala, arandangia dala, bizartegi bat dala, ipiñiko litzakez bear diranak.

Orretxegaitik, gure erriko kontratistei dei egiten dautset, Ondarru'ren onagaitik. Ba Kamiñazpi be Ondarru da, ta gure auzo onetan zerbait egiten asi daitezala.

Jakiña, irabazirik emoten ez dabeen gauzen premiñan be bagagozala ikusten dogu; ta onetariko bearrekoenak elizea ta ikastolak dira.

Zerbait esan nai dot elizeari buruz idazki onetan. Asmo eder batzuk artu ziran: elizea, ikastola, maixu-maistren etxe, umeen jolas toki ta abar egitea. Baiña asmook bete eziñeko ames batzuk baiño ez ziran, eta lur jota gelditu dira.

Orain ia ezereen itxaropen barik gagoz. Azkenengo Irutasun Deunaren jaietan, auxe entzun geuntsan bikario jaunari: meza emoteko lain izango dan eliza txikittoa ea lortzen ete genduan.

Ez dakigu, "mezea emoteko lain bada be izango dan elizatzoxo" berbeagaz, zer esan nai eban. Baiña, *misa de campaña* emoteko baiño geiagorako balio ez daben Santa Klara'ko elizatzoxo modukoa izatekotan, obe ez egitea. Meza emoteko lain bakarrik dan ermitatxoren bat egin ezkerero, ganorazko elizarik zati baten ez genduke ikusiko.

Nai izan ezkerero, astean bein ordubeteko mezarara urten ezin dabeen gitxi dagoz Kamiñazpi'n. Baiña mezararako erarik artu ezin dabenik badago, orrek ez dau pekaturik egiten, ez joanda be; ta orren kontuak atarata ez gara ibilliko auzo guztia.

Benetako elizea bear da Kamiñazpi'n; jendea barruan eroso artuko dabena.

Urteko jaia ipinten baiño ez dogu jakin kamiñazpitarrok. Umeak lez, besteen eskutik eta besteen esanetan ibilten bakarrik jakin izan dogu, Baiña geure arazoakaz geu ardura bear garala lenengo pentsau daigun; eta, bear danean, bear dan tokietara joan eta bear dan lez berba egiten asi gaitzen.

### **Aurrera txapeldun**

Fubola dala ta ez dala, igande arratsaldeak estu-estu igaroten dituen orretakoak ez gara. Baiña oraingo onetan aitatu barik ezin geratu geinke, igaro dan asteko emengo gertaerarik nagusiena orixe izan dalako. Or ibilli dira gure gazteak jira ta bira Atotxa'ra, Gipuzkoa'ko txapelaren billa; ta irugarren aldiz, nekez ta lorrez bada be, garaille urten dabe.

Barriak gara fubolean, eta onenbesteraiño eldu barik gengozan; eta lenengoz irabazi dogun txapelketa onek, asko poztu gaitu.

Olakoetan oi dan lez, ikusgarria izan zan euren etorre-rea, Bazan an jendea, "gora" didarra ta txaloa!

Alegiñik naikoa egin dabe gure ostikolari gazteak, eta txalogarri dira.

Zorionak eta gora *Aurrera!*


Egia esateko, lenago be garaille etorri izan dira Donostia'tik ondarrutarrak. Estropadara joan ziran guztietan —iru bidar—, irabazle izan ziran bertan, eta ikurrin bi ekarri zituen.

Jakiña, orreik lenagoko kontuak dira. Laga genduan betiko estropadea, ta orain fubola-edo izan bear, noizik bein bada be erriari olako poz aldiak emongo dautsazana.

# Arkibidea

Aurreko itza .....	7
Nire ume denporako eskolak .....	9
Musika bandia .....	20
Txistua edo tanboliña .....	39
Musika geiago jo bear da .....	43
Abeskatza .....	46
Lenengo zinea .....	52
Errepublikaren denporea .....	54
Auteskundeak .....	63
Eliza nagusia edo Parrokia .....	71
Elizakoak eta illetak .....	74
Elizako illobi edo sepulturak .....	79
Aste Santua .....	82
Misiñoiak .....	89
Antigua'ko kanpaiak .....	91
Komentuak .....	93
Aratuzteak .....	96
Arrantzaleen Kofradia .....	102
<i>Mutualidad Obrera de Artibai</i> .....	108
Langille alkarteak .....	111
Itxasontziak eta arrantzea .....	114
Nire umetako itxasorateak .....	126
Itxasoko ezbeurrak .....	130
Kaia .....	137
Estropadak .....	145

Aurrera ta kirol edo deportea .....	162
Txirringilketa .....	167
Ukabilketa .....	172
Antzerkia .....	177
Pelota tokia .....	179
Zubi-Zarra .....	185
Garbilekua edo <i>Errekia</i> .....	190
Korretea ta bere teillatua .....	192
Ondartzarako zubia .....	194
Ontzitegiak edo astilleruak .....	198
Erriko lanak .....	202
Ura .....	208
Merkatu enparantza gaiñeko terraza barria .....	213
Kale estuak .....	215
Egazkiñak .....	217
Ondarroa ta auzo erriak .....	219
Kamiñazpi ta beste zerbait .....	224
Arkibidea .....	227



## Jose Maria Etxaburu

Bere jaioterriaren kondaira eskeintzen digu liburu onetan Jose Mari Etxaburu ondarrutarrak. Ain oparo ematen dituan argibideen iturri nagusia ez dira, ordea, artxiboetako paper eta agiriak, bere oroimen arrigarria baizik.

Orregatik, liburu au bi jenero auen artean sartu bearko litzake: kondaira eta oroipenak. Kondaira dan aldetik, oso berri zeatzak eta ondo oiñarrituak ematen dizkigu. Oroipenak diran aldetik, berriz, oso kontraera bizi, bero eta atsegiña degu.

Ala, liburu onek bide berri bat zabaldu dezake. Etxaburu'k Ondarroa'koa egin duan bezela, beste batzuek, orrela komeni dala ikusirik, nork beren errikoa idatziko dute agian, gure kondairaren eta izkuntzaren mesederako.

ISBN 84-89080-17-8



9 788489 080171

G-